

uztaila ■ 2021

Diskriminazioa eta aniztasuna EAEn: ikuspegiak, esparruak eta kolektiboak

Julia Shershneva, Iraide Fernández Aragón (koord.)



CIP. Biblioteca Universitaria

Diskriminazioa eta aniztasuna EAEn [Recurso electrónico]: ikuspegiak, esparruak eta kolektiboak / Julia Shershneva, Iraide Fernández Aragón (koord.). – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2021. – 1 recurso en línea : PDF (202 p.)

En la cub.: Ikuspegi - Observatorio Vasco de Inmigración; Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea; Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-346-5.

1. Discriminación – País Vasco. 2. Discriminación - Opinión pública. I. Shershneva, Julia, coord. II. Fernández Aragón, Iraide, coord. III. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)316.647.82(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Urtea eta lekua: 2021, Bilbo
Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Diseinua eta maketazioa: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia
Dokumentazioa: Antonio Gómez Parada, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia
Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Azaleko argazkia: Ozan Safak
ISBN: 978-84-1319-346-5



AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
1. Hurbilketa teorikoa diskriminaziora	
Oier Ochoa de Aspuru eta Udane Herмосilla	9
2. Diskriminazioaren eta aniztasunaren analisi konparatiboa EAEn, Nafarroan, Estatuan eta Europan	
Julia Shershneva eta Maddalen Epelde	45
3. Diskriminazio anizkoitza EAEn	
María Ángeles Cea D’Ancona	65
4. Diskriminazio sexista: pertzepzioak eta bizipenak EAeko emakumeen artean	
Lía González eta Beatriz Otero	83
5. Bizitegi-diskriminazioa: eskubide bat komatxo artean	
Iraide Fernández, Arkaitz Fullaondo eta Gorka Moreno	105
6. Tratu-desberdintasuna eta laneko diskriminazioa EAEn	
Irene Ruiz eta Maite Fouassier	129
7. Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea (Basque Open-mindedness Index)	
José Antonio Oleaga, Iraide Fernández eta Taide Arteta	151
8. Euskadiko dibertsitatearen erronka	
Imanol Zubero	177
Eranskina: galdetegia	195



Aurkezpena

Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko borroka luzea izan arren, diskriminazioa oraindik ere gizarte modernoan erronketako bat da, gero eta aniztasun handiagoa baitute. Euskal gizarteak ez dago prozesu horietatik at; hortaz, aniztasunak modu positiboan kudeatu behar dira.

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzaren *Bizikidetzarako, Giza eskubideetarako eta Aniztasunerako 2021-2024 Planak* bereziki azpimarratzen du pertsona ororen berdintasunean eta diskriminaziorik ezan oinarritutako bizikidetzaren, eta, era berean, pertsona ororen eskubideak bermatzen ditu, aukera berdintasunari, interakzio sozial beteari eta bizikidetzari dagokionez. Aniztasunerako Euskal Agendaren helburuen artean, aniztasunaren balorazio eta kudeaketa positiboa, diskriminazioaren aurkako borroka, eta bizikidetzaren eta giza eskubideen sustapena sine qua non baldintzak dira gizarte kohesionatua eraikitzeko. Testuinguru horretan, diskriminazioak garrantzi berezia hartzen du, helburu hori lortzeko oztopo garrantzitsuenetako bat baita. Hori dela eta, Planak ezartzen duenaren arabera, Euskadin tratatu berdintasuna areagotzea eta diskriminazioaren aurka egitea da Aniztasunerako Agendaren lehenengo ekintza datozen urteetan.

Hala ere, ezinezkoa da diskriminazioaren eta desberdinkeriaaren aurkako borrokaren ibilbide orria ezartzea gaur egun euskal gizarteak diskriminazioaz eta aniztasunaz duen pertzepzioa ezagutu gabe. Kontuan hartuta Euskadik ez zuela gai horri buruzko diagnostiko sakonik, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak diskriminazioa eta euskal gizarteak aniztasunaz dituen pertzepzioak neurtzeko tresna bat osatzea planteatu zuen 2020an. Azkenean, inkesta bat egin zuten: Aniztasuna eta Diskriminazioa Euskadin 2020 inkestaren izeneko inkesta egin zuten *Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerari buruzko inkesta 2020* (EPADE 2020). Inkesta horri esker, batetik, euskal gizarteak bizitako eta hautemandako diskriminazioaren

egoera eguneratua lortu eta euskaldunek aniztasunari eta haren adierazpenei buruz dituzten jarrera eta pertzepzioak landu daitezke; eta, bestetik, fenomenoaren bilakaera monitoriza daiteke, denboran zehar jarraipena egin ahal izateko. Horretarako, Europako (EBko Diskriminazioari buruzko Eurobarometroa 2019), estatu mailako (IMIO CIS 2013 eta 2016) eta beste autonomia erkidego batzuetako (Nafarroako Gizarte Inkesta eta Bizi baldintzei buruzko Inkesta 2019) beste inkesta batzuk hartu dira erreferentziatzat. Hala, 2020an, Ikuspegik emaitzen lehenengo deskripzio txostena argitaratu zuen: “Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerari buruzko inkestaren analisia 2020”, zeinak xede duen Euskadin diskriminazioaren pertzepziora lehen hurreratzea egitea.

Jarraian aurkezten den lana, *Diskriminazioa eta aniztasuna Euskadin: ikuspegiak, esparruak eta kolektiboak*, lan kolektiboa da; bertan, EPADE 2020ren datuen azterketa soziologikoa egiten da, eta inkestaren emaitzak interpretatzen lagunduko duen hausnarketa sakonagoa ematen da. Horretarako, alde batetik, ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonen edo gizarte kolektiboek jasaten dituzten edo jasan ditzaketen diskriminazio esparruak identifikatzen dira, eta, bestetik, aniztasunarekiko irekitasun indize bat diseinatzen da, diskriminazioari eta aniztasunari lotutako jarrerak eta bizipenak monitorizatzeko. Inkesta honen lagina, 2020ko ediziorako, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan (aurrerantzean, EAE) 18 urtetik gorako pertsonen egindako aurrez aurre eta etxean egindako 1.200 inkestetakoak izan ziren, laginketa geruzatua erabilia (esleipen sinplea), habitataren tamainaren, jatorriaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin. Lagin errorea $\pm 2,8$ koa da, eta konfiantza maila, berriz, % 95ekoa.

Argitalpenaren egiturari dagokionez, nabarmendu beharra dago diskriminazioaren arlo eta alderdietan sakontzen dela argi eta garbi bereizitako zortzi kapitulu monografikoren bidez.

Horrela, liburu honetan, laneko eta etxebizitzako hainbat arlotan bizitako eta hautemandako diskriminazioaren inguruko gaiak jorratzen dira, baita generoarengatiko diskriminazioaren eta diskriminazio anitzaren inguruko gaiak ere. Gainera, EPADE 2020ren emaitzen eta Estatuko eta Europako beste inkesta batzuen emaitzen arteko analisi konparatibo bat egiten du.

Lehenengo kapituluan, Oier Ochoa de Aspuru eta Udane Herrosillak diskriminazioaren eta horren inguruko ikuspegiaren literatura aztertzen dute.

Bigarren kapituluan, Julia Shershnevak eta Maddalen Epeldek EPADE 2020ren emaitza nagusien eta Estatuko zein Europako zenbait egoeratako diskriminazioa aztertzen duten beste inkesta batzuen arteko analisi konparatiboa egiten dute.

Hirugarren kapituluan, María Ángeles Cea D’Anconak bi arrazoiri edo gehiagori egotzen zaion diskriminazioa aztertzen du, hots, diskriminazio anitza. Horrela, fenomeno horren kontzeptualizazioen eta neurketen berrikuspen sakona eskaintzen du, baita datuen aldagai anitzeko analisia ere, EPADE 2020n jasotako diskriminazio zuzeneko esperientzien kopurua zehazten duten aldagai soziodemografikoak ikertze aldera.

Laugarren kapituluan zehar, Lía Gonzálezek eta Beatriz Oterok diskriminazioaren analisia egiten dute genero ikuspegiaren arabera; horretarako, EAEko emakumeek sexuarengatiko edo generoarengatiko diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioak eta bizipenak landu dituzte.

Liburuaren bosgarren kapituluan, Iraide Fernándezek, Arkaitz Fullaondok eta Gorka Morenok Euskadiko bizitegi diskriminazioa aztertzen dute, eta, horretarako, etxebizitza eskuratzeko desberdinkeriekin lotutako alderdiak ikertu eta bizitegi diskriminazioa neurri handiagoan zein txikiagoan hautematen duten pertsonen profilak zehazten dituzte.

Seigarren kapituluan, Maite Fouassierrek eta Irune Ruizek laneko diskriminazioari buruz bizitako eta hautemandako esperientziak aztertu dituzte, arreta berezia eskainiz kolektibo zaurgarrienei eta Euskadin enplegua lortzeko orduan pertsonen kalte handiena eragin ahal dieten ezaugarriari.

Zazpigarren kapituluak, José Antonio Oleagak, Iraide Fernándezek eta Taide Artetak idatzitakoak, helburu du euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarrera laburtuko duen indize bat eskaintzea –aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea (*Basque Open-mindedness Index*)—. Indize hori ez da euskal gizartearen irekitasuna eta gizartearen aurrerapena neurtzeko termometro soila; izan ere, horren eboluzioa hainbat testuingurutan aztertzeko aukera ere ematen du.

Azkenik, zortzigarren kapituluan, Imanol Zuberok, ondorio gisa, aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruko hausnarketa soziologikoa egiten du ikuspegi teorikoago batetik, eta, era berean, aniztasuna kudeatzeko orduan euskal gizarteak aurre egin beharreko erronkak hautematen ditu.

Julia Shershneva

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria



Hurbilketa teorikoa diskriminaziora

Oier Ochoa de Aspuru Gulin
Udane Hermosilla Fernández

Azterketa soziologiko bat egin baino lehen, esparru teoriko eta kontzeptual bat finkatu behar da, irakurlearentzat testuinguru bat ezartzeaz gainera, hori beharrezkoa baita, ikerketa zer eremu teorikotatik egin den argitzeko. Azterlan guztiek behar badute ere, lan honetan funtsezkoa da, ikerketa honetan termino askotarikoak eta ugari erabiltzen direlako, eta, beraz, lana ulertzea ezinezkoa izango delako, ez badakigu kontzeptu bakoitzari zer definizio dagokion. Kontzeptu horiek, gainera, konplexuak dira, eta osatuz doaz etengabe; izan ere, gure gizartean kategoría batzuk baztertzeko eta beste batzuk deseraikitze beharra dago, eta, hola ez, inklusiboagoak diren beste batzuk eraikitze behar horri erantzuten diote, hain zuzen ere, kontzeptuok. Bestela esanda, definizio eta ikuspegi berriak landu behar dira, errealitate aldakor eta anitza ulertzen lagunduko digutenak, eta ikerketarako eremu berri bat sortuko dutenak.

Hori horrela, kapitulu honetan, “diskriminazio” kontzepturako hurbilketa teoriko bat egingo dugu, horixe baita ikerketa honen begiradaren eta emaitzen protagonista. Atal hau hurrengo kapitulueterako esparru teorikoa eta kontzeptuala izango da, eta, hurrengo kapituluetan, diskriminazioaren zenbait alderdi edo dimentsio landuko ditugu, eta fenomeno hori azaltzen ahaleginduko gara.

Hori horrela, atalari hasiera emateko, diskriminazioaren kontzeptualizazio labur bat egingo dugu; jarraian, dauden diskriminazio motak bereiziko ditugu, eta horien motibazioetako batzuk eta espainiar eta euskal testuinguruetan duten eragina azalduko. Bukatzeko, interseksionalitate-ikuspegira eta haren ekarpen nagusietara hurbilduko gara.

Diskriminazio kontzeptua

Gizakiak anitzak dira berez; pertsona bakoitzak berezitasun eta ezaugarri jakin batzuk ditu, gainerakoengandik bereizten dutenak eta gainerakoekiko desberdin egiten dutenak (Echeita, 2013). Hori horrela, zenbait aniztasun mota bereizten ditugu: aniztasun kulturala, erlijio-aniztasuna, aniztasun etnikoa, hizkuntza-aniztasuna, sexu- eta genero-aniztasuna, aniztasun funtzionala... Testuinguru horretan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (Nazio Batuen Erakundea, 1948), hasteko, gizaki guztien berdintasuna aldarrikatzen du, pertsona izate hutsagatik. Berdintasun hori giza eskubideen unibertsaltasunarekin lotuta ageri da; hori horrela, pertsona guztiak berdina dira legearen aurrean, eta guztiek eskubide berak dituzte, haien ezaugarri edo egoera pertsonalak edozein izanda ere.

Berdintasun horren parean, diskriminazio kontzeptua erabili izan da pertsona edo kolektibo bat, arrazoi edo desberdintasun jakinik gabe, desberdindua izan den eta biztanleriari orokorrean ematen zaiona baino tratu okerragoa eman zaion egoerak definitzeko eta horiei erreferentzia egiteko, horrek pertsona gisa dagozkion oinarritzko eskubideak urratzen baititu (Solia Baleycorn eta López Pietsch, 2015). Ildo horretatik, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak honela definitu zuen diskriminazioa bere 18. Ohar Orokorrean:

Arrazoi jakinetan —hala nola arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza sozial— oinarritutako bereizketa, eskusio, murrizketa edo lehentasun oro, pertsona guztiei giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasun-baldintzetan aitortzeko eta guztiek horiek baliatu eta erabili ahal izateko aukera deuseztatzea edo gutxitzea duena xede edo emaitza (Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea, 1989: 2).

Diskriminazioaren ardatz-elementuetako bat da eskubideak eta askatasunak kaltetzeko ahalmena. Rodríguez Zepedaren (2006) hitzetan, mesprexua diskriminazioaren oinarrian badago ere, horrek ez du esan nahi mesprexuzko egintza guztiak diskriminatzaileak direnik. Hau da, mesprexuzko egintza guztiak ez dira diskriminatzaileak, baina egintza diskriminatzaile guztiak mesprexuzkoak dira. Hortaz, egintza bat diskriminatzailea izango da, baldin eta “nahita ukatzen baditu zenbait eskubide, hala nola hezkuntza, lana eta osasuna izatekoak, edo, bestela, ez badu ezer egiten pertsona jakin batek eskubide horiek baliatzeko benetako aukerak izan ditzan” (*Ibidem*: 27).

Diskriminazioa da tratu desberdina ematea arrazoi jakinengatik, hala nola ezaugarri fisikoengatik, jatorri etnikoagatik, genero-orientazioagatik eta/edo -nortasunagatik edo erlijioagatik, besteak beste. Zentzu horretan, diskriminazioa jokabide sistematikoa da, oinarri kulturaletan bermatua, eta sozialki hedatzen

dena. Ezin dira egintza jakin batzuk bakarrik izan; talde edo kolektibo jakinekiko mespretxuaren adierazpen sistematikoa izan behar du (Ibidem). Merezi gabeko desabantaila-egoera bat da, diskriminazioa jasaten duen kolektiboko kideek ez baitute ezer egin egintza horien xede izateko, kolektibo horretako kide izateaz harago.

Egoera horiek zer esparrutan gertatzen diren aztertuz gero, esan behar da, izaera soziala dutenez, bi pertsonak edo gehiagok elkarrekin harremanak dituzten edozein eremu publikotan edo pribatutan gerta daitezkeela (Solia Baleycorn y López Pietsch, 2015). Hala eta guztiz ere, zenbait esparrutan intentsitate edo maiztasun handiagoz gertatu ohi dira.

Estatu Batuetako National Research Council (2004) elkartearen arabera, bost esparru nagusitan gertatu ohi dira, batez ere, diskriminazio-egoerak: lan-merkatuan, hezkuntza-esparruan, egoitzaren esparruan, justizian eta osasun-sisteman. Eta, esparruka egindako bereizketa horren barnean ere, kontseilu horrek berak azpimarratzen du diskriminazio hori ez dela beti modu berean gertatzen, eta zenbait unetan eta zenbait modutan ager daitezkeela. Arlo horretara sartzean egin daiteke diskriminazioa, edo haren barne-funtzionamenduan, edo haren baitan mailaz igotzeko edo hobetzeko unean (1. koadroa).

1. koadroa. Bost esparru nagusietako diskriminazio-puntu nagusiak

	Lan-merkatua	Hezkuntza-esparrua	Egoitza-esparrua	Justizia	Osasun-sistema
Diskriminazioa sarbide-prozesuan	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio-prozesua - Lan-elkarrizketa - Langabezia 	<ul style="list-style-type: none"> - Honako hauetarako sarbidea: unibertsitatea, hezkuntza-programa bereziak, etab. - Bekak eta ikasteko laguntzak 	<ul style="list-style-type: none"> - Egoitza-segregazioa - <i>Redlining</i> (maileguak ukatzea, bizilekuaren arabera) 	<ul style="list-style-type: none"> - Poliziaren jokabidea - Atxiloketak 	<ul style="list-style-type: none"> - Zainketetarako sarbidea - Mediku-aseguruak
Diskriminazioa erakundearen edo zerbitzuaren barruan	<ul style="list-style-type: none"> - Soldata - Lan-giroa - Lankideen ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaitasunen arabera banantzea eta multzokatzea - Ikasleen ebaluazioa eta kalifikazioa - Ikasketa-giroa - Ikasle bakoitzeko gastua 	<ul style="list-style-type: none"> - Maileguaren zenbatekoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Poliziarengandik jasotako tratua - Lege-ordezkaritzaren kalitatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Arretaren kalitatea - Prezioa
Diskriminazioa mailaz igotzean	<ul style="list-style-type: none"> - Sustapena - Kaleratzea - Birkontratzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Sustapena eta graduazioa - Atxikipena 	<ul style="list-style-type: none"> - Birsalmentarako balioa - Aberastasuna pilatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Baldintzapeko askatasuna - Epaia 	<ul style="list-style-type: none"> - Mediku-azterketara edo -kontsultara igortzea
Eragile giltzarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratatzailea - Bezeroak - Langileak 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak - Administrazio-langileak - Ikasleak 	<ul style="list-style-type: none"> - Jabea - Komertzialak - Mailegu-emaileak - Bizilagunak 	<ul style="list-style-type: none"> - Polizia - Fiskaltza - Epaitegiak - Baldintzapeko askatasunaren batzordea 	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-langileak - Administrazio-langileak - Aseguru-etxeak

Iturria: National Research Council (2004) kontseilutik egokitua.

Formula hori lan-esparruan aplikatuta —hor ikusten da errazen, ziurrenik—, pertsona batek diskriminazioa jasan dezake lanpostu bat lortzeko hautespen-prozesuan —lan-elkarrizketa, etab.—, jazarpena eta *mobbinga*¹ jasan ditzake lankideen aldetik, eta aginte-posizioetako pertsonen mespretxua ere jaso dezake, eta horrek erakundearen baitan mailaz igotzeko eta enplegu hobearekin lortzeko aukerak kenduko dizkio.

Hortaz, diskriminazio-ekintza da bereizketa, eskusioa, murrizketa edo lehentasuna ezartzen duen ekintza oro. Hala eta guztiz ere, zehaztu behar da, diskriminazio-ekintza guztiek kolektibo jakin bateko pertsonen tratua desberdina ematea badakarte ere, tratua desberdina ematen den ekintza guztiak ezin direla diskriminaziotzat jo. Europako Kontseiluak (2017a) dio tratua desberdina eta lehentasunezkoa eman behar zaiela diskriminazio pairatzen duten edo pairatu izan duten taldeetako pertsonen. Orain arte aipatu dugun diskriminazio negatiboaren kontrako aldean, *diskriminazio positibo* delakoak kolektibo jakin bateko pertsonen eragiten dien egiturazko diskriminazioa² zuzentzeko eta orekatzeko balio du.

Hala eta guztiz ere, eta Arrazagatiko Diskriminazio Oro Desagerrarazteari buruzko Nazioarteko Hitzarmenak gogorarazten digun eran, diskriminazio positiboko neurrien “ondorioa ezin da izan arraza-talde jakinentzat eskubide desberdinak edo bereizkiak finkatzea, behin neurrien helburuak lortu direnean” (Nazio Batuen Erakundea, 1965: 3). Desberdintasuna zuzentzea xede duten ekintzak dira, eta, beraz, haien iraupena helburu horren lorpenarekin lotuta dago.

Diskriminazio motak

Dauden diskriminazio motei dagokienez, bai araudi europarrak —Europar Batasunaren Kontseiluaren 2000/43/EE Zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, pertsona guztiak berdintzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa, arraza- edo etnia-jatorria edozein izanik ere—, bai araudi nazionalak —martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa—, bi diskriminazio mota bereizteko joera dute: *diskriminazio zuzena* eta *zeharkako diskriminazioa*.

¹*Mobbing* edo laneko jazarpen esaten zaio honako honi: lan-esparruan gertatzen diren ekintza erasokorrei edo tratua iraingarriari; arazo profesionalak edo psikologikoak eragin ditzake pairatzen duen pertsonaren osasunean.

²Egiturazko diskriminazioak egitura sozialetik bertatik datozen “xedapen orokorretatik”, horien praktiketatik eta horrek dakartzan desberdintasunetatik sortzen diren egoera diskriminatzaileei egiten die erreferentzia.

- **Diskriminazio zuzena**

Diskriminazio zuzena da pertsona bat beste pertsona bat baino okerrago tratatzea, antzeko egoera edo egoera alderagarri batean, etniarekin, erlijioarekin, desgaitasunarekin, adinarekin edo sexu-orientazioarekin lotutako arrazoiengatik (Eraberean, 2018). Europako Kontseiluak (2017a) dioenaren arabera, diskriminazio zuzenean, kolektibo jakin bat diskriminatzeko asmo garbia dago; adibidez, lege jakin batean aurreikusitako ezaugarri jakinak izatea.

- **Zeharkako diskriminazioa**

Diskriminazio zuzenarekin alderatuta, zeharkako diskriminazioa ez da sortzen talde edo kolektibo jakin bat diskriminatzeko asmotik. Aitzitik, itxuraz neutrala den xedapen, irizpide edo jardunbide batek talde bateko kideentzat neurri kanpoko desabantaila eragiten duenean sortzen da (Europako Kontseilua, 2017a).

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak aztertzean, zeharkako diskriminazioaren adibide klasikoa baita hori, lanaldi partzialeko soldatapeko lanari eragiten dioten xedapenetan aurkitzen dugu, adibidez. Aguilera Rullek (2007) azaltzen duen eran, emakumeek neurri handiagoan erabiltzen dute lanaldi erdiko kontratazioa. Errealitate hori etxeko lanez eta ugalketa-lanez arduratzeko derrigortasun historikoarekin lotuta dago; horren ondorioz, gaur egun ere, "lanaren banaketa" jakin bat dago: gizonek ordu gehiago ematen dituzte merkatuko lanetan, eta emakumeek, aldiz, kontratupeko lan ordainuaren eta ordaindu gabeko zaintza-lanen artean banantzen duten eguneko jardunaldia (Federici, 2018). Hortaz, lanaldian gutxieneko ordu kopuru jakin bati abantaila ematen dioten neurri guztiek emakumeak kaltetzen dituzte neurri handiagoan.

Cea D'Ancona y Valles Martínez (2018) egileek, beren aldetik, diskriminazioaren azterketan sakondu dute, eta *diskriminazio aitortua* aipatzen dute; pertsonak bizi izan dutela adierazten duten hura da. Ildo horretatik, *diskriminazio aitortu zuzena* izango lirateke pertsonak lehen pertsonan bizi izan dituztela dioten diskriminazio-kasuak, eta, aldiz, *zeharkako diskriminazio aitortua* izango lirateke pertsonak ikusitako diskriminazio-kasuak.

Kategoria horiez harago, beste pertsona eta erakunde batzuek tipologia hori zabaldu dute, eta dimentsio gehiago erantsi dituzte. Adibidez, Tratu Berdintasuna eta Arraza edo Etniagatiko Bereizkeriarik eza Sustatzeko Kontseiluak (2012), diskriminazio zuzenaz eta zeharkakoaz gainera, honako hauek ere bereizten ditu: *diskriminazio anizkoitza*, *jazarpen diskriminatzailea*,

errepresalia diskriminatzailea, asoziazioagatiko diskriminazioa eta akatsezko diskriminazioa.

- **Diskriminazio anizkoitza**

Batzuetan, gerta daiteke pertsona bat diskriminatua izatea arrazoi bategatik baino gehiagorengatik aldi berean. Hau da, desabantaila-talde batekoa baino gehiagotakoa izan daiteke aldi berean, eta horrek diskriminazioa larriagotzen du, eta forma espezifikoak hartzen ditu diskriminazioak (Rey Martínez, 2008). Esate baterako, emakume ijito lesbiana bat emakumea, ijitoa eta lesbiana izategatik izan daiteke diskriminatua. Ildo horretatik, hautematen zailenetakoa da diskriminazio anizkoitza; izan ere, gerta daiteke pertsona bat zenbait arrazoigatik diskriminatua izaten aritzea, baina egiaztatu egin behar da gutxienez bi arrazoigatik ari dela diskriminatua izaten aldi berean (Eraberean, 2018).

- **Jazarpen diskriminatzailea**

Jazarpen diskriminatzailea da pertsona baten duintasunari erasotzeko xedez egindako edo ondorio hori duen jokabide oro; ingurune beldurgarri, aurkako edo umiliagarria sortuz egiten da hori (Eraberean, 2018). Jokabide hori pertsonaren jatorri etnikoarekin, erlijioarekin, desgaitasunarekin, adinarekin edo sexu-orientazioarekin egon daiteke lotuta. Langileen Batasun Orokorraren (UGT) (2013) arabera, jazarpen diskriminatzaileak jazarpen moralaren³ ezaugarri berak ditu, eta, hortaz, sortzen den giro beldurgarriak kalteak eragin ditzake hura jasotzen duen pertsonaren osasunean.

- **Errepresalia diskriminatzailea**

Errepresalia diskriminatzailea gertatzen da, diskriminazioa edo jazarpena salatzeke prozesu batean parte hartu edo errekurtsu bat aurkeztu izanagatik, errepresalia bat sortzen denean pertsona edo talde diskriminatzailearen aldetik (Tratu berdintasuna eta Arraza edo Etniagatiko Bereizkeriarik eza Sustatzeko Kontseilua, 2012).

- **Asoziazioagatiko diskriminazioa**

Diskriminazioa pairatzen duten pertsonen eta kolektiboen harago, horiekin harremanak dituzten pertsonak ere izan daitezke jokabide horien xede. Hortaz, asoziazioagatiko diskriminazioa gertatzen da

³Jazarpen moralak edo jazarpen psikologikoa da pertsona bati hura psikikoki ezegonkortzeko ematen zaion tratu iraingarria.

“pertsonek edo talde batek tratatu diskriminatzailea jasotzen duenean, beste pertsona edo talde batekin duen harremanagatik” (Eraberean, 2018).

- **Akatsezko diskriminazioa**

Akatsezko diskriminazioa honako hau da: batzuetan, pertsona edo talde bat diskriminatua izan daiteke hari buruzko edo haren ezaugarriei buruzko asoziazio oker bategatik, ez dagokion kolektibo bateko kide zela sinetsita akatsez (Tratu Berdintasuna eta Arraza edo Etniagatiko Bereizkeriarik eza Sustatzeko Kontseilua, 2012).

2. koadroa. Diskriminazio motak eta adibideak

	Definizioa	Adibidea
Diskriminazio zuzena	Pertsona bat beste pertsona bat baino okerrago tratatzea, antzeko egoera edo egoera alderagarri batean, etniarekin, erlijioarekin, desgaitasunarekin, adinarekin edo sexu-orientazioarekin lotutako arrazoiengatik.	Gizon batek eta emakume batek soldata desberdina jasotzen dute, lan bera eginda ere.
Zeharkako diskriminazioa	Itxuraz neutrala den xedapen, irizpide edo jardunbide batek talde jakin bateko kideentzat neurritz kanpoko desabantaila eragiten duenean sortzen den egoera.	Sarbide egokiturik ez dagoenez, mugikortasun murriztua duen pertsona bat ezin da jabetxe batera sartu.
Diskriminazio aitortu zuzena	Pertsonak berak zuzenean jasan dituen diskriminazio-egoerak.	Pertsona homosexual bat diskriminatu dute sexu-orientazioagatik.
Zeharkako diskriminazio aitortua	Pertsonak beren ingurunean ikusi dituzten diskriminazio-ekintzak.	Pertsona batek ijito batenganako diskriminazio-ekintza bat ikusi du.
Diskriminazio anizkoitza	Pertsona bat diskriminatua izatea arrazoi bategatik baino gehiagotatik aldi berean; diskriminazio horiek bat egin eta elkar elikatzen dute.	Lanpostu bat lortzeko prozesuan, emakume atzerritar batek sexismo arrazializatua pairatu du.
Jazarpen diskriminatzailea	Pertsona baten duintasunari erasotzeko xedez egindako edo ondorio hori duen jokabide oro; ingurune beldurgarri, aurkako edo umiliagarria sortuz egiten da hori.	Bizilagunek pintadak egin dizkiote familia atzerritar bati.
Errepresalia diskriminatzailea	Pertsona batek errepresaliaren bat jasotzea, bidegabeko egoera bat salatzekeko prozesu batean parte hartu izangatik, pertsona edo talde diskriminatzailearen aldetik.	Pertsona bat lanetik bota dute, lan-diskriminazioagatik salaketa bat jarri ostean.
Asoziazioagatiko diskriminazioa	Pertsona batek tratatu diskriminatzailea jasotzea pertsona edo talde jakin batekin duen harremanagatik.	LGTBI+ eskubideen defendatzailea den pertsona bat baztertua, kolektiboko kide izan ala ez.
Akatsezko diskriminazioa	Pertsonaren ezaugarrien hautemate oker batean oinarritutako diskriminazioa.	Ikaskideek pertsona bat diskriminatzen dute, homosexuala dela uste dutelako.

Iturria: geuk egina.

Diskriminazio-arrazoia

Diskriminazioak alderdi ugari dituenez, zenbait formatan ager daiteke, eta era askotako arrazoietan oinarrituta egon daiteke. Hori horrela, diskriminazioa pairatzen duten pertsonak *talde minoritario* esaten zaien horietako kideak izan daitezke, botere-egituretatik eta gizarte-arauetatik kanpo daudenak, eta, ehunekotan, txikiak direnak gizartearen baitan; adibidez, pertsona atzerritarrak edo homosexualak. Alabaina, horrek ez du esan nahi diskriminazioa pairatzen duten talde guztiak gutxiengoa direnik; hori gertatzen da, adibidez, sexuaren/generoaren edo adinaren arabera diskriminazioan. Jarraian, diskriminazioaren arrazoi nagusietako batzuk aipatuko ditugu, eta hurbilketa laburra egingo dugu haien oinarrietara eta egoeretara, eskuragarri dauden azken datuen arabera, bai estatu-mailan, bai erkidego-mailan.

Sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioa

Sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioa da, sistema patriarkalaren baitan, emakumeari botere gutxiago ematen dioten metodoen multzoa; horrek eskubideak baldintza berdinetan lortzea eragozten die emakumeei, bai eta giza potentzial osoa garatzea ere; eta, aldi berean, pribilegioak eta botere sozial handiagoa ematen zaie gizonei (Emakunde, n.d./2021a). Ikerketa Soziologikoen Zentroak egindako CIS-3000 inkestako datuen arabera, hori da gizarte espainiarrean nagusi den diskriminazio mota; izan ere, biztanleen % 11,4k dio bizitzan zehar noizbait diskriminatua izan dela (Damonti, 2014).

Sistema patriarkalaren ezaugarri nagusietako bat da, itxuraz, ikusezina dela. Hau da, formalki berdinzalea den gizarte batean, gauzen ordena arrunt eta naturalarekin estaltzen da desberdinkeria; hori horrela, emakume askok ere ukatu izan dute, eta ukatzen dute, halako desberdintasunik dagoenik (Miguel Álvarez, 2008; 2016). Testuinguru horretan, Glick eta Fiske egileek (1996) sexismoaren kontzeptualizazio anbibalente bat proposatu dute. Anbibalentea, bi osagai bereziki —baina lotura estukoek— osatuta dagoelako, eta sexismo zaharraren eta berriaren konbinazioa delako: *etsai sexismoa* eta *sexismo onbera*. Bi sexismo horietako lehenengoa emakume-taldearen ustezko gutxiagotasunean edo desberdintasunean oinarritzen da, eta haien aukerak kaskarragotzat jotzen diren roletara mugatzen dira (Ibidem). Sexismo onbera, bere aldetik, sexista da emakumeak estereotipoen arabera ikusten dituelako, baina, lehenengo sexismoak ez bezala, kutsu afektiboa du —jasotzen duen pertsonarekiko—. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi sexismo mota horrek ez duenik eragin kaltegarririk, edo pertsona hartzaileak positibotzat jotzen duenik (Ibidem).

Sexismoaren ikuskera horretatik abiatuta, Mujeres fundazioak eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (2011) proposatzen dute hiru sexismo barneratu bereiztea —rolak, ezaugarri psikologikoak eta gizonari autoritatea ematea eta hori legitimatzea—. Hori horrela, *rolekin lotutako sexismo barneratua* honako hau da: “tradizioz emakumezkoenak eta gizonazkoenak direla uste izan den eginkizunak, funtzioak, jarduerak, ardurak eta jokabide-ereduak” (Ibidem: 12); kontu edo ezaugarri horiek pertsonen sexuaren edo generoaren arabera aurrez ezarrita egongo balira bezala. Beste alde batetik, *ezaugarriekin lotutako sexismo barneratua* honako hau da: sexu bakoitzarentzat berezkitzat jotako nolakotasunak edo ezaugarri psikologikoak (Ibidem). Azkenik, *gizonari autoritatea ematearekin eta hori legitimatzearekin lotutako sexismo barneratuari* jarraikiz, bikoteen testuinguruan, emakumea jabetza gisa hartzen da, eta horrela dela arrazoitzen (Ibidem).

Testuinguru diskriminatzaile horretan, emakumeek lan-esparruan topatzen dituzte zailtasun handienak. Izan ere, *kristalezko sabaia* delako fenomenoak eta antzeko beste batzuek emakumeentzat diskriminatzailea den errealitate bat sortzen dute, eta muga nabarmenak jartzen dizkiete haien proiektuei (Burin, 2008). Euskal Autonomia Erkidegoan, ISEAK fundazioak (2019) Emakunderentzat egindako *Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan* azterlanak egiaztatu zuen hainbat lan-arrakala daudela, gizonen eta emakumeen berdintasuna eragozten dutenak. Esate baterako, emakumeen jarduera-tasa gizonena baino % 7,0 txikiagoa da, nahiz eta hezkuntza-maila pixka bat altuagoa duten (Ibidem). Hala eta guztiz ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusia soldatetan dago; EAEn, gizonen hileroko soldata emakumeen soldata baino % 24 handiagoa da batez beste (Ibidem). Arrakala hori sexuen arteko lan-orduen desberdintasunarekin lotuta dago —emakumeek gehiago erabiltzen dute lanaldi erdia—, baina baita orduko soldataren arteko desberdintasunekin ere (Ibidem).

Ekonomia- eta lan-esparruaz harago, beste esparru batzuetan ere ikusten da sexismoa, hala nola komunikabideetan edo publizitatean. Lehenengo kasuan, gizonak eta emakumeak ez dute ikusgarritasun bera; gizonak albiste gehiagotan izaten dira protagonista (Peña eta Martínez, 2020). Publizitatearen alorrean, azken urteotan berdintasunaren alorrean aldaketa batzuk egin badira ere, publizitate-kanpainak entzungor egiten diote eraldaketa horri, eta estereotipoak betikotzen eta emakumeen mendekotasuna eta emakumeak gauza gisa tratatzea sustatzen dituzte (Kualitate Lan Taldea, 2018).

Azkenik, “genero-indarkeria” esaten zaien kasuei dagokienez, Emakunde emandako datuen arabera (n.d./2021b), 2020. urtean, emakumeen kontrako indarkeriazko 5.276 kasu egon ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Kasu guztien artetik, 3.814tan biktimaren bikotekidea edo bikotekide-oia izan zen erasotzailea, 1.115 familia-barneko indarkeria-kasuak izan ziren, eta 347 sexu-askatasunaren kontrako kasuak izan ziren.

Jatorri eta/edo arrazatiko diskriminazioa

Gaur egun, xenofobia eta arrazismoa dira diskriminazio-arrazoi nagusietako bi. Alabaina, askotan lotuta egoten badira ere, desberdinak dira. Alde batetik, xenofobia honako hau da: atzerriko edo beste herrialde batzuetako pertsonetikiko beldurra, arrazoirik gabekoa maiz, diskriminazio-kasuak eragiten dituena, eta, egoera larrietan, baita indarkeria ere (Bartzelonako Diskriminazioen Behatokia, 2019). Arrazismoa, berriz, honako hau da: arraza, kolore edo leinuarekin edo jatorri nazional edo etnikoarekin lotutako arrazoietan oinarritutako bereizkeria, bazterketa, muga edo lehentasun oro (Nazio Batuen Erakundea, 1965).

Datuak aztertuta, ikusten da, gaur egun, pertsona atzeritarrak direla kolektibo diskriminatuenetako bat estatu-mailan. Lan-merkatuan, adibidez, Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (2017) dioen eran, kolektibo horren kontrako diskriminazioa kontratazio-unean bertan hasten da, eta lanpostuan dagoenean ere eusten zaio. CEARen (2016) datuen arabera, inkestei erantzundako pertsona atzeritarren % 32,3k adierazi zuen zailtasunak izan dituela lana aurkitzeko, bere jatorriagatik, eta ezkutuko ekonomiako lanpostu prekarioak edo aldi baterako kontratuak onartu behar izan dituela.

Etxebizitzaren esparruan ere gertatzen dira diskriminazio-egoerak. Etxebizitza pertsonen oinarrizko beharretako bat da, baina are gehiago pertsona migratzaileen kasuan; izan ere, etxebizitza bat izatea behar-beharrezkoa da errolda egiaztatu ahal izateko, eta horrela, egoera legezatu ahal izateko (Sos Arrazakeria, 2011). Esparru honetan, diskriminazio zuzeneko kasuak ohikoak izaten dira, eta erabateko permisibitatez tratatzen dira gainera; adibidez, honelako iragarkiak: “Etxebizitza alokatzen da; immigranterik ez” (Gutiérrez eta Jarabo, 2013). Etxebizitza eskuratzeko eta lan-merkatura sartzeko diskriminazioaren arteko bidegurutzean, ezaugarri ekonomikoengatik pairatzen dena dago. Izan ere, etxebizitza egoki bat ordaindu ezin badute, kolektibo horretako kideak pilatuta eta urritasun ugariz bizitzera behartuta egoten dira (Algaba, 2003).

Osasun-alorrean ere egoera ez da hobe; 2012ko apirilean, Espainiako Gobernuak 16/2012 Lege polemikoa onetsi zuen; horri jarraikiz, osasun-laguntza unibertsala jasotzeko aukera ukatu zitzairen egoera irregularrean dauden pertsona migratzaileei. Nazio Batuen Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordeak (2016) gogorki kritikatu zuen lege hori, eta esan zuen errepresio-neurria zela, eta eragin kaltegarria zuela kolektibo horren osasun-eskubideetan. Euskal testuinguruan, Arartekoak esan zuen neurri hori “atzerapausoa zela osasun-eskubidearen osieran” (Arartekoa, 2013: 2), eta Euskal Gobernuari eskatu zion berrius ez zela urtebeteko errolda-muga, ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa) finkatua (Ibidem).

2019an, gutxiengoan gaiei buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziak kezka agertu zuen Espainian jatorri etnikoarekin lotutako arrazoiengatik gertatutako estereotipo txarren eta gorroto-diskurtsoen⁴ kasuen inguruan (+, 2019), horiek arrazoi arrazistengatik eta/edo xenofoboengatik egiten diren gorrotozko delituen⁵ aurrekariak baitira. Barne Ministerioaren (2019) datuen arabera, 2018an, arrazoi horrekin lotutako 531 gorrotozko delitu egon ziren Espainian —gorrotozko delitu guztien % 33,2—, aurreko urtean baino 7 gehiago. EAEn (Ertzaintza, 2019), 2018an, arrazismoagatik eta/edo xenofobiagatik 62 gorrotozko delitu erregistratu ziren, Ertzaintzak eta Udaltzaingoen kontabilizatutako gorrotozko delitu guztien erdia ia (% 47,0), eta salatu ez zirenak gehitu behar zaizkie horiei.

Arraza-arrazoiengatik diskriminatuak izateko arriskuan dauden kolektiboaren baitan, bereziki zaugarriak dira ijitoak. Antigitanismoa arrazismo mota espezifiko bat da, tradizio historiko luzean oinarritzen den diskriminazioa, beldur-diskurtsoaren, esplotazioaren, eta, kasurik okerrenetan, indarkeriaren bidez adierazten dena (Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, 2011). Hori horrela, gaur egun, eskusio sozial eta ekonomikoko egoera larrian dago ijito-kolektiboa (Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa, 2019). Gainera, jokabide sozialetan eta erakundeen jardunbideetan sakonki errotuta dagoen antigitanismoak eragindako aurreiritziek larriagotu egiten dute hori guztia (Ibidem).

Ikerketa Soziologikoen Zentroak (2005) diotenaren arabera, 2005ean, Espainiako lau pertsonatik batek zioen ez zela eroso sentituko bere seme-alaben gelan ikasle ijitoak bazeuden, eta % 40k adierazi zuen gogaituta sentituko zela auzokide gisa ijitoak izanez gero. Espainiatik aterata, antigitanismoa izugarri hedatutako fenomeno da Europa osoan. Kontinente-mailan inkesta bat eginda, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (2018) azaldu zuen bost pertsonatik bat ez zela eroso sentituko pertsona ijito batekin lan egin behar izanez

⁴Hamalagarren gomendioan, Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak honela definitzen du gorroto-delitua: “persona batekiko edo talde batekiko gorrotoa, umiliazioa eta mespretxua sustatzea, bultzatzea edo eragitea, edozein formatan, eta horiek jazartzea, haien ospea belzteka, estereotipo negatiboak zabaltzea, estigmatizatzea edo mehatxatzea, eta adierazpen horiek justifikatzea “arraza”, kolore, jatorri nazional edo etniko, adin, desgaitasun, hizkuntza, erlijio edo sinesmen, sexu, genero, genero-nortasun, sexu-orientazio eta beste ezaugarri edo baldintza pertsonal batzuekin lotutako arrazoiengatik” (Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, 2016: 4).

⁵Hori horrela, gorrotozko delitutzat jotzen dira honako jokabide hauek: “zuzenean edo zeharka talde baten, taldeko kide batzuen edo pertsona jakin baten kontrako gorrotoa, areriotasuna, diskriminazioa edo indarkeria sustatzen edo eragiten duten jokabideak, talde horretako kide izateagatik gauzatzen dena, arrazoi arrazistak, antisemitak edo ideologiarekin, erlijioarekin edo sinesmenekin edo egoera familiarrekin lotutako beste batzuk direla medio, edo kideak etnia, arraza edo nazio jakin batekoak direlako, edo haien jatorri nazional, sexu, sexu-orientazio edo -nortasun, genero, gaixotasun edo desgaitasunagatik” (10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Kode Penalarena).

gero, biztanle europarren % 55ek nahiago luke bere seme-alabek harremanik ez izatea ijito batekin, eta % 18k bakarrik zioen bazuela ezagun ijitoren bat.

Kolektiboak bizi duen esklusio ekonomikoari dagokionez, Sara de la Ricak eta bere kideek Ijitoen Idazkaritza fundazioarentzat (2019) egindako azterlanak dio lan-merkatuan presentzia txikia duen kolektibo bat dela, eta prekarietate-egoeran bizi direla, % 52ko langabezia-tasarekin —biztanleria osoarena baino hiru aldiz handiagoa—. Hezkuntzaren esparruan, txosten berak dio 16 urtetik gorako ijitoen % 17k bakarrik dituela DBH ikasketak edo maila altuagokoak. Egileen hitzetan, hezkuntzaren alorreko desberdintasun hori da lana bilatzeko orduan biztanle ijitoen eta gainerako biztanleriaren (Ibidem) arteko desberdintasuna justifikatzen duen faktoreetako bat.

Esklusio-egoera hori bereziki larria da emakumeen kasuan; izan ere, % 15,5ek bakarrik zituen derrigorrezko ikasketak bukatuta, eta emakumeen % 14k aitortu zuen analfabetoa zela (Ibidem). Esparru ekonomikoan, emakumeek lan-merkatuan zuten parte-hartzea % 38,5era bakarrik iritsi zen, eta % 60ko langabezia-tasa gehitu behar zaio horri (Ibidem). Ildo horretatik, Silvia Agüerok (2019) dio antigitanismo patriarkala dagoela, egiturazko matxismoaren eta antigitanismoaren gurutzaketatik sortua. Diskriminazio horietako lehenengoak eragin biderkatzailea du bigarreanean, eta alderantziz; hori horrela, emakume ijitoak pobrezia, esklusioa eta hezkuntzarako eta enplegurako sarbidean diskriminazioa pairatzeko arriskuan daude, bereziki.

Antigitanismo patriarkalarekin batera, kolektibo horrekiko beste diskriminazio mota bat da antigitanismo instituzionala. Antigitanismo hori legezko aitorten esplizitu bat ez izatearekin lotuta dago —Espainiako Konstituzioak ez du Ijito Herria aitortzen—, eta horrek zenbait eragin ditu; adibidez, ijito-ezkontza ez dela legezkoa Espainian, edo ijitoen nortasun-ikurrek ez dutela behar besteko babes legalik (Jiménez eta Agüero, 2020). Hori horrela, herritar ijitoak aipatzen dituzten legegintza-testu bakarrak maila baxuko arauak dira, hala nola legez besteko proposamenak eta errege dekretuak (Ibidem).

Esklusio- eta diskriminazio-testuinguru horretan, gutxiengoan gaietarako Nazio Batuetako errelatore bereziak, Espainiara egindako bisitaren ostean, Gobernuari premiaz eskatu zion lan egin zezala kolektibo horren alde (Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa, 2019). Zehazki, Errelatore Bereziak azpimarratu zuen irtenbide bat bilatu behar zaiela hezkuntza-esparruko desberdintasunei, eta dauden estereotipo negatiboek kontra egin behar dela eta ijito-herriaren ekarpen positiboak balioa eman behar zaiela.

Adinkeria

Pertsonen adina ere beste diskriminazio-iturri bat da. Hori horrela, *adinkeria* edo adinaren arabera diskriminazioa honako hau da: pertsona edo talde batek tratatu desberdina jasotzea adinarekin lotutako arrazoiengatik (Europako Batzordea, 2005). Askotan, kolektiboa desitxuratzen duten eta adin-talde horretan dagoen aniztasuna kontuan hartzen ez duten aurretiko estereotipoetan oinarritzen dira desberdintasun horiek. Egoera bereziki larria da lan-munduan, baina beste esparru eta eremu batzuetan ere gerta daiteke diskriminazio hori (Ibidem).


Diskriminazio mota horren berezko ezaugarrietako bat da —eta gainerako diskriminazioetatik bereizten duena— denboran aldakorra dela. Pertsonak, heldu ahala, giza garapenaren zenbait fase eta etapetatik igaroz doaz (Ibidem), eta gerta daiteke une jakin batean diskriminatua izan den pertsona bat beste une batean ez izatea diskriminatua. Gainera, norberak adinaren inguruan dituen usteak eta estereotipoak ere aldatuz doaz denborak aurrera egin ahala (Ibidem). Testuinguru horretan, adinaren arabera diskriminazioak hiru adin-talde zehatz ditu xede nagusi: gazteak, 45 urtetik gorako pertsonak eta hirugarren adinekoak.

Gazteei eta 45 urtetik gorakoei dagokienez, lan-munduan dago diskriminazio-iturri nagusia. Lehenengo taldearen kasuan, lehen aldiz lan-merkatu sartzeko direnean, gehiegikeria-egoeran egin ohi dute, eta beren ardurari edo jasotzen duten soldatari dagozkion lanak baino lan gehiagorekin (IMOP Insights, 2019). Halaber, talde horrek sorgin-gurpil batean eratzeko arriskua du: kontratuetan lan-esperientzia eskatzen da, baina artean ezin izan dute lortu (Ibidem).

Gazteek pairatzen duten diskriminazioan sakontzeko, Janire Estébanezen (2017) hitzetan, pertsona helduek gazteei buruz duten irudian oinarritzen da hura. Pertsonak beren adinaren arabera epaitzen dute zer den egokia eta osasungarria, eta gazteagoak direnekiko distantzia ezartzeko eta aurreiritziak izateko joera dute (Ibidem).

45 urtetik gorako pertsonen dagokienez, kaleratze baten ostean lan-merkatu itzultzeko zailtasun handiak dituzte kolektibo horretako kideek (1. grafikoa). Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EIN, 2021) datuek erakusten duten eran, 45 urtetik aurrera, epe laburrean beste lan bat bilatzeko aukerak nabarmen murrizten dira —45 urtetik 49ra bitarteko pertsonen % 43,2k langabezia darama urtebetetik gora—, eta dinamika hori areagotu egiten da adinean aurrera egin ahala —60 urtetik 64ra bitarteko langabezia % 64,9—.

1. grafikoa. Epe luzeko langabeen ehunekoa langabe guztiekiko, adin tarteka, 2020ko 4. hiruhilekoa (%)



Iturria: Geuk egina, Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuetan oinarrituta.

Pertsona nagusiei dagokienez, autonomia faltarekin eta ahuleziarekin lotuta daude kolektibo horri egotzen zaizkion estereotipo negatibo gehienak. Zahartzea arazotzat jotzen duen ikusmoldearekin lotuta daude uste horiek, eta, askotan, kolektiboko kideak infantilizatzea eta erabakiak hartzeko duten ahalmena zalantzan jartzea dakarte (HelpAge International España, 2020). Unión Democrática de Pensionistas y Jubilados de España elkarteak egindako eta Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak (2019) argitaratutako azterlan baten arabera, Espainiako pertsona nagusien % 26,7k dio adinagatik diskriminatua sentitu dela. Diskriminazio-egoera ohikoena da mediku-konsultan min edo ondoez jakin bat adinagatik dela adieraztea, inolako azalpenik eman gabe (% 25,3), baina ohikoa da, orobat, kolektibo horretako kideak bazter uztea adinagatik (% 16,3) edo beren ahalmen fisikoak zalantzan jartzea —ongi ez entzutea, etab.— (% 13,9).

Erlijio-arrazoiengatik diskriminazioa

Gizartean dagoen beste diskriminazio forma bat da erlijio-arrazoietan oinarritutakoa; hau da, pertsona edo talde bat okerrago tratatzea haren erlijio-sinesmenengatik. Maila juridikoan, erlijio-askatasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak zabalki aitortuta daude Europan zein estatu-mailan. Europan, Kontseiluaren 2000/43/EE Zuzentarauak, 2000ko ekainaren 29koak, pertsona guztien tratu-berdintasunaren printzipioa jasotzen du, haien arraza- edo etnia-jatorria edozein dela ere, enpleguaren, hezkuntzaren, zerbitzuen eta gizarte-babesaren esparruetan, besteak beste. Halaber, 2000/78/EE Zuzentarauak, 2000ko azaroaren 27koak, enpleguaren alorreko tratu-berdintasunerako esparru bat ezartzen du, eta espresuki debekatzen du erlijio-arrazoiengatik edo sinesmenengatik diskriminatzea. Estatu-mailan, bestalde, 1978ko Konstituzioak erlijio-askatasuna aitortzen du 16.1 artikuluan, eta 14. artikuluan berdintasun-eskubidea aitortzen du, eta ezartzen du ezin dela diskriminaziorik egon.

Rossellek (2008) dioenez, lan-esparrua da erlijio-arrazoientzako diskriminazio egoerak maiz gertatzen diren esparruetako bat, bai diskriminazio positiboak, bai diskriminazio negatiboak. Justizia Ministerioak egindako Espainiako erlijio-askatasunari buruzko 2017ko urteko txostenean⁶ jaso den eran, erlijioarekin lotutako zenbait ikur edo janzki erabiltzeak diskriminazio-egoerak eragin ditzake lantokian. Hori gertatzen da, adibidez, lan-elkarrizketetara edo praktiketara hiyaba jarrita joaten diren emakumeekin (Ibidem).

Dena den, kasu batzuetan, nahiz eta erlijio-askatasuna espresuki aitortuta egon, arrazoi horrengatik tratu desberdina ematea justifikatuta egon daiteke. Adibidez, 2000/78/EE Zuzentarauak lantokiko erlijio-diskriminazioa justifikatzen du, “eskakizun profesional funtsezkoa eta erabakigarria” dagoen kasuetan (García Hernández, 2017).

Lan-esparrutik harago, Espainiako erlijio-askatasunari buruzko 2017ko urteko txostenean (Justizia Ministerioa 2018), diskriminazio-kasuak gertatzen diren beste zenbait esparru aipatzen dira. Beste alderdi batzuen artean, erlijio-konfesioek adierazi zuten zailtasunak zituztela beren seme-alabek hezkuntza erlijiosoan jasotzeko. Zehazki, katolikoak bestelako konfesioek —judua, Eliza Ortodoxoa, Jehovaren Lekukoak— adierazi zuten aniztasuna falta zela Espainiako eskaintza publikoan (Ibidem). Gainera, Jehovaren Lekukoek zailtasun handiak zituzten osasun-esparruan, ospitale batzuetan erlijio horretako pazienteak tratatzeari uko egiten ziotelako (Ibidem).

Gorrito-delituei dagokienez, 2018an, erlijio-arrazoiekin lotutako 69 gorrito-delitu erregistratu ziren Espainian, 2017an baino 34 gutxiago (Barne Ministerioa, 2019). EAEra etorrira, garai berean, sinesmen edo jardura erlijioekin lotutako 7 gorrito-delitu erregistratu ziren (Ertzaintza, 2019).

Sexu-orientazioagatik edo genero-nortasunagatik diskriminazioa

LGTBI+fobia honako hau da: sexu-orientazioagatik, genero-nortasunagatik eta sexu-ezaugarri ez normatiboak izateagatik sortzen den bigota eta diskriminazioa. Hori horrela, alde batetik, homosexualen, lesbianen eta bisexualen kontrako diskriminazioaren, eta, bestetik, pertsona transgenero eta transexualen kontrako diskriminazioaren oinarria sistema cisheteronormatiboan dago, eta pertsona eta kolektibo horiekiko sustatzen diren aurreiritzietan (Butler, 2007). Sistema cisheteronormatibo horrek ulertzen du pertsona guztiek jaiotakoan esleitu zitzaizen generoa onartzen dutela, eta horrekin identifikatzen

⁶Espainiako erlijio-askatasunari buruzko 2018ko urteko txostena eskuragarri badago ere, erlijio-arrazoientzako diskriminatu gabe ehorzketa duina jasotzeko eskubideari buruzkoa bakarrik da. Horrengatik, txosten hau egiteko, 2017ko txostena erabiltzea erabaki da, esparru gehiagori buruzko informazioa ematen baitu.

direla, eta heterosexualitatea eta monogamia arau orokorrak direla (García eta Expósito, 2018); hortaz, esparru horretatik kanpo dauden pertsona guztiak baztertzeko dituzte.

2019ko Eurobarometroko datuen arabera, Europako herrialde irekienetako bat da Espainia. Hain zuzen ere, Espainiako biztanleen % 91ren iritzia da gay, lesbiana eta bisexualek heterosexualek dituzten eskubide berak izan behar dituztela, eta, Europan, aldiz biztanleriaren % 76k uste du hori (Europako Batzordea, 2019). Gainera, Espainiako biztanleriaren % 89k, eta biztanleria europarraren % 72k, uste du ez duela ezer txarrik sexu bereko bi pertsonak elkarrekin sexu-harremanak izateak (Ibidem). Hala eta guztiz ere, Lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen Giza Eskubideei buruzko azken urteko azterlanean, ILGA-Europe elkarteak (2020) azpimarratu zuen Espainian oraindik ere badaudela kolektibo horren kontrako diskriminazio egoerak.

Lan-esparruan, Óscar Muñozek (2019) zuzendutako *La Diversidad LGBT en el contexto laboral en España* txostenak azaldu zuen LGBT pertsonen % 38 bakarrik dagoela guztiz armairutik kanpo beren lantokietan, eta ia bi herenek beren sexu-orientazioa eta genero-nortasuna guztiz edo partzialki ezkutatzeko behar esplizitua zutela. Egoera horrekin lotuta, txosten berean adierazi zen sexu- eta genero-aniztasunak normalizazio txikiagoa zuela lan-esparruan, gizarte-testuinguru orokorrarekin alderatuta (Ibidem). Horrela, LGBT pertsonen % 86k entzun ditu inoiz txiste edo komentario homofoboak edo transfoboak lantokian, eta, era berean, LGBT pertsonen % 20k uste du bere lantokian ez dagoela berdintasunik lan-aukeren alorrean (Ibidem).

Hezkuntza-esparruko diskriminazioaren alorrean, Berdinduk azterlan bat egin zuen 2014an, aniztasun afektibo-sexualarekiko jarrerari buruzkoa, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait ikastetxetan. Ikasleen % 75ek adierazi zuen ez lukeela bere jarrera aldatuko eta laguntzeko prest egongo litzatekeela ikaskide batek LGB orientazioa azalduko balu (Berdindu, 2014). Alabaina, ikerketa berean agerian gelditu zen ikastetxea ez dela eremu segurua aniztasun afektibo-sexuala bizitzeko; izan ere, ikasleen % 60k adierazi zuen irain edo iseka homofoboan lekuko izan direla (Ibidem).

Transexualentzat oso zaila da, bestalde, osasun-esparrua. Ildo horretatik, Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualen Estatuko Federazioak (2019) egindako *Las personas trans y su relación con el sistema sanitario* txostenak agerian utzi du esparru hori ez dela batere abegikorra kolektibo horrekin. Txosten horretan jasotakoaren arabera, trans pertsonen % 33 ez da osasun-etxera joatean osasun-arazo bat duenean, ez duelako osasun-txartelik, edo bere jaiotza-izenaz deituko diotelako, izen sentituaz deitu beharrean (Ibidem). Ildo horretatik, trans pertsonen % 48k tratu diskriminatzailea edo desagokia sentitu du noizbait osasun-langileen aldetik (Ibidem). Beren nortasunari dagokionez jasotzen duten tratuari buruz, % 33k aitortu zuen inoiz edo ia inoiz ez zela egokia izan,

beste arrazoi batzuen artean, mediku-langileek ez dutelako trans errealitatea ezagutzen (Ibidem).

2005ean, sexu bereko pertsonen ezkontza legeztatu zuen munduko hirugarren herrialdea izan zen Espainia, 13/2005 Legea onartu zuenean, Kode Zibila aldatu zuena, ezkontzeko eskubideari zegokionez. Hori mugarri garrantzitsua izan bazen ere, lege-alorrean bide luzea dago egiteko oraindik, hainbat erakundek eta elkartek dioten eran. 2017an, Diputatuen Kongresuak 122/000097 Lege Proposamena onartu zuen, orientazio sexual, genero-nortasun edo -adierazpen eta ezaugarri sexualengatiko diskriminazioaren kontrakoa, eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen berdintasun sozialerakoa. Dena den, ILGA Europe elkarteak (2020) salatu duen eran, bi urte beranduago, trans pertsonen buruzko artikulua eta erreferentzia gehienak kendu ziren testutik. EAEn, zenbait udalek eta erakundek diagnostikoak egin dituzte, LGTBI pertsonen errealitatea zein den jakin ahal izateko; horien artetik, honako hauek egindakoak azpimarratuko ditugu: Vitoria-Gasteizko Udalak, Errenterriko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gorroto-delituei dagokienez, 2018an, sexu-orientazioarekin eta genero-nortasunarekin lotutako 259 gorroto-delitu erregistratu ziren Espainian, eta ugariak dira ideologiagatik eta arrazismo/xenofobiagatik egindako gorroto-delituen atzetik (Barne Ministerioa; 2019). EAEn, 2018an zehar, mota horretako 39 delitu-gorroto erregistratu zituzten Ertzaintzak eta udaltzaingoek; igoera izan da, 2017an 32 kasu izan baitziren (Ertzaintza, 2019). Eraberean sareak dioenez, bi arrazoi nagusirekin lotuta dago igoera hori: “alde batetik, kolektiboak pairatzen dituen eraso homofobo eta transfoboekin, eta, bestetik, lehen “normalizatuta” zeuden zenbait egoera orain diskriminazio-egoeratzat jotzearekin” (Eraberean, 2019:64). Berriki, 2019ko maiatzaren eta 2020ko apirilaren artean, Ikusgunek, Vitoria-Gasteizko LGTBI+fobiaren kontrako Behatokiak, LGTBI+ pertsonen kontrako 25 eraso-gertakari eta -kasu erregistratu ditu (Ikusgune, 2020).

Aporofobia


Aporofobia hitza grezierako *aporos* (pobrea, irtenbide edo baliabiderik gabea) eta *fobia* (beldurra) hitzez osatuta dago. Termino horrek honako honi egiten dio erreferentzia: pobreak eta babesgabeak diren eta inolako irtenbide, bitarteko edo baliabiderik ez duten pertsonetara sentitzen den beldurrari eta arbuioari (Martínez Navarro, 2002). Adela Cortina filosofoak proposatu zuen lehen aldiz hitza, ordura arte existitzen ez zen errealitate bati izena jartzeko; izan ere, zerbaitek izenik ez badu, ez da horri buruz hitz egiten, eta existitzen denik ere ez dakigu (Cortina, 1996). Cortinak dioenez, jokabide arrazisten eta xenofobo batzuen oinarrian dauden jarrera diskriminatzaileak aporofobiarekin lotuta daude. Hau da, Cortinak dioenez, egintza horiek ez daude pertsonen jatorriarekin edo arrazarekin lotuta, haiek baliabiderik ez izatearekin baizik; “ez

dugu immigrantea baztertzen aberatsa bada, ez eta saskibaloi-jokalaria den beltza eta ondare handia duen erretiroduna ere; pobreak baztertzen ditugu” (Ibídem: 70).

Etixerik gabeko pertsonen arretarako zentroi eta zerbitzuei buruzko inkestan jasotako azken datuen arabera, 2018an, eguneko 18.001 pertsona egon ziren, batez beste, etxerik gabeko pertsonen arretarako zentroetan ostatu hartuta (EIN, 2019). Babesgabetasun-egoera horretan, aporofobia eta pobreen kontrako diskriminazioa premiaz landu beharreko fenomenoak dira.

2015ean, Hatento behatokiak etxerik gabeko pertsonen kontrako diskriminazioari eta gorroto-delituei buruzko ikerlan bat egin zuen. Txosten horren arabera, etxerik gabeko pertsonen erdiak ia (% 47,1) pairatu du inoiz aporofobiarekin lotutako gertakari edo delituren bat. Horien artean, irainak eta tratu iraingarria dira ohikoenak (2. grafikoa), tratu diskriminatzaileaz, eraso fisikoaz, jazarpenaz eta beren ondasunen lapurretaz jarraituta.

2. grafikoa. Etxerik gabeko pertsonen biktimizazio motak Espainian, 2015 (%)



Iturria: Hatento behatokia, 2015.

2018an erregistratutako gorroto-delituen kopuruari dagokionez, aporofobiarekin lotutako 14 gorroto-delitu erregistratu ziren Espainian (Barne Ministerioa, 2019), eta, horietatik, EAEn izan ziren bi (Ertzaintza, 2019). Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da aporofobiarekin lotutako delitu gehienak ez direla salatzen. Hatento behatokiak dioenez, txostena lantzen ari zirenean aporofobiaren biktima izan zirela ziurtatu zuten 114 pertsonetatik, 14k bakarrik salatu zuten (Hatento behatokia, 2015).

Berriki, Moreno eta Fernándezek (2019) azterlan bat egin zuten Bilboko etxerik gabeko pertsonen fenomenoari buruz, eta bi talde handi bereizi zituzten: “bertako biztanleek osatutakoa —osasuna nabarmen hondatuta dute, eta garai

bateko iragaitzazko bidarien figurarekin bat datoz— eta jatorri magrebtarreko pertsona gazteek osatutakoa —osasun-egoera hobea dute—” (Ibidem: 65). Azterlanaren arabera, azken urteotan bigarren profila ugaritu da, eta lehenengo murriztu. Hain zuzen ere, azken talde horretan, zenbait diskriminazio mota gurutzatzen dira, eta elkar elikatzen dute; baliabide faltarekin lotutakoaz gainera, jatorriarekin edo gaztetasunarekin lotutakoak pairatzen dituzte, alegia⁷.

Desgaitasunagatiko edo gaixotasunagatiko diskriminazioa

Desgaitasuna edo gaixotasuna izatea ere diskriminazio-arrazoi izan daiteke. Lehenengo kasuan, desgaitasunagatiko diskriminazioak —*kapazitismo* ere esaten zaio— desgaitasun mental, emozional edo fisikoren bat duten pertsonak zanpatzen dituen sistema bat ezartzen du, osasunarekin, produktibitatearekin, edertasunarekin eta giza bizitzaren balioarekin lotutako sinesmen oso errotuetan oinarrituta (Hehir, 2002). Diskriminazio mota hau aurreiritzi eta estereotipo gisa ager daiteke, bai eta diskriminazio instituzional gisa ere, eta haren arazo nagusietako bat da ez dela ikusgarria (Europako Kontseilua, 2017b). Hau da, lan-merkatuan dagoenaren moduko kapazitismo kontzientearekin batera, badago kapazitismo inkontziente bat ere, jakintza orokor faltak eragina, diskriminazioa gauzatzen duten pertsonak jakintza falta horretaz ohartzen ez badira ere (Ibidem).

Adibidez, desgaitasunen bat duten pertsonak hezkuntzaren alorrean pairatu dezakete diskriminazioa. Alde batetik, kolektibo horri buruzko estereotipoek eta sinesmen okerrekin iragarpen autobete gisa funtziona dezakete, eta hasieran beharrezkoa ez zen tratamendu berezi bat justifikatu (Sutherland, 1981).

Beste alde batetik, desgaitasunen bat duen pertsona bat ikastetxe batera iristen denean, ikastetxekoek haren desgaitasunen jarri ohi dute arreta, eta egoera hori gainditzeko laguntzeko moduan, eta, horrela, alde batera uzten dituzte beste zenbait alderdi, hala nola ikasketak eta curriculum akademikoa (Hehir, 2002). Hain zuzen ere, desgaitasunen bat duten pertsonak lan merkatura sartzean izaten duten arazo nagusietako bat da hezkuntza-maila baxua izaten dutela, biztanleriarekin alderatuta oro har (Ravaud et al., 1992).

Gaixotasunagatiko diskriminazioari dagokionez, GIB duten pertsonetako diskriminazioa da adibide nagusia. Diskriminazio hori pertsona baten benetako egoera serologikoarekin egon daiteke lotuta, edo GIBez kutsatzeko arrisku handiagokotzat jotzen den kolektibo batekoa izatearekin —asoziazioagatiko diskriminazioa—, gaixotasuna izan ala ez (ONUSIDA, 2016). Diskriminazio mota honen efektuei dagokienez, hainbat forma har ditzake, honako hauek besteak

⁷Diskriminazioen arteko gurutzaketa hori sakonkiago aztertzen da kapitulu honen laugarren atalean, ikuspegi intersektionalari buruzkoan (29-33. orr.).

beste: GIB probak eginaraztea aurretiko baimenik edo aholku egokirik gabe, GIB duten emakumeak antzutzerara behartzea, osasun-langileek kontaktua eta arreta murriztea, amatasun-osasunarekin lotutako zerbitzuak ukatzea, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna urratzea eta isolatzea (Ibidem).

Gorroto-delituak aztertuta, Barne Ministerioaren (2019) azken txostenaren arabera, 2018an, desgaitasunarekin lotutako 25 gorroto-delitu erregistratu ziren Espainian —erregistratutako gorroto-delitu guztien % 1,6—. Kasuak ugaritu egin ziren 2017rekin alderatuta, urte horretan 23 izan baitziren estatu osoan. Gaixotasunarekin lotutako gorroto-delituei dagokienez, 2018an, 8 kasu erregistratu ziren. Kategoria hori txostenean sartzen zen lehenengo aldia zen. EAEn, EAEko Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen delinkuentzia-memoriak (Ertzaintza, 2019) dio desgaitasunarekin edo gaixotasunarekin lotutako 3 gorroto-delitu erregistratu zirela; 2017an baino bat gehiago.

Lodifobia

Azkenik, itxura fisikoa ere izan daiteke diskriminazioaren arrazoi, eta, zehazki, gehiegizko pisua. Pertsonen pisuarekin lotutako diskriminazioa ez da sakonki aztertua izan Espainian eta Europan, baina, Estatu Batuetan eta Kanadan badu nolabaiteko tradizio bat.

Egindako azterlanek agerian utzi duten eran, loditasuna aurreiritzi eta estereotipo negatiboekin lotzen da, hala nola borondate faltarekin, diziplina faltarekin, jarduera eta adimen gutxiago izatearekin, erakargarritasun eta onarpen gutxiago izatearekin, alferkeriarekin, zabarkeriarekin edo sabelkeriarekin (Ogden eta Clementi, 2010; Rivas Vallejo, 2015). Hori horrela, kontuan hartuta gehiegizko pisua duten pertsonen kopurua nabarmen handitu dela mendebaldeko herrialdeetan, esperientzia estigmatizatzaile eta diskriminatzaile horiek jasateko arriskuan dauden pertsonen kopurua handitzen ari da etengabe (Magallanes eta al., 2014).

Ikuspegi feminista batetik, lodifobiaren inguruan dauden ikusezintasuna eta diskurtsoen konexio falta aipatzen ditu Irati García (2016). Haren hitzetan, “lodifobia diskriminazioa dela esaten da, edo gorpuztasunarekin lotutako diskriminazio-sistema, baina hori ez da lotzen hedatuagoak dauden beste zenbait terminorekin, hala nola edertasun-arauarekin edo *argaltasun-aginduarekin*” (Ibidem: 121).

Diskriminazio horrek har ditzakeen formei dagokienez, pertsona lodiek lanaren, osasunaren eta hezkuntzaren esparruetan jasan dezakete diskriminazioa. Lehenengo kasuan, ebidentziak agerian utzi du zailtasun handiagoak izaten dituztela kontratazio-prozesuetan, soldata okerragoak eta mailaz igotzeko aukera gutxiago izaten dituztela, eta lankideen aldetik tratu iraingarria

jasotzeko joera handiagoa (Puhl eta Heuer, 2009). Medikuntzaren alorrean, zenbait azterlanek agerian utzi dute mediku-langileek gehiegizko pisua duten pertsoneri buruzko estereotipo negatiboak izaten dituztela, eta haien epaietan eta jardueretan eragiten dutela horiek (Puhl eta Brownell, 2001; Hanson, Näslund eta Rasmussen, 2010). Eskolaren alorrean, irakasleek zein ikasleek diskriminazio-jarrera ertaina dute; adibidez, igurikimen txikiagoak izaten dituzte gehiegizko pisua duten ikasleen errendimendu akademikoari buruz —eta, beraz, tratu desberdina ematen diete—, eta haiei buruzko txantxak eta isekak egiten dituzte (Puhl eta Heuer, 2009; Zeller et al., 2010).

Estatu-mailan, Rivas Vallejos (2015) dio diskriminazio mota hori pairatzen duten pertsonak babesgabetasun-egoeran daudela. Gaur egun, ez zuzenbide espainiarrak ez Batasunekoak ez dute jasotzen itxura fisikoan oinarritutako diskriminazioa diskriminazioaren kontrako zaintza behar duten diskriminazioen artean. Mutur batera iritsita, langilearen loditasunean oinarritutako kaleratze-prozesu bati buruzko 2012ko epai batean, Valentziako Erkidegoko JANek honako hau zioen: “Ioditasuna ez da EKren 14. artikuluan edo LEren 7. artikuluan debekatuta dauden diskriminazio-irizpideekin zuzenean edo zeharka lotuta dagoen gaixotasuna bat” (Ibidem).

Ikuspegi interseksionala

Diskriminazioa, eta haren formak eta alderdiak, gizarte-zientzien aztergai nagusietako bat izan dira. Horren ondorioz, urteak igaro ahala, gai hori aztertze hainbat ikuspuntu sortu dira. Marie-Angie Hancocken (2007) hitzetan, hiru ikuspegi nagusi bereizten dira: ikuspegi unitarioa, ikuspegi anizkoitza eta ikuspegi interseksionala (3. koadroa).

Ikuspegi unitarioa da diskriminazioaren azterketetan gehien erabili izan den ikuspegia. Izenak adierazten duen eran, ikuspegi horretan, ardatz bakarra hartzen da kontuan —generoa, arraza, jatorriz, sexu-orientazioa, etab.— diskriminazioa aztertzean. Ikuspegi anizkoitza, berriz, ikuspegi zabalagoa da, eta kategoria gehiago hartzen ditu kontuan; esaterako, ez da generoa bakarrik hartzen kontuan, eta beste kategoria batzuk gehitzen zaizkio lehenengo horri, hala nola arraza edo klase soziala. Alabaina, ikuspegi horrek paraleloan edo modu independentean hartzen ditu kontuan diskriminazio-ardatz horiek, elkarren arteko loturarik gabe. Azkenik, ikuspegi interseksionalak⁸, ikuspegi anizkoitzak bezala, kategoria bat baino gehiago erabiltzen ditu, baina, hark ez

⁸Esan behar da, elkarrekin trukatzeko moduan erabili izan badira ere, interseksionalitatea eta diskriminazio anizkoitza ez direla gauza bera. Interseksionalitateak dio diskriminazio-arrazoiak bereizezinak direla, eta guztiek batera jarduten dutela aldi berean. Diskriminazio anizkoitzak, berriz, zenbait diskriminazio-ardatzen batura gisa ulertzen du diskriminazioa.

bezala, diskriminazio-ardatzen arteko elkarreraginak lantzen ditu, eta horiek elkarrekin nola gurutzatzen diren aztertzen du.

3. taula. Ikuspegi unitarioa, ikuspegi anizkoitza eta ikuspegi interseksionala

	Ikuspegi unitarioa	Ikuspegi anizkoitza	Ikuspegi interseksionala
Zenbat kategoria aztertzen dira	Bat	Bat baino gehiago	Bat baino gehiago
Zer erlazio daude kategorien artean?	Aزتtertzen den kategoria kategoria nagusia da	Kategoria guztiak garrantzi bera dute, aurrez ezarritako haien arteko erlazio jakin batean	Kategoria guztiak garrantzi bera dute, baina haien arteko erlazioa galdera ireki bat da
Nola kontzeptualizatzen dira kategoriak?	Modu estatikoan, bai banakakoen mailan, bai erakunde-mailan	Modu estatikoan, bai banakakoen mailan, bai erakunde-mailan	Elkarreragin dinamikoa dago banakako faktoreen eta erakunde-faktoreen artean
Zer osaera esleitzen zaio kategoria bakoitzari?	Uniformea	Uniformea	Anitza; kideek desberdintasun nabarmenak dituzte maiz
Zer analisi-maila jotzen dira egingarritzat, analisi bakar batean?	Banakakoa edo instituzionala	Banakakoa edo instituzionala	Banakakoa, instituzionalarekin integratuta
Zein da ohiko jakintza metodologikoa?	Enpirikoa edo teorikoa; nahiago izaten da metodo bakar bat erabili, baina zenbait metodo ere erabil daitezke.	Enpirikoa edo teorikoa; nahiago izaten da metodo bakar bat erabili, baina komeni da zenbait metodo erabiltzea.	Enpirikoa edo teorikoa; hainbat metodo erabili behar dira derrigorrean

Iturria: Hancocketik egokitua, 2007.

Azken ideia horretan sakonduz, ikuspegi interseksionalak “azpimarratzen du generoa, etnia, klasea edo sexu-orientazioa, eta beste hainbat kategoria sozial, ez direla “naturalak” edo “biologikoak”; aitzitik, eraikiak direla, eta elkarrekin lotuta daudela” (Platero, 2012: 26). Interseksionalitateak, beraz, ez ditu desberdintasunak zerrendatzen; horren ordez, horien artean zer lotura dauden aztertzen du (Ibidem). Interseksionalitatea munduaren, pertsonen eta giza esperientziaren konplexutasuna ulertzeko modu bat da. Baldintza sozialak eta politikoak ez dira ulertzen faktore bakar baten bidez; aitzitik, hainbat faktorez osatuta daude (Collins y Bilge, 2016).


Ikuspegi horrek 70eko eta 80ko feminismo iparramerikarrean du jatorria, eta, zehazki, feminismo beltzean. *Combahee River Collective* emakume afro-amerikarrek sortutako ekimen komunitario bat da, *A Black Feminist Statement* (Adierazpen Feminista Beltza) lana argitaratu zuena. Dokumentu horretan, egileek mahaigaineratu zuten zapalketa-sistema nagusiak elkarrekin lotuta

zeudela, eta azpimarratu zuten hori aitortuko duen analisi-sistema bat sortu behar dela (Combahee River Collective, 1983).

Beranduago, Kimberle Crenshaw (1989) izena jarri zion ikuspegiari: ikuspegi interseksionala. Hark zioenez, zapalketa-ardatz bakarra kontuan hartzen zuten analisisiek baztertu eta ikusezin bihurtzen zituzten arrazoi bategatik baino gehiagogatik baztertuak ziren pertsonak. Hori horrela, emakume beltzak baztertuak ziren, bai teoria feministan, bai eta mugimendu antirrazistan ere. Izan ere, bi mugimendu horietan, kategoria bakar batean oinarritzen ziren eskariak, eta horrek ez zuen jasotzen aldi berean arrazagatik eta generoagatik diskriminatuak izaten ari ziren emakumeen egoera (Ibidem).

Interseksionalitatearen ideia proposatzearekin, feminismo beltzaren xedea ez zen eztabaida eta berrikuntza teorikoa sortzea, baizik eta emakumeak ahalduz, bizi zituzten desberdintasunen eta arazo sozialen analisi kritiko bat proposatuz (Collins, 2015). Alabaina, ikuspegi interseksionala esparru akademikoan protagonismoa hartuz eta bere jatorri komunitarioetatik urrunduz zihoan heinean, haren elementuetako batzuk indarra hartuz joan ziren, eta beste batzuk, berriz, ahulduz (Ibidem).

1. irudia. Dominazio-matrizea



Iturria: Morganetik egokitua, 1996.

“Dominazio-matrizea” da (1. irudia) ikuspegi interseksionalaren ardatzetako bat; Patricia Hill Collinsek proposatu zuen. Termino horren bidez, Collinsek adierazi zuen nola dagoen antolatuta eta hierarkizatuta boterea gizarte edo testuinguru jakin batean, horrek zapalketa gurutzatuen kokapen zehatz bat sorrarazten baitu (Collins, 2000). Matrizearen ezaugarri interesgarrietako bat da, elkarrekin gurutzatutako zapalketa ugari dauden edozein testuinguru sozialetan, historia bereizgarriak dituzten taldeak eta kolektiboak sortzen direla (Ibidem); hau da, interseksio horrek berdin eragiten die pertsona guztiei, baina ez ditu efektu berak pertsona guztiengan.

Collinsek proposatutako historia bereizgarri horien lorratzari jarraikiz, Platerok (2012) azpimarratu zuen egitura horrek pertsona guztiak gurutzatzen dituela, haien ezaugarriak direnak direla ere, eta pribilegio-iturri ere izan daitekeela. Pertsona diskriminatuak bezala, norbanako pribilegiatuak ere gurutzatuta daude, eta interseksionalak dira. Alabaina, pertsona bat “balio menderatzaile batean—edo batzuetan, pluralean—sartzen denean, eta, beraz, pribilegioetan, bere ezaugarriak neutralak edo naturalak izango balira bezala adierazten dira, azenturik, kolorerik, etniarik, generorik edo sexualitaterik izango ez balu bezala, adibidez” (Ibidem: 22). Horri buruz, Yuval-Davisek (2017) azpimarratu zuen, interseksionalitateari hasiera eman zioten emakume arrazializatu ez harago, ikuspegi hau pertsona guztiak, pribilegiatuak zein zapalduak, aztertzean erabili behar dela.

Ikuspegi interseksionalaren ardatz den beste elementuetako bat da testuinguruari garrantzi handia ematen zaiola. Izan ere, zapalketaren—edo pribilegioaren—oinarrian dauden kategoriek jatorri soziala dutenez, horien garrantzia eta esanahia talde sozialak integratzen diren eta historikoki espezifikoa den boterearen antolaketa batekin lotuta daude (Collins, 2000). Platerok “antolatzaile sozial” terminoa erabiltzen du, “une historiko eta gizarte jakinetan norbanakoen bizitzak normatibizatzen dituzten eraikuntza sozialei” erreferentzia egiteko (Platero, 2012: 22). Nira Yuval-Davisek, bere aldetik, “analisi interseksional kokatua” aipatzen du, ikuspegi interseksionalaren forma espezifikoa gisa. Hori horrela, analisisa egitean, behar-beharrezkoa da aldi berean kontuan hartzea espazioa, maila—familiakoa, taldekkoa, udalerrikoa, etab.— eta unea, dagozkien kategorio sozial bakoitzak izan ditzakeen esanahi desberdinak eta botere erlatiboa hauteman ahal izateko (Yuval-Davis, 2015).

“Intersectionality’s Definitional Dilemmas” artikuluan, Patricia Hill Collinsek (2015) interseksionalitate terminoa eta haren inguruan sortutako eztabaidak berrikusi zituen. Testu horretan, egileak ikuspegi interseksionalaren oinarritzko bost ideia eta planteamenduak laburbiltzen ditu:

- Analisi-kategoriak, hala nola arraza, klase soziala, generoa, sexu-orientazioa, adina, gaitasuna, nazionalitatea, etnizitatea eta beste hainbat, hobeki ulertzen direnak elkarrekin lotuta, bakoitza bere aldetik baino.

- Elkar eraikitzen duten kategoria horiek botere-sistema intersektionatuei eusten eta forma ematen diete.
- Botere-sistema intersektionatuek desberdinkeria sozial konplexuak sortzea bultzatzen dute, eta horiek errealitate material eta esperientzia sozial desberdinak sorrarazten dituzte.
- Desberdinkeria sozial konplexuen sorrera testuinguru historiko eta interkultural zehatzekin lotuta dagoenez, desberdintasun materialak eta esperientzia sozialak desberdinak izaten dira unearen eta lekuaren arabera.
- Botere-sistema intersektionatuen baitan duten lekuaren arabera, norbanakoek eta kolektiboek ikuspegi desberdinak dituzte beren esperientziei eta desberdinkeria sozial konplexuei buruz.

McCallen (2005) hitzetan, ikuspegi interseksionala genero-azterketek gaur arte egindako ekarpen teoriko garrantzitsuena da; izan ere, teoria horrek aldaketa handiak eragin ditu bai esfera akademikoan, bai hortik kanpo ere. Esparru akademikoan, MariaCaterina La Barberak (2015) hiru ekarpen nagusi aipatzen ditu. Alde batetik, zenbait diskriminazio-sistemaren bidegurutzean dauden norbanakoen esperientziak erdigunean jartzeko balio izan du interseksionalitateak. Horrekin lotuta, ikuspegi horrek “diskriminazio-faktoreen aldiberekotasuna” ere azpimarratzen du (Ibidem: 113). Eta are garrantzitsuagoa dena, ikuspegi interseksionalak agerian utzi ditu diskriminazio-kategoria bakar batean oinarritutako analisisien eragin kaltegarriak. Generoa, arraza edo klase soziala bereizita landuz gero, ikusezin gelditzen dira kolektibo marjinatuenak, eta desahalduntzeko dinamika berriak sortzen dira (Ibidem).

Ikasgeletatik kanpo, beste esparru batzuetan ere izan du eragina ikuspegi horrek, eta aldaketak eragin ditu berdintasunaren eta giza eskubideen alorreko legedietan (Yuval-Davis, 2015). Esate baterako, 2001eko Durbaneko Adierazpena izan zen lehen dokumentu juridikoa diskriminazio anizkoitza nazioartean mahaigaineratu zuena, eta, zehazki, haren bigarren artikulua:

Aitortzen dugu arrazismoa, arraza-diskriminazioa, xenofobia eta intolerantzia-modu lotuak arraza, kolore, leinu edo jatorri nazional edo etnikoarekin lotutako arrazoiengatik gertatzen direla, eta biktimek diskriminazio modu anizkoitzak edo larrituak pairatu ditzaketela beste arrazoi lotu batzuegatik, hala nola sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako iritzi, jatorri sozial, egoera ekonomiko, jaiotza edo beste baldintzaren bategatik (Nazio Batuen Erakundea, 2001: 9).

Bibliografia

- Agüero, Silvia. (2019). Desde el feminismo gitano. In Píkara Magazine (Ed.), *Feminismos. Miradas desde la diversidad*. Anaya Multimedia.
- Aguilera Rull, Ariadna. (2007). Discriminación directa e indirecta. Comparación y crítica del concepto de discriminación, Allgemeines Gleichbehandlungsgesetz-en eta Proyecto español de Ley Orgánica para la igualdad efectiva de hombres y mujeres-en. *InDret: Revista para el Análisis del Derecho*, 1, 1-17. <https://www.raco.cat/index.php/InDret/article/view/78708/102784>
- Algaba, Antonio. (2003). La discriminación en el acceso al mercado de la vivienda: Las desventajas de la inmigración. Novedades y permanencias. *Scripta Nova*, 146(2), 1-17. [http://www.ub.edu/geocrit/sn/sn-146\(060\).htm](http://www.ub.edu/geocrit/sn/sn-146(060).htm)
- Arartekoa. (2013). *Recomendación General del Ararteko 8/2013, de 24 de septiembre. Limitación derivada del empadronamiento previo, en el acceso a la asistencia sanitaria a las personas que no tienen la condición de aseguradas en el Sistema Nacional de Salud*. https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3141_3.pdf
- Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea. (2011). *Recomendación de política general nº13 de la ECRI sobre la lucha contra el antigitanismo y las discriminaciones contra los romanés/gitanos*. <https://rm.coe.int/ecri-general-policy-recommendation-no-13-on-combating-anti-gypsyism-an/16808b5aef>
- Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea. (2016). *Recomendación general nº 15 relativa a la lucha contra el discurso de odio y memorándum explicativo*. <https://rm.coe.int/ecri-general-policy-recommendation-n-15-on-combating-hate-speech-adopt/16808b7904>
- Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea. (2017). *La lucha contra el racismo y la discriminación racial en el empleo*. <https://rm.coe.int/recomendacion-num-14-de-politica-general-de-la-ecri-temas-principales/16808e6018>
- Barne Ministerioa. (2019). *Informe de la evolución de los delitos de odio en España 2019*. Ministerio del Interior. http://www.interior.gob.es/documents/10180/9814700/informe_delitos_de_odio_%202018.pdf/54103892-0e51-47e2-92d9-5f4846da8d74

- Bartzelonako Diskriminazioen Behatokia. (2019). *Informe del Observatorio de las Discriminaciones en Barcelona 2019*. Ajuntament de Barcelona. https://ajuntament.barcelona.cat/dretsdiversitat/sites/default/files/WEB2_INFORME_DISCRIMINACIO_2019_A4_ESP.pdf
- Berdindu. (2014). *Actitudes ante la diversidad afectivo-sexual en las aulas*. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu/es_berdindu/adjuntos/actitudes%20an%20la%20diversidad%20afectivo-sexual.pdf
- Burin, Mabel. (2008). Las “fronteras de cristal” en la carrera laboral de las mujeres. Género, subjetividad y globalización. *Anuario de Psicología*, 39(1), 75-86. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=970/97017401006>
- Butler, Judith. (2007). *El género en disputa*. Paidós Ibérica.
- Cea D’Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2018). *Evolución de la discriminación en España: informe de las encuestas IMIO-CIS 2013 y 2016*. Instituto de la Mujer y para la igualdad de Oportunidades. <https://cpage.mpr.gob.es/producto/evolucion-de-la-discriminacion-en-espana-2/>
- CEAR. (2016). *Informe sobre discriminación de personas migrantes y refugiadas en España*. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2017/02/Informe-discriminaci%C3%B3n.pdf>
- Collins, Patricia Hill. (2000). *Black feminist thought: Knowledge, Consciousness and the Politics of Empowerment*. Routledge.
- Collins, Patricia Hill. (2015). Intersectionality’s Definitional Dilemmas. *The Annual Review of Sociology*, 41, 1-20. <https://doi.org/10.1146/annurev-soc-073014-112142>
- Collins, Patricia Hill eta Bilge, Sirma. (2016). *Intersectionality*. Polity Press.
- Combahee River Collective. (1983). The Combahee river collective statement. *Home girls: A Black feminist anthology*, 264-274.
- Cortina Orts, Adela eta Martínez Navarro, Emilio. (1996). *Ética*. Akal.
- Crenshaw, Kimberlé. (1989). Demarginalizing the Intersection of race and sex: A black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics. *University of Chicago Legal Forum*, 1, 139-167.

- Damonti, Paola. (2014). Discriminación por razón de sexo. In ALTER (Ed.), *Los perfiles de la discriminación en España: Análisis de la encuesta CIS-3.000 percepción de la discriminación en España* (75-82. or.). Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Argitalpen Zentroa.
- De la Rica, Sara, Gorjón, Lucía, Miller, Luis eta Úbeda, Paloma. (2019). *Estudio comparado sobre la situación de la población gitana en España en relación al empleo y la pobreza*. Ijitoen Idazkaritza fundazioa. https://www.gitanos.org/centro_documentacion/publicaciones/fichas/129378.html.es
- De la Rica, Sara, Gorjón, Lucía eta Vega, Ainhoa. (2019). *Brechas de género en el mercado laboral en Euskadi*. Emakunde. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/es_emakunde/adjuntos/informe_emakunde_final_v4.pdf
- De Miguel Álvarez, Ana. (2008). Feminismo y juventud en las sociedades formalmente igualitarias. *Revista de Estudios de Juventud*, 83, 29-45. <https://www.inmujer.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/Revistas/ANALITICAS/DEA0072.pdf>
- De Miguel Álvarez, Ana. (2016). *Neoliberalismo sexual. El mito de la libre elección*. Cátedra.
- Echeita, Gerardo. (2013). Inclusión y Exclusión Educativa. De Nuevo, “Voz y Quebranto”. *REICE Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 11(2), 100-118. <https://revistas.uam.es/reice/article/view/2899>
- Emakunde. (n.d./2021a). *Glosario*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/GLOSA-RIO%20DEFINITIVO%20web.htm
- Emakunde. (n.d./2021b). *Victimizaciones por violencia contra las mujeres en la CAE por mes según territorio 2019 (enero-septiembre) – 2020 (enero-septiembre)*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/estadisticas.2020.09.cas_mesames.pdf
- Eraberean. (2018). *Igualdad de trato y no discriminación, Guía Básica*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_guiabasica/es_observat/adjuntos/ERABEREAN_GUIA.pdf
- Eraberean. (2019). *Informe 2019 de actividad de la Red Eraberean*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_materiales/es_observat/adjuntos/eraberean2019_es_21x21.pdf

- Ertzaintza. (2019). *Memoria delincencial de la CAE 2018*. Eusko Jaurkitza. <https://www.udaltzaingoa.eus/lfr/documents/62359/1098225/castellano-6marzoBAJA.pdf/f9334ad7-a7f3-8940-de4b-9f44e3e8093f?t=1597183808954>
- Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). (2019). *Encuesta sobre centros y servicios de atención a personas sin hogar*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176925&menu=ultiDatos&idp=1254735976608
- Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). (2021). *Encuesta de población activa*. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176918&menu=ultiDatos&idp=1254735976595
- Estébanez, Ianire. (2017). *Prevención, educación emocional, redes y empoderamiento* [Diapositiva de PowerPoint]. Mi novio me controla. <http://minoviomecontrola.com/ianire-estebanez/Prevenir%20violencias%20de%20genero%20y%20sexistas%20en%20la%20adolescencia%20sin%20adulterio%20Ianire%20Estebanez.pdf>
- Europako Batzordea. (2005). *Age discrimination and European Law*. Office for Official Publications of the European Communities. <http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=1691&langId=en>
- Europako Batzordea. (2019). *Special Eurobarometer 493 Discrimination in the European Union*. <https://ec.europa.eu/commfrontoffice/publicopinion/index.cfm/survey/getsurveydetail/instruments/special/surveyky/2251>
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Agentzia. (2018). *A persisting concern: anti-Gypsyism as a barrier to Roma inclusion*. Publications Office of the European Union. https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/fra-2018-anti-gypsyism-barrier-roma-inclusion_en.pdf
- Europako Kontseilua. (2017a). *Discriminación e intolerancia*. <https://www.coe.int/es/web/compass/discrimination-and-intolerance>
- Europako Kontseilua. (2017a). *Discapacidad y “disablismo”*. <https://www.coe.int/es/web/compass/disability-and-disablism>
- Federici, Silvia. (2018). *El patriarcado del salario. Críticas feministas al marxismo*. Tinta Limón Ediciones.
- García Dafonte, Zaira eta Expósito Alberdi, Jone. (2018). *Convivencia en la Diversidad. Diagnóstico de las realidades de la población LGTBI+ en Gipuzkoa 2018*. Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://drive.google.com/file/d/1ICSznJVI FNhd5EA1ytTsYz7OXGvqsDph/view>

- García Hernández, Joaquina. (2017). La velada discriminación indirecta, comentario de la SSTJUE de 14 de marzo de 2017. *Anales de Derecho*, 35(1), 1-15. <https://digitum.um.es/digitum/handle/10201/54096>
- García López de Aguilera, Irati. (2016). *Género, gordura y feminismo. La experiencia de mujeres feministas en la CAPV* [Trabajo fin de máster]. Euskal Herriko Unibertsitatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/20342/Genero%2C%20gordura%20y%20feminismo_IratiGarcia.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa. (2019). *Declaración del Relator Especial de las Naciones Unidas sobre cuestiones de las minorías, Fernand de Varennnes, sobre la conclusión de su visita oficial a España, 14-25 de enero de 2019*. <https://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=24112&LangID=S>
- Glick, Peter eta Fiske, Susan T. (1996). The Ambivalent Sexism Inventory: Differentiating Hostile and Benevolent Sexism. *Journal of Personality and Social Psychology*, 70(3), 491-512. <https://doi.org/10.1037/0022-3514.70.3.491>
- Gutiérrez Sanz, Eduardo eta Jarabo Torrijos, Andrea. (2013). *Informe 2013 sobre discriminación en la vivienda hacia personas inmigrantes*. Provivienda eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa. http://nadiesinfuturo.org/IMG/pdf/Informe_Provivienda_2013.pdf
- Hancock, Ange-Marie. (2007). When multiplication doesn't equal quick addition: Examining intersectionality as a research paradigm. *Perspectives on Politics*, 5(1), 63-79. <https://doi.org/10.1017/S1537592707070065>
- Hansson, Lena M., Näslund, Erik eta Rasmussen, Finn. (2010). Perceived discrimination among men and women with normal weight and obesity. A population-based study from Sweden. *Scandinavian journal of public health*, 38(6), 587-596. <https://doi.org/10.1177/1403494810372266>
- Hatento behatokia. (2015). *Los delitos de odio contra las personas sin hogar, Informe de investigación*. <http://hatento.org/wp-content/uploads/2015/06/informe-resultados-digital.pdf>
- Hehir, Thomas. (2002). Eliminating ableism in education. *Harvard Educational Review*, 72(1), 1-32. <https://doi.org/10.17763/haer.72.1.03866528702g2105>
- HelpAge International España. (2020). *La discriminación por razón de edad en España*. <https://www.helpage.org/download/5e2ade8f1b4a5>

- Ikerketa Soziologikoen Zentroa. (2005). *Barómetro noviembre 2005*. http://www.juntadeandalucia.es/empleo/recursos/material_didactico/comun/multiculturalidad/pdf/27.pdf
- Ikusgune. (2020). *Informe de Incidencias por Orientación Sexual e Identidad de Género en Vitoria-Gasteiz*. <https://ikusgune.eus/es/actividades/https-ikusgune-eus-files-2020-05-informe-2-pdf>
- ILGA Europe. (2020). *Annual review of the human rights situation of lesbian, gay, bisexual, trans, and intersex people in Spain covering the period of January to December 2019*. <https://www.ilga-europe.org/sites/default/files/spain.pdf>
- IMOP Insights. (2019). *Estudio sobre la percepción de la discriminación por edad en el empleo. Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades*. <https://www.inmujer.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/Documentos/DE1757.pdf>
- Jiménez, Nicolas eta Agüero, Silvia. (2020). *Resistencias Gitanas*. Libros.com
- Justizia Ministerioa. (2018). *Informe anual sobre la situación de la libertad religiosa en España 2017*. Justizia Ministerioa, Idazkaritza Nagusi Teknikoa. https://www.mjusticia.gob.es/eu/AreaTematica/LibertadReligiosa/Documents/1292429117162-Informe_anual_sobre_la_situacion_de_la_libertad_religiosa_en_Espana_2017_Espanol.PDF
- Kualitate Lan Talde. (2018). *Sexismo en las campañas de publicidad para “el día del padre” y “el día de la madre”. Herramientas para su detección*. Emakunde. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/es_emakunde/adjuntos/informe_42_begira_sexismo_publicidad.pdf
- La Barbera, MariaCaterina. (2015). Interseccionalidad, un “concepto viajero”: orígenes, desarrollo e implementación en la Unión Europea. *Inter disciplina*, 4(8), 105-122. <https://doi.org/10.22201/ceiich.24485705e.2016.8.54971>
- Langileen Batasun Orokorra. (2013). *Por un trabajo digno*. UGTren Batzorde Exekutibo Konfederala.
- Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualen Estatuko Federazioa. (2019). *Las personas trans y su relación con el sistema sanitario*. https://felgtb.org/wp-content/uploads/2020/03/PersonaTransSistemaSanitario_informe2019.pdf

- Magallanes, Alejandro, Morales, José Francisco eta Rubio, Miguel Ángel. (2014). Group identification, discrimination and psychological health in an obese sample. *International journal of psychology and psychological therapy*, 14(1), 421-431. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5684978.pdf>
- Martínez Navarro, Emilio. (2002). Aporofobia. In Jesús Conill (Ed.), *Gloria para una sociedad intercultural* (17-23. or.). Bancaja.
- McCall, Leslie. (2005). The Complexity of Intersectionality. *Signs*, 30(3), 1771-1800. <https://doi.org/10.1086/426800>
- Moreno Márquez, Gorka eta Fernández Aragón, Iraide. (2019). Sinhogarismo y jóvenes extranjeros en Bilbao: la atención en un contexto de desbordamiento múltiple y secuencial de los recursos. *Zerbitzuan*, 70, 61-70. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.70.04>
- Morgan, Kathryn Pauly. (1996). Describing the Emperor's New Clothes: Three Myths of Educational (In-)Equity. In Ann Diller, Barbara Houston, Kathryn Pauly Morgan & Maryann Ayim (Ed.), *The Gender Question in Education: Theory, Pedagogy, & Politics* (105-122. or.). WestviewPress.
- Mujeres fundazioa eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala. (2011). *Proyecto de Investigación sobre Sexismo y Violencia de Género en la Juventud Andaluza, Resultados y Recomendaciones*. Instituto Andaluz de la Mujer. https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/3400_d_DETECTA_PREVIENE1.pdf
- Muñoz, Óscar. (2019). *La diversidad LGBT en el context laboral en España, estudio sobre la situación de inclusión de las personas LGBT en el ámbito de trabajo*. Mpatika. <https://mpatika.com/wp-content/uploads/2019/05/La-Diversidad-LGBT-en-el-Contexto-Laboral-en-Espan%CC%83a.pdf>
- National Research Council. (2004). *Measuring Racial Discrimination*. National Academies Press. <https://www.nap.edu/catalog/10887/measuring-racial-discrimination>
- Nazio Batuen Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea. (2016). *Observaciones finales sobre los informes periódicos vigésimo primero, vigésimo segundo y vigésimo tercero de España*. https://tbinternet.ohchr.org/Treaties/CERD/Shared%20Documents/ESP/INT_CERD_COC_ESP_23910_S.pdf
- Nazio Batuen Erakundea. (1948). *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala*. https://www.un.org/es/documents/udhr/UDHR_booklet_SP_web.pdf

- Nazio Batuen Erakundea. (1965). *Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las formas de Discriminación Racial*. <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cerd.aspx>
- Nazio Batuen Erakundea. (2001). *Informe de la Conferencia Mundial contra el Racismo, la Discriminación Racial, la Xenofobia y las Formas Conexas de Intolerancia*. https://www.un.org/es/events/pastevents/cmcr/aconf189_12.pdf
- Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea. (1989). *Observación general 18*. <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2001/1404.pdf?file=fileadmin/Documentos/BDL/2001/1404>
- Ogden, Jane eta Clementi, Cecelia. (2010). The experience of being obese and the many consequences of stigma. *Journal of Obesity*, vol. 2010. <https://doi.org/10.1155/2010/429098>
- ONUSIDA. (2016). *Eliminación de la discriminación en el sector sanitario, paso fundamental para poner fin a la epidemia del sida*. https://www.unaids.org/sites/default/files/media_asset/eliminating-discrimination-in-health-care_es.pdf
- Peña Fernández, Simón eta Martínez Odriozola, Lucía. (2020). *II Análisis de la presencia de las mujeres en los medios de comunicación vascos 2018*. Emakunde. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/es_emakunde/adjuntos/informe_44_begira_mujeres_medios.pdf
- Platero, Raquel (Lucas). (2012). Introducción. La interseccionalidad como herramienta de estudio de la sexualidad. In Raquel (Lucas) Platero (Ed.), *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada* (15-72. or.). Ediciones Bellaterra.
- Puhl, Rebecca M eta Brownell, Kelly D. (2001). Bias, discrimination, and obesity. *Obesity Research*, 9(12), 788-805. <https://doi.org/10.1038/oby.2001.108>
- Puhl, Rebecca M. eta Heuer, Chelsea A. (2009). The Stigma of Obesity: A Review and Update. *Obesity A Research Journal*, 17(5), 941-964. <https://doi.org/10.1038/oby.2008.636>
- Ravaud, Jean-François, Madiot, Beatrice eta Ville, Isabelle. (1992). Discrimination towards disabled people seeking employment. *Social Science & Medicine*, 35(8), 951-958. [https://doi.org/10.1016/0277-9536\(92\)90234-h](https://doi.org/10.1016/0277-9536(92)90234-h)

- Rey Martínez, Fernando. (2008). La discriminación múltiple, una realidad antigua, un concepto nuevo. *Revista española de derecho constitucional*, 28(84), 251-283. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2775864.pdf>
- Rivas Vallejo, Pilar. (2015). ¿Es la obesidad causa de discriminación tutelable en el ámbito laboral?. *Iuslabor*, 1(2015), 1-29. <https://www.upf.edu/documents/3885005/3891256/Rivas.pdf/fe85d7c-cd8d-4616-b8ee-c4ba22b-4be5c>
- Rodríguez Zepeda, Jesús. (2006). *Un marco teórico para la discriminación*. Diskriminazioa Prebenitzeko Kontseilu Nazionala. http://www.conapred.org.mx/documentos_cedoc/marco%20teorico%20para%20la%20discriminacion-Ax.pdf
- Rosell, Jaime. (2008). *La no discriminación por motivos religiosos en España*. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Informazio Administratibo eta Argitalpenen Zuzendariorde Nagusia.
- Sola Berleycorn, Ignacio eta López Pietsch, Pablo. (2015). *Cómo actuar antes casos de discriminación y delitos de odio e intolerancia*. Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades. https://www.inmujer.gob.es/actualidad/NovidadesNuevas/docs/2015/2015-1345_Guia_Instituto_Mujer_ACESIBLE.pdf
- SOS Arrazakeria. (2011). *Discriminación y acceso a la vivienda de las personas inmigrantes en Bilbao*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/documentos_externos/bilbao_discriminacion_acceso_vivienda.pdf
- Sutherland, Allan. T. (1981). *Disabled We Stand*. Souvenir Press.
- Tratu Berdintasuna eta Arraza edo Etniagatiko Bereizkeriarik eza Sustatzeko Kontseilua. (2012). *Informe anual sobre la situación de la discriminación y la aplicación del principio de igualdad de trato por origen racial o étnico en España 2011*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Argitalpen Zentroa. https://igualdadynodiscriminacion.igualdad.gob.es/recursos/publicaciones/2012/documentos/2012_12_IA.pdf
- Unión Democrática de Pensionistas y Jubilados de España. (2019). *Informe sobre edadismo*. https://www.mayoresudp.org/wp-content/uploads/2019/09/19100-19038-UDP-BM-INF-5-JUN_Edadismo-1.pdf
- Yuval-Davis, Nira. (2017). Situated intersectionality and the meanings of culture. Ramón Máiz (Coord.), *Ciclo Europa Fortaleza. Fronteiras, Valados, Exilios, Migracións*-en. Consello da Cultura Galega. http://consellodacultura.gal/mediateca/extras/Texto_Nira_maquetado.pdf

Zeller, Meg H., Ingerski, Lisa M., Wilson, Lindsay eta Modi, Avani C. (2010). Factors contributing to weight misperception in obese children presenting for intervention. *Clinical Pediatrics*, 49(4), 330-336. <https://doi.org/10.1177/0009922809346571>

Legeak

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Kode Penalarena. (1995eko azaroaren 24ko BOE, 281. zk., 0001-0200 or.).
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. (2007ko martxoaren 23ko BOE, 71. zk., 0001-0066 or.). 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan. (2005eko uztailaren 2ko BOE, 157. zk., 23632-23634 or.).
- 122/000097 Lege Proposamena, orientazio sexual, genero-nortasun edo -adierazpen eta ezaugarri sexualengatiko diskriminazioaren kontrakoa, eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen berdintasun-sozialerakoa. (2017ko maiatzaren 12ko BOCG, 122-1 zk., 0001-0058 or.).
- 2000/43/EE Zuzentaraua, Europar Batasuneko Kontseiluarena, 2000ko ekainaren 29koa, pertsona guztiak berdintzatuzko printzipioa aplikatzeari buruzkoa, arraza edo etnia jatorria edozein izanik ere. (2000ko uztailaren 19ko DOCE, 180. zk., 0022-0026 or.).
- 2000/78/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa. (2000ko abenduaren 2ko DOCE, 303. zk., 0016-0022 or.).



Diskriminazioaren eta aniztasunaren analisi konparatiboa EAEn, Nafarroan, Estatuan eta European

Julia Shershneva

Maddalen Epelde Juaristi

Nahiz eta giza eskubideen eta berdintasunaren aldeko borrokan aurrerapausoak eman diren, diskriminazioak egungo edozein gizarteren parte izaten jarraitzen du, baita European ere. Hori dela eta, herrialde eta eskualde askotan diskriminazioari eta aniztasunari buruzko pertzepzio eta jarreraren diagnostikoa egiteko beharra planteatu da; batetik, egungo egoeraren berri izateko, eta, bestalde, zuzeneko eta zeharkako diskriminazio-esperientzien bilakaera monitorizatu ahal izateko. Horretarako, gizarte bakoitzak aniztasuna eta kolektibo desberdinak nola bizi dituen aztertu behar da.

Kapitulu honen helburua da analisi konparatiboa egitea Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin duen *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 inkestaren* emaitzen (EPADE 2020 aurrerantzean), eta diskriminazioari eta aniztasunari buruzko beste inkesta batzuen arteko emaitzen artean. Azken horiek hurbileko testuinguruetaoak nahiz Europakoak dira; hurbileko testuinguruetaoak Nafarroako Gizarte Inkesta eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (GletaBBI 2019) eta CISek egindako Diskriminazioaren Pertzepzioa Espainian (IMIO-CIS 2016) ditugu; eta Europakoa EBn diskriminazioari buruzko Eurobarometroa 2019.

Neurketa-tresnen arteko aldeak direla eta, hainbat iturriren analisi konparatiboek zailtasun metodologiko batzuk dituzten arren, antzekotasun handiena duten galderak aukeratzen saiatu gara. Hala ere, emaitzak zuhurtziaz interpretatu behar dira; izan ere, inkestak ez dira une berean egin eta alderdi

askotan testuinguru oso desberdinen errealitatea jasotzen dute, besteak beste: aniztasunaren osaera, kolektibo eta talde minoritarioekiko harreman historikoak, indarrean dagoen legeria, giro soziala eta politikoa, edo esperimentatu eta ikusitako diskriminazioaren balioak edo kontzientzia-maila.

Kapitulua hiru bloketan egituratzen da. Lehenengoan, analisia egiteko erabilitako metodologia deskribatzen da, baita inkestetako fitxa teknikoak ere. Jarraian, bigarrenean, oro har aniztasunarekiko eta zehazki kolektibo batzuekiko jarrerekin eta tolerantzia mailarekin lotutako gai orokorrak jorratzen dira. Gainera, gizarte-harremanei eta aniztasunarekiko bizikidetzaren onarpenari buruzko irudia ematen da. Hirugarren blokea, berriz, diskriminazioaren irudikapenetan oinarritzen da, bai gizartean hautemandakoa, bai azken hamabi hilabeteetan zuzenean bizi izandakoa. Azkenik, diskriminazioaren biktima izanez gero ditugun eskubideen ezagutza-mailaren emaitzak alderatzen dira.

Metodologia

Arestian aipatu den bezala, EPADE 2020 inkestaren emaitzen eta beste inkesta batzuetako emaitzen arteko analisi konparatibo hau egiteko, erkidegoan, estatuan eta Europan egindako hiru inkesta hautatu dira. Hala, EPADE 2020 inkestaren oinarri izan diren inkestak eta, beraz, item gehien partekatzen dituztenak honako hauek dira: CISek Espainian 2016an egindako *Diskriminazioaren pertzepzioari buruzko inkesta (II)* (aurrerantzean IMIO-CIS) eta 2019ko *Nafarroako Gizarte Inkesta eta Bizi Baldintzei buruzko Inkesta* (aurrerantzean GletaBBI). Jarraian, aztertutako inkesten fitxa metodologikoak eskaintzen dira.

1. koadroa. Inkesten fitxa teknikoak

Izenburua	Urtea	Tokia	Entitatea edo erakundea	Lagina
Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 Inkesta (EPADE)	2020	Euskal Autonomia Erkidegoa	Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia	18 urtetik gorakoei egindako 1.200 inkesta Laginketa geruzatua (esleipen sinplea), habitataren tamainaren, jatorriaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin
Gizarte Inkesta eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (GletaBBI)	2019	Nafarroako Foru Erkidegoa	Nastat (Nafarroako Estatistika Erakundea)	15 urte edo gehiagoko 1.067 pertsona Ausazko laginketa geruzatua, lurraldearen eta udalerriaren tamainaren arabera

Izenburua	Urtea	Tokia	Entitatea edo erakundea	Lagina
Diskriminazioaren Pertzepzioa Espainian (II) (IMIO-CIS)	2016	Estatu Espainola	CIS (Ikerketa Soziologikoen Zentroa)	18 urte edo gehiagoko 2.486 pertsona Ausazko laginketa (proportzio-esleipena), sexuaren eta adinaren arabera kuotekin
Eurobarometro berezia, 493: Diskriminazioa EBn (Special Eurobarometer 493: Discrimination in the EU)	2019	EBko 28 herrialde	Europako Batzordea	15 urte edo gehiagoko 27.438 pertsona Ausazko laginketa

Fuente: Elaboración propia.

Arestian aipatu den bezala, lau inkesten helburua diskriminazioaren pertzepzioa eta diskriminatzaileak izan daitezkeen jarrerak neurtzea bada ere, neurketa-tresnen arteko aldeak direla eta (eskalak, aintzat hartu beharreko kolektiboak, galderak, etab.), ezin dira alderatu jasotako alderdi guztiak edo garrantzitsuenak. Ildo horri jarraikiz, konparazioa egiteko aukera ematen duten item hauek hautatu dira:

1. Aniztasuna eta harremanak onartzea:

- a. Zein gizarte-motatan bizi nahi den (EPADE, IMIO-CIS, GletaBBI)
- b. Hainbat kolektiborekin bizi izanez gero, erosotasun-maila (EPADE, IMIO-CIS, GletaBBI).
- c. Adiskidetasun-harremanak eta pertsona ezagunak (EPADE, IMIO-CIS, Eurobarometroa)
- d. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartzea (EPADE, Eurobarometroa)
- e. Hainbat kolektiborekiko tolerantzia-maila pertsonala eta kolektiboa (EPADE, GletaBBI)

2. Diskriminazioaren pertzepzioa:

- a. Gizartean hautematen den diskriminazioa (EPADE, IMIO-CIS, Eurobarometroa)
- b. Diskriminazio-esparruak gizartean (EPADE, GletaBBI, IMIO-CIS)
- c. Azken 12 hilabeteetan bizi izandako diskriminazioa (EPADE, Eurobarometroa)
- d. Azken 12 hilabeteetan bizi izandako diskriminazioaren arrazoia (EPADE, IMIO CIS)
- e. Diskriminazioaren biktima izanez gero ditugun eskubideen ezagutza (EPADE, IMIO-CIS, GletaBBI)

Erabilitako metodologiari dagokionez, datuen aldagai bakarreko eta aldagai anitzeko analisi konparatiboa egin da. Azken kasu horretan, sailkapen hierarkikoaren analisia aplikatu da (kluster hierarkikoa), Europako hainbat herrialdeetako talde-kopuruari buruzko hipotesi onargarriak ezartzeko, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren onarpen-mailari dagokionez.

Aniztasunarekiko jarrerak eta gizarte-taldeekiko harremanak


Kultura anitza eta aniztasuna onartzea

Lehenengo zati honetan, aniztasunaren ikuspegi orokorrari buruzko datuak aztertuko dira. Lehenik eta behin, zein gizarte-motatan bizi nahi den galdera izango dugu ardatz. Galdera hori honako inkesta hauetan egin da: *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 inkesta* (EPADE 2020), *Nafarroako Gizarte Inkesta eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta* (GletaBBI 2019) eta CISEk 2016an eginiko *Diskriminazioaren Pertzepzioa Espainian (II)* (IMIO-CIS).

1. grafikoan ikus dezakegun bezala, Euskadin biztanleen % 65,6k adierazten dute jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean bizi nahiko luketela; CISEn inkestan, berriz, % 58k eta Nafarroan % 54,2k. Bestalde, euskal biztanleen % 28,9k diote jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarte batean bizi nahiko luketela; Estatuan % 33,7k eta Nafarroan % 28,5ek.

Hiru testuinguruetan, 65 urtetik gorako pertsonak, gazteenek baino neurri handiagoan, baieztatzen dute gizarte homogeneousago batean bizi nahiko luketela.

1. grafikoa. Zein gizarte-motatan bizi nahi den Euskadin, Nafarroan eta Estatuan (%)




Iturria: geuk egina (EPADE: 1.G. Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartetan bizi nahiko zenuke?; IMIO-CIS: 1.G. Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartetan bizi nahiko zenuke?; GletaBBI: Zer motatako gizartetan bizi nahiko zenuke?)

Beste alde batetik, aztertutako inkesta bakoitzean aniztasunaren gaineko sinesmenei eta posizionamenduari buruzko item asko sartzen badira ere, oso gutxik ematen dute analisi konparatiboak egiteko aukera, metodologia-

alderdiak direla eta. Formatu bera ez izan arren, egoera berari erreferentzia egiten dioten item gutxietako bat sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren onartze-mailari buruzkoa da. 2. grafikoan ikusten den bezala, EAEn sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren onartze-maila askoz handiagoa da EBko batez bestekoa baino (% 89,3 eta % 69, hurrenez hurren).

2. grafikoa. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartzea, EAEn¹ eta EBn



Iturria: geuk egina. (EPADE: 15.G. Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek, Otik 10era bitarteko eskalan, kontuan hartuta 0 erabat gaitzestea dela eta 10 erabat onestea Sexu bereko bi pertsona ezkontu ahal izatea; Eurobarometroa: 15.G. To what extent do you agree or disagree with each of the following statements? Same sex marriages should be allowed throughout Europe?)

Sexu bereko bi pertsonak ezkontzeko aukera izateari buruzko antzeko onartze-maila duten herrialde-taldeak identifikatzea onargarria den jakiteko, sailkapen hierarkikoko aldagai anitzeko analisia² aplikatu dugu (kluster hierarkikoko analisia). Konglomeratze-historiaren analisiak (koefizienteak) eta dendogramaren analisiak (irudikapen grafikoa) pentsarazten digute ea hiru herrialde-talde ezarri ditzakegun sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren onartze-mailaren arabera. 1. irudian taldeen osaera agertzen da:

- 1.T. *Onartze-maila handia* dutenak. Alemaniak, Erresuma Batuak, Espainiak, Luxemburgok, Herbehereek, Suediak, Danimarkak, Euskadik, Finlandiak, Portugalak, Frantziak, Irlandak eta Belgikak osatzen dute taldea, eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde dauden pertsonen ehuneko oso altua da herrialde horietan (batez beste, % 84 ados daude).
- 2.T. *Onartze-maila ertaina* dutenak. Italiak, Esloveniak, Maltak, Austriak eta EB28ko erdiek osatzen dute. Aglomerazio horrek onartze-maila ertaina du, baina, aldi berean, nahiko handia da sexu bereko pertsonen arteko

¹EPADE 2020n 0-10 bitartekoa eskala erabilienez eta Eurobarometro 2019n erantzuteko lau aukera ematen direnez (erabat ados, nahiko ados, nahiko ez-ados, erabat ez-ados), erabaki da lehena berriz kodifikatzea, hau da, 0-5 arteko puntuazioa "Ez-ados" kategorian sartzea eta 6-10 artekoa "Ados" kategorian.

²Hainbat taldekatze-metodorekin egin dira probak: taldeen arteko lotura, taldearen barruko lotura eta Ward, eta distantzia euklidearretik karraturako taldeen arteko distantzien neurketa-unitatearekin.

ezkontza begi onez ikusten ez duten pertsonen ehuneko (% 62 ados daude eta % 33 ez).


- 3.T. *Gaitzetsi* egiten dutenak. Azkenik, herrialdeen hirugarren taldea orokorrean ez dago ados sexu bereko pertsonen arteko ezkontzarekin (% 61 ez dago ados eta % 32 baino ez dago ados). Talde hau Letoniak, Eslovakiak, Bulgariak, Lituaniak, Errumaniak, Ziprek, Hungariak, Txekiak, Poloniak, Greziak, Kroaziak eta Estoniak osatzen dute.

1. taula. Azken kluster-zentroak

	1.T.	2.T.	3.T.
Ados	84	62	32
Ez-ados	12	33	61

Iturria: geuk egina..

1. irudia. Klusterra: herrialde-taldeak, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartzea




Iturria: geuk egina.

Berriz ere aniztasunarekiko jarrerari helduz, EPADE 2020 eta Nafarroako GletaBBI 2019 inkestetan honako alderdi honi buruz ere galdetu da: norberaren eta, oro har, gizartearen tolerantzia-maila aniztasun eta kolektibo desberdinekiko. 3. grafikoan ikus dezakegun bezala, bi testuinguruetan alderagarriak diren aniztasunetan, euskal herritarrek euren buruari esleitzen dioten onartze-maila nafarrenaren oso antzekoa da, aldaketa txiki batzuk izan ezik. Adibidez, gay eta lesbianekiko batez besteko tolerantzia-maila pertsonala zertxobait handiagoa da Nafarroan EAEn baino (8,55 eta 8,28, hurrenez

hurren). Hala ere, EAEko bizilagunek Nafarrokoek baino altuago kokatzen dute euren burua feminismoaren eskalan: 7,05 eta 6,35, hurrenez hurren.

3. grafikoa. Hainbat kolektiborekiko tolerantzia-maila, kokapen pertsonala eta soziala, EAEn eta Nafarroan (batez bestekoak)



Iturria: geuk egina (EPADE: 19-34G."Hauekiko tolerantzia-mailaren eskala batean, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?" Non kokatuko zenuke Euskadiko gizartea eskala horretan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?; GletaBBI Non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?)


Gizarteak oro har hainbat kolektiborekiko tolerantziaren eta aniztasunaren aurrean duen pertzepzioari dagokionez, ikusten dugu norberaren balorazioa onartze-maila handiagokoa dela beti kolektiboarena baino. Hala, honako hauek nabarmentzen dira batez ere: EAEn musulmanekiko (-1,38 tolerantzia maila kolektiboan) eta ijitoekiko (-1,44 tolerantzia maila kolektiboan) tolerantziaren pertzepzioaren aldeak; Nafarroan, aldiz, gay eta lesbianekiko (-1,66) eta atzerritarrekiko (-1,48). Beraz, EAEn, inkestatutako pertsonak uste dute gainerako herritarrak baino tolerantzeagoak direla ijitoekiko eta erlijio-aniztasunarekiko, eta Nafarroan norberak gainerako herritarrek baino onartze-maila pertsonala handiagoa du gay eta lesbianekiko, eta atzerritarrekiko.

Azkenik, bi testuinguruetan tolerantzia kolektiboan dauden aldeei erreparatzen badiegu, ikusten da euskal gizartea, oro har, tolerantzeagoa dela gay eta lesbianekiko, eta feministagoa Nafarroakoa baino; Nafarroako herritarrek, berriz, EAEkoek baino onartze-maila handiagoa dute ijitoekiko eta musulmanekiko.

Harremanak eta bizikidetzaren hainbat kolektiborekin

Bigarren atal honetan, hainbat kolektiborekiko bizikidetzaren onartze-mailari buruzko datuak aztertuko dira, bai eta kolektibo horietako pertsonen adiskidetasun-harremanei buruzkoak ere.

4. grafikoa. Euskadin, Nafarroan eta Estatuan gizarte-taldeen bizikidetzari buruzko erositutasun maila (%)



Iturria: geuk egina (EPADE: 14.G. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?; IMIO-CIS: 2. G. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?; GletaBBI: Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?

Erantzuteko aukeretan aldaketaren bat egon arren, EAeko, Nafarroako eta Estatuko inkestetan galdetu da auzo berean zenbait gizarte-kolektiborekin biziz gero daukagun erosotasun-mailari buruz. 4. grafikoan ikus daitekeen bezala kolektiboen lehentasun-ordena antzekoa da hiru testuinguruetan, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonak eta adinekoak dira onartze maila handiena dutenak; ijitoen komunitatea da, berriz, auzo berean biziz gero “erosotasun-maila” txikiena jaso duen kolektiboa da.

Lurraldean araberako aldeak aztertuz gero, nabarmentzekoa da Nafarroan bizikidetzaren onartze-maila txikiagoa dela EAEn edo Estatuan baino, ia kolektibo guztietan, musulmanen kasuan izan ezik, Estatuko gainerako erkidegoen onartze-maila bera antzematen baita. Azken kasu horretan, EAeko datua distantzia nabarmenera dago, eta, era berean, kolektibo horrekiko bizikidetzaren onartze-maila handiagoa erakusten du.

Hainbat kolektibotako pertsonetikiko adiskidetasun-harremanei dagokienez, galdera hori ez da planteatu Nafarroako inkestan, baina Eurobarometroan, ordea, agertzen da.⁵ grafikoan ikusten den bezala, nahiz eta erantzuteko aukerak guztiz bat ez datozen, ikus dezakegu EAEn interakzio-maila handiagoa dagoela ia kolektibo guztiekin, beste erlijio bateko pertsonen kolektiboarekin izan ezik. Gainera, hainbat kolektiborekiko interakzio-maila aldatu egiten da inkesta batetik bestera.


Kolektiboen arabera, atzerritarren kasuan, EAeko biztanleen % 85ek diote kolektibo horretako lagunak edo pertsona ezagunak dituztela; Estatuan, berriz, zifra hori % 64,7koa da, eta Europako batez bestekoa % 63koa³.

Desgaitasunen bat (fisikoa, intelektuala, sentSORIALA) duten pertsonen dagokienez, EAEn % 81ek ditu talde horretako lagunak edo pertsona ezagunak. Estatuko inkestan, berriz, % 49,1ek eta Europan % 63k.

Euskal herritarrek, halaber, baieztatzen dute LGTBI kolektiboko pertsonekin adiskidetasun maila handia dutela edo kolektibo horretan ezagunak dituztela; zehazki, pertsona guztien % 81ek baieztatzen du hori. Estatuko inkestaren datuei erreparatuz gero, zifra hori % 49,1ekoa da; EBren kasuan, berriz, % 63k diote kolektibo horretako pertsonekin adiskidetasuna dutela. Alde horiek, neurri batean, gerta daitezke ikuspegiren inkestan LGTBI kolektibo osoari buruz galdetu delako; CISen inkestan eta Eurobarometroan, berriz, sexu-orientazio desberdina duten pertsonen buruz eta homosexualei eta bisexualen buruz galdetu da, hurrenez hurren. Nolanahi ere, aldaketa oso handia da; izan ere, Estatuan % 8k baino ez dute adiskidetasuna transgeneroekin, eta Europan, berriz, inkestatutako biztanle guztien % 12k.

³ Aipatzekoa da, ordea, azken bi kasu horietan beste nazionalitate bateko pertsonetikiko adiskidetasuna galdetu dela (CIS) eta beste etnia bateko pertsonetikiko Adiskidetasunaz (Eurobarometroa).

5. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak, Euskadin, Nafarroan eta Estatuan (%)



Iturria: geuk egina (EPADE: 18.G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?; IMIO-CIS: 25.G. Zure ingurune hurbilenean (senitartekoak, lagunak, lankideak, ikaskideak) ba al dago horrelako inor?; Eurobarometroa: SD1. Do you have friends or acquaintances who are...?)

Beste erlijio bateko pertsonetako adiskidetasun-harremani dagokienez, daturik altuena Europako inkestan ikusten dugu. Inkesta horretan, % 68k diote beste erlijio bateko lagunak edo ezagunak dituztela; EAEn, aldiz, % 57,4k eta Estatuan % 57,3k.

Azkenik, ijitoekin adiskidetasuna dute Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 38,3k eta Europar Batasunean inkestatutako pertsonen % 20k. Bi kasuetan baieztatzen da kolektibo horrekin dutela harreman gutxien.

Diskriminazioaren pertzepzioa EAEn, Nafarroan, Estatuan eta Europan


Diskriminazio hautemana eta esparruak

Atal honetan diskriminazioak hainbat egoeratan duen pertzepzioaren analisi konparatiboa egingo da: autonomia-erkidegoak, Estatu eta Europa aintzat hartuta. Aurreko atalean bezala, ezinezkoa da EPADE 2020n jasotako item guztiak GletaBBIren inkestetakoekin edo Eurobarometroarekin erkatzea; izan ere, gehienak ez dira berdin planteatu. Hori dela eta, galdera antzekoenak hautatu dira.

Ondoko grafikoa diskriminazioaren existentziaren pertzepzioari dagozkion emaitzak aurkezten dira, ezaugarrien edo kolektiboetako kidearen arabera antolatuta. Ikusten denez, hala EAEn nola EBn jatorriak eragindako diskriminazioa aipatzen da gehien (EAEn % 48,8k baieztatzen dute oso edo nahikoa ohikoa izan daitekeela; EBn % 59k uste dute hori, eta Estatuan % 64k).

Adinak eragindako diskriminazioa dela eta, pertzepzioa handiagoa da Estatuan (% 54,9) EAEn (% 35,4) edo EBn (% 40) baino.

6. grafikoa. Diskriminazioak eta tratu-desberdintasunak ustez gehien eragiten dieten pertsonen ezaugarriak Euskadin, Nafarroan eta Estatuan (%)



Iturria: Geuk egina (EPADE: 13.G. Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?; Eurobarometroa: QC1. For each of the following types of discrimination, could you please tell me whether, in your opinion, it is very widespread, fairly widespread, fairly rare or very rare in (OUR COUNTRY)? Discrimination on the basis of...; IMIO-CIS: 9.G. Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Espainian, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?)

Desgaitasunak eragindako diskriminazioa dela eta, buruko desgaitasunak eragindako diskriminazioaren pertzepzioa handiagoa da EAEn baino (% 59,8 eta % 33,8); aldiz, desgaitasun fisikoa diskriminazioaren eragile oso edo nahiko ohikotzat jotzen dute EAEn inkestatutako pertsonen % 32,3k, Estatuan inkestatutakoen % 50,4k eta EBn inkestatutakoen % 44k.

Sexuak eragindako diskriminazioa dela eta, EAeko egoera (% 27,1) Europako batez bestekoaren (% 35) antzekoagoa da, Estatuan dagoen pertzepziotik

aldenduta: azken horretan inkestatutako pertsonen % 50,4k uste dute gizon edo emakume izatea diskriminazio-arrazoi oso edo nahiko ohikoa izan daitekeela.

Halaber, sexu- edo genero-identitatea aipatzen dute Estatuan inkestatutako en % 50,7k diskriminazio-ezaugarri posibletzat; EAEn, aldiz, kopuru hori erdira murrizten da: % 25,2.

Azkenik, hiru testuinguruetan ezberdintasun gehien atzematen diren esparruak daude: erlijioak eta sexu-orientazioak eragindako diskriminazioa. EAEn, diskriminazio gutxien eragiten duten bi ezaugarriak dira, baina Europan askoz handiagoa da ehunekoa. Hala, EAEn % 21,6k bakarrik hautematen du sinesmen erlijiosoek eragindako diskriminazioa oso edo nahikoa ohikoa dela; EBn, aldiz, % 46k uste dute hori, eta Estatuan % 33k.


Sexu-orientazioak eragindako diskriminazioari dagokionez, aipagarria da EAEn, EBn eta Estaturako datuen arteko aldea: EAEn, euskal gizartearen arabera, diskriminazio-arrazoi ezohikoa izan daiteke (% 18,7k bakarrik uste du oso edo nahiko ohikoa dela), baina EBn % 53ra igotzen da, eta Estatuan % 42,3ra.

Pertsonak aukera berberak ez dituzten esparruetan zentratuta ikusten dugu banaketa nabarmen aldatzen dela testuinguruaren arabera. 7. grafikoan ikusten denez, etxebizitza baterako alokairurako sarbidea da euskal gizartearen ustez (% 82,2k) tratu-ezberdintasun handiena pairatzen duen esparrua; aldiz, Estatuan % 71,2ra jaisten da zifra, eta Nafarroan % 66,6ra. Etxebizitza bat alokatzean pertsona bat gehien kalte dezaketen ezaugarriei dagokienez, hala EAEn nola Nafarroan eta Estatuan aipatuena dira baliabide ekonomiko gutxi izatea, eta ijitoa, atzerritarra edo langabetua izatea.

Lan-esparrurako sarbidea da euskal gizarteak ezberdintasun handienak atzematen dituen beste arloetako bat. Zehazki, % 78,1ek baieztatzen du pertsona guztiek ez dituztela aukera berberak EAEn lanpostu baterako hautatuak izateko: IMIO-CISek 2016an Estaturako egindako inkesta batean jasotako zifraren (% 78,4) antzekoa da. Nafarroan, berriz, esparru honetako diskriminazioaren pertzepzioa askoz txikiagoa da: % 63,4k uste dute pertsona guztiek ez dituztela aukera berberak lanpostu batera sartzeko. Bestalde, pertsonak lanpostu batera sartzeko prozesuan kaltetu ditzaketen ezaugarri nagusiei dagokienez, garrantziaren arabera ordena aldatu egiten da. EAEn ezaugarri garrantzitsuak dira ijitoa eta atzerritarra izatea, prestakuntza eskasa izatea, emakumea izatea eta nagusia izatea. Nafarroan, aldiz, lehenbizi pertsona nagusia izatea aipatzen da, eta ondotik atzerritarra izatea, buruko gaixotasun bat izatea, ijitoa izatea, desgaitasun fisikoa izatea eta emakume izatea. Azkenik, Estatuan, EAEn bezala, lehenbizi ijito izatea aipatzen da, eta ondotik emakume eta nagusi izatea, desgaitasun psikikoa izatea, atzerritarra izatea eta desgaitasun fisikoa izatea.

Erantzukizuneko lanpostu bat eskuratzeko ezberdintasuna da hala EAEn (EPADE 2020) nola Estatuan (IMIO-CIS 2016) egindako inkestetan aipatutako beste alderdi bat. Bildutako datua oso antzekoa da bi testuinguruetan: EAEn inkestatutako pertsonen % 77,6k eta Estatuan inkestatutakoen % 72,6k uste dute pertsona guztiek ez dituztela aukera berberak erantzukizuneko lanpostu bat eskuratzeko. Ezaugarriei dagokionez, hala euskal gizartearen nola Estatuakoaren pertzepzioaren arabera, emakumea eta ijitoa izatea dira diskriminazio gehien eragin dezaketen ezaugarriak erantzukizuneko lanpostu bat eskuratzeko. Bestalde, atzerritarra izatea, prestakuntza eskasa izatea edo desgaitasunen bat pairatzea ere aipatzen dira.

7. grafikoa. Hainbat esparrutan hautemandako diskriminazioa, EAE, Estatu eta Nafarroa (%)



Iturria: Geuk egina (EPADE: 7.G, 9.G, 11.G "Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak..."; IMIO-CIS: 4.G-8.G "Uste duzu pertsona guztiek dituztela aukera berdinak..."; GletaBBI: "Ba ote daude pertsona bat kalte dezaketen ezaugarriak...?")

Diskriminazio-esparruekin jarraituta, legeen aplikazioari dagokionez ere ezberdintasun nahiko daude aztertutako hiru testuinguruetan. Nafarroan eta EAEn pertzepzioa antzekoa da: EAEko biztanleen % 61ek eta Nafarroako % 66,8k hautematen dute tratua ez dela berdina; Estatuan, bestalde, % 78,2k uste dute hori. Dena den, legeak aplikatzean pertsona bat kalte dezaketen ezaugarriak antzekoak dira hiru testuinguruetan, eta gehien aipatzen direnak dira baliabide ekonomiko gutxi izatea, ijitoa izatea edo atzerritarra izatea.

Azkenik, zerbitzu publikoetarako sarbideari dagokionez (adibidez, osasuna edo hezkuntza), EADE 2020 eta IMIO-CIS 2016 inkestetan bakarrik aztertu da, eta erantzunak asko aldatzen dira. EAEn % 30ek uste du pertsona guztiek ez dituztela zerbitzu horietara sartzeko aukera berberak; estatuan, berriz, erdiek dute (% 49,4) uste hori. Zerbitzu publikoetara sarbide izateko pertsona bat baztertzeko ezaugarri nagusiak dira atzerritarra izatea, baliabide ekonomiko

gutxi izatea edo ijitoa izatea, nahiz eta EAEn gehienbat errepikatzen den erantzuna “Batere ez” izan.⁴

Azken hamabi hilabeteotan pairatutako diskriminazioa eta diskriminaziorik ezarako eskubidearen ezagutza

Azken atal honetan pertsona inkestatuek azken hamabi hilabeteotan pairatu duten diskriminazioari buruzko datuak aztertuko dira, bai eta diskriminazioaren biktimek dituzten eskubideen ezagutza ere.

Azken hamabi hilabeteotan diskriminazioa pairatu dutela adierazi duten pertsonen dagokienez, galdera hau EPADE 2020n, EBren Eurobarometroan (2019) eta IMIO-CIS 2016n agertzen da, eta inoiz diskriminaturik sentitu izana adierazi duten pertsonen egin zaie.

Ondoren, 1. mapan aurkezten dira azken hamabi hilabeteotan EBn eta EAEn diskriminazioaren biktima izan direla adierazi duten pertsonen ehunekoak. Ikusten dugunez, diskriminazio aitortuko ehuneko handiena duten herrialdeak dira Austria (% 27), Suedia (% 26), Belgika (% 24), Luxenburgo (% 22), Frantzia (% 21), Erresuma Batua (% 21), Herbehereak (% 20), Txekia (% 19) eta Hungaria (% 18). Horiek guztiak daude Europako batez bestekoaren (% 17) gainetik. EAeri eta Estatuari dagokienez, diskriminazio aitortu gutxien duten herrialdeen artean daude: % 9,4 eta % 11, hurrenez hurren. Ezberdintasun horiek herrialde horietako bakoitzean gertatzen den diskriminazio errealaren zordun ez ezik, diskriminazio-egoeretan dauden pertsonen sentsibilizazio- eta kontzientzia-mailaren zordun ere izan daiteke, bai eta egoerok identifikatzeko gaitasunaren zordun ere.


Azken hamabi hilabeteotan diskriminazioa pairatu duten pertsonen azaldutako diskriminazio-arrazoak direla eta, ondoren IMICIO-CIS inkesta estatalarekin egiten da erkaketa; izan ere, baldintza metodologikoen ez dute ahalbidetzen EPADEaren datuak Eurobarometroaren datuekin zuzenean erkatzea.

EAEn, desgaitasunen bat izatea (% 46,8) eta egungo adina (% 45,7) aipatzen dira usuen; Estatuan, bestalde, adinak eragindako diskriminazioa (% 59,3) eta, tarte handira, arraza edo etnia (% 40) nabarmentzen dira.

⁴IMIO-CIS 2016 inkestan ez da erantzun-aukera hau ematen.

Bi testuinguruen artean alde handiagoa ageri duten arrazoiak dira sexu- edo genero-identitatea. Kasu horretan, EAEn % 33,1ek adierazi dute diskriminatuta sentitu direla arrazoi horregatik azken hamabi hilabeteotan; Estatuan, aldiz, % 9,5ek bakarrik aipatu dute. Desgaitasunen bat izateak eragindako diskriminazioaren esparruan ere alde handiak atzematen ditugu erantzunetan: EAEn % 46,8k aipatzen dute, eta Estatuan erdiek (% 23,6).


1. mapa. Azken hamabi hilabeteotan pairatutako diskriminazioa, EAE eta EB (%)



Iturria: Geuk egina (EPADE: 36.G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako batengatik? Eurobarometroa: QC2 In the past 12 months have you personally felt discriminated against or experienced harassment on one or more of the following grounds? Please tell me all that apply)


Beste alde batetik, adinak eragindako diskriminazioan ere ezberdintasunak ikusten dira bi testuinguruetan. Estatuan EAEn baino jende gehiagok aipatzen du arrazoi hori dela-eta diskriminazioa pairatu izana: % 59,3k eta % 46,7k, hurrenez hurren.

8. grafikoa. Azken hamabi hilabeteotan pairatutako diskriminazioa, arrazoien arabera EAE eta EB (%)



Iturria: Geuk egina (EPADE: 36.G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako batengatik?; IMIO-CIS: 12.G Eta, azken 12 hilabeteotan diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako batengatik?).

9. grafikoa. Diskriminaziorik ezarako eskubidearen ezagutza, EAE, Estatia eta Nafarroa (%)



Iturria: Geuk egina (EPADE: 45.G. Ezagutzen al dituzu diskriminazioaren biktima gisa dituzun eskubideak?; IMIO-CIS: 16.G Ezagutzen al dituzu diskriminazioaren biktima gisa dituzun eskubideak?; GletaBBI: E45. Ezagutzen al dituzu diskriminazioaren biktima gisa dituzun eskubideak?)

Azkenik, diskriminaziorik ezarako eskubidearen ezagutza orokorraz arituko gara. 9. grafikoan ikusten den bezala, aztertutako hiru testuinguruetan diskriminaziorik ezarako eskubidearen ezagutza falta oso handia bada ere, EAE nabarmentzen da; izan ere, diskriminazioaren biktima izanez gero dituzten eskubideen ezagutza Estatukoa edo Nafarroakoa baino baxuagoa da: % 26, % 32,7 eta % 33,1, hurrenez hurren.

Ondorioak

Aztertutako datuek berriz erakusten dute diskriminazioaren fenomenoaren desagertzetik urrun dagoela, EAeko, Nafarroako eta Espainiako gizartean jarraitzen duela, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan bezala. Errealitate hori nahikoa argi geratzen da gizarte horietan diskriminazioari eta aniztasunaren pertzepzioari buruz egindako galdeketetan. Zehazki, hautemandako diskriminazioaren ehuneko erlatiboki altuak nabarmentzen dira, eta diskriminazioa eta aniztasunari ukoa ekar dezaketen jarrerak erregistratzen dira.

Nolanahi ere den, egoera aldatu egiten da gizarte batetik bestera, askotariko kolektibo sozialekiko interakzioa gertatzen den egoera eta testuinguruaren artean dauden aldeak ondorioz. Horrekin bat, diskriminazioak eta aniztasunaren pertzepzioak euskal gizartean eta beste errealitate batzuetan (beste autonomia-erkidego batzuk, estatua eta Europa) duten lekuaren analisi konparatiboak zenbait joera azpimarragarri azalarazi ditu. Lehenik eta behin, emaitzek erakusten dute diskriminazioak (hala hautemandakoak nola bizitakoak) leku gutxiago duela euskal gizartean. Halaber, aniztasunaren aurrean irekiagoa da euskal gizartea.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak nafarrak eta Estatuako gainerakoak baino irekiagoak dira kultur aniztasunaren aurrean. Tolerantzia-mailari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen tolerantzia pertsonala beste testuinguru batzuetakoaren antzekoa bada ere (adibidez, Nafarroako Foru Komunitateko bizilagunek dutenaren antzekoa), tolerantzia kolektiboaren esparruan aldeak daude: azken horretan, ijitoekiko tolerantzia handiagoa da, baina gay eta lesbianekikoa txikiagoa.

Harreman sozialei eta bizikidetzari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko bizilagunak Nafarroakoak edo Estatuakoak bezain ireki edo are irekiago ageri dira ia kolektibo guztiekiko bizikidetzan. Beste kolektibo batzuetako pertsonen adiskidetasuna edo harreman sozialak aniztasuna onartzearen beste adierazle bat dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bizilagunen kasuan, interakzioa atzeman da ia kolektibo guztiekin (atzerritarrak, LGTBI, ijitoak eta desgaitasuna dutenak). Salbuespen dira beste erlijio bateko pertsonak; izan ere, ehunekoak Estatuan edo Europar Batasunean ikusitakoak baino zertxobait baxuagoak dira.

Azkenik, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzek duten onarpena alderatu da, eta ikusi da Euskal Autonomia Erkidegoko bizilagunak Europako batez bestekoa baino askoz irekiagoak direla. Sailkapenerako aldagai anitzeko analisiak (kluster hierarkikoa) hiru multzotan bereizi ditu herrialdeak, alde eta aurka dauden pertsonen ehunekoaren arabera. Horien artean, EAE Europako iparraldeko eta mendebaleko herrialdeen artean dago; hain zuzen, herrialde horien ezaugarri da sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aurrean irekiago izatea.

Diskriminazioaren pertzepzioari dagokionez, analisiak erakutsi du Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak, oro har, diskriminazioaren pertzepzio baxua duela Estatuko edo EBko beste herrialde batzuekin alderatuta. EAeko gizartean hautemandako diskriminazioari buruzko datuak EBko beste herrialde batzuetakoarekin alderatuta, euskal gizartean diskriminazio-fenomenoaren existentziaren inguruko pertzepzio baxua dagoela ondoriozta dezakegu. Hala ere, diskriminazioa dela eta, EAEn diskriminazio-ehuneko handiagoak ikusi dira desgaitasunari, itxura fisikoari, eta sexu- edo genero-identitateari loturik. Euskal gizartean jatorriari, adinari eta sexuari lotutako diskriminazioaz dagoen pertzepzioa Europan dagoenaren antzekoa da; baina, erlijioari edo nazionalitateari lotutako diskriminazioari dagokionez, Estatukoaren antzekoagoa da.

Diskriminazioa hautematen den esparruei dagokienez, etxebizitzan ageri da ehuneko handiena aztertutako testuinguru guztien artean; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak hautematen du esparru horretan diskriminazio handiena. Lanerako sarbideari dagokionez, EAeko emaitzak eta Estatukoak antzekoak dira, baina Nafarroan baino zertxobait altuagoak. Legeak aplikatzean hautemandako tratu-ezberdintasuna zertxobait txikiagoa da EAEn estatuan baino, eta Nafarroan dagoen pertzepzioaren antzekoa. Azkenik, zerbitzu publikoetarako sarbidea dela eta, EAEn Estatuan baino desberdintasun txikiagoa atzematen da, nabarmen.

Azkenik, inkestatuek azken 12 hilabeteotan bizitako diskriminazioa aztertu da, eta ikusi EAEn dagoela diskriminazioa pairatu izana adierazi duten pertsonen tasa txikienetarikoa EBn. Gainera, aitortutako diskriminazioaren arrazoiak eta Estatuan erregistratutakoak alderatuta, EAEn diskriminazio-kasu gehienak desgaitasuna izateagatik edo egungo adinaren ondorioz sortuak direla ikusten da; Estatuan, aldiz, adinak eragindako diskriminazioa dago lehenbizi, eta jatorriak eragindakoa bigarren. Sexu- edo genero-identitateak eragindako diskriminazioa ere ohikoagoa da EAEn, Estatuan baino.

Laburbilduz, emaitzetan ikus daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartean diskriminazioaren pertzepzioa txikiagoa dago aztertutako ia alderdi guztietan. Nolanahi ere den, emaitza horiek kontuz interpretatu behar dira; izan ere, datu horrek diskriminazioaren existentziaren ezagutza- edo kontzientzia-maila besterik ez du islatzen oro har, hainbat esparrutan.

Bibliografia

Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2018). *Evolución de la discriminación en España. Informe de las encuestas IMIO-CIS de 2013 y 2016*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

CIS. (2016). *Percepción de la discriminación en España (II). Estudio nº 3150*. http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3140_3159/3150/es3150mar.pdf

European Commission. (2019). *Special Eurobarometer 493. Report on Discrimination in the European Union*. <https://doi.org/10.2838/5155>

Fernández Aragón, Iraide, Ruiz Ciarreta, Irune, Shershneva, Julia eta Arteta Esnal, Taide. (2020). *Análisis de la encuesta sobre percepciones y actitudes en torno a la discriminación en Euskadi*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEcas.pdf>

Nastat. Nafarroako Estatistika Erakundea . (2019). *Encuesta Social y de Condiciones de Vida 2019*. <https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3>

Nastat. Nafarroako Estatistika Erakundea . (2020). *Nota estadística de la Encuesta Social y de Condiciones de Vida, 2019*. https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/DescargaFichero.aspx?Fichero=\web\agregados\3_sociedad\31_soc_condiciones_vida\321_soc_condivida_escv2019\Discriminacion\Para%20web\ecv_2019.pdf



Diskriminazio anizkoitza EAEn

María Ángeles Cea D'Ancona

Gobernu demokratikoen agendetan aukera-berdintasuna aldezteak gero eta protagonismo handiagoa hartu arren, oraindik oso urrun gaude berdintasun hori lortzetik, zoritxarrez. Eskura ditugun datu estatistikoek eta demoskopikoek argi erakusten dute diskriminazioak errealtate izaten jarraitzen duela pertsona askorentzat, biztanleriaren multzotik bereizten dituen edozein ezaugarri hartuta aitzakiatzat, nahiz eta halakoak ez diren modu objektibo batean gauzatzen beti. Diskriminazioaren kontrako sentsibilizazio sozial gero eta handiagoak badu zeresanik horretan, bai eta soutilasun handiagoa hartzeak ere, zenbait jarrera, jokabide eta iritziren atzean dagoen asmoa lausotuta gelditzen baita. Hala dio Oskooi-k (2016: 617): “pertsona bati hipoteka uka dakiok, edo apartamentu bat, negozio bat sortzeko baimena, sarrera klub batean... edo soldata txikiagoa eman dakiok, gu ohartu ere egin gabe ekintza horien oinarriak arrazakeriari, etnizitateari, generoari edo sexu-orientazioari atxikitako faktoreekin lotuta daudela”.

Aintzat hartu behar da, gainera, ez dela erraza beti diskriminazioa (objektiboa nahiz hautemandakoa edo subjektiboa) eragiten duten arrazoiak bereiztea eta neurtzea. Kimberlé W. Crenshaw akademiko afroamerikarrak (1991) dioenez, ezin atzeman daiteke erabat arrazismoaren eta sexismoaren arteko elkargunea emakume beltzen bizitzan, baldin eta arraza eta genero dimentsioak bereiz aztertzen badira. Hori azaltzen lagundu diezaguke elkarrekin aztertzeak, modu interaktibo edo sumatibo batean. Diskriminazioa kontzeptualizatzeko hainbat modu daude, diskriminazio horrek arrazoi bat baino gehiago dituenean. Diskriminazioarekin lotutako termino asko, hala nola diskriminazio anizkoitza, metagarria, konposatua, konbinatua eta interseksionala bata

bestearen orde erabiltzen dira, nahiz eta horien esanahiak ez datozen bat. Kapitulu honetan, lehenengo, bi arrazoiri edo gehiagori esleitutako diskriminazioaren kontzeptualizazio eta neurketa askotarikoei erreparatu diegu. Gero, *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 inkestak* eskaintzen dituen datu demoskopiko berriak aztertuko ditugu; Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2020an egindako inkesta da, hemen aztertzen dena: Fernández Aragón et al. (2020). Hasi gaitezen, beraz, kontzeptualizazio horretatik, ikuspegi akademikoa eta legeen ikuspegia hartuta.

Diskriminazio anizkoitzaren kontzeptualizazioa eta neurketa

Duela bi hamarkada baino lehenago aitortu zen jada diskriminazio anizkoitzaren garrantzia, eta haren aurka esparru juridikoan eta politikoan jarduteko beharra; esparru akademikoetan, berriz, ibilbide zabalagoa izan du, eta bost hamarkada hartzen dituzte kontzeptualizazioari eta neurketari egindako ekarpenek. Lehenengoetan, esparru juridiko eta politikoetan, arrazoi bat baino gehiagok eragindako diskriminazio anizkoitzaren ikuspegia nagusitzen da, horiek denboran bat etorri edo ez (ENAR, 2007; Burri eta Schiek, 2008); esparru akademikoetan, berriz, kontzeptualizazio interseksionala hedatu da (Baca eta Thornton, 1996; McCall, 2005; Berger eta Guidroz, 2009; Choo eta Ferree, 2010; Best et al., 2011), nahiz eta modu desberdinetan ulertu eta erabili.

Diskriminazio interseksionalaren kontzeptualizaziorako, funtsezkoa izan zen, zalantzarik gabe, lehen nabarmendu den Crenshawen (1991) ekarpena. Interseksionalitate kontzeptua ekarri zuen (arrazakeriaren kontrako teoria feminista eta politikoetara), gizarte iparramerikarrea emakume beltzek bizi izandako diskriminazio desberdina nabarmentzeko: arraza eta genero terminoak aztertu beharra dago, denbora berean eta aldi berean jarduten dutelako eta elkarri eragiten diotelako. Garrantzi handia hartu zuen, halaber, Deborah King-en (1988) ekarpenak: diskriminazio-arrazoi desberdinen konbinazioa *multiple jeopardy* gisa kontzeptualizatu zuen. Argudiatu zuen emakume afroamerikarren bizitzan arrazismoaren, klasismoaren eta sexismoaren ekarpenak bereizi eta isolatzeko ahaleginetan, ez dela ulertzen egiaz nola funtzionatzen duten eta bizitzen diren desberdintasun-sistemak, elkarri eragiten baitiote. “Arrisku anizkoitz” kontzeptua txertatu zuen, emakume afroamerikarrek osatzen zuten gutxiengoarekin lotutako estatus askotarikoen ondoriozko pertsonen arteko tratatu txarrak eta egiturazko desabantaila deskribatzeko. Desberdintasun-eredu gehigarrien gainean eraikitako kontzeptua da, Beal-en (1970) proposamenari jarraiki; izan ere, “ez da soilik aldi bereko hainbat zapalkuntzaz ari, haien arteko harreman biderkatzaileaz ere ari da” (King, 1988: 47).

Dena den, badira autore batzuk besterik diotenak, Spelman (1988: 122), adibidez; hala dio hark: “nahiko engainagarria da besterik azaldu gabe esatea emakume beltzek sexismoa eta arrazakeria jasaten dituztela”; edo, berrikiago Greenman-ek eta Xie-k (2008) adierazi dutenez, emakume beltzen soldata-desberdintasuna ez da soilik pertsonaren arrazari eta generoari egotz dakioken soldata-penalizazioaren batura. Conaghan-ek (2009: 28-29), berriz, behin eta berriro esan izan du diskriminazioari buruz teorizatzean interseksionalitateak ez duela balio “konplexutasuna aintzat hartzeko aholku gisa baino ia ezer gehiagorako”.

Diskriminazioaren kontzeptualizazio interseksionalean, ezin dira bereizi une berean batera ari diren eta elkarri eragiten dioten askotariko arrazoiak. Diskriminazioaren ikusmolde gehigarriari kontra jartzen zaio (Beal, 1970), fenomeno gehigarri forma hartzen baitu, eta diskriminaziorako arrazoi askotarikoekin bat datozen osagaietan bereiz baitaiteke. Ildo horretatik, arrazoi bat baino gehiagoko diskriminazioa diskriminazio anizkoitz gisa kontzeptualizatu zuen Timo Makkonen-ek (2002), eta zenbait diskriminazio-esperientziaren metaketa gisa definitu zuen. Hark iradokitzen du diskriminazio-moten eragina osatu eta larriagotu egiten dela denboran zehar: “egoera horretan, pertsona batek diskriminazioa jasaten du zenbait arrazoigatik, baina denbora batean arrazoi batengatik gertatzen da diskriminazioa” (Makkonen, 2002: 9-10). Diskriminazio-esperientzien metaketa gertatzen dela onartzen da, beraz. Anizkoitz hitzak dituen konnotazio matematikoak aintzat hartuta (edo bikoitz, hirukoitz eta abarrek; esate baterako, generoa + desgaitasuna + adina), ez litzateke erabili behar motibo edo oinarri desberdinak aldi berean batera eta bereizi gabe aritzen diren egoerekin lotuta.

Aitzitik, diskriminazio konposatua une jakin batean zenbait diskriminazio-arrazoi elkarri gehitzen zaizkion egoerei erreferentzia egiteko kontzeptu gisa erabiltzen da. Arrazoi batean oinarritutako diskriminazioa beste arrazoi batean oinarritutako diskriminazioari gehitzen zaio, karga gehigarri bat eranstea. Dena den, autore askok baztertzen dute diskriminazioaren hurbilketa gehigarri edo konposatu hori, diskriminazio-esperientziak esperientzia bereizi, aske eta sumatibo gisa kontzeptualizatzen dituela uste dutelako, eta graduatu egin daitezkeela (Cuadraz eta Uttal, 1999; Weber eta Parra-Medina, 2003).

Edonola ere, diskriminazioek bat egiten duten egoerak deskribatzeko diskriminazio anizkoitz terminoa aplikatzea (eta horrela zaurgarritasunari larritasuna eranstea), horixe dajatorriz gehien agertzen dena esparru juridikoetan eta politikoetan (ENAR, 2007; Burri eta Schiek, 2008; Rey, 2008; Carles eta Jubany-Baucells, 2010; Catalá, 2010; Giménez, 2013). Hasiara batean, politika publikoetarako duen garrantzia nabarmendu zen Beijing Plataforman, *Action for Equality, Development, and Peace* ekimenean, Emakumeei buruzko Nazio Batuen IV. Mundu Konferentziaren (1995) barnean, zehazki. Emakume askok aurre egin behar izaten dioten diskriminazio anizkoitzaren arazoari heltzeko

erabakia berretsi zuten parte hartu zuten gobernuek. Halaber, anizkoitz terminoa diskriminazioaren aurkako Europar Batasuneko (EB) zenbait zuzentarautan ere agertzen da:

- Ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentaraua (*Racial Equality Directive*), pertsonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzen duena, horien arraza- edo etnia-jatorria edozein izanik ere.
- Azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentaraua (*Employment Equality Directive*), enpleguan tratu-berdintasuna izateko esparru orokorra ezartzen duena.

EBko legedian debekatutako diskriminazio-arrazoen kopurua handitu zuten bi zuzentzari horiek, bitik (generoa eta nazionalitatea) zuzentzari zehazki (arraza edo jatorri etnikoa, adina, sexu-orientazioa, desgaitasuna eta erlijioa edo sinesmenak). Horien hitzurreetan jasotako adierazpenetan, emakumeak askotan diskriminazio anizkoitzaren biktima direla esaten zen, eta diskriminazioari aurre egiteko politika berriek barnean hartu behar zutelako diskriminazio anizkoitza. Handik urtebetera, Arrazismoaren, Arraza Diskriminazioaren, Xenofobiaren eta horiekin lotutako Intolerantzien aurkako Mundu Konferentziaz NBEren Batzar Nagusiak egindako txostenak ere onartu zuten diskriminazio anizkoitzaren garrantzia; Durbanen (Hegoafrika) izan zen konferentzia hura, 2001eko abuztuaren 31tik irailaren 8ra. Hauxe dio berariaz azken adierazpenak (2. zk.):

Aitortzen dugu arrazismoa, arraza-diskriminazioa, xenofobia eta horiekin lotutako intolerantzia-moduak arraza, kolore, arbaso edo jatorri nazional edo etnikoagatik gertatzen direla, eta biktimek diskriminazio-modu anizkoitzak edo larriagoak jasan ditzaketela lotuta dauden beste arrazoi batzuegatik, hala nola sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoak, jatorri soziala, jabetza, jaiotza edo beste estatus bat.

Diskriminazio anizkoitzaren garrantzia nabarmendu zuten, halaber, 2007. urtea *Guztion Aukera Berdintasunerako Europako Urte* izendatzeko hartutako erabakiak: "Gizarte justu baterantz" (771/2006/EE Erabakia). Europako Urteak ere diskriminazio anizkoitzari (EEko 13. artikuluan zerrendatutako arrazoi biren edo gehiagoren ondoriozko diskriminazioa) helduko ziola berresten zen. 2008an, Europako Batzordeak iragarri zuten gobernantza-mekanismo berriak aplikatuko zituela diskriminazio anizkoitzaren gaiari heltzeko, eta talde intersektionalen ordezkari ziren GKEen sare txikiagoak finantzatzeko zituela horretarako. 2009ko apirilaren 2an, Europako Parlamentuak diskriminazio anizkoitzari buruzko xedapenak erantsi zizkion batzorde horren proposamenari (COM 2008 Kontseiluaren Zuzentaraua), eta, horretarako, xedapen bat gehitu zion zuzentzariaren testuari, non diskriminazioari aurre egiteko esparruak bere irismenaren barruan diskriminazio anizkoitza barnean hartzen duela

azaltzen duen (1. artikulua). Gainera, diskriminazio anizkoitzarekin lotutako politika guztien ezarpena berrikusteko eskatzen zien estatu kideei (Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2009ko azaroaren 25ekoa)¹.

Egindako ibilbide horretatik, ondoriozta daiteke nahiago dugula anizkoitz terminoa oraindik ere, diskriminazioaren kontzeptualizazio holistiko eta estrukturalistago batetik abiatuta, aurrez beste hainbat autorek egin zutenaren ildotik; hauek, esate baterako: Burri eta Schiek (2008), Sargeant (2011), Grollman (2014), Harnois (2015), Valles, Cea D’Ancona eta Domínguez (2017), edo Bericat et al. (2018). Termino orokor bat, egoera guztietarako, non diskriminazioa arrazoi batengatik baino gehiagorengatik gertatzen den. Gainera, termino horixe aukeratu da Europako Batzordearen enkarguz edo EU-MIDIS inkestan (European Union Minorities and Discrimination Survey) orain arte berriaz diskriminazioaz landu diren eurobarometroetan (azkena 2019koa da). Horietan, diskriminazio anizkoitza edozein egoeratan edo unetan arrazoi batengatik baino gehiagorengatik gertatzen den diskriminazio gisa ulertzen da (arrazoien konbinazioa).

Bestalde, kontuan izan behar da, diskriminazioari buruzko inkestetan, izaera anizkoitza, normalean, ohiko diskriminazio edo diskriminazio gehigarri gisa neurtzen dela, eta ez diskriminazio interseksional gisa. Bowleg-ek (2008: 314) honela dio: “birtualki, ezinezkoa da interseksionalitateari buruz berez gehigarriak ez diren galderak egitea, bereziki, ikerketa kuantitatiboan”². Harnois-en (2015: 21) hitzetan, “nik dakidanez, Estatu Batuetan ez dago berriaz diskriminazio anizkoitza aztertzeraz zuzentzen den eskala handiko inkestarik. Horrelako inkesta gehiago behar dira Estatu Batuetan, Europan eta edonon. Horrelako inkestarik izan gabe, ia ezinezkoa da diskriminazio anizkoitzaren prebalentzia, korrelazioak eta ondorioak dokumentatzea”. Gainera, ikertzaileak “dagokion guztia” aukera dezaten bultzatzen ditu.

Inkestaren metodologiak bere burua aitortzen duen diskriminazioa, bizi, sentitu eta hautematen dena, ezagutzen eta neurtzen laguntzen du, baina ez hainbeste diskriminazio erreala edo objektiboa ezagutzen eta neurtzen. Diskriminazio anizkoitza neurtzeko inkesta-metodoen egokitasunari buruzko aurreko ikerketa batean (Cea D’Ancona, 2017), berretsi zen diskriminazioa neurtzeko egokiagoa zela aurrez aurreko inkesta edo zuzeneko. Oro har biztanleen multzo osoari aplikatzen zaiolako gertatzen da hori, nahiz eta desiragarritasun sozialerako joerak halako zaurgarritasun bat adierazi. Aldiz, joera hori ez dago horren presente norberak betetzen dituen *online* inkestetan; diskriminazioarekin

¹Diskriminazio anizkoitzak esparru akademikoetan, politikoetan eta juridikoetan izan duen kontzeptualizazioari egindako ekarpen hauei eta beste batzuei buruz, ikusi Cea D’Ancona eta Valles (2020).

²Ikerketa kuantitatiboan (McCall, 2005; Choo eta Ferree, 2010; Cho et al., 2013), ez dago adostasun handirik interseksionalitatearen aplikazio empirikoari dagokionez; errazago ageri da ikerketa kualitatiboaren bidez.

lotutako esperientzia pertsonalak aitortzearen eta sozialki onartuak ez diren diskriminazio-jarrerak kanporatzearen alde jokatzeko du horrek. Hala eta guztiz, behaketa faltarekin lotutako akats gehiago izan ditzakete, eta horixe egiaztatu ahal izan dute beste hainbat autorek ere (Heerwegh eta Loosveldt, 2008). Zehazki, hezkuntza- eta errenta-maila txikiagoko pertsonen ordezkaritza txikiagoa da norberak betetzen dituen *online* inkestetan, erantzun gabeko itemak gehiago dira, eta batasuna ere handiagoa, inkestaren gaia inkesta egin zaion pertsonaren interesekoa denean izan ezik, eta horixe da hemen aztertzen ari garen inkesten kasua.

Diskriminazio anizkoitzari buruzko ikerketak, lehen aipatu dugunak, halaber, argi erakutsi zuen diskriminazioaren zuzeneko adierazleei eragiten diela gehien inkestaren metodoak transmititzen duen pribatutasunak. Bereziki, hezkuntza-maila handieneko pertsonen kasuan, zaurgarritasun handiagoa erakusten dutelako desiragarritasun sozialaren joerarekiko. Diskriminazioa neurtzeko funtsezkoak diren beste emaitza batzuk gehitu zitzaizkien horiei. Bestek beste, zenbakizko erantzunak dituzten galdera itxiak gehiago erabiltzea, “asko, nahikoa, gutxi, batere ez” eskala tradizionala aplikatzean baino neurketa zehatzagoak edo ez horren anbiguoak lortzeko, aipatutako horiek ez baitituzte berdin ulertzen inkesta egiten zaien pertsona guztiek (batzuentzat, “asko” baino gehiago da “nahikoa”).

Diskriminazio-esperientzien multzoa

Jatorrizko kontzeptualizaziotik, diskriminazio anizkoitza, diskriminazio interseksionala bezala, genero eta arraza- eta etnia-jatorri aldagaien konbinazio espezifikoki lotu izan zaio, edota pertsona etorkin izateari, diskriminazio-egoera jakin batean beste faktore edo arrazoi batzuk ere izan daitezkeela aparte utzita. Hala izan da. Ikus dezagun zer adierazten digun berriki argitaratu den inkesta honek: *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin (2020) inkesta*. Zuzeneko diskriminazio-esperientzien inguruko bi galdera biltzen ditu inkestak. Lehenengoa horrela dator idatzita: Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?”. Txartel batean, diskriminazio-arrazoiak azaltzen zitzaizkien inkesta egindako pertsonen, ordena honetan: “Sexuagatik (emakumea edo gizona izategatik); Etnia- edo arraza-jatorriagatik; Nazionalitateagatik edo jatorriagatik; Genero-identitateagatik/orientazio sexualagatik; Adinagatik (gaur egungoa); Erljioagatik edo sinesmen erlijiosoengatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik); Baliabide ekonomiko gutxi izategatik; Desgaitasunen bat izategatik; Gehiegizko pisua/obesitatea edukitzeagatik; Auzo edo udalerrri degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik; Haurdun egoteagatik”. Arrazoi bakoitzaren parean diskriminatuta “askotan, zenbaitetan, ia inoiz ez edo inoiz ez” sentitu diren adierazteko eskatzen zaie.

1. grafikoak diskriminazio-arrazoiak zein diren erakusten du, neurketako maiztasunen arabera ordenatuta. Inkesta biztanleria orokorrari egiten zaio, eta ez diskriminazioa jasateko egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak, eta, horregatik, diskriminazio-arrazoi generikoenak nabarmentzen dira, hala nola generoagatikoa (% 11), nazionalitateagatikoa (% 6, tarte handi samarrarekin, beraz) eta adinagatikoa (% 6). 2013ko eta 2016ko *Diskriminazioari buruzko pertzepzioak Espainian* inkestan ikusten zenez (hemen aztertuta datoz: Cea D’Ancona eta Valles, 2018), inkesta biztanleria oro har hartuta egin zen; generoagatikoa diskriminazioa nabarmendu zen gehien, Euskadin ikusitakoaren antzeko proportzioetan: % 12 2013an, eta % 14 2016an. Nabarmendu diren beste bi diskriminazioak datoz gero, baina alderantzizko ordenan: adinagatikoa (% 10) eta nazionalitateagatikoa (% 9); eta antzeko proportzioetan bi datetan³. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago galdera horren bidez ez dela horrenbeste diskriminazio objektiboa aztertzen, subjektiboa baizik; hau da, pertsonak desberdin edo modu bidegabean tratatua izanaz zer pertzepzio duen: “diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik...”. Hala ere, diskriminazio horiek objektiboek baino garrantzi handiagoa hartzen dute pairatzen dituzten pertsonentzat, aurrez egin diren azterketek erakutsi dutenez (Foley et al., 2005; Motti-Stefanidi eta Asendorpf, 2012; Cea D’Ancona, 2020b).

1. grafikoa. Zuzeneko diskriminazio-esperientziak (%)




Iturria: geuk egina. (35. G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?)

³*Espainian bizi diren pertsona afrikarrei eta afrikarren ondorengoei zuzendutako Inkestan (2020ko azaroa) bildutako emaitzen oso desberdinak dira; izan ere, kasu horretan, diskriminazio-esperientzia nagusia, espero izatekoa zenez, azalaren koloreari edo ezaugarri etnikoei lotutakoa izan zen (inkestari online erantzun zioten 1.369 pertsonen % 78), inkestari erantzun zioten pertsonak beltzak zirenez, afrikarrak edo afrikarren ondorengoak. Urrutitik bada ere, nazionalitateari egotzitako diskriminazioa dator hurrena (% 47), eta espero izatekoa zen hori ere. Aitzitik, generoagatikoa diskriminazioa hirugarren tokian kokatu zen (% 42), lehenengo hartatik oso urrun, baina inkesta biztanleria orokorrari eginda baino aipamen handiagoarekin. Informazio gehiago izateko, ikusi Cea D’Ancona eta Valles (2021).*

Lehen aipatutako galdera horri galdera-erantzunen formatu bereko beste batek jarraitzen dio, baina, enuntziatuaren arabera, erantzuna azken urtera mugatzen da. Honako hauxe dio zehazki: “Eta, zehazki, zergatik sentitu zara diskriminatuta azken 12 hilabeteetan?”. Gainera, aurreko galderan diskriminatuta sentitu izan direla erantzun dutenei soilik egin zaie galdera hori. Horrek guztiak erantzuntasa baxua dakar: 124 pertsona dira gehien aipatutako diskriminazioari dagozkionak, generoagatiko diskriminazioari dagozkionak, alegia (lagin osoa 1.217koa da, eta horren % 10 dira). Horregatik, ondoren egiten diren azterketak aurreko galderara mugatzen dira, generikoagora, eta guztira inkesta egin zaien 1.217 lagunetako bakoitzak aipatutako diskriminazio-arrazoi desberdinen kopuru osoak zenbatzeko ahalegina egin da.

Gizabanakoa edozein egoeratan edo unetan eta bere bizitzan zehar arrazoi batengatik baino gehiagorengatik izan daitekeela diskriminatua aitortzen du diskriminazio anizkoitz kontzeptuak. Horien konbinazioa da (ezaugarri etniko batzuk izatea, adin bat, genero bat, itxura fisiko jakin bat edo posizio sozioekonomiko zehatz bat) diskriminazioari halako zaurgarritasun bat erants diezaiokeena. Horregatik, ikertu egin behar da ea pertsona baten bizitzan zehar “arrazoien metaketagatik” diskriminazio-esperientziarik gertatu den, eta horrek azterketa historiko-biografikoari irekitzen dio atea (Valles, Cea D’Ancona eta Domínguez, 2017). Ez inkesta honek ez eta diskriminazioari buruzko beste batzuek ere ez dutelako arrazoen aldiberekotasunaz galdetzen, eta bai, berriz, pertsona bat diskriminatuta sentitzeko ohiko arrazoiez. 2. grafikoak aipatzen diren diskriminazio-arrazoen kopurua biltzen du. Lehen adierazi denez, inkestari erantzun dioten lau lagunetatik hiruk diote ez direla sentitu diskriminatuta galderan zehazten diren 11 diskriminazio-arrazoietakoa batengatik. % 18k diskriminazio-arrazoi bakarra aipatzen du, eta bi edo gehiago aipatzen dituztenak, berriz, gutxiengoa dira inkestari erantzun dioten herritarren multzo osoaren barnean: % 4k dio bi arrazoiengatik sentitu dela diskriminatuta, eta % 2k baino ez ditu adierazi hiru diskriminazio-arrazoi desberdin; eta % 1ek aipatu ditu galderako lau arrazoi.

2. grafikoa. Aldi berean hainbat arrazoi eragindako diskriminazio anizkoitzaren zuzeneko esperientzia (%)



Iturria: geuk egina. (35. G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?)

Aipatutako diskriminazio-arrazoiaren kopuruei dagozkien ehunekoak txikiak izan arren, lehen aipatu den Espainiako inkestetan lortutakoen oso antzekoak dira (*Diskriminazioari buruzko pertzepzioak Espainian*, IMIO-CIS inkesta, 2013 eta 2016). Horietan, 2013an inkesta egin zitzaizen pertsonen % 71k eta 2016an egin zitzaizen pertsonen % 66k adierazi zuten ez zirela sentitu diskriminatuta inolako arrazorengatik; % 14k eta % 16k, hurrenez hurren, arrazoi bat aipatu zuten; % 7k bi arrazoi aipatu zituzten bi inkestetan; % 3k, berriz, 3 arrazoi; eta % 2k lau arrazoi, proportzio berean bi inkestetan. Beraz, EAEn bildu diren emaitzak eta Espainian bizi diren biztanleen multzoari galdetutakoan bildutakoak antzekoak dira, diskriminazio-esperientziei dagokienez.

1. taulan, diskriminazio desberdinen uztarketak deskribatu dira, diskriminatuta sentitu direla aitortu duten pertsonak hartuta abiapuntutzat, eta edozein maiztasun (“askotan”, “zenbaitetan”, “ia inoiz ez”) jasoz, diskriminatuta sentitu ez direnen aurrean. Gehien aipatzen diren diskriminazioen uztarketak jasotzen ditu soilik taulak, eta gehien neurtu diren hiru diskriminazio-arrazoiak hartuta kontuan: generoagatikoa (% 11), nazionalitateagatikoa (% 6) eta adinagatikoa (% 6). Ehunekoak kalkulatzeko lagin-oinarriak 127, 78 eta 68 kasu izan dira, hurrenez hurren. Lagin-oinarri txikiak murriztu egin du inkestari erantzun dioten EAeko biztanleengan aipamen txikiagoa izan duten beste diskriminazio batzuen uztarketak aztertzeke aukera. Beraz, sexuagatik/generoagatik diskriminatuta sentitu diren 127 lagunak hartuta, % 24 adinagatik (gaur egungoa) diskriminatua sentitu dira aldi berean, eta % 13 nazionalitateagatik ere bai. Lehen arrazoi harekin uztartuta, pobrezia dator gero, baliabide ekonomiko gutxi izatea (% 9), alegia, eta pisu gehiegi/obesitatea izatea (% 8).

Generoagatikoa diskriminazioa nagusiki emakumeei dagokienez (inkesta egin zaien 627 emakumeetatik % 18k bizi izan dute, eta, gizonen kasuan, berriz, inkestari erantzun dioten 586 gizonetatik % 2 inguruk), lehen nabarmendu ditugun diskriminazioen bat-etortzea lotuta dago emakumeek horrelakoak gehiagotan bizi izatearekin. Era berean, ikusi dugu gehien aipatzen diren diskriminazioetan bigarrenak, nazionalitateari dagokionak, pisu handiagoa hartzen duela aldi berean etnia- edo arraza-jatorri desberdinekoa izateagatik, emakumea izateagatik, adin handiagoa izateagatik eta baliabide ekonomiko gutxi izateagatik pairatzen diren diskriminazioekin batera gertatzen denean.

Oro har nazionalitateagatikoa diskriminazioa handia ez bada ere (inkestari erantzun dioten pertsonen % 6k adierazi du halakorik), proportzioa zinez nabarmen handitzen da, beste herrialde batean jaiotako pertsonetara mugatzen bagara. Kasu horretan, inkesta egin zaien Espainiatik kanpo jaiotako 131 pertsonen % 60 hartzen du ehunekoak; eta ikuspegi horretatik aztertu behar lirateke datuak. Nazionalitatea dela eta diskriminatuta sentitu diren 78 pertsonetatik, etnia-jatorriagatikoa diskriminazioa bizi izan du % 32k, generoagatikoa % 22k, adinagatikoa % 18k, eta baliabide ekonomiko gutxi izateagatikoa % 12k. Proportzio horiek generoagatikoa diskriminazioarekin

uztartuta erregistratutakoak gainditzen dituzte, kasu guztietan. Beraz, eragina du horrek beste nazionalitate batzuetako pertsonen artean diskriminazio anizkoitzaren presentzia handigoa izatean; are gehiago, pertsona beste etnia- edo arraza-jatorri batekoa denean; eta lehen hizketagai izan dugun *Pertsona afrikarrei eta afrikarren ondorengoei zuzendutako Inkestan* behatutakoaren ildotik doa hori.

Azkenik, egungo adinagatik diskriminatuta sentitu direla adierazi duten 68 pertsonen artean, % 46k dio aldi berean generoagatik ere sentitu dela horrela, % 21ek nazionalitateagatik ere sentitu dela horrela, eta % 13k, berriz, haurdunaldiagatik ere bai. Ildo horretatik, ohart gaitezen azken diskriminazio hori ez datorrela bat soil-soilik generoagatik diskriminazioarekin (emakumeak); aitzitik, adinagatikoa ere bada, adin handieneko emakumeek gehiagotan bizi izan dutelako halakorik. Azken batean, generoagatik + adinagatik + haurdunaldiagatik diskriminazioen uztarketa hirukoitzak du presentzia handiena Euskadin, inkestari erantzun diotenen artean. Ildo beretik, etnia- edo arraza-jatorriak zaugarritasuna eransten dio nazionalitateagatik diskriminazioaren bizipenari, bai aldi berean generoagatik diskriminazioarekin datorrenean, eta bai erlijioagatikarekin datorrenean; azken horrek presentzia handiagoa du erlijio musulmana duten pertsonen artean.

1. taula. Zuzeneko diskriminazio-esperientzien bat-egiteak (%)

Diskriminazioen uztarketak		%	Diskriminazioen uztarketak		%	Diskriminazioen uztarketak		%
Generoa +	Adina	24	Nazionalitatea +	Etnia-jatorria	32	Adina +	Generoa	46
	Nazionalitatea	13		Generoa	22		Nazionalitatea	21
	Baliabide gutxi	9		Adina	18		Baliabide gutxi	13
	Gehiegiz. pisua	8		Baliabide gutxi	12		Haurdunaldia	13
	Etnia-jatorria	7		Erljioa	9		Gehiegiz. pisua	10
	Haurdunaldia	7		Desgaitasuna	6		Desgaitasuna	7
Generoa +	Haurdunaldia	15	Generoa +	Adina	15	Nazionalitatea +	Etnia-jatorria	10
Adina +	Gehiegiz. pisua	10	Nazionalitatea +	Etnia-jatorria	10	Erljioa +		

Iturria: geuk egina.

Hauteman diren diskriminazioak bat etortzeari dagokienez, MEDIM II proiektuko (Cea D'Ancona, 2020) ikerketa kualitatiboan ikusi dena erants daiteke, Bericategi eta kideek (Bericat et al. 2018: 42) diskriminazio anizkoitzaren analisia egiteko metodologia kualitatiboak duen erabilgarritasunaz adierazitakoa argitzen baitu: "Hurbilketa kualitatiboak aukera ematen du diskriminazio anizkoitzei aurre egiten dieten taldeen esperientziak sakonkiago ulertu ahal izateko eta ezkutuan dauden biztanle zaugarrienengana iristeko". Proiektu horretarako elkarrizketatu ziren diskriminazioaren esparruko elkarteetako kideek eta adituek diskriminazio bikoitzak eta hirukoitzak zeudela nabarmendu zuten (diskriminazio anizkoitzari

buruzko aurreko MEDIM I proiektuak nabarmendu zuen bezala), horrek diskriminazio desberdina adierazten duela ere aintzat hartuta. Diskriminazio-arrazoen multzoari genero (emakume izatea), adin (adineko pertsonak) eta itxura fisikoa aldagaiei dagozkienak gehitzen zaizkie: “Orain, denok ederrak, gazteak eta argalak izan behar dugu”. (LGTBI elkarteko kidea).

Diskriminazio anizkoitzari buruzko ikerketa kualitatibo horretan gehien nabarmendu diren bat-egiteen artean, diskriminazio interseksionalaren kontzeptualizazioa dakarren honako uztarketa tradizional hau dago: emakumea + beltza izatea edo/eta beste ezaugarri etniko batzuk + baliabide ekonomiko gutxi izatea (“Diskriminazio horietan eragina duten askotariko pertenezkiez ari gara. Adibidez, perutarra den pertsona ilehori batek agian ez du halakorik sentitu”). Halaber, etorkina + beltza + LGTBI izatea (“Ez dira gauza bera gizonezko espainiar gay bat izatea eta Senegalgo emakume lesbiana bat izatea”), edo etorkina + musulmana + LGTBI izatea (“Lehendik existitzen den islamofobiaren geruzari eransten zaion beste geruza bat da: xenofobia. Batzuetan, diskriminazio-mota bat baino gehiago gertatzen dira; jatorri marokoarra duen eta Hijaba daraman emakume musulmanaren kasuan, adibidez, kasu horretan aporafobia, xenofobia, islamofobia eta matxismoa ere gerta baitaitezke”).

Azken bi diskriminazio hirukoitzek halako berritasun handiago bat lortu zuten MEDIM II proiektuan jasotako kontakizunetan. Aldiz, MEXEES proiektuetan nabarmendu zen lehenengoa (Cea D’Ancona, Valles eta Eseverri, 2013). Horietan, behin eta berriro azpimarratu zen nazionalitate + azalaren kolore + gizarte-klase arrazoen ondoriozko diskriminazio handiagoa; bereizketa egiten zen “lehen kategoriako, bigarreneko eta hirugarreneko” etorkinen artean, edota are “pata negra etorkinak” bereizten ziren. Behin eta berriro azpimarratu zen: “asko erreparatzen diogu azalaren koloreari”. Dirua baduzu, ez zara etorkina, “zer-nolako diru-zorroa duzun”. Salaketa horretan, bat etorri ziren bai hemengo biztanleak eta bai jatorriz etorkinak direnak. “Zenbat diru duzun”, horrek baldintzatzen du diskriminazioa: “etorkinak zer egoera ekonomiko duen”; klasistak garela aitortzen zen, beraz. “Emigrantea ondo kokatuta badago, utzi egiten dio *pantxito* edo beltz izateari. Besterik da miseriaren eraginez eskean badatoz, edo zaratsuak badira, edo gogaikarriak. Horrelakoetan, *pantxitoak* dira, errumaniarrak, ijitoak, eta ez zaizkigu horren jatorrak iruditzen” (gizarte-maila ertain-baxuko 41 urteko gizon bati dagokio kontakizun hau; haren gurasoek Alemaniara emigratu zuten, eta han jaio zen).

MEXEES proiektuetan, xenofobiaren neurketari buruzko lanetan, erosteko ahalmena azalaren koloreari gainjarri zitzaion askotan: “beltza izan zaitezke, eta diplomazialari batean semea, eta ez zaituzte inoiz diskriminatuko”; “gizarteak ez du xeke bat diskriminatzen, baina bai etorkina, hura diskriminatzen du”; edo “lehen balioa dirua da”. Esaldi horiek berretsi egiten dute aurrez Díez Nicolás-ek esandakoa (2005: 189): “arrazakeria eta xenofobia sustrai sakonak dituen

klasismo baten adierazpideak dira, kasurik gehienetan”. Klasismo hori ez da mugatzen jatorriz atzerritarrak diren biztanleengana, Euskadin bildu diren azken datu demoskopikoek erakusten dutenez. Horren erakusgarri dira lehen aipatu ditugun bat-egiteak ere, 1. taulan azaldutakoaren ildotik; baliabide ekonomiko gutxi izatea beste diskriminazio hauei lotzen zaienean, zehazki: generoagatikoa, nazionalitateagatikoa edo adinagatikoa.

Azkenik, iker ditzagun zuzeneko diskriminazio-esperientzien kopurua zehazten duten aldagai soziodemografikoak, *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin (2020) inkestan* adierazten diren esperientziei dagokienez. Erregresio lineal anizkoitzaren ereduak argitzen du 3. grafikoak; inkestan biltzen eta birkodifikatzen diren aldagai soziodemografikoak txertatu eta bateratzean ateratzen da eredu hori, fikziozko aldagai hau ere barnean hartuta: “gutxiengo etniko batekoa izatea”. Hala ere, azken aldagai hori ez da txertatu amaierako ereduaren hasieran aurreikusitakoaren aurka. Ereduaren irudikapen grafikoak inkestan adierazitako diskriminazio-esperientzien kopurua auresaterakoan estatistikoki eragin esanguratsuak dituzten aldagai askeak soilik hartzen ditu barnean.


Ondorioak alderatu ahal izateko, erregresio-koefiziente estandarizatuaren (*beta*) arabera ordenatuta ageri dira aldagaiak grafikoan. Neurketa-unitate desberdinetan (kasu honetan, esaterako) aldagaiek aurreikuspenetarako dituzten eraginak konparatzeko bidea ematen du horrek. Horien irakurketarako, kontuan izan koefiziente horien balioa “-1,0” eta “+1,0” balioen artean kokatzen dela (desbideratze tipikoari dagozkion unitateak). Balioa zenbat eta gehiago hurbildu “1,0”-ra (zeinua aparte utzita), aldagaiak iragarle gisa duen eragina handiagoa izango da. Aldagaien arteko erlazioaren norabidea adierazten du zeinuak: positiboa bada, norabide berean egingo dute aurrera bi aldagaiek; negatiboa bada, alderantzizko norabideetan joango dira (bata handitu egingo da, eta txikiagotu bestea, edo alderantziz).

Aurreikusten zenaren kontrara, diskriminazio-esperientzien kopuruan eragin handiena duen aldagai askea langabezian egotea da. Hari dagokion *beta* koefizientearen arabera, lan-egoera horretan egoteak handitu egiten du batez beste diskriminazioen kopurua, desbideratze tipikoko 0,140 unitatetan, egoera horretan ez egotearekin alderatuta. Aldagai horri izaera iragarleko beste batzuk gehitzen zaizkio, eta horien eraginak espero zitekeenak izan dira. “Sexua/generoa” aldagaiari buruz ari gara, zeinu negatiboa duenari (-0,135); esparru horretan gizonen artean diskriminazioak behera egiten duela berresten du horrek, emakumeekin alderatuta. Aldagai horien ondoren, hauek datoz: ikasketa-maila (0,109), adina (-0,101) eta Espainian jaioa izatea (-0,094). Diskriminazio-esperientzien batez besteko kopurua handitu egiten da hezkuntza-mailaren eskalan gora egin ahala, inkestari erantzuten dion pertsonaren adinak behera egin ahala eta Espainian jaioa ez bada. Espainian jaioa izateak murriztu egiten du batez besteko diskriminazioen kopurua,

desbideratze tipikoko 0,094 unitatetan, Espainian jaio ez direnekin alderatuta. Era berean, pertsonaren hezkuntza-maila unitate batean handitzeak handitu egiten du, halaber, diskriminazio-esperientzien batez besteko kopurua, 0,109 unitatetan. Neurri hori 0,101 murrizten da pertsonaren adinak gora egin ahala. Hortik ondoriozta daiteke langabezian dauden, emakumeak diren, goi-mailako ikasketak dituzten, gazteenak diren eta Espainian jaio ez diren pertsonak direla askotariko diskriminazioak bizi izan dituztela diotenak.

Lortutako erregresio linealaren eredu esanguratsua da estatistikoki ($F=11,51$, eta $p = 0,000$), nahiz eta ahalmen iragarle txikia izan, azaldutako bariantzaren ehunekoari dagokionez ($R^2 = \% 9,1$). Inkesta egin zaien pertsonen % 75ek adierazi du ez dela inoiz diskriminatuta sentitu, eta horren alde jokatzeko du horrek. Hori islatu egiten da, halaber, *beta* koefiziente baxuetan ere. Diskriminaziorik ezari dagokion proportzioa handia da, eta batezbestekoak 0tik gertu daude, horri esker. Beraz, eredu estatistiko iragarle bat lortzen da horrela, baina ez erabakigarria.

3. grafikoa. Bizitako diskriminazioen kopuruaren azalpen-eredua, erregresio lineal anizkoitzaren bidez



Iturria: geuk egina.

Ondorioak

Kapitulu honetan aztertu dena oinarri hartuta, ondoriozta daiteke arrazoi batengatik baino gehiagorengatik gertatzen den diskriminazioa anizkoitz gisa kontzeptualizatzea ez dela soilik holistiko-integralagoa eta estrukturalista-soziologikoagoa (Burri eta Schiek, 2008; Harnois, 2015; Valles et al., 2017; Bericat et al. 2018). Aintzat hartu behar da diskriminazioari buruzko inkestetan oro har nola neurtzen den ere, ohiko edo gehigarri gisa gehiagotan, eta ez horrenbeste interseksional gisa. Azken hori errazago atzematen da metodologia kualitatiboaren bidez, zaila baita aldi berean elkarrekin konektatuta dauden diskriminazio-arrazoiak bereiztea.

Inkestak bere burua aitortzen duen diskriminazioa, sentitu eta hautematen dena, ezagutzen eta neurtzen laguntzen du, baina ez hainbeste diskriminazio erreala edo objektiboa ezagutzen eta neurtzen. Nahiz eta lehenengoaren eraginek garrantzi handiagoa hartzen duten hura jasaten dutenentzat (Foley et al., 2005; Motti-Stefanidi eta Asendorpf, 2012). Dena den, hainbat arrazoiaren bat-etortzea da diskriminazioarekiko zaurgarritasuna larriagotzen duena. Biztanleria orokorrari erreparatzen badiogu, gehien agertzen diren bat-etortzeak sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioari pertsonaren adinari eta nazionalitateari atxikitakoak eransten dizkietenak dira; garrantzia duten beste batzuk ahaztu gabe, hala nola pobrezia (baliabide ekonomiko gutxi izatea) edota itxura fisikoa (gaur egungo estandarretara ez egokitzea, hala nola gehiegizko pisua edo obesitatea).

Jatorriz etorkina den biztanleriara mugatzen bagara, diskriminazio anizkoitzarekin lotutako esperientziak areagotu egiten dira. Batez ere, beste entia- edo arraza-jatorrikoen kasuan. Etnia-jatorriari beste batzuk erantsi behar zaizkio, generoagatiko bereizkeria (emakumeen aurkakoa) eta adinagatikoa, kasu, baliabide ekonomikoei dagokienaz gain. Lehen esan bezala, xenofobia, arrazakeria, matxismoa, adinkeria eta aporofobia (edo klasismoa) elkarrekin nahastuta ageri dira diskriminazioan eta intolerantzien beste adierazpide batzuetan. Beraz, ez da harritzekoa estatuko eta nazioarteko instantzia akademiko, politiko eta juridikoei, bai eta gizarte zibilak ere, diskriminazioaren aurkako lege orokor bat eskatzea, askotariko arrazoiak multzo batean bildu eta bateratuko dituen, eta, horrez gain, diskriminazioaren aurkako beste neurri batzuk ere eskatzea (Cea D'Ancona, 2020a).

Bibliografia

- Baca Zinn, Maxine y Thornton Dill, Bonnie. (1996). Theorizing difference from multiracial feminism. *Feminist Studies*, 22(2), 321-333.
- Beal, Frances M. (1970). Double jeopardy: To be black and female. En Robin Morgan (Ed.), *Sisterhood is powerful* (340-352. or.). Random House.
- Berger, Michele T. eta Guidroz, Kathleen. (2009). *The intersectional approach: Transforming the academy through race, class, and gender*. University of North Carolina Press.
- Bericat, Eduardo, Camarero-Rioja, Mercedes eta Jiménez-Rodrigo, M^a Luisa. (2018). Multiple discrimination from a social science approach: Theory, research, and policies. In Dionysis Balourdos y Nikos Sarris N (Ed.), *Tackling multiple discrimination in Greece* (25-60. or.). ION Publishing Group.
- Best, Rachel K., Edelman, Lauren B., Krieger, Linda H. eta Eliason, Scott R. (2011). Multiple disadvantages: An empirical test of intersectionality theory in EEO litigation. *Law & Society Review*, 45(4), 991-1025.
- Blank, Rebecca M., Dabady, Marilyn eta Citro, Constance F. (Ed.) (2004). *Measuring racial discrimination*. The National Academic Press.
- Bowleg, Lisa. (2008). When black + lesbian + woman ≠ black lesbian woman. *Sex Roles*, 59, 312-325.
- Burri, Susanne eta Schiek, Dagmar. (2008). *Multiple discrimination in EU Law*. European Commission.
- Carles, Isabelle eta Jubany-Baucells, Olga. (Ed.) (2010). *Genderace. The use of racial antidiscrimination laws. Gender and citizenship in a multicultural context*. <http://genderace.ulb.ac.be/>
- Catalá Pellón, Alicia. (2010). Discriminación múltiple por razón de género y pertenencia a minoría étnica. *Aequalitas*, 26, 6-15.
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles. (2017). Measuring multiple discrimination through survey methodology. *Social Science Research*, 67, 239-251.
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles. (2020a). De la conceptualización y medición de la discriminación múltiple a la propuesta de políticas antidiscriminación. In M^a Ángeles Cea D'Ancona y Miguel S. Valles Martínez (Ed.), *Discriminación múltiple: Medición y acciones antidiscriminatorias* (17-52. or.). Dextra.

- Cea D'Ancona, M^a Ángeles. (2020b). Perceptions of not equally tolerable discriminations: Is personal experience so decisive? *Analyses of Social Issues and Public Policy*, 20(1), 481-507.
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2018). *Evolución de la discriminación en España. Informe de las encuestas IMIO-CIS de 2013 y 2016*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2020). Multiple discrimination: from perceptions and experiences to proposals for anti-discrimination policies. *Social & Legal Studies*. <https://doi.org/10.1177/0964663920983534>.
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2021). *Aproximación a la población afrodescendiente y africana en España. Identidad y acceso a derechos*. Berdintasun Ministerioa. Tratu Berdintasunerako eta Etnia eta Arraza Aniztasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles, Valles Martínez, Miguel S. eta Esevenri, Cecilia. (2013). *Inmigración: Filias y fobias en tiempos de crisis*. Biblioteca Nueva.
- Choo, Hae Y. eta Ferree, Myra M. (2010). Practicing intersectionality in sociological research. *Sociological Theory*, 28(2), 129-149.
- Cho, Sumi, Crenshaw, Kimberlé W. eta McCall, Leslie. (2013). Toward a field of intersectionality studies. *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 38(4), 785-810.
- Díez Nicolás, Juan. (2005). *Las dos caras de la inmigración*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. *Documentos del Observatorio Permanente de la Inmigración*, nº 3.
- Conaghan, Joanne. (2009). Intersectionality and the feminist project in Law. In Emily Grabham, Davina Cooper, Jane Krishnadas y Didi Herman (Ed.), *Intersectionality and beyond: law, power and the politics of location* (21-49. or.). Routledge Cavendish.
- Crenshaw, Kimberlé W. (1991). Mapping the margins: Intersectionality, identity politics, and violence against women of color. *Stanford Law Review*, 43(6), 1241-1299.
- Cuadraz, Gloria H. y Uttal, Lynet. (1999). Intersectionality and in-depth interviews: Methodological strategies for analyzing race, class, and gender. *Race, Gender & Class*, 6, 156-186.

- European Network Against Discrimination (ENAR). (2007). *Tackling multiple discrimination: Practices, policies and laws*. Comisión Europea, Office for Official Publications of the European Communities.
- Fernández Aragón, Iraide, Ruiz Ciarreta, Irune, Shershneva, Julia eta Arteta Esnal, Taide. (2020). *Análisis de la encuesta sobre percepciones y actitudes en torno a la discriminación en Euskadi*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEcas.pdf>
- Foley, Sharon, Hang-Yue, Ngo eta Wong, Angela. (2005). Perception of discrimination and justice. *Group & Organization Management*, 30(4), 421-450.
- Giménez Gluck, David. (2013). La discriminación múltiple en el Derecho de la Unión. *Civitas. Revista Española de Derecho Europeo*, 45, 113-136.
- Greenman, Emily eta Xie, Yu. (2008). Double jeopardy? The interaction of gender and race on earnings in the United States. *Social Forces*, 86(3), 1217-1244.
- Grollman, Eric Anthony. (2014). Multiple disadvantaged statuses and health: The role of multiple forms of discrimination. *Journal of Health and Social Behavior*, 55(1), 3-19.
- Harnois, Catherine E. (2015). Jeopardy, consciousness, and multiple discrimination. *Sociological Forum*, 30(4), 971-994.
- Heerwegh, Dirk eta Loosveldt, Geert. (2008). Face-to-face versus web surveying in a high-internet-coverage population differences in response quality. *Public Opinion Quarterly*, 72(5), 836-846.
- King, Deborah. (1988). Multiple jeopardy, multiple consciousness. *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 14(1), 42-72.
- Makkonen, Timo. (2002). *Multiple, compound and intersectional discrimination*. Åbo Akademi Institute for Human Rights. *Research Reports 11*.
- McCall, Leslie. (2005). The complexity of intersectionality. *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 30(3), 1772-1800.
- Motti-Stefanidi, Frosso eta Asendorpf, Jens B. (2012). Perceived discrimination of immigrant adolescents in Greece. *European Psychologist*, 17(2), 93-104.

- Rey Martínez, Fernando. (2008). La discriminación múltiple, una realidad antigua, un concepto nuevo. *Revista española de derecho constitucional*, 84, 251-283.
- Sargeant, Malcolm. (2011). *Age discrimination and diversity: Multiple discrimination from an age perspective*. Cambridge University Press.
- Spelman, Elizabeth V. (1988). *Inessential woman: Problems of exclusion in feminist thought*. Beach Press.
- Valles Martínez, Miguel S., Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Domínguez Alegría, Gloria. (2017). Multiple discrimination and immigration: Traces from institutional, academic and populational discourse / Discriminación múltiple e inmigración: Huellas de discurso institucional, académico y de la población. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas (REIS)*, 159, 123-138.
- Weber, Lynn eta Parra-Medina, Deborah. (2003). Intersectionality and women's health: Charting a path to eliminating health disparities. *Advances in Gender Research*, 7, 181-230.



Diskriminazio sexista: pertzepzioak eta bizipenak EAEko emakumeen artean

Lía González Estepa
Beatriz Otero Gutiérrez

Kapitulu honetan, EAEko emakumeek sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioaren edo diskriminazio sexistaren inguruan dituzten pertzepzioak eta bizipenak aztertuko ditugu, kontuan hartuta ezaugarri soziodemografiko jakin batzuen arabera emakumeen artean dauden desberdintasunak.

Fernández Aragón et al. (2020) egileek azpimarratzen duten eran, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin duen *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020* inkesta (EPADE 2020) genero-ikuspegia kontuan hartuta diseinatu da. Beste zenbait elementuz gainera, generoarekin lotutako aldagaien definizioko konplexutasun handiago gisa, emakume izateagatik pairatzen den diskriminazioa edo tratu desberdina espezifikoki neurtzera bideratutako zenbait item sartu dira galdetegian.

Horrela, ikerketaren diseinuari esker, EAEko emakumeek sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioari buruz zituzten pertzepzioen eta esperientzien analisi espezifikoa egin dezakegu kapitulu honetan. Gure analisiak xede bikoitza du: alde batetik, aztertzea zer pertzepzio duten euskal emakumeek gure gizartean sexuagatiko/generoagatiko tratu bidegabeari egotearen inguruan; eta, beste alde batetik, emakume horiek zuzenean jaso izana aitortzen duten diskriminazio sexistazko esperientziak ere bildu nahi ditugu.

Hortaz, hasteko, aztertzen ari garen fenomeno soziala testuinguruan jarriko dugu laburki, eta, gero, abiapuntu ditugun metodologia eta lagina azalduko ditugu. Horren ondoren, datuetan jarriko dugu fokua; lehenbizi, Euskadiko sexismoari buruzko pertzepzioa aztertuko dugu, eta bizi izandako diskriminazio sexista ondoren; bukatzeko, ondorioak bilduko ditugu amaierako atalean.

Sexismoa hautematea eta aurre egitea: emakumeen lana al da?

Sexismoa (arrazismoa, klasismoa, kapazitismoa, adinkeria eta abar bezala) banatzeko, desberdintzeko eta diskriminatzeko modu bat da. Sexu/genero ardatzaren inguruan egituratzen da, eta sistema patriarkalaren baitan funtzionatzen du. Sistema horrek pribilegioak ematen dizkie gizonei, eta maskulinoa denari, femeninoa denaren gainetik; aldi berean, sexu-genero errealitatea hesitzen du, binarismo horren arabera. María Jesús Izquierdok (2001) honela zehazten du: “posizio sozialak esleitzeko, jokabideak auresateko eta pertsonak identifikatzeko balio duen sailkapen-irizpide” bat da, “botere-egintza, funtsean; interesen baliatze bat” (16. or.). Kulturen errotutako dinamikak, pertzepzioak eta jarrerak barne hartzen ditu sexismoak, batzuetan naturalizatuta ere badaudenak; horiek errealitatea ulertzen eta sentitzen dugun modua baldintzatzen dute, bai eta gure jokabidea ere —gizarte gisa eta norbanako gisa—, eta, azken batean, gure bizimodua eta harremanak izateko modua, bai gure ingurunearekin, bai gure buruarekin.

bell hooks (2017) teorialari eta aktibista afro-iparramerikarrak *Feminismoa denon kontua da* liburuan adierazten duen eran, “emakume izateak” ez ditu automatikoki sexismoa identifikatzeko eta hari aurre egiteko gaitasuna ematen; egileak azpimarratzen duenez, “nahiz eta gizonek onura gehiago lortu sexismotik emakumeek baino, eta, beraz, aukera gutxiago izan arren haiek pribilegio patriarkalari uko egiteko prest egoteko”, emakumeak pentsamolde eta balio sexista orokorren esparru berean sozializatzen dira, eta, beraz, sexismoaren kontrako jarrera bat —feminista¹— hartzeko, kontzientzia eta konpromisoa hartzeko prozesu bat egin behar da, “aukeratzea eta ekitea” eskatzen duena (29. or.)².

Ikuspegi horretatik, beraz, komeni da ez mugatzea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunetara bakarrik, eta emakumeen arteko desberdintasunak ere aztertzea, testuinguru bakoitzean esanguratsuak izan daitezkeen desberdintasun sozialeko beste ardatz batzuk kontuan hartuta, horiek desitxuratu egin baitezakete “emakumearen” ideia, mendebaldeko emakume (cis) zuri, heterosexual, erdiko klaseko, hiritar... estereotipoarekin lotutako subjektu monolitiko gisa.

¹bell hooks egileak (2017) liburu horretan egiten duen aldarrikapen nagusietako bat da feminismoa “antisexismoa dela”, ez emakumeek berezkoa duten eta gizonen kontrakoa den zerbait, zentzu esentzialista batean (34. or.).

²Zentzu horretan gogoeta-prozesu arrazionalak lehenesteko joerarekin hautsiz, zenbait teorialari feministak aztertu dute zer garrantzi duten emozioek, lotura sozialek eta gorputzak politizazio eta subjektibotasun feministako prozesuetan. María Martínez Gonzálezek (2019) horri buruzko ikuspegi zabala landu du lan honetan: *Identidades en proceso. Una propuesta a partir del análisis de las movilizaciones feministas contemporáneas*.

Gure kasuan, sexismoa hautemateko eta bizitzeko orduan emakumeen artean dauden desberdintasunak aztertuz, modu sakonagoan eta konplexuagoan ezagutu ahal izango dugu errealitatea, eta, gainera, mugimendu feministak duen erronka giltzarrietako bati buruz hausnartzeko aukera emango digu; honako erronka honi buru ari gara: agenda feminista/antisexista zabalak sortzea, emakumeen kolektibo jakinen —pribilegiatuak— interes eta behar hutsetatik harago joateko gai direnak.

Ez da erronka berri bat, inola ere; duela zenbait hamarkadaz geroztik feminismo beltzak eta chicanoak egindako kritikekin, analisiekin eta aldarrikapenekin lotuta dago, bai eta lesbianismo-, dekolonialitate- eta queer-mugimenduak eta abarrek egindakoekin ere. Feminismoaren laugarren olatua edo olatu berria esaten zaio (nazioartean aitortua, *#MeToo* mugimenduarekin, Trumpen kontrako manifestazioekin eta Emakumeen Nazioarteko Grebarekin lotuta). Alabaina, panorama berri bat eratu du, eta erronka horrek garrantzi berezia hartu du. Testuinguruan jarriko dugu, laburki:

Zenbait intelektualen iritziz, Nancy Fraserren iritziz esate baterako, Hillary Clintonek Donald Trumpen aurka galdu izana Estatu Batuetako presidentetzarako 2016ko hauteskundeetan, arreta-kolpe handia izan zen, agerian gelditu baitzen gizartean beherakada izan zuela sexismoaren kontrako agendarekiko babesak. Agenda horren ardatz zen kristalezko sabaiaren, merkatuaren eta, oro har, *stablishment* delakoan dagoeneko estatus pribilegiatua duten eta, beraz, emakume askoren borroketatik eta eguneroko bizitzatik oso urrun dauden emakumeen igoera politikoa eta profesionala hausteko xedea (Fraser, 2018).

Erantzunak 2017ko eta 2018ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Grebaren arrakastaren indarra eta potentziala izan zituen inspirazio iturri, eta Cinzia Arruzzak, Tithi Bhattacharyak eta Nancy Fraser berak sinatutako manifestu batean zehaztu zen: *Manifiesto de un feminismo para el 99%*, alegia. Agiri horretan, egileek diote probetxua atera behar zaiola une historikoari, eta beste mugimendu antikapitalista eta ezkertiar batzuekin lotutako feminismo baten aldeko apustua egiten dute; feminismo horrek langileria-klaseko emakume gehienen beharrak eta eskubideak landu behar ditu, horiek aniztasun osoan kontuan hartuta: emakume arrazializatuak eta zuriak, gazteak eta nagusiak, migratzaileak, cis, trans, generoarekin ados ez daudenak, etxeoandreak eta sexu-langileak, besteak beste (Arruzza et al., 2019).

Manifestuko ideiak azken urteotan hainbat lekutan sortzen ari diren aldarrikapen eta eztabaida feministekin gurutzatzen dira, eta ezaugarri eta modu propioak hartzen dituzte testuinguru bakoitzean. *Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan* —Durangon (Bizkaia) izan ziren 2019ko azaroaren 1etik 3ra—,

urrunago joan gabe, 3.000 emakume*³ inguru bildu ziren, eta bete-betean hitz egin zuten zapalketa- eta pribilegio-dinamikei buruz, mugimenduaren baitan ere lantzeko dauden tentsioak, eztabaidak eta erronkak alde batera utzi gabe (Salda Badago lantaldea, 2020).

Dekolonitateari buruzko mahai-ingurua, sei kolektibok osatua —batzuk emakume arrazializatuenak, eta beste batzuk mistoak (emakume arrazializatuak eta bertako emakumeak)— azpimarragarria izan zen, borroka feministan antirrazismoa sartzearen garrantzia aldarrikatu zuelako, gehiengoaren feminismo batekiko jarrera kritikoak izanez, emakume guztiak ez baitira horrekin identifikatzen. *Emakume Arrazializatuen Sareak* honela azaldu du: “Niri ere eztarrian tratatuta gelditzen zait patriarkatua, baina badut are handiagoa den munstro bat, kolonialismo izenekoa, eta zuk ere indarkeriaz jarduten duzu nigan” (Nguissani, 2019-11-13).

Feminismoaren olatu berria oldarka sartu da, esparru formalean dagoeneko genero-berdintasuna defendatzen duten gizartearen baitan oraindik ere emakumeen kontra betiketzen den desberdintasuna, diskriminazioa eta, bereziki, indarkeria matxista salatuz. Merezimendu gisa, aipatu behar da berdintasunaren ilusio edo estalki⁴ delakoa iraultzeko gaitasuna duela, eta garrantzi handia hartu duela indarkeria-gertakari eta -kasu zehatzen salaketaren inguruan (hurbileko errealitateari begiratuta, beren buruei *manada* esaten zieten kasuaren prozesu judizialean, adibidez); baina, aldi berean, olatu berri horrek hainbat eztabaida mahaigaineratu ditu, hemendik aurrera zer feminismo defendatu nahi dugun argitze aldera: zer borroka hartzen dituen barruan, beste zer mugimendurekin lotuta dagoen, nor identifikatzen den harekin eta nor ez. Gai horiek guztiek tentsioak eta gatazkak eragiten dituzte.

Vientosur aldizkarirako Begoña Zabalak egindako elkarrizketan, Mari Luz Esteban antropologo feministak dio ia ez zela horri buruz pentsatzeko eta antolatzen hasteko denborarik izan pandemiak leher egin zuenerako; izan ere, aitortu nahi izan ala ez, guztiari eragiten dio, baita mugimendu sozialei eta haien prozesuei ere (Zabala, 2021-02-17). Estatu espainiarrean, mugimendu feministaren egoera zaildu egin zen, 2020ko martxoaren 8ko manifestazioen kontrako erantzunagatik alde batetik, eta, bestalde, transexualitatearen eta binarismoaren inguruan areagotuz doan barne-gatazkak edo hausturak ere nekea eragiten dutelako, hori baita eztabaida-gai sutsuenetako bat (Sangre Fucsia, 2021-03-07).

³Salda Badago lantaldeak (2020), *Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministen* antolatzaileak, argitu du emakumeak* terminoa erabiltzen duela, aukera guztiak barnean hartzeko xedez.

⁴Berdintasunaren ilusio edo estalki esaten zaio honaki honi: errealitatearen interpretazio bat da, ziurtzat jotzen duena garatuztat jotako gizarteek lortu dutela emakumeen eta gizonen arteko beharrezko berdintasuna; beraz, jotzen da funtzionamenduan aldaketak eta esku-hartzeak egitea dakarren guztia kaltegarria eta bidegabekoa izango dela talde osoarentzat, eta, zehazki, gizonentzat.

Hori horrela, gaur egun hainbat galdera datozkigu burura; besteak beste, zer gertatuko den azken urteotako feminismoaren gorakadarekin eta horrek mahaigaineratutako erronkekin, emakume anitzekin eta profil sozioekonomiko, kultural, identitario... desberdinekin lotzeko gai izango diren diskurtsoak eta aldarrikapenak sortzeko erronka barne. EAEn emakumeek diskriminazio sexistari buruz dituzten pertzepzioetara eta bizipenetara hurbiltzeko xedez kapitulu honetan aurkezten ditugun datuak lagungarriak izan daitezke zer egoera bizi dugun jakiteko.

Metodologia eta lagina

Datuak aurkeztu baino lehen, horiek biltzeko zer metodologia eta lagin erabili ditugun azaltzea komeni da. Sarreran azaldu dugun eran, gure analisiak xede bikoitza du: alde batetik, aztertzea zer pertzepzio duten euskal emakumeek gure gizartean sexuagatik/generoagatik tratatu bidegabera egotearen inguruan; eta, beste alde batetik, emakume horiek zuzenean jaso izana aitortzen duten diskriminazio sexistazko esperientziak ere bildu nahi ditugu. Honako taula honetan jaso ditugu gure analisiaren oinarri izango diren inkestako itemak.

1. taula. Aztertutako inkestako aldagaiak

Euskal gizartean dagoen sexismoari buruzko pertzepzioa
13. G. Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratatu okerragoa edozein arlotan, sexua/generoa dela-eta?
10. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan?
12. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan?
21. G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?
22. G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?
29. G. Feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla?
30. G. Eta feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla?
Diskriminazio-esperientzia zuzenak
35. G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako
37. G. Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta?

Iturria: geuk egina.

Helburu bikoitz hori lantzeko —hautemandako diskriminazioa aztertzea, alde batetik, eta aitortutako diskriminazioa aztertzea, bestetik—, azterlanaren lagin osokoak diren 623 emakumez osatutako azpilagin batekin lan egin dugu⁵.

2. taulan, emakume horien ezaugarri soziodemografikoak ikus ditzakegu. Analisisian aurrera egin ahala ikusiko dugun eran, aldagai horietako batzuek paper garrantzitsua dute emakumeek diskriminazio sexistari buruz dituzten pertzepzioak azaltzeko orduan. Taulako datuei jarraituz, inkestari erantzun dioten emakumeen erdiak baino gehiagok (% 64,5) 45 urte edo gehiago ditu, eta gehienak (% 89,8) jatorri estatalekoak⁶ dira. Ikasketa-mailari dagokionez, heterogeneotasun handia dago, baina gehienek (% 56,9) derrigorrezko ikasketen osteko bigarren mailako ikasketak dituzte. Bestalde, emakume horietako gehienek ama-hizkuntza gaztelania da, eta emakume euskaldunen ehunekoa % 23,8koa da. Emakume horien erdia baino gehiago lan-merkatuan daude, lanean zein langabezia-egoeran. Beste alde batetik, emakume horien bi heren estatus sozioekonomiko (etxeke diru-sarreraren bidez neurtu da aldagaia) ertain-altukoak eta altukoak dira. Azkenik, esan behar da pertsona fededunen/erlijiosoek ehunekoa handia dela (% 73,7), bai eta ideologia politikoaren alorrean ezker aldean kokatzen diren emakumeena ere (emakumeen ia laurden batek ezkertiarzat du bere burua, eta ia erdiak, zentro-ekertiarzat).

2. taula. Inkestari erantzun dioten emakumeen ezaugarri soziodemografikoak

	Kop	%
Adina		
18-29 urte	80	12,8
30-44 urte	141	22,6
45-64 urte	218	35,0
65 urte eta gehiago	184	29,5
Estatua		
Baxua eta ertain-baxua	229	37,3
Ertain-altua eta altua	384	62,6
Ikasketak		
Ikasketarik gabeak/Lehen Hezkuntza	180	29,0
Oinarrizko Bigarren Hezkuntza	88	14,2
Bigarren mailako LH	175	28,2
Goi-mailakoak	178	28,7
Ama-hizkuntza		
Gaztelania	452	76,2
Euskara	142	23,8
Jatorria		
Estatala	556	89,8
Atzerritarra	63	10,2
Ideologia		
Ezkertiarrak	118	24,3
Zentro-ekertiarrak	239	49,3
Zentrokoak eta zentro-eskuinekoak	128	26,3
Jainkozaletasuna		
Fededuna	449	73,1
Ez fededuna	165	26,9
Lan-egoera		
Lan-merkatuan	351	56,6
Lan-merkatutik kanpo	269	43,4

Iturria: geuk egina.

⁵Sexua/generoa aldagaia hiru erantzun-aukerarekin jaso da galdetegian (emakumea, gizona ez-binarioa), baina, azkenean, inork ez du hautatu hirugarren aukera hori.

⁶Jatorria aldagaia honako aldagai hauetan oinarrituta osatu da: pertsona jaio den herrialdea, pertsonaren nazionalitatea eta gurasoen jaiotze-herrialdea. “Jatorri estatala” kategorian biltzen dira Espainian jaio diren, nazionalitate espainiarra duten eta bi gurasoak Espainian jaiotakoak dituzten pertsonak. Beste alde batetik, “jatorri atzerritarra” kategorian jaso dira atzerrian jaio diren eta/edo nazionalitate atzerritarra duten pertsonak, bai eta arbaso atzerritarrak dituztenak ere (atzerrian jaiotako gurasoren bat).

Sexismoaren pertzepzioa Euskadin

Euskal emakumeek Euskadiko sexismoari buruz duten pertzepzioarekin hasita, azpimarratu behar da, lehenbizi, inkestari erantzun dioten hiru emakumetik batek ia (% 32,2) uste duela Euskadin nahiko edo oso ohikoa dela diskriminazio sexista, eta gehienek (% 65,8), berriz, uste dutela ezohikoa edo guztiz ezohikoa dela. Inkestari erantzun dioten emakumeek uste dute gure gizartean badaudela ohikoagoak diren beste diskriminazio-arrazoi batzuk, hala nola arraza-jatorria, nazionalitatea, baliabide ekonomiko gutxi izatea edo gaixotasun mentalen bat izatea (1. grafikoa).

Hortaz, ez dirudi emakumeen gehiengoak bereziki larria den arazotzat jotzen duenik sexismoa. Horrek kontrastea eragiten du EAEko emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunarekin, hori agerian uzten baitute, esate baterako, posizio ekonomikoari dagokionez dagoen genero-arrakalak (errenta pertsonala, lan-kontratu mota, pentsioen kobraketa...) edo denboraren erabilerak, horrek adierazten baitu emakumeak gehiago arduratzen direla etxeko eta zainketa-lanez, emakumeen kontrako indarkeriaren intzidentzia ahaztu gabe (Emakunde, 2020). Horrek guztiak pentsarazten digu berdintasunaren ilusioa edo estalkia ez dela hautsi oraindik.


Hala eta guztiz ere, EPADE 2020 inkestako emaitza globalak kontuan hartuta, ikusten dugu emakumeek, gizonekin alderatuta, diskriminazio sexistaren pertzepzio handiagoa erakusten dutela, bai eta desgaitasunen bat izatearekin lotutako diskriminazioarekin eta itxura fisikoagatiko diskriminazioari buruzko pertzepzio handiagoa ere, kultura patriarkalak indar handiagoz egotzi baitizkie horiek emakumeei, emakumeen edertasunaren aginduaren bidez (Wolf, 1991).

Inkestan, bost esparru zehatzetako diskriminazioari buruz galdetu zaie euskal herritarrei: etxebizitza eskuratzeko aukerak, lanpostuetarako hautespenez-prozesuak, erantzukizun handiko postuak lortzeko aukerak, legeen aplikazioa eta zerbitzu publikoetarako sarbidea. Kristalezko sabaiari buruzko pertzepzio sozialaren ildo beretik, lan-esparruan eta erantzukizuneko postuak lortzean diskriminazioa eragin dezakeen ezaugarritzat jotzen da emakume izatea, eta emakumeek egoera horren pertzepzio handiagoa dute gizonek baino⁷. Emakumeen azpilaginarekin egindako analisi espezifikoa (2. grafikoa) ikusten da emakume izatea lan-esparruan diskriminazioa pairatzeko arrazoi nagusitzat jotzen dela. Hain zuzen ere, inkestari erantzun dioten emakumeen % 42,5ek uste du emakume izatea kaltegarria dela lanpostu bat lortzeko prozesuan, eta erdiak baino gehiagok (% 55,5) uste du emakume izatea kaltegarria dela erantzukizuneko postu bat eskuratzeko; galderetan aipatutako gainerako

⁷Euskal pertzepzio sozial hori bat dator estatu-mailan egindako 2013ko eta 2016ko IMIO-CIS inkestetan ateratako datuek adierazten dutenarekin (Cea D'Ancona eta S. Valles Martínez, 2018).

esparruetan, berriz, diskriminazio sexistaren pertzepzioak askoz ere puntuazio baxuagoak lortu ditu, kontuan ez hartzeko modukoak ia.

1. grafikoa. Gure gizarteko arrazoi jakinengatikoko diskriminazioen maiztasuna, 2020 (%)



Iturria: geuk egina (13. G. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?).

Interesgarria da aztertzea zer eragin duten emakumeen ezaugarri soziodemografikoek haiek sexismo orokorrari eta lan-esparruko sexismoari buruz duten pertzepzioan. Hurrengo taulan (3. taula) ikusten den eran, ideologiak eta jainkozaletasunak desberdintasun nabarmenak eragiten dituzte diskriminazio horien pertzepzioan. Ideologia ezkertiarra duten eta/edo agnostikoak diren emakumeen artean, EAEn sexuagatikoko/generoagatikoko diskriminazioa dagoela, eta, bereziki, lan-esparruan diskriminazio hori dagoela uste duten emakumeen ehunekoa nabarmen handiagoa da eskuineko ideologia dutenekin edo beren burua fededuntzat jotzen dutenekin alderatuta.

Oro har, emakume gazteen artean ehuneko handiagoak hautematen du diskriminazio sexista Euskadin; bereziki azpimarragarria da emakume izatea erantzukizuneko postu baterako aukeratua izatean diskriminazio-arrazoa dela uste duten emakume gazteen (18 urtetik 29ra) ehunekoa.

2. grafikoa. Lanpostu baterako eta erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan diskriminatua izateko arrazoiak, 2020 (%)



Iturria: geuk egina (10. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan? eta 12. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan?).

Beste alde batetik, ikasketarik gabeko emakumeek sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioaren pertzepzio txikiagoa dute ikasketak dituztenek baino. Gainera, ikasketa-maila altuagoa eta estatus sozioekonomiko altuagoa duten emakumeek neurri handiagoan uste dute sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioa gertatzen dela erantzukizuneko postuetarako hautatuak izatean; agian, errealitate horrek modu zuzenagoan eragiten dielako izango da hori.

Jatorri edo arbaso estatalak dituzten emakumeen artean, emakumeen ehuneko handiago batek uste du EAEn diskriminazio sexistak dagoela, jatorri edo arbaso atzerritarrek dituzten emakumeekin alderatuta, eta desberdintasun horiek areagotu egiten dira lanaren eta esfera publikoko boterearen esparruetan; agian, *Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan* adierazi zen eran, emakume arrazializatuek eta/edo jatorri atzerritarrekoek sexismoarekin lotutako diskriminazioak baino diskriminazio larriagoak eta agerikoagoak pairatzen dituztelako esparru horietan, gutxienez hori gure imajinarioan osatuta dagoen eran (lotuago dago emakume zurien bizipenekin, sexuagatiko/generoagatiko diskriminazioa arrazismoarekin edo kolonialismoarekin lotzen den esperientziekin baino).

Azkenik, desberdintasun kulturekin jarraituz, azpimarratu behar da emakume euskaldunen artean pixka bat handiagoa dela Euskadin diskriminazio sexistak hautematen duten emakumeen ehunekoak.

3. taula. Diskriminazio sexistaren pertzepzioa Euskadin, orokorrean, eta lan-esparruan eta erantzukizuneko postuetarako hautatua izatean, ezaugarri soziodemografikoen arabera, 2020 (%)

	Diskriminazio sexista Euskadin	Emakume izatea kaltegarria da lanpostu baterako hautatua izatean	Emakume izatea kaltegarria da erantzukizuneko postu baterako hautatua izatean
Adina			
18 urtetik 29ra	40,0	50,0	53,8*
30 urtetik 44ra	33,8	39,7	51,1
45 urtetik 64ra	35,8	46,8	62,8
65 urte eta gehiago	25,6	36,4	50,5
Estatus sozioekonomikoa			
Baxua	29,1	41,5	48,9*
Ertaina eta altua	35,5	42,2	58,7
Ikasketa-maila			
Ikasketarik gabeak	22,4*	37,2	48,3
Oinarrizko bigarren hezkuntza	44,2	46,6	62,5
Bigarren mailako LH	33,9	48,3	56,6
Goi-mailakoak	36,6	39,9	59,0
Ama-hizkuntza			
Gaztelania	33,0	42,2	55,6
Euskara	35,3	50,4	65,4
Ideologia			
Ezkertierra	50,0**	51,7*	68,6*
Zentro-ezkertierra	32,3	49,4	58,6
Zentrokoak eta zentro- eskuinekoak	23,6	37,5	50,0

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

	Diskriminazio sexista Euskadin	Emakume izatea kaltegarria da lanpostu baterako hautatua izatean	Emakume izatea kaltegarria da erantzukizuneko postu baterako hautatua izatean
Jainkozaletasuna			
Fededuna	28,5*	38,5**	53,7
Ez-fededuna	44,8	53,3	60,8
Jatorria*			
Atzerritarra	16,4	15,9**	30,2**
Estatala	34,9	45,7	58,7
Lan-egoera			
Lan-merkatuan	33,5	43,3	56,1
Lan-merkatutik kanpo	31,9	41,6	54,6

*Esangura $p < 0,05$ ** Esangura $p < 0,00$

Iturria: geuk egina [13. G. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, sexuagatik/generoagatik? (Oso edo nahiko ohikoa dela dioten emakumeen %); 10. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan? (emakume izatea arrazoi gisa markatu duten emakumeen %) eta 12. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan? (emakume izatea arrazoi gisa markatu duten emakumeen %)].


Euskal emakumeek posizionamendu sozialari eta pertsonalari dagokienez feminismoari eta matxismoari buruz duten pertzepzioa aztertzen badugu, datuek adierazten dute imajinario kolektiboan indarra galdu duela feminismoa eta feminista gisa identifikatzea gutxiesgarritzat eta minoritariotzat jotzeko joerak. 3. grafikoan ikusten den eran, gizarte osoaren iritziari buruzko pertzepzioa nork bere buruaren iritziari buruz duena baino negatiboagoa da; hau da, joaera dago pentsatzeko gizartea norbera baino matxistagoa dela, eta,aldi berean, norbera gertuago dagoela feminismitik gizarte osoa baino. Halaber, euskal gizartearen posizioari buruz, anbigualentzia ikusten da: uste da gure gizarteak aurrerapausoak egin dituela kontzientziazio feministari dagokionez (feminismoaren batezbestekoa = 6,54), baina oraindik elementu matxista handiak daudela (matxismoaren batezbestekoa = 4,56 Oitk 10era bitarteko eskalan).

4. taulan, matxismo- eta feminismo-eskalen batezbestekoak xehatzen dira inkestari erantzundako emakumeen aztertutako aldagai soziodemografiko nagusien arabera, haien profilak deskribatzeko. Taulan ikusten denez, urte gehiago dituzten eta/edo ama-hizkuntza gaztelania duten eta/edo estatus sozioekonomiko baxua duten eta/edo ikasketarik ez duten eta/edo fededunak diren eta/edo lan-merkatutik kanpo dauden emakumeek matxismo-tasa altuagoak dituzte, eta batezbesteko baxuagoak feminismo-eskalan. Feminismo-eskalako tasa altuenak emakume hauenak dira: beren burua ezkertiarizat jotzen dute, ez dira fededunak, euskaldunak dira, lan-merkatuan daude eta/edo gazteagoak dira. Zentzu horretan, azpimarratu behar da *Informe Juventud en España 2020* txostenak adierazi duela emakume gazteak neurri handian identifikatzen direla feminismoarekin eta genero-berdintasunarekin: emakume

gazteen % 85 berdintasunaren aldeko borrokarekin identifikatzen da, eta % 80 feminismoarekin, espresuki (Injuve, 2020).

Hortaz, interpretatu daiteke honako profil hauek daudela: alde batetik, feminismitik urrunago dagoena, emakume nagusiekin, fededunekin eta estatus sozioekonomiko eta kultural baxuagoa dutenekin lotzen dena; eta, bestetik, feminismoaren aldekoagoa dena, ideologia progresista duten emakume gazte ez-fededunak direnekin eta euskal gizartean integrazio soziokultural handiagoa dutenekin lotzen dena.

3. grafikoa. Matxismoaren eta feminismoaren pertzepzioa: norberaren posizioa eta euskal gizartearen posizioa (0-10 eskala), 2020 (%)



Iturria: geuk egina (21. G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?; 22. G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?; 29. G. Feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla? eta 30. G. Eta feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla?).

4. taula. Matxismoaren eta feminismoaren pertzepzioa: posizio pertsonalaren eskalako kokapena, ezaugarri soziodemografikoen arabera, 2020 (%)

	Matxismoa	Feminismoa
Adina		
18 urtetik 29ra	1,06**	8,22**
30 urtetik 44ra	0,81	7,66
45 urtetik 64ra	0,75	7,66
65 urte eta gehiago	1,60	6,38
Estatus sozioekonomikoa		
Baxua	1,82**	6,89**
Ertaina eta altua	0,62	7,61
Ikasketa-maila		
Ikasketarik gabeak	1,70**	6,60**
Oinarrizko bigarren hezkuntza	0,73	7,46
Bigarren mailako LH	0,93	7,70
Goi-mailakoak	0,69	7,71
Ama-hizkuntza		
Gaztelania	1,08*	7,22**
Euskara	0,75	7,86

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

	Matxismoa	Feminismoa
Ideologia		
Ezkertiarra	0,92	7,97**
Zentro-ezkertiarra	0,82	7,50
Zentrokoak eta zentro-eskuinekoak	1,26	6,47
Jainkozaletasuna		
Fededuna	1,15*	7,10**
Ez-fededuna	0,71	8,08
Jatorria		
Atzerritarra	1,56*	7,35
Estatala	1,00	7,36
Lan-egoera		
Lan-merkatuan	0,77**	7,67**
Lan-merkatutik kanpo	1,43	6,95

*Esangura $p < 0,05$ ** Esangura $p < 0,00$

Iturria: geuk egina (21. G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?; 22. G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?; 29. G. Feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla? eta 30. G. Eta feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla?).

Bizitako diskriminazio sexista

Atal honetan, Euskadin emakume izateagatik gertatzen den diskriminazioari buruzko pertzepzioarekin lotutako aldagaiak aztertu ostean, aitortutako diskriminazioarekin lotutako aldagaien informazioa aztertuko dugu; hau da, diskriminazio-esperientziak lehen pertsonan bizi izan dituztela dioten emakumeei buruzko informazioa.

EPADEn (2020) analisiaren ondorioetako bat da diskriminazioak, oro har, gehiago eragiten diela emakumeei gizonei baino. Lagin osoan, gizonen % 19,6k dio diskriminazioa pairatu duela inoiz, eta emakumeen kasuan, berriz, % 28,9ra igotzen da ehuneko hori.

Emakume horiek diote diskriminatuak sentitu izan direla inoiz 4. grafikoan jasotako arrazoietako bategatik. Diskriminazio sexista da jasotako tratu desberdinen artean aipatuena (% 18,0). Alabaina, eta Fernández Aragón et al. (2020) egileek adierazi duten eran, espero daitekeena baino baxuagoa da ehuneko hori, kontuan hartuta gizartean oraindik desberdintasun-maila handia dagoela, hainbat esfera sozialetan adierazten baitira gizonek emakumeekiko dituzten botere-harremanak. Kontuan hartu behar da sexismoa edo, Pierre Bourdieuren (2000) hitzetan, "gizonezkoen dominazioa", gauzen ordena arrunt gisa ezarri izan dela historian zehar, eta oso berriki hasi ginela hori diskriminazio eta bidegabekeria gisa ikusten⁸; hortaz, bide luzea dago egiteko oraindik.

⁸Gogoratu behar da, adibidez, Emakumearen kontrako diskriminazio modu guztiak desagerrarazteko konbentzioa (CEDAW), emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko arau-esparrua ezarri zuen lehenengo erreferente garrantzitsua, 1979an onartu zela.

Ikusten da, orobat, inkestari erantzundako emakumeen % 7,9k dioela diskriminazioa pairatu duela adinagatik, eta azpimarratu behar da emakumeek neurri handiagoan pairatzen dutela diskriminazio mota hori gizonek baino. Emakumeek aipatutako hurrengo diskriminazio-arrazoi nagusiak dira nazionalitatea edo jatorria eta etnia- edo arraza-jatorria.

5. grafikoan, emakume izateagatik diskriminatuak sentitu izan direla dioten 112 emakumeen diskriminazio-esperientziak jaso dira. Ikusten da, emakume izateagatik diskriminatuak sentitu direla dioten emakumeen artean, % 26,8 adinagatik ere diskriminatuak sentitu dela gainera; aldagai horrek lotura handia du generoaren gaiarekin, eta, zehazki, emakumeen bizitzen eta gorputzen gainean ugalketari dagokionez ezartzen den presioarekin —erloju biologiko esaten dioten hori—, bai eta gazteak gutxiesten eta infantilizatzen eta nagusiak mespretxatzen dituzten estereotipo sexistekin ere, kosifikazio heterosexual matxistaren aldetik⁹.


4. grafikoa. Emakumeek aitortutako diskriminazioa arrazoiaren arabera, 2020 (%)



Iturria: geuk egina (35. G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bateagatik?).

⁹Marcela Lagarde (2007) mexikarrak dominazio-sistema patriarkalak emakumei buruz ezarritako estereotipo eta baldintzatzaile horiek aztertzen ditu lan honetan: *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*.

5. grafikoa. Diskriminazio-esperientzia zuzenak bat etortzea, 2020 (%)




Iturria: geuk egina (35. G. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bateagatik?).

Inkestari erantzundako emakumeek bizi izan dutela dioten diskriminazio sexistarekin jarraitzeko, hurrengo grafikoan (6. grafikoa) ikusten da zer esparru edo egoera zehatzetan gertatu ziren diskriminazio sexistazko esperientzia zuzen horiek. Diskriminazio sexista lan-esparruarekin lotuta ageri da batez ere (aitortutako gesexuagatik/generoagatik diskriminazioen % 26,0 esparru horretan gertatu da), eta alderdi hori bat dator aurreko atalean ikusitako Euskadiko diskriminazio sexistari buruzko pertzepzioekin. Alabaina, kasu honetan, kalea ere azpimarratu dute emakumeek diskriminazio sexistako esparru gisa (% 10,6). Azpimarratu behar da euskal mugimendu feministak urteak daramatzala aldarrikatzen, zenbait ikuspegi eta formatutatik, espazio publikoak modu seguruan eta berdintasunez erabiltzeko emakumeen eskubidea¹⁰. Gainera, erakundeen esparrura ere iritsi da gai hori, eta lagundu dute zentzu horretan, zenbait tresna landuz, hala nola *Hiri Debekatuaren mapa* (*Plazandreok* emakumeen plataforma politikoak 1996an egin lehene aldiz Donostiarako), genero-ikuspegia kontuan hartzen duen hirigintza sustatzekoa. Halaber, berriki, eta bere buruari *manada* izena jarri zion taldearen kasuaren eta antzeko beste batzuen aurka sortutako erantzun-mobilizazioen harira, esparru horretako (kalea) sexismoak ikusgarritasuna eta interes mediatikoa hartu ditu.

¹⁰Eduarne Epelde, Miren Aranguren eta Iratxe Retolaza (2015) egileek euskal mugimendu feministak esparru horretan landutako zenbait prozesu eta mugarri jaso dituzte lan honetan: *Gure Genealogia Feministak: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*.

6. grafikoa. Emakumeak sexuagatik/generoagatik diskriminatua sentitu izan diren esparruak edo egoerak, 2020 (%)



Iturria: geuk egina (37. G Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, zure sexuagatik?).

“Sexuagatik/generoagatik diskriminatua sentitu izana” (35. G.) aldagaia orain arte aztertutako aldagai demografikoekin gurutzatu dugu, aztertzeko ea badagoen desberdintasun nabarmenik, aldagai horien arabera, emakume izateagatik diskriminazio-esperientziaren bat bizi izana aitortzean.

5. taulako laburpenean, diskriminazio sexistaren bat pairatu izanaren pertzepzioarekin lotura esanguratsua duten aldagaiak jaso dira. Hori horrela, ikusten da emakume izateagatik tratu desberdina jaso izan dutela dioten emakumeak profil honekin lotzen direla: unibertsitate-ikasketak dituztenak, estatus sozioekonomiko ertain eta altukoak, ideologia politikoan ezkerraldetik gertuago daudenak, jainkozaletasunari dagokionez beren burua agnostikotzat/ateotzat dutenak, 30 urte baino gehiago dituztenak eta gaur egun lan-merkatuan daudenak.

Aitzitik, diskriminazio sexistazko esperientzia zuzen gutxiago bizi izan dituztela diote honako profil honetako emakumeek: nagusiagoak (65 urte eta gehiago), ikasketarik gabeak, estatus sozioekonomiko baxukoak edo ertain-baxukoak, beren burua fededuntzat dutenak, ideologiari dagokionez zentro-eskuinean edo eskuinean kokatzen direnak eta lan-merkatutik kanpo daudenak.

Azpimarratu behar da, jatorria aldagaiak bizitzako diskriminazioari dagokionez desberdintasun handirik erakusten ez badu ere, batez ere arbaso eta jatorri estatalak dituzten emakumeek adierazi dutela neurri handiagoan emakume izateagatik tratu desberdina jaso izan dutela.

Hau da, Euskadiko sexismoaren pertzepzio orokorra eta norberak matxismoarekiko eta feminismoarekiko duen posizionamendua aztertzean

ikusi denaren ildo beretik, ikusi da balio progresistak dituzten, fededunak ez diren, gazteak diren eta estatus sozioekonomiko eta kultural altuagoa duten emakumeek dutela joera handiagoa diskriminazio sexistazko esperientziak pairatu dituztela aitortzeko, eta, aldiz, balio kontserbadoreak dituzten, fededunak diren, nagusiagoak diren eta posizio sozioekonomiko eta kultural okerragoak dituzten emakumeak gutxiago identifikatzen direla diskriminazio mota horrekin.

5. taula. Emakume izateagatiko tratu-desberdintasunaren esperientzia zuzena bereizten duten aldagai soziodemografikoak, 2020 (%)

Diskriminazio sexistazko esperientzia aitortu gutxien dituen taldea	Aldagaia	Esangura	Diskriminazio sexistazko esperientzia aitortu gehien dituen taldea
65 urte eta gehiago	Adina	<0.01	18 urtetik 29ra
Baxua eta ertain-baxua	Estatusa	<0.05	Ertain-altua eta altua
Ikasketarik gabeak	Ikasketak	<0.01	Unibertsitate-ikasketak
Gaztelania	Ama-hizkuntza	<0.05	Euskara
Zentrokoak eta zentro-eskuinekoak	Ideologia	<0.05	Ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak
Fededuna	Jainkozaletasuna	<0.01	Ez-fededuna
Lan-merkatutik kanpo	Lan-egoera	<0.01	Lan-merkatuan (lanean edo langabezia)

Iturria: geuk egina.

Aztertzeke ea joera hori berdin gertatzen den beste diskriminazio mota batzuk bizi izanaren pertzepzioan, inkestari erantzun dioten emakumeek hautemandako eta diskriminazio sexistaz bestelako diskriminazioan jarri dugu arreta, eta ikusi dugu, inkestako datuak kontuan hartuta, 120 emakumek adierazi dutela emakume izatea ez bestelako arrazoiren bategatik diskriminatuak izan direla, zehazki, 4. grafikoa jasotzen diren arrazoietakoa bategatik¹¹. Hurrengo taulan (6. taula), diskriminazio mota horietakoren bat bizi izanaren esperientziarekin lotura esanguratsua duten aldagai soziodemografikoak jaso dira.

6. taulan ikusten den eran, zenbait aldaketa ikusi dira diskriminazio-esperientzia gehiago aitortu dituzten emakumeen profilean: kasu honetan, emakume izatea ez bestelako arrazoiren bategatik diskriminatuak izan direla aitortu dute, neurri handiagoan, jatorri eta/edo arbaso atzerritarreko emakumeek, gazteagoak direnek, jainkotasunari dagokionez beren burua angostikotzat/ateotzat dutenek,

¹¹Kasu honetan, honako arrazoi hauetako bategatik diskriminatuak sentitu direla adierazi duten emakumeak bildu ditugu: sexu- edo genero-nortasunagatik, auzo edo udalerrri degradatu batean bizitzeagatik, erlijioagatik edo sinesmen erlijiosoengatik, desgaitasunen bat izateagatik, haurdun egoteagatik, baliabide ekonomiko gutxi izateagatik, gehiegizko pisua / obesitatea izateagatik, etnia-jatorriagatik, nazionalitateagatik eta jatorriagatik edo adinagatik.

ikasketa-maila altua dutenek eta lan-merkatuan daudenek. Beste alde batetik, ez da desberdintasun esanguratsurik hauteman ideologiari eta ama-hizkuntzari erreparatuta; diskriminazio sexistari dagokionez berriz, ikusten ziren.

Hortaz, ikusten dugu gaztetasuna, fededuna ez izatea, ikasketa-maila altua izatea eta lan-merkatuan egotea diskriminazio-esperientzia orokor gehiago bizi izana aitortzen duten emakumeen ezaugarriak direla, eta, zehazki diskriminazio sexistari buruz ari bagara, ideologikoki ezkertiarra izatea eta euskalduna izatea ere tratu desberdineko esperientzien pertzepzio handiagoa izatea bultzatzen duten aldagaiak direla. Beste alde batetik, azpimarragarria da jatorri eta/edo arbaso atzerritarreko emakumeak, diskriminazioa pairatu izana gehien aitortzen dutenen taldean egonda ere, ez direla hain identifikatuta sentitzen diskriminazio sexistarekin, bere horretan.

6. taula. Emakume izatea ez bestelako arrazoiren bategatik tratu-desberdintasunaren esperientzia zuzena bereizten duten aldagai soziodemografikoak, 2020 (%)

Diskriminazio-esperientzia aitortu gutxi en dituen taldea	Aldagaia	Esangura	Diskriminazio-esperientzia aitortu gehi en dituen taldea
65 urte eta gehiago	Adina	<0.01	18 urtetik 44ra
Ikasketarik gabeak	Ikasketak	<0.01	Unibertsitate-ikasketak
Fededuna	Jainkozaletasuna	<0.01	Ez-fededuna
Lan-merkatutik kanpo	Lan-egoera	<0.01	Lan-merkatuan (lanean edo langabezian)
Estatala	Jatorria	<0.01	Atzerritarra

Iturria: geuk egina.

Ondorioak

Datuak aztertuta, zenbait ondorio atera ditzakegu. Ondorioetako bat da, azken urteotako borroka feministak goraldia izan badu ere, euskal emakumeen imajinarioan sexismoaren pertzepzioak ez duela garrantzi bereziki nabarmenik hartzen, EAEko beste diskriminazio mota batzuekin alderatuta. Datuek agerian utzi dute arraza-jatorria, nazionalitatea, baliabide ekonomiko gutxi izatea edo gaixotasun mentalen bat izatea diskriminazio pairatzeko arrazoi ohikoagoak direla emakumea izatea baino. Orobat, nahiz eta sexismoa emakumeek gehien aipatu duten bizitako diskriminazioa izan, pertsonalki diskriminazio sexista moduren bat pairatu izana aitortu duten emakumeen gutzirakoa ez da % 20ra iristen.

Beste alde batetik, halere, ikusten da feminista gisa identifikatzea estigma sozialetik urrundu dela; euskal emakumeen feminismoarekiko batez besteko posizionamendu pertsonala 7tik gorakoa da, 0tik 10erako eskalan.

Diskurtso feminista nagusiekin edo komunikabideetan oihartzun handia dutenekin bat, nabarmena da kristalezko sabaiaren pertzepzioa (hau da, emakumeek lan-munduan eta esfera publikoko botere-eremuetan sarbidea eta aurrerabidea izateko eragozpenekin lotutako diskriminazio sexista), bai maila orokorrean EAEn, bai eta bizitako diskriminazio-esperientziei dagokienez ere. Bigarrenik, ikusten da “kalean” bizi izandako diskriminazio sexistazko esperientzia pertsonalen pertzepzioa hazten ari dela; azken urteotan, haien zuzen ere, bere buruari *manada* izena jarri zion taldearen kasuaren eta antzeko beste batzuen ondorioz, eraso eta indarkeria matxisten agertoki gisa ikusarazi da testuinguru hori.

Azkenik, EAEko emakumeen artean sexismoari buruzko pertzepzioak bereizten dituzten ezaugarri soziodemografikoei erreparatuta, ikusten dugu gehiago hautematen dutela sexismoa (euskal gizartean oro har, zein beren esperientzia pertsonalari dagokionez), eta feminismitik hurbilago dagoen posizioa agertzen dutela, ezkertiarrek direla dioten, gazteak, euskaldunak eta ez-fededunak diren eta posizio sozioekonomiko eta kultural altuagoa duten emakumeek (ikasketamaila altua, estatus sozioekonomiko ertaina eta altua eta lan-merkatuan daudenak). Beste muturrean, feminismitik urrunago daude eta sexismoa gutxiago hautematen dute ideologia kontserbatzailea duten eta fededunak eta nagusiak diren eta Euskadin integrazio txikiagoa adieraz dezakeen profila duten emakumeek (lan-merkatutik kanpo, ikasketarik gabe eta estatus sozioekonomiko baxua).

Horrek guztiak gerian uzten du sexismoaren pertzepzioa eta feminismoarekiko hurbiltasuna aurrerapenak egiten ari direla EAEko emakume talde handi batzuetan, baina intzidentzia txikiagoa ikusten da beste zenbait sektoretan. Adibidez, egoera sozioekonomiko eta kultural okerragoan dauden emakumeen artean, eta, aldi berean, kristalezko sabaiaren, eta, azken batean, posizio hobean dauden emakumeek bizi ditzaketen diskriminazio sexistako moduen kontrako diskurtsoekin eta aldarrikapenekin identifikatzeko zailtasun gehiago dituzten emakumeen artean. Hortaz, erronka gisa ikusten dugu agenda feminista/antisexista zabalak prestatzea, emakumeen aniztasun konplexuari erantzuteko eta klasismoarekin, kapazitismoarekin, arrazismoarekin, adinarekin eta abarrekin gurutzatutako diskriminazio sexistazko esperientziei aurre egiteko gai izango direnak.

Bibliografia

- Arruzza, Cinzia, Bhattacharya, Tithi eta Fraser, Nancy. (2019). *Manifiesto de un feminismo para el 99%*. Herder.
- Bell hooks. (2017). *El feminismo es para todo el mundo*. Traficantes de Sueños.
- Bourdieu, Pierre. (2001). *La dominación masculina*. Editorial Anagrama.
- D'Ancona, M^a Ángeles eta S. Valles, Miguel. (2018). *Evolución de la discriminación en España. Informe de las encuestas IMIO-CIS de 2013 y 2016*. Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades (IMIO). <https://www.inmujeres.gob.es/actualidad/NovedadesNuevas/docs/2018/EvolucionDiscrimEsp2018-0159.pdf>
- Emakunde - Emakumearen Euskal Institutua. (2020). *CIFRAS 2019. Mujeres y hombres en Euskadi*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/es_emakunde/adjuntos/cifras_2019.pdf
- Epelde, Edurne, Aranguren, Miren eta Retolaza, Iratxe. (2015). *Gure Genealogia Feministak: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin Elkarte.
- Fernández Aragón, Iraide, Ruiz Ciarreta, Irune, Shershneva, Julia eta Arteta Esnal, Taide. (2020). *Análisis de la encuesta sobre percepciones y actitudes en torno a la discriminación en Euskadi*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEcas.pdf>
- Fraser, Nancy. (2018). Prefacio. In Alabao, N. (Coord.), *Un feminismo del 99%* (xi-xiv. or.). Editorial Lengua de Trapo.
- Hill Collins, Patricia eta Bilge, Sirma. (2019). *Interseccionalidad*. Morata.
- Injuve (2020). *Informe Juventud en España 2020*. Instituto de la Juventud. http://www.injuve.es/sites/default/files/adjuntos/2021/03/informe_juventud_espana_2020.pdf
- Izquierdo, María Jesús. (2001). *Sin vuelta de hoja: Sexismo, placer y trabajo*. Bellaterra.
- Lagarde, Marcela. (2007). *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*. Horas y Horas.

Martínez González, María. (2019). *Identidades en proceso. Una propuesta a partir del análisis de las movilizaciones feministas contemporáneas*. CIS.

Nguissani, Rebeca. (2019ko azaroaren 13). Cuando se pican es porque duele. *Pikara Magazine*. <https://www.pikaramagazine.com/2019/11/cuando-se-pican-es-porque-esta-doliendo/>

Salda Badago Iantalea. (2020). *Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak*. Salda Badago eta Emagin Elkarte.

Sangre Fucsia. (2021ko martxoaren 7). *Límites y excesos de un 8M pandémico* [Audio podcasta]. <https://sangrefucsia.wordpress.com/2021/03/07/sangre-fucsia-8m-pandemico/>

Wolf, Naomi. (1991). *El mito de la belleza*. Emecé.

Zabala, Begoña. (2021ko otsailaren 17). Mari Luz Estebani elkarrizketa. *Vientosur*. <https://vientosur.info/entrevista-a-mari-luz-esteban/>



Bizitegi-diskriminazioa: eskubide bat komatxo artean

Iraide Fernández Aragón
Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe
Gorka Moreno Márquez

Etxebizitza, elikadurarekin eta jantziarekin batera, giza garapenerako oinarritzko eta funtsezko elementua da, gizarteratzeko prozesuan giltzarri izateaz gain. Etxebizitza izateak aukera ematen dio pertsonari behar pertsonalak, sozialak eta biologikoak asetzeko. Ondorioz, etxebizitza horrek egokia eta/edo duina izan behar du, premia mota guztiak behar bezala bete daitezzen. Duen garrantzia kontuan hartuta, ez da harrizkoa etxebizitza zuzenbide-kategoriara igotzea eta, ondorioz, Estatu edo gobernu izatea herritarrak etxebizitza baldintza duinetan eskuratzeko bermatzeaz arduratuko dena. Hala ere, etxebizitza elementu konplexua da kudeatzeko; izan ere, eskubidea izateaz gain, gainbalioak sortzen dituen eta erregulatzea zaila den merkatuko produktua da (Garnier, 2010).

Alde horretatik, zenbait iritzi kritikoren arabera, erakundeek ez dute behar bezala bermatzen etxebizitza duina izateko eskubidea, eta kolektibo batzuek modu desberdinean eskuratzen dute etxebizitza (Albaga, 2003; Burón, 2008; Fernández et al., 2015; Pisarello, 2003). Kontu horri dagokionez, etxebizitza eskuratzeko diskriminazioa aztertzea eta analizatzea funtsezkoa da fenomeno ulertzeko, eta bereziki, bizitegi-bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden gizarte-taldeen kasuan.

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin duen *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020* inkestak (hemendik aurrera EPADE 2020) agerian uzten ditu euskal biztanleek diskriminazio-mota desberdinei buruz dituzten pertzepzioak. Hala ere, kapitulu honetan kolektiboek etxebizitza eskuratzeko duten tratu desberdina aztertuko da. Horiek horrela,

kapitulu honen helburua euskal biztanleek bizitegi-diskriminazioa zenbateraino identifikatzen duten jakitea izango da eta, alde horretatik, zer biztanleria-taldek identifikatzen duten eta zeinek ez. Ikerketa horrek 1.200 inkesta ditu ($\pm 2,8$ errorea), eta horietatik abiatuta egingo da aldagai biko eta aldagai anitzeko analisi kuantitatibo hori. Zehazki, aldagai-gurutzetak egin dira kontingentzia-taulen¹ eta CHAID analisiaren (edo segmentazio-zuhaitzaren) bidez. Azken teknika horri dagokionez, nabarmentzekoa da horren helburua Chi2-an oinarritutako interakzioak detektatzea dela, eta taldetan zatitzen edo tipologiak sortzen saiatzen dela, mendeko aldagaia hainbat aldagai independenteren bidez azalduz.

Testu honetan, lehenik eta behin, etxebizitzarako eskubidearen eta etxebizitza eskuratzeko diskriminaziorik ezaren kontzeptu-esparrua garatzen da eta, neurri txikiagoan, arau-esparrua. Bigarrenik, EAeko etxebizitza-merkatuaren ikuspegi bat jaso da, kolektiboek etxebizitza eskuratzeko errealitatea testuinguruan jarriko duena. Ondoren, etxebizitzarekin eta bizitegi-/hiri-ingurunearekin lotutako galderak aztertuko dira. Atal honen bigarren helburua da bizitegi-diskriminazioa detektatzen duten pertsonen profilak eta neurri txikiagoan detektatzen dutenena ezartzea. Hirugarrenik, testuinguru desberdinetan egindako beste azterketa batzuen bidez, pertzepzioen informazioa osatu egiten da hainbat erakundek jasandako eta jasotako egoitza-diskriminazioarekin. Azkenik, kapituluko azken gogoetak aurkeztuko dira.

Diskriminazioa eta etxebizitza: esparru teorikoa eta arau-emailea

Etxebizitza giza ongizatearen oinarritzko zutabea da eta, gainera, oinarritzko eskubidea da Europako herrialde guztietan, herrialde guztietan modu berean adierazi eta kudeatzen ez den arren. Mediterraneoko herrialdeek jabetzako etxebizitzan oinarritutako higiezin merkatua dute. Merkatu horrek gainbehera egin zuen 2008an hasitako krisi ekonomikoarekin, etxebizitza-krisia eraginez, eta argi utzi zuen etxebizitza, produktu bat ez ezik, eskubidea ere badela. Krisi horrek modu desberdinean eragiten die gizarte-kolektiboak, eta are gehiago ahultzten ditu krisiaren aurretik ahultzat jotzen zirenak edo bazterketa-arriskuan zeudenak (Shershneva et al., 2018). Literaturak, bereziki, atzeritarrek (Fernández et al., 2015), gazteek (Gazteriaren Euskal Behatokia, 2019; Trabada, 2005) eta etxerik gabeko pertsonak (Moreno eta Fernández, 2019) etxebizitza eskuratzeko duten ahultasun-egoera aztertzen du. Ijito Herria, oso gutxitan agertzen da literaturan higiezin merkatuan

¹Estatistikoki esanguratsuak izan diren taulak soilik sartu dira analisi honetan.

sartzeko diskriminatutako kolektiboen artean. Hala ere, jasotako azterketa eta testigantza urriek berretsi egiten dute, ijito-familien artean txabolismoa urritzen ari den arren, oraindik ere badirela infraetxeak eta bizitegi- eta ekipamendu-baldintza txarreko etxebizitzak dituztenak ere (MSSSI, 2016). Ijitoek etxebizitza eskuratzeari dagokionez, Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) Europako hainbat herrialdetan egindako inkestan, bizitegi-diskriminazioaren eragin handia nabarmentzen da, bereziki Txekiar Errepublikan eta Espainian. Genero-desberdintasunei dagokienez, emakume ijitoek bizi-baldintza okerragoak dituzte aztertutako herrialde guztietan, eta etxebizitza eskuratzeko bazterketa handiagoa jasaten dute (FRA, 2017).

Etxebizitza duina izatea beti oinarrizko eskubidetzat hartu izan den arren, 2008an hasitako krisi ekonomikoak familia-ekonomian izan zuen eragina, zenbait kasutan maileguak ez ordaintzea eta etxebizitza utzi behar izatea eraginez eta, etxebizitza eskubide gisa hartzeari buruzko eztabaida publikoa piztu du berriz ere. Espainiako Konstituzioak 47. artikuluan jasotzen duen bezala, “Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, eta botere publikoek beharrezko baldintzak sustatuko dituzte eta beharrezko neurriak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko”.

Estatuak esparru orokorra ezartzen du, baina EAEk du eskumen eksklusiboa etxebizitzaren, lurralde-antolamenduaren, itsasertzaren eta hirigintzaren arloan, 3/1979 Lege Organiko 10.31 artikulua arabera. Eskumen hori udalekin partekatzen du hirigintza eta etxebizitza publikoaren arloan. Zehazki, Eusko Legebiltzarrak onartutako Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak aurrerapauso nabarmena ekarriko du etxebizitzaren arloan, izan ere, “etxebizitza duina eta egokia legez okupatzea Eskubide Subjektibotzat” hartzen du eta, gainera, hutsik dauden etxebizitzak eta horien kanona etxebizitzaren funtzio sozialaren berme gisa hartzen ditu.

Estatuan, 1996an indarrean sartu zen legeriak lurzoruaren balioa izan daitekeenagatik aitortzen duen eredu baten aldeko apustua egin zuen, ez une horretan denagatik; eredu horrek higiezinaren espekulazioa sustatzen du, eta herritarrek etxebizitza duina eskuratzeko duten eskubideari eragiten dio (Buron, 2008). Horrek guztiak agerian uzten du higiezinaren burbuila espekulatiboa erraztuko lukeen testuinguru arautu gabea (Romero et al., 2015), eta eraikuntza berriari ematen dio lehentasuna birgaitzearen eta etxebizitza librearen aurrean. Horrela, gaur egungo higiezinaren merkatuaren oinarriak ezarri ziren, bereizketa sozial eta espazial nabarmena eragiten duen merkatuaren oinarriak (Fernández, 2018).

Hala, beste gizarte-eskubide batzuek “arloan publikoaren” diskurtsoan dutela erdigunea ikusten dugu eta etxebizitza, berriz, bigarren mailakoa dela, eta herritar batzuek bakarrik dutela eskubide hori (Buron, 2008). Alde horretatik, estatuaren edo gobernu autonomikoaren lana da eskubide hori bermatzea

etxebizitza publikoa hornituz. Hala ere, egungo eredua jabetzako etxebizitza publiko batean oinarritzen da eta, berriz ere, etxebizitza horretara herritar batzuk baino ez dira iristen eta kanpoan uzten ditu, prezio merkeagoan izanda ere, etxebizitza bat erosteko aukerarik ez duten talde ahulenak (Albaga, 2003). Alokairuko etxebizitza publikoen parkea² nabarmen handitu den arren, oraindik gutxiengoa da eta, beraz, pentsa liteke ez dituela betetzen etxebizitza eskuratzeko ahulak diren kolektiboen premiak.

Etxebizitza eskuratzeko diskriminaziorik ez izateko eskubideari dagokionez, Tratu berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Printzipioa estatu demokratiko baten funtsezko elementua da. Beraz, ezinbesteko printzipioa da gizarte-kohesioa eta garapen ekonomiko jasangarria sustatzen dituzten oinarritzko eskubideen alde egiteko orduan (Eusko Jaurlaritza, 2018). Zehazki, 2000/43/EEE eta 2004/113/Ee Zuzentarauek tratu-berdintasunaren printzipioa arautu dute ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko orduan, etxebizitza barne. Hala ere, legearen aurreko berdintasun formalaren printzipioa egon arren, egia da esparru pribatuan etxebizitza-merkatuan sartzeko berdintasunik ez dagoela (Llorente, 2017).

Etxebizitzaren euskal merkatuaren eta kolektiboen ikuspegia

Etxebizitzaren arloko diskriminazioaren pertzepzioak aztertu aurretik, komeni da etxebizitzaren euskal merkatua eta kolektiboek merkatu horretarako duten sarbidea deskribatzea. Edukitza-erregimenarekin lotutako errolda-datuek erakusten dituzte etxebizitza eskuratzeko moduak eta haien luzetarako azterketa, azken hamarkadan izandako joera-aldaketa nabarmenak. Bizitegi-testuingurua funtsezkoa da pertsonen ondasun hori eskuratzeko orduan jasaten duten diskriminazioa ulertzeko; izan ere, produktu bat izateaz gain, eskubide bat da.

Alde horretatik, lurralde bakoitzeko etxebizitza-politikek higiezinaren arloko testuinguru desberdinak sortzen dituzte honako hauei dagokienez: edukitza-erregimena, etxebizitza babestuaren pisua, prezioak, merkatu librea eta eskuratzeko laguntzak. Ezaugarri horiek guztiek ingurune zail samarrak eraten dituzte, etxebizitza eskuratzeko baldintza desberdinak dituztenak. Trillaren arabera, EBean hiru herrialde-talde daude beren bizitegi-egoeraren arabera: oraindik alokairu pribatuaren sektore garrantzitsu bat dutenak (Alemania edo Danimarka, esaterako), alokairu sozialaren ehuneko garrantzitsu bat dutenak


²ALOKABIDE: Euskadin etxebizitza babestua alokatzeko Sozietate Publikoa.

(Herbehereak edo Frantzia, esaterako) eta gehien bat jabetzako etxebizitzak dituztenak (Trilla, 2001). Azken kategoria horretan daude Estatuak eta EAE.

Hala, ondoren aztertutako datuek erakusten dute EAEko higiezin merkatuan jabetzak protagonismo handia duela eta alokairuko merkatua, bestalde, oso urria dela eta prezio altuak dituela. Gizarte-talde guztiek ez dute merkatu horretarako sarbide berdina eta, hein batean, haien bazterkeria eta diskriminazioa azaltzen ditu.

Oro har, 1. grafikoan ikusten den bezala, Espainian ohikoa da jabetzako etxebizitzan oinarritutako edukitza-erregimena. Familien % 76,7k jabetzako etxebizitza bat du, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako “Bizi-baldintzei buruzko inkesta”-ren arabera. Autonomia-erkidegoen artean Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) nabarmentzen da, joera hori are eta nabarmenagoa baita. EAEn, 100 familietatik 85ek dute etxebizitza jabetzan, 11k alokairuan eta 4k lagata. Datu horien arabera, alokairuko etxebizitzaren proportzio txikiena duen erkidegoa da.


1. grafikoa. Etxeak, jabetzako edukitza-erregimenaren eta autonomia erkidegoen arabera, 2017 (%)



Iturria: geuk egina EINen datuetan oinarrituta. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Alokairuaren argazkiak EAEko bizitegi-testuingurua ulertzeko behar diren giltzarrietako batzuk ere ematen dizkigu. Oro har, Estatuan, alokairuak goranzko joerari eutsi dio: 2001ean edukitza-erregimena % 11,3 zen, eta 2017an % 16,9. Joera hori EAEn ere badago, baina hazkundea txikiagoa izan da: 2001ean, familien % 7,3k bakarrik zuen etxebizitza alokatuta, eta gaur egun % 11,5ek, batez bestekoa baino ehuneko askoz txikiagoa.

2. grafikoa. Alokairuko etxeak, EAE, 2001-2017 (%)




Iturria: geuk egina EInen datuetan oinarrituta. 2001eko errolda eta Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Banaketa desberdin hori nabarmenagoa da gizarte-taldean edukitza-erregimena aztertzen badugu, eta are gehiago gazte, emakume eta atzerritarren kasuan. Ijitoez gain, literaturak 3 talde horiek jotzen ditu oso kalteberatzat etxebizitza eskuratzeko orduan. Tamalez, datuek ez digute uzten hori berresten ijitoen kasuan, baina beste ikerketa (Eraberean, 2019; MSSSI, 2018) eta lekukotza batzuek hori adierazten dute.

Adinari dagokionez, alokairua aukera bat da 31 urtetik beherako biztanleen % 18rentzat, eta 65 urtetik gorakoen kasuan, aldiz, % 4,5entzat bakarrik (3. grafikoa). Datu horrek bere alderdi logikoa badu ere, batez ere pertsona bat enplegatuta dagoen denborari dagokionez, ulertzea komeni da gazte gehiagok eskuratzen dutela etxebizitza alokairuaren bidez.

3. grafikoa. Etxeak, alokairu-erregimenaren eta adinaren arabera, EAE, 2011 (%)




Iturria: geuk egina EInen datuetan oinarrituta. 2011ko errolda.

EAEn ez daukagu sexuaren arabera bereizitako edukitza-erregimenari buruzko daturik, baina estatukoek adieraz diezagukete joera (4. grafikoa). Hala, etxebizitza eskuratzeko zenbait desberdintasun daudela ikusi dugu, eta

ohikoagoa da gizonek etxebizitza jabetzan izatea (% 78,1) emakumezkoek baino (% 74,7).


4. grafikoa. Etxeak, jabetzako edukitza-erregimenaren eta sexuaren arabera, 2011 (%)



Iturria: geuk egina EINen datuetan oinarrituta. 2011ko errolda.

Joera bera ikus daiteke 5. grafikoa atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kasuan, izan ere, alokairua da aukera nagusia gutxienez atzerriko pertsona bat duten familietan (% 57). Atzerritarrik gabeko etxeen kasuan % 6 da soilik. Alde hori, neurri batean, migrazio-prozesuak berak eta haren etapek azaltzen dute. Alokairua da etorkin iritsi berrien edo oraindik behin betiko finkatzea erabaki ez duten edo mugikortasun eta malgutasun handiagoa behar duten etorkinen etxebizitza eskuratzeko modu nagusia.

5. grafikoa. Etxeak, alokairu-erregimenaren eta nazionalitatearen arabera, EAE, 2011 (%)




Iturria: geuk egina EINen datuetan oinarrituta. 2011ko errolda.

Esan bezala, gazteen nahiz migratzaileen etxebizitza eskuratzeko moduak beren bizi-garaian eta/edo migrazio-garaian oinarritutako azalpen logikoa du. Hala ere, badira joera hori azaltzen duten kalteberatasun-egoera handiagoari lotutako beste faktore batzuk, hala nola etxebizitzaren prezioa. Eskubide bat izan arren, oro har esan dezakegu EAEn etxebizitza garestia dela eta, ondorioz, eskuratzeko zaila dela. 6. grafikoa erakusten duenez, EAEk Estatuko metro

koadroko batez besteko bigarren prezio handiena du, soilik Madrilgoa baino txikiagoa eta Estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoa.

6. grafikoa. Etxebizitza librearen batez besteko balio tasatua, autonomia-erkidegoen arabera, 2019 (€)



Iturria: geuk egina. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

Jabetzako etxebizitzaren prezio altuak kontuan hartuta, alokairua da aukerarik merkeena. Hala ere, EAEn kasuan ez da hainbestekoa: Etxebizitzaren Behatokiak *Alokairuko Merkatuaren Estatistikari* buruzko azken txostenean (2019) adierazten duen bezala, alokairu libreko etxebizitzak EAEn hiriburuetan dira garestienak. Batez besteko errenta 745 €/hileko da hiriburuetan, neurri handi batean, Donostiako (880 €) batez besteko prezio altuagatik eta, neurri txikiagoan, Bilbokoagatik (742 €). Neurri hori Estatukoa baino handiagoa da, eta % 3,9 hazi da 2017az geroztik (Etxebizitzaren Behatokia, 2019).

Beraz, azkenean, EAEn biztanle gehienek etxebizitza bat dute jabetzan. Hala ere, errealitate hori asko aldatzen da gazteen eta atzerritar jatorrikoen kasuan, alokatzeko joera handiagoa baitute. Hondar-aloairu horrek, eskaera handia eta eskaintza txikia dituen, prezioak igo egiten ditu eta garestiegi bihurtzen du "alternatiba ekonomikotzat" jo ahal izateko. Hori dela eta, jabetzako etxebizitza garestia izateak eta etxebizitza publikoaren parke mugatuak-bereziki alokairuan-zail egiten dute etxebizitza izateko eskubidea bermatzea, eta desoreka- eta lehia-egoera sortzen du (Fernández et al., 2015). Horrek guztiak, azken batean, informaltasunerako, kalteberatasunerako eta diskriminaziorako bidea sortzen du. Merkatu horrek hondarreko, arautu gabeko eta eskuratzeko gero eta zailago den merkatura jotzera behartzen ditu kolektibo ahulenak.

Diskriminazioaren pertzepzioa etxebizitza eskuratzeko orduan

Diskriminazioa aztertzeko orduan ohikoa da, alde batetik, pertzepzioen neurketan oinarritutako azterlanak aurkitzea eta, bestetik, pertzepzioa eta bizipenak konbinatzen dituztenak aurkitzea. Bigarren horiek errealitatearen irudi osoagoa ematen diguten arren (baliteke pertzepzioa gertaeretara ez egokitzea), gizarte-pertzepzioak aztergai dugun objektuaren gizarte-eraikuntzaren isla dira. Kasu honetan, euskal-gizartean ematen den diskriminazioaren termometro soziala da.

Bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioa

EPADE 2020k euskal biztanleek diskriminazio orokorrari buruz dituzten iritzia erregistratzen ditu, bai eta beste hainbat esparru eta gizarte-taldetan izaten direnei buruzkoak ere. Hainbat esparrutan sartzeko orduan, “pertsonen tratua (edo aukera) bera jasotzen duten” galdetzean, desberdintasun edo diskriminaziorik handienekoa bizitegi-arloa dela ikusiko dugu. EAEko biztanleen % 82,2ren iritziz, denek ez dituzte aukera berdinak alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko orduan. Hala, uste dute esparru hori dela gehien diskriminatzen dutenetakoa galdeketa egindakoen artean: justizia, zerbitzu publikoak, lana eta etxebizitza. Ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen iritzien artean.

1. taula. Esparru desberdinetan hautemandako diskriminazioa, 2020 (%)

	Bai	Ez	Ed/Ee	Guztira
Tratu berdina legeak aplikatzeko orduan	35,0	61,0	3,9	100
Aukera berdinak zerbitzu publikoak eskuratzeko orduan	68,1	30,5	1,4	100
Aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan	13,4	82,2	4,4	100
Aukera berdinak enplegu baterako hautatuak izateko orduan	19,3	78,1	2,6	100
Aukera berdinak erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan	17,5	77,6	4,8	100


Iturria: geuk egina (3-12. G. Zuk uste duzu Euskadin tratua bera ematen dela, edo desberdintasunak egiten direla...).

EAEen bizitegi-diskriminazioa nabarienetakoa dela aipatu dugun arren, diskriminazio hori beste testuinguru batzuekin alderatuz gero, pertzepzio hori arestian deskribatutako lehiako bizitegi-testuinguruarekin lotuta egon daitekeela ere esan dezakegu. 1. Irudian ehuneko hori bera ageri da item horretarako³,

³Pertsonen tratua bera (edo aukerak) jasotzen al dute alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko orduan?

Nastatek Nafarroan egindako *Gizarteari eta bizi-baldintzei buruzko inkesta*-ren eta CISEk estatuan 2016. eta 2013. urteetan egindako IMIO-CISEn kasuan. Nafarroan, pertsonen % 66,6k tratu desberdina hautematen du; EAEn, berriz, ehuneko hori 15 puntu baino gehiagokoa da.

1. irudia. Diskriminazioaren pertzepzioa etxebizitza eskuratzeko orduan (%)



Iturria: geuk egina. Ikuspegi, NASTAT eta CIS.

Datu hori epe horretan bertan gai hori aztertzen duten beste ikerketa batzuetako datuekin soilik alderatzea izango litzateke egokiena. Hala ere, etxebizitza-diskriminazioari buruzko pertzepzio horiek CISEk 2013. eta 2016. urteetan egindako barometroek jasotakoekin alderatuz gero, haien artean zer alde dagoen erakutsiko liguke, gutxi gorabehera. Cea D'Anconak eta Vallesek 2018ko txostenean jasotzen duten bezala, etxebizitza eskuratzeko ez da Estatuan desberdintasun handiena duen esparrua. Bai 2016. urtean eta bai 2013. urtean "legearen aplikazioaren tratu desberdina" zen. Hain zuzen ere, biztanleriaren % 71k (Cea D'Ancona eta Valles, 2018) tratu desberdina ematen den esparrutzat hartzen du etxebizitza. Emaitzak ezin dira konparatu bi ikerketen artean 4 urteko aldea dagoelako baina badirudi etxebizitza eskuratzeko garrantzi handiagoa izan dezakeela EAEn.


Gehien diskriminatutakotzat jotzen diren kolektiboak

Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko orduan diskriminazioa jasotzen duten pertsonen kopurua ezagutzeaz gain, bereziki interesgarria da diskriminazio hori sostengatzen duten berezitasunak ezagutzea; hau da, etxebizitza bat alokatzeko orduan zer ezaugarri izan daitezkeen mesedegarriak edo kaltegarriak. Galdera horrek adierazten du zer gizarte-talde hartzen diren kaltetuenerkotzat bizitegi-esparruan.

7. grafikoan ikusten da EAeko biztanleen ustez etxebizitza bat eskuratzeko orduan kalte egin dezaketen ezaugarrien artean, faktore ekonomiko, kultural eta etnikoekin zerikusia dutenak daudela. Ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen pertzepzioen artean.

Faktore ekonomikoei dagokienez, euskal biztanleen % 56,1ek uste du baliabide ekonomiko gutxi izatea kaltegarria izan daitekeela alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko. Ildo beretik, biztanleen % 42,4k uste du langabezian egoteak desabantailako egoera eragin dezakeela. Bi galdera horiek higiezin merkatuaren logikari erantzuten diote, izan ere, etxebizitzaren prezioa, alokairuan nahiz jabetzan, nahiko altua da. Beraz, prezio altuak eta ekonomia-baliabide gutxi izateak konbinazio txarra osatzen dute. Alokairuko etxebizitzaren kasuan, gainera, alokairu-kontratua formalizatzeko, lan-kontratua eta soldata “egokia” behar dira, hileko kuota ordainduko dela bermatzeko. Bi egitate horiek ez dira bateragarriak baliabiderik ezarekin edo langabezian egotearekin.

7. grafikoa. Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko lagungarri/kaltegarri izan daitezkeen ezaugarriak, 2020 (%)



Iturria: Geuk egina (8. G. Zer ezaugarri izan daitezke kaltegarriak pertsona batentzat etxebizitza bat alokatzeko orduan?).

Kultura-faktoreei dagokienez, EAEko biztanleek, oro har, garrantzitsutzat jotzen dituzte alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera desberdinak kontuan hartzeko orduan. % 46k uste du ijitoa izatea ezaugarri diskriminatzailea izan daitekeela, eta % 44,6k uste du atzerritarra izateak ere diskriminazioa ekar dezakeela etxebizitza alokatzeko orduan. Halaber, neurri txikiagoan bada ere, euskal biztanleen % 21,2k onartzen du erlijio ez-katoliko batekoa izateak tratu desberdina ekar dezakeela etxebizitza-arloan.

Atzerritar jatorriko pertsonen diskriminazio bikoitza jasan behar dute etxebizitza eskuratzeko orduan, *Public and private discrimination* (Galster, 1988) ere esaten zaiona, hau da, egiturazko/erakundeen diskriminazioa eta partikularrek/higiezinek eragindakoa. Ildo beretik, bizitegi-diskriminazioaren bi dimentsioak bereizi behar ditugu atzerritarren kasuan: batetik, etxebizitzaren eta gelen alokairuaren prezio altuak eta, bestetik, abal formalak eskatu behar izatea (lan-kontratua edo banku-abala, esaterako). Horiek funtsezko arazoak dira lan-prekarietate handiko kolektibo batentzat (IOE, 2014). Alde horretatik, emakume atzerritar gehienek etxeko zerbitzuen eta zaintzen sektoreetan lan egiten dute, informaltasunagatik eta soldata baxuengatik nabarmentzen direnak biak, eta arrazoi sozio-ekonomikoengatik bizitegi-bazterketaren kolektibo aipagarria izango lirarteke (Fernández, 2018). Bigarren dimentsioa arrazoi etnikoengatik eta arrazagatik emandako tratu desberdinari buruzkoa da, eta etorkin izateagatik alokairua ukatzea edo higiezin agentzietan atzerriko eta estatuko pertsonentzat eskuragarri dauden pisuen zerrenda bikoitz bat aipatzen ditu (CEAR eta SOS Arrazakeria, 2011). Beraz, ez da harritzekoa biztanleen % 44,6k kontu hori aipatzea. Ijitoei dagokienez, lehen aipatu dugun bezala, oraindik ere badaude infraetxeak eta bizigarritasun-baldintza okerragoak (MSSSI, 2015).


Herritarren profilak: Nork jasaten du diskriminazioa eta nork ez?

Euskal biztanleek bizitegi-diskriminazioari buruz duten iritzia ezagutzea bezain interesgarria da jarrera horren inguruko profilak aztertzea. Zer biztanleria-segmentuk identifikatzen dute bizitegi-diskriminazioa neurri handiagoan, eta zeinek neurri txikiagoan. Biztanleria-profilak ezartzeko, lehenik eta behin, ezaugarri soziodemografiko klasikoak dituen aldagai anitzeko azterketa egingo dugu eta, gero, haien garrantzia hierarkizatzen duen aldagai anitzeko azterketa.

Lehenik eta behin, aldagai hauek diskriminazioaren pertzepzioan duten eragina aztertuko dugu: sexua, adina, jatorria, erlijioa, lan-egoera, ikasketa-maila edo ideologia. Lehenengo esanahi-azterketa batek adierazten du sexuak eta lan-egoerak ez dutela alde nabarmenik erakusten eta, ondorioz, ezin dugu esan gizonen eta emakumeen artean edo langabetuen eta langabeen artean alderik dagoenik. Hala ere, aldagai biko azterketa horrek populazio-profilei buruzko zenbait alderdi interesgarri erakusten ditu.

Kontuan hartuta bizitegi-diskriminazioa dela gehien hautematen denetako bat (% 86), adinaren azterketak alde nabarmenak erakusten ditu (8. grafikoa). Gazteenek hautematen dute gehien (% 88,6); zaharrenek, berriz, gutxiago (% 79,7).


8. grafikoa. Bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioa adin-tarteen arabera, 2020 (%)



Iturria: geuk egina (7. G. Uste duzu Euskadin pertsona guztiak dituztela aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan?)

Euskal biztanleek alokairu-merkatuan sartzeko desberdintasunari buruz duten iritzia aztertzean, ikasketa-mailak ere informazio interesgarria ematen du. 9. grafikoa ikusten denez, ikasketa-maila txikiena duten pertsonak dira desberdintasun hori gutxien aitortzen dutenak (% 78,7); lanbide-heziketako ikasketak (% 85,5) eta unibertsitate-ikasketak dituztenek, aldiz, gehiago aitortzen dute.

9. grafikoa. Bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioa ikasketa-mailaren arabera, 2020 (%)




Iturria: geuk egina (7. G. Uste duzu Euskadin pertsona guztiak dituztela aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan?)

Jatorriari dagokionez, azpimarratzekoa da aldagai horrek lotura aipagarria duela bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioarekin. Oro har, atzerritik eta estatutik datozen pertsonak neurri berean aitortzen dute etxebizitza eskuratzeko desberdintasuna. Hala ere, azterketa hori jatorri-eremuak kontuan hartuta eginez gero (10. grafikoa), ikusiko dugu Latinoamerika (% 79,7) eta Asia (% 74,9) batez bestekoaren azpitik daudela, eta beste batzuek, Saharaz hegoaldeko Afrikakoek eta Magrebekoek, berriz, diskriminazio hori gehiago onartzen dutela. Estatu- eta toki-mailan egindako ikerketen arabera, bi kolektibo horiek dira, hain zuzen ere, etxebizitza eskuratzeko arrazagatiko diskriminazioaren hartzaile

nagusiak. Eta kasu honetan erakutsi dute diskriminazioa gehien jasaten duten kolektiboak direla gehien hautematen dutenak (Fernández, 2018).


10. grafikoa. Bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioa jatorriaren arabera, 2020 (%)



Iturria: geuk egina (7. G. Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan?).

Ildo beretik, erlijioaren aldagaiaren azterketak aurrekoa berresten du, eta erakusten digu “agnostiko edo ateo” gisa definitzen diren pertsonekin batera, “beste erlijio ez-katoliko” bateko pertsonak hautematen dutela diskriminazio handiena (% 84,3). Hala ere, baliteke gurutzatze horrek ideologiaren aldagaiaren eragina ezkatutzea.

11. grafikoa. Bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioa erlijioaren arabera, 2020 (%)




Iturria: geuk egina (7. G. Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan?).

Aldagaien binakako azterketak diskriminazioa neurri handiagoan eta txikiagoan hautematen duten gizarte-taldean lehen irudi bat ematen digun arren, beharrezkoa da aldagai horiek guztiak bere osotasunean hartuko dituen azterketa anizkoitza egitea, haien pisuak eta eraginak zenbatuz, aipaturiko eredu-profil horiek egiteko. Helburu horrekin, CHAID (*Chi-Squared Automatic Interaction Detection*) izeneko edo segmentazio-zuhaitzaren teknika erabili da. Ondorengo grafikoa ikusten den bezala, hauek dira gehien diskriminatzen

duten aldagaiak, edo bizitegi-diskriminazioaren pertzepzioan eragin handiena dutenak:

- 1) Ideologia (Ezkerra/zentroa/eskuina)
- 2) Ikasketa-maila
- 3) Sexua/Generoa


12. grafikoa. CHAID



Iturria: geuk egina (7. G. Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan?)

12. grafikoa ikus daitezkeen azken nodoetatik, tipologia bateko ezaugarri-metaketa gisa interpretatuko ditugunetatik, biztanleria-profilak aterako ditugu diskriminazioa zer neurritan hautematen duten kontuan hartuta. Profil horiek ondorengo irudian adierazten dira.

2. irudia. Alokairuan etxebizitza eskuratzeko diskriminazioaren pertzepzioaren inguruko biztanle-profilak



Iturria: geuk egin a EPAD 2020ko datuetan oinarrituta.

Goi-mailako ikasketak dituzten eta beren burua ideologikoki ezkerrekotzat jotzen duten pertsonen hautematen dute gehien (% 90,4) diskriminazioa alokairuko etxebizitza eskuratzeko orduan. Beste muturrean, beren burua ideologikoki zentrokotzat edo eskuinekotzat jotzen duten gizonen osatutako 4. Profila dago, diskriminazioa gutxien identifikatzen dutenak. Erdiko profilen artean daude beren burua zentro/eskuinekotzat jotzen duten emakumeena (2. Profila) eta lehen mailako ikasketak dituzten ezkerreko pertsonena (3. Profila).

Nahi dugun auzoa eta nahi ez duguna


Bizitegi-azterketan, etxebizitza eskuratzeko bezain garrantzitsua da ingurunea, hau da, auzoa edo auzolagunak. Hiri-soziologiatik, atzeritar jatorriko kolektiboak eta, bereziki, zeinbait herrialdeetakoak oro har jasaten duen bizitegi-diskriminazioa ere faktore garrantzitsutzat hartzen dute autore askok bereizketa sozioespazialari buruz hitz egiteko orduan (Galster, 1988). Halaber, beste autore batzuek bizitegi-lehentasanak aipatuko lituzkete hiri-espazioaren egiturazailer gisa (Clark, 1992), bi zentzutan: alde batetik, *White avoidance* delakoa, estatuko pertsonen gizarte- eta arraza-ingurune homogeenetan bizi nahi izatea eragingo lukeena; eta, bestetik, atzeritarren lehentasanak, jatorri bereko pertsonen osatutako auzoak lehenetsiko lituzketenak (Clark, 1992). Bizitegi-diskriminazioaren eta bizitegi-lehentasanen baturak, izaera ekonomikoko eta gizarte-klaseko beste faktore batzuekin batera, hiri-bereizketa deiturikoa sortuko lukete (Fernández, 2018).

Ikerketa horri esker, atzerriko eta estatuko pertsonen bizitegi-lehentasanen hipotesia egiazta dezakegu. Lehenik eta behin eta, oro har, euskal biztanleei "Zu zeu, pertsonalki, asko, nahiko, zerbait, gutxi edo batere ez zintuzke gogaituko auzotarrean artean... izateak?" galdetzean, ikusten dugu biztanle gehienak eroso sentitzen direla planteatutako kolektiboen artean bizitzen, beti

ere kontuan hartuz galdera horrek nolabaiteko desiragarritasun sozial bat duela eta, ondorioz, baliteke ehuneko handiagoa izatea. Hala ere, deserosotasunaren azterketak desberdintasun aipagarriak ditu kolektibo batzuentzat (13. grafikoa). Hori da ijitoen kasua, biztanleen %25,7k dienez ez baititu bizilaguntzat nahi. Estatuko 65 urtetik gorako pertsonak deserosoago sentitzen dira ijitoak bizilagun izateko orduan (ikus 1. eranskina).

Era berean, aipagarria da erlijio musulmaneko pertsonen eta atzerritarren kolektiboa. Biztanleen % 12 deseroso sentituko litzateke auzo berean bizitzen. Halaber, neurri txikiagoan agertzen dira trans pertsonak (% 3,7) baina, berriz ere, 65 urtetik gorako pertsonak eta gizonezkoak askoz deserosoagoak sentitzen dira kolektibo horretako pertsonen inguruan bizitzen. LGB pertsonen dagokienez (lesbiana, gay eta bisexualak), pertsonen % 2,3k deserosotasuna sentitzen du, are gehiago lehen aipatutako profiletan, hau da, 65 urtetik gorako gizonezkoek (ikus 1. eranskina).

13. grafikoa. Euskal biztanleen bizitegi-lehentasanak (asko+nahiko gogaituko luke), 2020 (%)



Iturria: geuk egina (14. G. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zerbait, gutxi edo batere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?).

Lehentasanek ñabardura interesgarriak dituzte nazionalitatearen arabera aztertzen badira. Hala, jatorria estatuan duten pertsonen artean, % 70 bakarrik sentituko lirateke erabat eroso, atzerritik etorritako pertsonekin auzo berean bizitzen. Ehuneko hori % 94,1ekoa eta % 92,8koa da nazionalitate bikoitzeko edo beste nazionalitate bateko pertsonen kasuan (hurrenez hurren), eta alde nabarmenak daude pertsona batzuk eta besteak eroso sentitzen diren bizilagun- edo auzo-motaren artean.

2. taula. Bizitegi-lehentasunak nazionalitatearen arabera, 2020, (%)

Deseroso sentituko al zinateke auzo berean atzerritarrak biziko balira	Espainiarra	Espainiarra eta beste bat	Beste bat
Oso	1,1	4,6	0
Nahikoa	3,6	0	0,6
Zerbait	9,6	0	3,1
Gutxi	14,6	1,3	1,4
Batere ez	70,5	94,1	92,8
Ez daki / Ez du erantzun	0,6	0	2,2
Kop.	1.092	34	71

Iturria: geuk egina (14. G. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zerbait, gutxi edo batere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?)

Hala ere, nabarmendu egin behar da, datuen arabera, arraza-homogeneotasunaren aldeko lehentasuna ez dela gehiengoa ezein taldetan.

Alde horretatik, beste galdera batzuek bizilekuko aniztasunarekiko tolerantzia erakusten digute. Hala, “Bizi zaren auzoan meskita bat eraikitzeari buruz” galdetzean, 0-tik 10-era bitarteko eskalan, “10” “onartu” denean eta “0”, berriz, “ez onartu” denean, emaitza interesgarriak lortzen ditugu (14. grafikoa).

14. grafikoa. Zure auzoan meskita bat eraikitzearekiko jarrera nazionalitatearen arabera, 2020 (batez bestekoak)⁴

Iturria: Geuk egina. (15. G. Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek, 0tik 10era bitarteko eskalan, kontuan hartuta 0 erabat gaitzestea dela eta 10 erabat onestea. Bizi zaren auzoan meskita bat eraikitzea).

Euskal herritarrek, batez beste, 10etik 6,5eko adostasuna adierazten dute, beren auzoan meskita bat eraikitzeari buruz galdetuta. Estatu espainiarreko biztanleen kasuan, ordea, batez bestekoa txikiagoa da (6,4); nazionalitate bikoitza edo atzerriko nazionalitatea duten pertsonen batez bestekoa, berriz, handiagoa da, ia 8koa eta 7,3koa, hurrenez hurren. Galdera hori, biztanleriak nahi duen auzo-motaz gain, islamofobiaren edo erlijio musulmanarekiko mesfidantzaren adierazlea da.

⁴Emandako batez bestekoen desbideratze tipikoak honako hauek dira: espainiarra (s=3,18); espainiarra eta beste bat (s=2,16); beste bat (s=2,71).

Jasandako diskriminazioa

Ikerketa horrek ez du uzten neurtzen, arrazoi teknikoengatik eta laginengatik, euskal biztanleek hain argi identifikatzen duten diskriminazio hori zenbateraino gertatzen den biztanleria orokorraren eta, bereziki, ijitoen, atzerritarren eta gazteen artean. Hala ere, beste ikerketa batzuek egiaztatu ahal izan dute desberdintasun hori dagoela etxebizitza eskuratzeko hainbat testuingurutan.

Estatu mailan, IOE Elkarreak, atzerriko etorkinek etxebizitza eskuratzeko dituzten desberdintasunak ez ezik, etorkinak izateagatik kolektibo horrekiko zuzeneko diskriminazioa ere erakusten digu (IOE, 2014). Kataluniaren eta Madrilan kasuan, galdetutako etorkin atzerritarren % 47k adierazi zuen atzerritarrak izateagatik etxebizitza alokatzea edo erostea ukatu zitzaien egoeraren bat bizi izan zutela. Egoera hori maizago gertatzen zen afrikarren artean, bereziki marokoarren artean.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eraberean Sareak bere jarduera-txostena egiten du urtero, artatutako diskriminazio-kasuei buruzko datuak aurkeztuz. 2019an argitaratutako azken txostenean adierazten denez, diskriminazio-kasuen % 63 esparru pribatuan gertatu dira, eta horietatik % 39 etxebizitzaren arloan. Kasu horiek higiezin agentzia batzuen jardunbide txarra salatzen dute: “higiezin bat alokatzeko orduan eragozpenak jartzeagatik” (Eraberean, 2019:70). Atzerritarrak eta ijitoak dira salataile nagusiak etxebizitza-arloan.

Azkenik, Bilboren kasuan, SOS Arrazakeriak, CEAR-Euskadirekin lankidetzan, fenomeno hori aztertu zuen *Testing Inmobiliarias 2011* azterlanean, eta garrantzi handiko emaitzak aurkitu ditugu bertan (CEAR-Euskadi eta SOS Arrazakeria, 2011). Ikerketa hori *Testing* teknikaren bidez egin zen. “Proba enpiriko horretan, zerbitzu jakin bat eskuratzeko orduan ezaugarri berdinak dituzten pertsonak edo taldeak aurkezten dira, eta tratu desberdina badago, tratu horrek ageriko diskriminazio-arrazoi bat baino ezin du izan” (CEAR-Euskadi eta SOS Arrazakeria, 2011: 56). Lehenago etxebizitza-azterketetan erabili zen. Ikerketak berriro ondorioztatu zuen etxebizitza eskuratzeko orduan tratu desberdina jasotzen dutela bai partikularren aldetik eta bai higiezin agentzien aldetik. Horietan, diskriminazioa agerian uzten duten iragarkiak ikusten dira, “soilik nazionalak” edo “atzerritarrak ez” bezalako testuak dituztenak. Txostenaren arabera, partikularren % 65ek pertsona nazionalak soilik alokatzen zieten, eta aztertutako higiezin agentzien % 50ek ez zieten etxebizitzarik eskaintzen atzerritarrei. Diskriminazio-mota horrek batez ere afrikarrei eragiten die kaltea (CEAR-Euskadi eta SOS Arrazakeria, 2011).

Ondorioak eta azken gogoetak

EAEko higiezin merkatuaren argazkiak pertsonen bizitegi-arloko egoeraren zirriborroa uzten digu eta, gainera, aukera ematen digu zer gizarte-talde baztertuta gera daitezkeen ulertzeko. Euskadiko etxebizitza-merkatua gogorra da, jabetzako etxebizitzaren gehiegizko protagonismoa eta, ondorioz, alokairu-merkatu murriztua duena. Horren ondorioz, alokairu-merkatu horretan sartu behar duten kolektiboek zailtasun oso zehatzei egin beharko diete aurre; hori da gazteen eta atzerritarren kasua, horiek neurri handiagoan jotzen baitute alokairuko etxebizitzara. Hondar-alokairua da eta, eskaera handiak eta eskaintza txikiak prezioak igoarazi egiten ditu eta garestiegi bihurtzen ditu etxebizitza erostearen alternatiba bideragarria izateko. Horrek guztiak, jabetzako etxebizitzaren prezio handiarekin eta etxebizitza publiko gutxi (berezi alokairuan) izatearekin batera, zaildu egiten du etxebizitzarako eskubidea bermatzea eta desoreka-egoera sortzen du. Hala, informaltasunerako, kalteberatasunerako eta diskriminaziorako bidea sortzen da, kolektibo ahulenak hondarreko, arautu gabeko eta gero eta eskuraezinago den merkatu batera bideratzen dituen, berezi EAEko hiriburuetan.

Bizitegi-testuinguru horrekin, ez da harrizkoa EAEko biztanleen % 82,2k pentsatzea denek ez dituztela aukera berdinak alokairuko etxebizitza eskuratzeko orduan. Hala, uste dute esparru hori dela gehien diskriminatzen duena galdeketa egindakoen artean: justizia, zerbitzu publikoak, lana eta etxebizitza. Era berean, koherentea da etxebizitza eskuratzeko arazo gehien dituzten gizarte-taldeen artean, EAEko biztanleek ekonomia- eta lan-arloko faktoreekin eta faktore etniko-kulturalekin lotutako ezaugarriak nabarmentzea. Lehenengoak langabezia egotea edo baliabide ekonomiko gutxi izatea aipatzen ditu. Biak dira bateraezinak alokairuaren prezio handiekin edo etxebizitzaren errentamendu-kontratu baterako eskakizunekin (abalak, lan-kontratuak, soldata...). Bestalde, atzerritarra izatea edo ijitoen komunitatekoa izatea ere ezaugarri diskriminatzaileak izan daitezke. Bi kolektiboek, zalantzarik gabe, diskriminazioari egin behar diote aurre esparru publikoan nahiz pribatuan (partikularrak eta higiezin agentziak). Neurri batean, gizarte-klasean (eta ekonomia- eta lan-arloko faktoreetan) oinarritzen da eta, beste neurri batean, etnia- eta arraza-arrazoietan (bertakoa ez izateagatik alokairua ukatzea).

Hala ere, errealitatea ulertzeko modua ez da homoginoa EAEn. Hain zuzen ere, gazteek, goi-mailako ikasketak dituztenek eta diskriminazio gehien jasaten duten kolektiboek (Magrebekoak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak) alokairuko etxebizitza eskuratzeko orduan desberdintasuna gehiago hautematen dutela ikusten dugu. Alde horretatik, ideologiak, prestakuntza-mailak eta sexuak/generoak laguntzen dute ulertzen zer profil oharzten diren gehien desberdintasunaz.

Emaitza horiek eta beste batzuk ikusita, ezinbestekoa da nabarmentzea etxebizitza eskubidetzat jo behar dela, eta ez produktutzat. Eskubide subjektibo hori gizarte osoari bermatu behar zaio, eta inola ere ezin ditu alde batera utzi gazteak, etorkinak edo ijitoak. Azken kolektibo horri dagokionez, ez dago ia informaziorik bere egoerari buruz. Beste biei buruzko informazioa badago, asko ez bada ere. Datu-gabezia horrek ez digu uzten diagnostiko egokia egiten edo haien egoera gizarteko gainerakoekin alderatzen, aurre egin behar dioten desberdintasuna (baita bazterketa ere) oinarri enpirikoarekin aldarrikatzeko. Beraz, argi dago ikerketako eta esku hartzeko ildo bat ezarri behar dela. Era berean, datu guztiak generoaren arabera bereizteko premia nabarmendu behar da, esparru horretan egon daitezkeen desberdintasunak egiaztatzeko.

Etxebizitzaren arloko desberdintasunak ez zuzentzearen ondorioak oso garestiak dira gizarte demokratiko eta bidezko gisa onartzeko. Bizitegi-diskriminazioak jasaten duten pertsonengan dituen ondorio pertsonalez gain, gizarte-arloko ondorioek bereizketa edo segregazio espaziala ekar lezakete, eta gizartearen zati bati oinarritzko eskubide bat kentzea. Alde horretatik, higiezin merkatuaren eta etxebizitza publikoaren erregulazioa funtsezko tresna da “etxebizitzaren arazoa” deiturikoa konpontzeko. Alokairu publikoaren arloan gaur egun dauden aurrerapenak⁵ badirudi norabide egokian doazela, baina ez dira nahikoa euskal gizarteak etxebizitza eskuratzeko orduan diskriminatuenen artean jartzen dituen gizarte-taldeei estaldura emateko.

Bibliografia

- Algaba, Antonio. (2003). La discriminación en el acceso al mercado de la vivienda: Las desventajas de la inmigración. *Novedades y permanencias. Scripta Nova*, 146(2), 1-17.
- Burón Cuadrado, Javier. (2008). Una política de vivienda alternativa. *Ciudad y territorio: Estudios territoriales*, 155, 9-40.
- Cea D’Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2018). *Evolución de la discriminación en España: informe de las encuestas IMIO-CIS 2013 y 2016*. Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutua. <https://cpage.mpr.gob.es/producto/evolucion-de-la-discriminacion-en-espana-2/>
- CEAR-Euskadi eta SOS Arrazakeria. (2011). *Testing inmobiliarias. Investigación sobre la discriminación en el acceso a una vivienda en alquiler de la población extranjera de Bilbao*. <https://ceareuskadi.files.wordpress.com/2012/05/testing-sos-racismo-2011-cast.pdf>

⁵Egileak Alokabideren Gaztelagun edo Bizigune moduko programei buruz ari dira.

- Clark, William. (1992). Residential preferences and residential choices in a multiethnic context. *Demography*, 29, 451–466.
- Colectivo IOÉ. (2014). *Inmigración y vivienda en España*. <https://www.colectivoioe.org/uploads/0eaefc67da03a40d6be2755eecf2e5b3c284198b.pdf>
- Eraberean. (2019). *Informe 2019 de actividad de la Red Eraberean*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_materiales/es_observat/adjuntos/eraberean2019_es_21x21.pdf
- Etxebizitzaren Euskal Behatokia. (2019). *Alokairuko Merkatuaren Estatistika (AME). Bigarren txostena*. https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_ema19_2/es_ovv_sevi/adjuntos/EMA_informe_2_2019.pdf
- European Union Agency for Fundamental Rights (FRA). (2017). *Second European Union Minorities and Discrimination Survey (EU-MIDIS II): Main result*. https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/fra-2017-eu-midis-ii-technical-report_en.pdf
- Fernández Aragón, Iraide, Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Arkaitz eta Martín Herrero, María José. (2015). Vivienda pública y población extranjera: el caso de la CAE. In García Castaño, Francisco Javier (Koord). *Espainiako Nazioarteko Migrazioei buruzko VIII. Kongresuko aktak* (96-100. or.). Grana-dako Unibertsitatea.
- Fernández Aragón, Iraide. (2018). Pautas de localización socioresidencial de la población inmigrante extranjera en el Gran Bilbao. [Doktorego Tesia]. UPV/EHU, Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatea.
- Galster, George. (1988). Assessing The Causes Of Racial Segregation: A Methodological Critique. *Journal of Urban Affairs*, 10, 395-407. <https://doi.org/10.1111/j.1467-9906.1988.tb00170.x>
- Garnier, Jean-Pierre. (2011). Del derecho a la vivienda al derecho a la ciudad: ¿de qué derechos hablamos... y con qué derecho?. *Scripta Nova*, 16(909), 1-17.
- Moreno Márquez, Gorka eta Fernández Aragón, Iraide. (2019). Sinhogarismo y jóvenes extranjeros en Bilbao: la atención en un contexto de desbordamiento múltiple y secuencial de los recursos. *Zerbitzuan*, 70, 61-70. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.70.04>
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. (2016). *Estudio-Mapa sobre Vivienda y Población Gitana*. <https://www.gitanos.org/upload/29/29/informecompletoe-mobreviviendaypg.pdf>

Pisarello, Gerardo. (2003). *Vivienda para todos: un derecho en (de) construcción, el derecho a una vivienda digna y adecuada como derecho exigible*. Icaria.

Romero, Juan, Brandis, Dolores eta Melo, Carme. (2015). El giro neoliberal de las políticas para la ciudad en España. Balance a partir de los ejemplos de Madrid y Valencia. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 69, 369-386.

Shershneva, Julia, Fernández Aragón, Iraide eta Oleaga Páramo, José Antonio. (2018). Principales características de los grandes colectivos de población de origen extranjero en la CAE. In Moreno, Gorka (Ed.) *El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi* (13-58 or.). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Trabada Crende, Xosé. (2005). *El acceso de la juventud a la vivienda. Euskadi en el contexto de la Unión Europea*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Trilla, Carme. (2001). *La política de vivienda en una perspectiva europea comparada*. (Colección Estudios Sociales). Fundación La Caixa.

Eranskina 1

	Guztira	Gizona	Emakum.	18 eta 29 urte bitartean	30 eta 44 urte bitartean	45 eta 64 urte bitartean	65 urtekoak eta hortik gorakoak
MIGRATZAILEAK							
Oso	1,2	1,5	0,8	1,5	2,3	1,2	0
Nahikoa	3,3	3,7	3	1,8	2,1	2,9	5,8
Zerbait	8,9	8,1	9,6	5,4	6,1	8,6	13,5
Gutxi	13,5	13,2	13,8	9,9	14,9	12,1	16,2
Batere ez	72,4	72,7	72,1	81,2	73,4	74,5	64,2
Ed/Ee	0,7	0,8	0,7	0,3	1,3	0,8	0,2
LGB PERTSONAK							
Oso	0,3	0,6	0	0	0	0,4	0,5
Nahikoa	0,5	0,8	0,2	0,8	0	0	1,5
Zerbait	1,8	1,2	2,3	0	1,3	0,8	4,5
Gutxi	5	5,6	4,5	2,7	4,4	6,2	5,3
Batere ez	91,4	91,2	91,6	96,3	92,8	91,4	87,7
Ed/Ee	1	0,6	1,4	0,3	1,6	1,2	0,5

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

	Guztira	Gizona	Emakum.	18 eta 29 urte bitartean	30 eta 44 urte bitartean	45 eta 64 urte bitartean	65 urtekoak eta hortik gorakoak
TRANS PERTSONAK							
Oso	0,5	1,1	0	0	0	0,4	1,5
Nahikoa	0,9	0,8	0,9	0,8	0	0	2,9
Zerbait	2,8	2,3	3,2	1,5	1,4	3	4,4
Gutxi	5,8	6,1	5,5	3,8	6,2	6,6	5,4
Batere ez	89	89	88,9	93,7	90,7	88,9	85,2
Ed/Ee	1	0,6	1,4	0,3	1,6	1,2	0,6
MUSULMANAK							
Oso	3,1	3,9	2,3	1,5	1,7	3,5	4,6
Nahikoa	3,6	3,5	3,7	2,8	2,6	3,7	4,8
Zerbait	9	7,2	10,7	2,3	8,2	9,5	12,7
Gutxi	15,3	14,2	16,3	8,4	13,5	15,2	20,8
Batere ez	68,4	70,8	66,2	84,7	73,4	67,7	56,3
Ed/Ee	0,6	0,4	0,8	0,3	0,6	0,5	0,8
IJITOAK							
Oso	10,1	10,2	10,1	2,9	8,1	11,7	13,6
Nahikoa	9,5	9,8	9,1	6,8	8	9,4	12,2
Zerbait	16,2	14,1	18,2	5,7	12,7	15,8	25,4
Gutxi	13,4	12,6	14,1	11,6	15,9	14,5	10,7
Batere ez	50,2	52,8	47,9	72,7	54,8	47,9	37,5
Ed/Ee	0,6	0,5	0,6	0,3	0,6	0,7	0,8

Iturria: geuk egina.



Tratu-desberdintasuna eta laneko diskriminazioa EAEn

Irune Ruiz Ciarreta
Maite Fouassier Zamalloa

Kapitulu honen xedea da aztertzea zer datu ondorioztatzen diren 2020an Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 inkestaren* (EPADE 2020 aurrerantzean) analisitik, lanaren esparruari dagozkionak. Xede horretarako, ardatz hartuko ditugu gai horri buruz inkestan jorratutako diskriminazio-adierazpen guztiak. Kuantifikazio- eta neurketa-lanari esker, hobeto ezagutu ahal izango ditugu antzemandako laneko desparekotasunaren fenomenoak, horren adierazpenak, esperientziak eta jarrerak EAeko biztanleen artean.

Indarrean dagoen legediak laneko diskriminazioaren aurka jardun eta arauak sortzen dituen arren, argi daukagu gaur egun oraindik ere desberdintasun handiak daudela pertsonen, kolektiboen eta komunitateen artean eta horrek erakundeen esku-hartzea eta errealitate hori aztertzea eskatzen duela. Aipatzekoa da, halaber, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2013an *Diskriminazioaren profilak Espainian (Los perfiles de la discriminación en España)* gaiari buruz egindako argitalpena, arreta berezia jartzen baitzitzaion lanaren esparruari, funtsezko gizarte-eremu izateagatik, bai bertan diskriminaziozko gertakariak gertatzen direlako —analisi horretan argi geratzen da—, bai garrantzi soziala duelako eta horrek ondorioak dituelako gizarte-dinamikan oro har —mugikortasuna, bizitzako aukerak, bizi-baldintzak eta abar— (Alter, 2014). Hain zuzen ere, lan-eremu horrekiko lotura falta, hau da, langabezia, izan da euskal biztanleriaren kezka nagusietako bat historian zehar. Hala ikus dezakegu Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren azken *Barometroan, atzerritar jatorriko biztanleen inguruko pertzepzio eta jarrerari buruzkoan* (2020). Barometro

horretan langabezia da kezka nagusietako bat, hain zuzen ere kontsultatutako pertsonen % 51rentzat.

Diskriminazioari buruz Euskadin egindako inkestan jasotako datuek (EPADE 2020) informazio eguneratua eskaintzen digute, ez soilik EAEko biztanleek antzematen duten laneko diskriminazioari buruz, baita jasandako eta salatutako edo ezkutututako diskriminazioari buruz ere. Horrez gain, zehazki bilduko ditugu biztanleriak arazoaren aurrean dituen jarrerak eta erreakzioak, bai eta erakundeek berdintasunaren eta laneko diskriminaziorik ezaren arloan egiten dituzten jardueren ezagutza- eta balorazio-maila ere.

Hori dela eta, lan-diskriminazioa teorikoki kokatzen duen hasierako laburpen bat egingo dugu, bai eta enpleguko diskriminazio-modalitate desberdinen aipamena ere. Ondoren, atal metodologikoa azalduko dugu, analisia egiteko erreferentziazko azterketatik ateratako aldagai sortarekin. Azkenik, datuen analisi bat egingo dugu, nagusiki lanpostu bat eskuratzeko eta erantzukizuneko lanpostuak lortzeko aukera-berdintasuna ardatz hartuta. Hori guztia kontuan izanda euskal herritarrek lan-eremuko tratu-desberdintasunaren eta diskriminazioaren aurrean dituzten pertzepzioak, esperientziak eta jarduerak. Azkenik, azpimarratzeko interesgarriak iruditzen zaizkigun ondorio batzuk aurkezten dira.

Diskriminazioa eta lan-merkatua

Gero eta aldakorragoa den lan-merkatuan eta egungo krisi-egoera —ekonomikoa eta sanitarioa— aintzat hartuta, interes berezia du generoak, arraza- edo etnia-jatorriak, sexu-orientazioak, erlijioak edo sinesmenek, adinak, desgaitasunak edo beste arrazoi batzuek eragindako lan-diskriminazioak. Gizarteak bizi izan duen diskriminazio-egoera nagusietako baten aurrean gaude, antzemandakoa zein bizi izandakoa, eta gaiari buruzko aldez aurreko azterlan asko bat datoz esatean gaur egun hainbat faktore diskriminatzaile daudela lan-eremuan. Horrez gain, funtsezko eremu baten aurrean gaude, gizartean duen garrantziagatik eta gizarte-dinamika osoan dituen ondorioengatik (mugikortasuna, bizitzako aukerak, bizi-aukerak eta abar) (Alter, 2014).

Kapituluaren hasieran aipatutakoaren harira, zalantzarik gabe, indarreko legeria errealitate hori bideratzen saiatzen da, eta, nazioartean ere, duela urte batzuetatik hona lan-merkatuan hainbat arrazoirengatik (sexua, arraza eta kolorea, eta abar) ez diskriminatzeko arauetara buruzko hainbat ekimen bultzatu eta babestu nahi dira. Aniztasunaren asimilazioa, ordea, gai soziologikoa da juridikoa baino gehiago, eta gizarteak berak desagerrarazi beharko ditu denboraren joanean giza aniztasunak agertzen dituen gai askori buruzko intolerantziaren, aurreiritzien eta beldurren joerak (Porret, 2010).

Xehetasunez aztertuz gero, ikus daiteke *laneko diskriminazioaren* kontzeptua nahiko konplexua dela; izan ere, kontzeptu hori ez dagokie soil-soilik gizarte-zientziei, baizik eta hainbat ezagutza-arlori. Berdin-berdin aztertu dute ekonomiak, politikak, soziologiak, antropologiak eta zuzenbideak ere.

Beraz, Javier Rubiok (2012) diskriminazio soziolaboralaren faktore soziologikoei buruzko analisian adierazten duen bezala: “(...) laneko diskriminazioa (hasten da) hautagai bati lanpostua ukatzen zaionean (baztertzea) arrazoi hauengatik, esaterako: adina, itxura, jatorria edo nazionalitatea, generoa eta abar, hautagaiari lan egiteko aukera ukatuz” (190. or.).

Kontzeptuaren beste definizio aipagarria Castrorena (2001) da. Castroren arabera, laneko diskriminazioa tratu-bereizketa, -bazterketa edo -lehentasun oro da, lan-harreman baten ondorioz gertatzen dena, eta arraza, kolore, sexu, erlijio, sindikazio, iritzi politiko edo irrazionaltzat edo bidegabekotzat jotzen den beste edozein irizpidetan oinarritzen dena eta enpleguan eta lanbidean tratu-berdintasuna aldatzea edo baliogabetzea eragiten duena.

Gaiari ikuspegi ekonomikoago batetik helduz, Cooter-ek (1994) ekonomian dagoen diskriminazioaren definizioa egiten du, eta ondorioztatzen du bizitza ekonomikoan gertatzen den diskriminazioa, oro har, pertsonak ezaugarrien arabera sailkatzea dela, eta ez produktibitatearen arabera.

Aipatutako ekonomia- eta lan-arloko diskriminazioaren definizioetatik ondorioztatzen da enpleguaren eremuko diskriminazioak alderdi edo forma asko dituela, eta diskriminazio hori lan-harremanaren barruan nahiz lan-harremanetik kanpo gerta daitekeela —hori gerta liteke lan-harremana ezarri ez delako edo amaitu delako—. Hortaz, arazo global baten aurrean gaude, eta ez arazo pertsonal baten aurrean; izan ere, urteen joanean laneko zenbait diskriminazio-modu desagertu egin dira eta beste batzuk, aldiz, areagotu, forma berriak hartu eta sotilago bihurtu dira (Rubio, 2012).

Era berean, kontzeptua eta diskriminazio-moduak aipatzeaz gain, garrantzitsua da lan-harremana garatzeko funtsezko uneak azpimarratzea, denbora kontuan hartuz. Castroren arabera, harremana oinarritzko hiru etapatan banatu daiteke: lan-harremana sortu aurreko unea —lanbidearen aurreko etapa—, lan-harremanak irauten duen bitartekoa —lanbide-etapa— eta, azkenik, lan-harremana amaitu ondokoa —lanbide osteko etapa—. Etapa horietako bakoitzean sor daitezke diskriminazio-jokabideak (Castro, 2001).

Aztergai dugun kasu zehatzean eta EAEn egindako inkestan (EPADE 2020) erreparatu beharreko datuei behatuz, argi dago laneko diskriminazioari buruzko galderak bi une nagusitan egiten direla: batetik, lanpostu baterako pertsona bat hautatzean, eta, bestetik, erantzukizuneko lanpostuak lortzeko aukeretan.

Lanpostu bat eskuratzeko uneari erreparatuz, hautaketa-prozesuetan diskriminazioa oso aipagarria da. Hor, diskriminazioa aditzera ematen da hautagaien tratuan bereizketa antzematen denean arrazaren, kolorearen, sexuaren, erlijioaren edo beste aldagai askoren arabera, kontuan hartu gabe lanpostua betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak, ezaugarriak edo erreferentziak (García-Izquierdo, 2007). Beraz, lanpostu bat aukeratzeko eta eskuratzeko hasierako une honetatik, hainbat oztupo izaten dituzte hautagaiek, aurreiritziz eta estereotipoz beteta, praktika diskriminatzaileak txertatzen dituztenak. Hasierako prozesu horretan diskriminazioa egoteak arazoa sortzen du gizartean, hezkuntzan eta prestakuntzan (Hernández, 2018).

Testuinguru horretan, lanaren esparruan gerta daitezkeen diskriminazio-mota desberdinak nabarmentzen dira: zuzeneko diskriminazioa eta zeharkako diskriminazioa; azken hori askoz ere ezezagunagoa, antzemateko eta zehazteko zaila delako. Zuzeneko diskriminazioa gertatzen da pertsona bat antzeko egoeran dagoen beste bat baino okerrago tratatzen denean. Zuzeneko diskriminazioa ohikoagoa eta nabarmenagoa da enpresaren aldebakarreko erabaki batetik sortzen denean (Porret, 2010). Baina, lehen esan bezala, diskriminazioak forma sotilagoak har ditzake, ordea, eta hor aurkituko dugu zeharkako diskriminazioa. Hori agertzen da ustez neutrala den praktika edo irizpide batek enpleguan desabantaila eragiten dienean pertsoneri hainbat arrazoiengatik (generoa, arraza- edo etnia-jatorria, erlijioa, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa eta abar) (Rubio, 2012).

Aztergai dugun bigarren unea, aurrez aipatu dugun moduan, segregazio bertikala da; hau da, erakunde baten barruan erantzukizuneko postu jakin batzuk eskuratzeko desparekotasunak. Une hori funtsezkoa da pertsonen lan-eremuan duten garapenaren barruan, eta gogoeta egitera gonbidatzen gaitu desparekotasun-jarrerei eta gizartean beste aniztasun batzuekiko indarrean dauden estereotipoei buruz.

Hortaz, laneko etapa honetan aniztasuna ez da, oro har, balio positibotzat jotzen, pertsona guztiei beren talentua eta gaitasunak zabaltzeko aukera ematen dien balio gisa alegia, albo batera utzita beren nazionalitatea, arraza- edo etnia-jatorria, ezaugarri fisikoak, sexu-orientazioa edo adina. Beste iturri batzuetara joz, atal honetan aipatzekoa da CIS erakundeak 2014an egindako galdeketa. Galdeketa horretan, datuek erakusten dute gizarteak desparekotasunaren pertzepzioa zuela zenbait taldek bizitza sozialean zuen partaidetzari dagokionez, erantzukizuneko lanpostuak eskuratzeko aukera desberdinen bidez adierazita. Azterketa horretan, erantzukizuneko lanpostu bat eskuratzeko aldeko edo kontrako ezaugarriari erreparatzen zaie, kasu horretan generoaren irakurketa azpimarratzen da bereziki (Alter, 2014). Aurrekari ugari daude erantzukizuneko lanpostuetara heltzeko sexu/genero arrazoiengatik laneko diskriminazioaren esparruan egin diren azterketetan —*kristalezko sabaia* delakoa—. Azken hamarkadetan, emakumeak lan-munduan pixkanaka

gero eta gehiago txertatzeak erronka sozial garrantzitsua ekarri du; izan ere, soldatetan eta zuzendaritza-postuetako ordezkartzan dauden aldeak ikusteko aukera eman du (García-Izquierdo, 2007).

Baina, beste behin ere, sexu/genero aldagaia ez da diskriminazioa eragiten duen bakarra erantzukizuneko lanpostuak eskuratzeko, horren inguruko faktore edo arrazoi kaltegarri gehiago ere badaude. Beste hainbat alderdik ere, hala nola etnia- edo arraza-jatorriak, adinak edo pertsonen maila sozioekonomikoak, protagonismoa hartzen dute lan-arloko tratu-desberdintasunezko eta diskriminaziozko une honetan. Adibide modura, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak aditzera ematen du egindako azterketetan etnia- edo arraza-aldagaiaren protagonismoa laneko diskriminazio-gertaeretan (OBERAXE, 2019).

Azken batean, lanaren esparruan, hainbat azterketatan eta gaiari buruzko literaturan jasota dagoen moduan, diskriminazio-egoera ugari gertatzen dira eta, gainera, askotariko arrazoiak edo kausak elkartzen dira maiz (arrazaz/etnia, jatorria, generoa, adina, desgaitasuna, erlijioa), tratu-desberdintasunean eta diskriminazio anizkun eta intersektionalean oinarritutako lan-harremanak sortuz. Hori guztia dela eta, arazo hori agertzen duten galdera espezifikoen atala aztertuko dugu jarraian.

Datuak eta metodologia

Ikuspegik egindako azterketatik ateratako laneko diskriminazioari buruzko datuak aurkeztu aurretik, azpimarratzekoak dira erabilitako metodologia, lagina eta gaiaren harira hautatutako analisirako aldagaiak. Zehazki, EAEn egindako diskriminazioari buruzko analisian, metodologia kuantitatiboa hautatu zen. Aurrez aurreko eta etxex etxeko 1.200 galdeketa egin ziren EAeko hiru lurralde historikoetan. Beraz, eskuragarri dagoen lagina osorik hartuta egingo dugu lan eta honako item hauetan oinarrituko dugu gure analisia (1. taula).

1. taula Aztertutako aldagaiak

9. G. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiak dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?
10. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan?
11. G. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiak aukera berdinak dituztela erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?
12. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan.
37. G. Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta?
44. G. Zein esparru edo egoeratan ikusi edo entzun duzu zure ingurukoren batek diskriminazioa jasan duela honako arrazoi hauetako bat dela-eta?
15. G. Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek:
30 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 50 langiletik gorako enpresa edo sail bat zuzentzeko
Seme-alabak dituen emakume bati zuzendaritzako edo erantzukizuneko postu bat ematea
GIB/hiesa duen pertsona batek bulego batean egitea lan, beste pertsona batzuekin
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek desgaitasuna duen pertsona bat kontratatzea desgaitasunik ez duen pertsona bat baino lehen
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek Espainian jaiotako pertsona bat kontratatzea immigrante bat baino lehen
Enpresa batek 55 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 55 urtetik gorako bat baino lehen
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek gizon bat kontratatzea emakume bat baino lehen.
16. G. Edonola ere, esango zenuke gure lege-esparruak, hau da, legeak, jokabide hauek onartzen dituen edo ez?
3. eta 4. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat legeak aplikatu behar zaizkionean? (Bat-batekoa eta iradokitakoa)
6. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat zerbitzu publikoak jasotzeko orduan?
42. G. "Diskriminazio-egoera bat pairatuko bazenu (edo berriz pairatuko bazenu), nori jakinaraziko zenioke? Nori lehenik?"

Iturria: Txostengileek egina


Lanaren esparruan antzemandako diskriminazioa EAEn

Laneko diskriminazioari buruzko analisi honek EAeko biztanleek lanaren esparruko hainbat egoeratan bidegabeko tratuz duten pertzepzioari buruz ateratako datuak azaltzen ditu lehenik eta behin. Aipatzekoa da pertzepzio bat errealitatetik urrun edo hurbil egon daitekeela, baina beti izango da errealitatea sozialki eraikita dagoen moduaren eta horretan esku hartzen duten faktoreen isla (Cea D'Ancona eta Valles, 2018).

Tratu-desberdintasunaren eta laneko diskriminazioaren pertzepzioa EAEn

1. grafikoa ikus daitezkeen moduan, EAeko biztanleak jabetzen dira pertsona guztiek ez dituztela aukera berak lanpostu baterako hautatuak izateko (% 78,1). Kapituluaren hasieran ikusi ahal izan dugun moduan, enplegua lortzea eta talde sozial jakin batzuek aurre egin beharreko zailtasunak benetan gertatzen dira. Generoa, arraza- edo etnia-jatorria, sexu-orientazioa, erlijioa edo sinesmenak, adina, desgaitasunak izatea edo beste arrazoi batzuk direla eta, lanaren esparrua askotariko diskriminazio-jarrerak garatzeko funtsezko eremutzat jotzen da gizartean. Hortik ondorioztatzen da euskal gizarteak desberdintasunak antzematen dituela tratuan eta aukeretan, eta gizarteko zenbait talde *favoritotzat* jotzen dituela eta beste batzuk *kaltetutzat*.

1. grafikoa. Enplegua lortzeko lan-aukerak (%)



Iturria: geuk egina (9.G. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiek dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?).

Pertsona bat lanpostu baterako hautatua izateko zer ezaugarri izan daitezkeen onuragarriak eta zer ezaugarri izan daitezkeen kaltegarriak jakiteko asmoz, biztanleen ustez laneko diskriminazio handiagoa eragin dezaketen ezaugarriak aztertuko ditugu hemen. 2. grafikoa erakusten duen moduan, EAeko herritarren ustetan ijitoa izatea (% 42,4), atzerritarra izatea (% 38,8), prestakuntza txikia izatea (% 36,9) eta emakumea izatea (% 36,4) dira pertsona bati kalte gehien egin diezaioketen ezaugarriak lanpostu baterako hautatua izaterakoan.

Bestalde, EAeko herritarren ustetan, gutxien eragiten duten berezitasunen artean daude heterosexuala izatea (% 0,3), gizonzkoa izatea (% 0,5), langabea izatea (% 2,7) eta auzo degradatu, pobre edo estigmatizatu batean bizitzea (% 2,7).

2. grafikoa Lanpostu baterako hautatua izateko orduan kalte egin dezaketen ezaugarriak (gutzizkoaren %)



Iturria: geuk egina. (10. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan?).

Lanpostu bat eskuratzeko kaltegarrien jotzen diren lau ezaugarri horiek xehetasun handiagoz aztertzen baditugu, ikusiko dugu “ijito izatea”ren kasuan (gutzizkoaren % 42,4) estatistikoki alde esanguratsuak daudela jatorrizko herrialdea, diru-sarrerak eta lan-egoera aldagaietan. Hain zuzen ere, Latinoamerikatik datozenek neurri txikiagoan nabaritzen dute kolektibo horretako partaide izatea kaltegarri izan daitekeela lan-merkatuan sartzean, baita diru-sarrera txikia dutenek (% 25,3) eta langabezia daudenek (% 28,3) ere. Atzerritarrek lan-munduan sartzeko dituzten zailtasunen aurrean, 18-29

urte arteko gazteen erdiak baino gehiagok (% 54,6) uste du atzerritarra izateak neurri handiagoan kaltetzen duela lan-merkatuan sartzeko aukera, nahiz eta ikasketarik ez dutenek edo oinarritzko ikasketak dituztenek neurri txikiagoan ikusten duten (% 31,1).

Eurobarometroan Europar Batasuneko diskriminazioari (2019)¹ buruz erabiltzen diren datuei erreparatzen badiegu, estatu mailako datuetan, adina da lanpostu bat lortzeko orduan desabantaila gisa agertzen den lehen kausa —eta bigarrena Europa mailan—, gazteegia izateagatik zein helduegia izateagatik, eta laugarren postuan agertzen da ijitoa izatea. Hautagaiaren larruazalaren kolorea da kontratatua izateko diskriminazioa eragin dezaketen kategorien artean agertzen den ezaugarrietako bat, eta bosgarren postuan ageri da.

Horren harira, Cea D’Anconak eta Vallesek (2018) Espainiako diskriminazioaren bilakaerari buruz egindako azken azterketan, enplegua lortzean ijitoa izateagatik diskriminazioak ere protagonismo berezia hartzen du (% 50). Ijitoen Idazkaritza Fundazioak ijitoen enpleguari buruz argitaratutako datuak ere ezin dira albo batera utzi; izan ere, 2005., 2011. eta 2018. urteetan egindako azterketen arabera, kolektiboan despaketotasun-egoera dagoela argi ikusten dela dio eta egoera horrek okerrera egin duela urteen joanean: ijitoen eta gainerako biztanleen arteko arrakala are handiagoa bilakatu da. Estatu mailako datuak eskaintzen dituzte, eta, horien arabera, ijitoen eta gainerako biztanleen arteko jarduera-tasa oso antzekoa izanik (ijitoen % 56 lanean edo langabezian dago), langabezia-tasa % 52koa da ijitoen artean, gainerako biztanleena baino hiru aldiz handiagoa (% 14,5) (De la Rica, 2019).


Lanaren esparruan gehien kaltetutako kolektiboen bigarren postuan atzerritarrak daude, hala antzematen du EAEnko biztanleen % 38,8k. Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazioetako Ministerioak berriki egindako *Encuesta sobre intolerancia y discriminación hacia las personas musulmanas* (Aparicio, 2020) lanean, jatorri atzerritarreko kolektiboak enplegua lortzerakoan jasaten duen diskriminazioa oso edo nahiko maiz gertatzen da, galdetutako pertsonen % 80 baino gehiagoren iritziz.

Gure analisi-datuetara itzuliz, 3. grafikoan ikus dezakegun moduan, gurutze-aldagaiei erreparatzen badiegu, “emakume izatea” lan-merkatuan sartzeari kalte egiten dion ezaugarria izan daitekeela baieztatzen dutenen artean (guztizkoaren % 36,4), ikasleak (% 52,6) eta emakumeak berak (% 42,5) dira neurri handiagoan antzematen dutenak genero femeninoak diskriminazioa bultzatzen duela enplegua lortzerakoan. 65 urte eta gehiago dituzten adineko pertsonen (% 29,9), gizezkoen (% 29,8), erretiratuek (% 29,5) eta atzerriko

¹Eurobarometro berezia 493.a, Diskriminazioa Europar Batasunean, 2019ko maiatza.

jatorria dutenek (% 13,6), ostera, ezaugarri hori ez zaiela hain garrantzitsua iruditzen diote.


3. grafikoa. Lan-ingurunean “emakume izatea” faktore diskriminatzailea dela dioten biztanleen profil sozio-demografikoa (%)



Iturria: geuk egina. (10. G. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan?).

Lan-ingurune funtsezko beste une bat erantzukizuneko lanpostuak lortzea da, eta lanpostu horietan sortzen diren aldeak eta desparekotasunak. Lan-merkatuan oso ohikoa den segregazio bertikalaren aurrean gaude. Segregazio-mota hori gertatzen da, batez ere, kolektibo jakin bat okupazio-eskalaren maila baxuenetan kontzentratzen denean eta beste pertsona talde batzuk gainerako kategorietan banatzen direnean edo eskala horretako maila gorenetan soilik biltzen direnean.

4. grafikoa. Erantzukizuneko postuak lortzeko aukerak lan-ingurunean (%)




Iturria: geuk egina. (11. G. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiek aukera berdinak dituztela erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?).

Puntu jakin honetan, lan-ingurunean erantzukizuneko lanpostuak lortzeari buruzko galdeketako datuei erreparatzen badiegu, EAEko herritarrek ere badakite, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak (4. grafikoa). Hain zuzen ere, biztanleen % 77,6k horrela antzematen du eta % 17,5ak, aldiz, pertsona guztiek aukera berdinak

dituztela pentsatzen du. Bestalde, % 3,3k ez du aurreko baieztapenetatik bat ere aukeratzen, eta % 1,5ek nahiago du ez erantzun.

EAEko biztanleen ustez erantzukizuneko lanpostu bat lortzeko orduan eragina izan dezaketen ezaugarrien artean, berriz ere ikusten dugu emakume izatea (% 47,6), ijitoen komunitateko kide izatea (% 42,9), prestakuntza txikia izatea (% 39) eta atzerritarra izatea (% 32,4) direla gehien identifikatzen direnak (5. grafikoa). Hau da, ezaugarri horiek gehiago eragin dezakete bai lanpostu jakin bat lortzean, bai erantzukizuneko lan bat betetzean; izan ere, bi kasuetan ageri dira, nahiz eta batean eta bestean ehunekoak desberdinak diren.

5. grafikoa Erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan kaltegarriak diren ezaugarriak (%)




Iturria: geuk egina. (12. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan.

Cea D’Ancona eta Vallesen (2018) azterlanean ere esparru horretan ikusten da, aztertutako gainerakoekin alderatuta, genero-arrakala handiena, gizonezkoen alde eta emakumezkoen aurka (% 45).

Erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko kaltegarria izan daitekeen lehen arrazoi gisa “emakume izatea” hartuta (guztizkoaren % 47,6), Genero Berdintasunaren Europako Institutuak (EIGE, 2019) egindako Genero Berdintasunari buruzko txostenak Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetan genero-berdintasunari buruzko sei alderdi aztertzen dituela aurkituko dugu. Txosten horrek adierazten du, estatu mailan, alor guztien artean puntuaziorik baxuena boterearena dela, hau da, erantzukizuna eta erabakiak hartzea eskatzen duten lanpostuen banaketan, esparru pribatuan zein publikoan. Hortaz, adibide modura jasotzen da burtsan kotizatzen duten enpresetako administrazio-kontseiluen % 18an soilik daudela emakumeak. Bestalde, Espainia bederatzigarren postuan ageri da genero-berdintasunaren indizeari buruzko EBko sailkapenean; 2017az geroztik gorakada arina izan du, eta aurreratu diren 2020ko azken datuetan, jada zortzigarren postura heldu dela dirudi.

Are gehiago, emakume izatea erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan kaltegarria izan daitekeen ezaugarria izatearekin lotuta gurutze-aldagaiari erreparatzen badiegu, 6. grafikoa ikusi ahal izango dugu nola nabarmentzen diren alde esanguratsuak agertzen dituzten kategoriak. Kasu horretan, emakumeek soilik (% 55,5) adierazten dute, neurri handiagoan, emakume izateak gutxitzen duela beren gaitasuna erantzukizuneko lanpostu bat lortu ahal izateko. Gizonezkoek (% 39), diru-sarrera txikiak dituztenek (% 30,2), atzerriko jatorria dutenek (% 24,6) eta jatorri latinoamerikarra (% 27,7) eta magrebtarra (% 10) dutenek neurri txikiagoan uste dute emakume izateak zaildu egin dezakeela erantzukizuneko lanpostuak lortzea.

6. grafikoa. “Emakume izatea” erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan kaltegarria dela dioten biztanleen profil sozio-demografikoa (%)



Iturria: geuk egina. (12. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan).


Hori horrela, datuek erakusten dute, lanpostu bat nahiz erantzukizuneko postu bat lortzeari buruz galdetzen bada, generoagatiko diskriminazioak protagonismo handia hartzen duela. EAEn herritarren ustetan emakumeek jarraitzen dute izaten kaltetuenak lanean mailaz igotzerakoan (lehen postuan) eta diskriminatuenetarikoak (laugarren postuan) lanpostu bat lortzean.

Diskriminazio-bizipenak lanean

Lanaren esparruan aurrez aztertutako antzemandako diskriminazioaz gain, egungo diskriminazioa ere agerian uzten duten beste errealitate batzuk aztertu behar ditugu. Laneko diskriminazio-bizipenez ari gara —aitortutako diskriminazioa—, zuzenean bizi izandakoak —“lehen pertsonan”—, nahiz zeharka bizi izandakoak —“zerbaiten lekuko izanda”—. Horretarako, lehenik lan-inguruneke zuzeneko diskriminazioaren datuak aterako ditugu galdeketatik; hau da, lehen pertsonan bizi izan dutela adierazten duten diskriminazioari buruzko datuak. Bigarrenik, zeharkako edo transmititutako diskriminazioaren datuak zehaztuko ditugu; hau da, pertsonak beren ingurunean ikusi duten diskriminazioari buruzkoak. Beste behin ere azpimarratu behar dugu lanaren esparruan diskriminazioa askotariko arrazoiengatik gertatzen dela.

Aztertutako datuak oinarri hartuta, EAEko herritarrek diskriminazio-egoeren kontzientzia handiagoa hartzen dute lehen pertsonan bizitzen dutenean, lekuko izan diren diskriminazioaren arrazoiak zehazteko esaten zaienean baino. Hala ikus dezakegu ondorengo 7. grafikoan. Zuzeneko eta zeharkako diskriminazioa alderatzen ditu, kasu honetan lan-ingurunean.

7. grafikoa. Zuzeneko eta zeharkako diskriminazioa lan-ingurunean (guztizkoaren %)



Iturria: geuk egina. (37. G. Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta? 44. G. Zein esparru edo egoeratan ikusi edo entzun duzu zure ingurukoren batek diskriminazioa jasan duela honako arrazoi hauetako bat dela-eta?).

Datuetatik ondorioztatzen da EAEko biztanleen % 10,6 diskriminatuta sentitu dela lanaren esparruan generoa dela-eta, baina arrazoi horregatik beste pertsona batzuek jasan duten diskriminazio-motaren baten lekuko izan ote diren galdetzen zaienean, % 3,9k soilik baieztatzen du. Adina (% 6,7) eta nazionalitatea edo jatorria (% 6,1) dira lanean edo lan-ingurunean diskriminatuta sentitu izanaren bigarren eta hirugarren arrazoiak, eta % 2,4k hauteman dute beste pertsona batzuegan bi kasu horietan. Etnia- edo arraza-

jatorriaren arrazoia soilik antzeman da neurri handiagoan (% 4) bizi izandakoa baino (% 3,8), baina aldea oso txikia da.

Jarrera diskriminatzaileak lanaren esparruan: sinesmenak eta jarrera

Lanaren esparruko aniztasunen onespina neurtzeko, EAEko herritarrek lan-ingurune eguneroko bizitzako zenbait egoeraren aurrean dituzten jarrerak azter daitezke. Aztertutako galdeketak lan-bizitzako zenbait egoera ebaluatzen ditu, eta EAEko biztanleek egoera horiei buruzko jarrerak eta sinesmenak erakusten dituzte. Aztertutako gai nagusiak laneko aurreiritzien inguruan antolatzen dira, besteak beste: adina —gazteak eta/edo adinez nagusiak—, emakumeek erantzukizuneko lanpostuak lortzea, lanean nolabaiteko gaixotasunak dituzten pertsonak, desgaitasunak dituztenak edo jatorriz atzerritarren diren pertsonak.

8. grafikoa. Euskal gizarteak lan-inguruneko zenbait egoeraren aurrean duen adostasun-maila (batez besteko puntuazioa 0 eta 10 arteko eskalan)



Iturria: geuk egina. (15. G. Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek...)

Hori horrela, euskal gizarteak lanaren esparruan gerta daitezkeen hainbat egoeraren aurrean duen adostasun-maila erakusten du 8. grafikoak. Aukera horiek 0 eta 10 arteko eskalan adierazita daude, 0 “ez du onartzen erabat” eta

10 “erabat onartzen du” izanik. Jarraian itemak ordenatu egin ditugu puntuazio handienetik txikienera, euskal gizarteak gaiari dagokionez duen jarrera hobeto irakurtze aldera.

Datuen arabera, gizarteak neurri handian onartzen du erantzukizun handiko postuetan gazteak (8,43 puntu batez beste) edo seme-alabak dituzten emakumeak (8,22 puntu) kontratatzea. Onarpen-maila ertaina eta, beraz, desadostasun sozial handiagoa du GIB/Hiesa duten pertsonen laneko bizikidetzak onartzeak (7,93 puntu) edo desgaitasunen bat duten pertsonak lehentasunez kontratatzeak (6,39 puntu). Onespenezkoak txikienera duten jokabideak hauek dira: ia guztiz gaitzesten da gizonezkoak lehentasunez kontratatzea (1,55 puntu batez beste), pertsona gazte bat lehentasunez kontratatzea (4,72 puntu) edo Espainian jaiotako pertsonak kontratatzea (4,91 puntu). Erantzunak sexua/generoa aldagai ardatz hartuta aztertuz gero, aipagarria da gizonezkoen eta emakumezkoen artean estatistikoki alde esanguratsuak daudela; emakumeek gizonezkoek baino gehiago babesten dute seme-alabak dituen emakume batek zuzendaritzako/erantzukizuneko postu bat lortzea (8,43 puntu).

Erantzun-aukera bakoitza xehetasunez aztertuko dugu jarraian. Ondoen baloratutako jarrerarekin hasita, esan daiteke EAEnko biztanleak, oro har, guztiz ados daudela 30 urtetik beherako pertsona bat kontratatzearekin 50 langiletik gorako enpresa edo sail bat zuzentzeko. Hortaz, ez dute uste adina eragozpena denik erantzukizuneko lanpostu bat zuzentzeko eta administratzeko, langileak bere kargura izanik.

Era berean, badirudi amatasuna ere ez duela zigortzen EAEnko iritzi publikoak, seme-alabak dituen emakume batek erantzukizuneko lanpostua lortu ahal izateari dagokionez. Beraz, baieztapen hori babesteak adierazten du amatasuna, gizarte-imaginario kolektiboan behinik behin, ez dela eragozpena erantzukizuneko postu bat lortzeko.

Batez beste ia 8 punturekin (7,93 puntu) onartzen du EAEnko biztanleriak GIBa duen pertsona batek beste batzuekin garatzea lan-jarduera. Hau da, duela urte batzuk GIBa zuten pertsonen harremana izateko gaitzespena handia zen, GIBa duten pertsonen buruzko jarrera eta sinesmen negatiboengatik, baina urteen joanean eta birus horri buruzko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-lanari esker, aurrera egin ahal izan da GIBak eragindako infekzioari buruzko beldur irrazionalak desagerrarazten, nahiz eta oraindik ere lana geratzen den, estigma-maila handia geratzen baita oraindik ere infekzio-arrisku handia duten biztanleen artean.

Desgaitasuna duten pertsonen kasuan, EAEnko herritarrek ematen dioten batez besteko puntuazioa 6,39 puntuko da honela dioen baieztapenari: prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek desgaitasuna duen pertsona bat

kontratatzea desgaitasunik ez duen pertsona bat baino lehen. Hortaz, ikusten dugu nolabaiteko babesa ematen zaiela dibertsitate funtzionala duen kolektiboarekiko diskriminazio positiboko neurriei, lan-merkatuan sartzea ahalbidetu eta bultzatzeko, neurri horien faltan, agian, ez bailitzateke hori gertatuko.

Espanian jaiotako pertsona bat jatorriz atzerritarra dena baino lehen kontratatzea nahiago izateari buruz hitz egiten badugu, aldiz, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, neurri horrekiko onesprenak ez ditu batez beste 5 puntu gainditzen (4,91 puntu hain zuzen ere). Hortaz, EAeko biztanleriak ez du onartzen pertsona baten alde egitea —edo kaltetzea— jaioterra soilik kontuan hartuta.

Aurreko baieztapenaren antzeko batez besteko puntuazioarekin (4,72 puntu), EAeko biztanleek adierazi dute ez dutela onartzen enpresa batek 55 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea adin horretatik gorako pertsona bat baino lehen. Hortaz, ikusten dugu ez dela babesten hautagaiaren adinak baldintza izatea enplegu bat lortzeko.

Azkenik, EAeko biztanleek sendo gaitzesten dute, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek gizon bat kontratatzea emakume bat baino lehen. Baieztapen horren batez besteko puntuazioa 1,55 puntukoa dela ikusita egiaztatzen dugu hori. Generoagatiko laneko diskriminazioa argi eta garbi gaitzesten du EAeko iritzi publikoak.

Eskubideak, salaketa, izapideak eta erakundeen jarduerak laneko diskriminazioaren aurrean

Behin aztertuta laneko diskriminazioaren pertzepzioa, zuzeneko eta zeharkako diskriminazio-bizipenak eta enpleguaren esparruko egoeren aurrean EAeko gizarteak dituen jarrerak, interesgarria da banakoek zein gizarteak eta erakundeek horri buruz dituzten erreakzioei erreparatzea.

Lan-harremanetan diskriminaziorik ez jasateko eskubidea Langileen Estatutuan aitortzen da, eta erakunde batek ezin du eskubide hori urratu. Era berean, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua pertsona guztien berdintasuna bermatzen saiatzen da². Hala ere, interesgarria da aztertzea, esate baterako, ea gure lan-eskubideak ezagutzen ditugun, tratu-desberdintasuneko egoera horiek salatzen ditugun eta sindikatuetara jotzen dugun edo ez. Aztertutako

²1978ko Espainiako Konstituzioa. I. Titulua. Oinarrizko eskubide eta betebeharrei buruzkoa. Bigarren kapitulua. Eskubideak eta askatasunak. 14. artikulua: Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.

diskriminazioari buruzko galdeketatik gai-mota horiei dagozkien itemak atera ditugu. Ondoren, emaitza aipagarrienak erakutsiko ditugu.

EAEko herritarrek antzematen dutenaren arabera, legea aplikatzerako garaian badira zenbait elementu edo ezaugarri negatiboki eragin diezaieketenak pertsonari. Hori gertatzen da kasu hauetan, esate baterako: “ijitoen komunitatekoa izatea”, “atzerritarra izatea”, “baliabide ekonomiko gutxi izatea” edo “emakumea izatea”. Kasu horietan guztietan, EAEko biztanleriak antzematen du kolektibo horietako kide izatea eragozpena izan daitekeela legearen ikuspuntutik.

Lanaren esparruari dagokionez, enpleguarekin lotura estuagoa duten zenbait ezaugarri, hala nola “prestakuntza txikia izatea” edo “langabezia-egoeran egotea”, kontrakoa dela aurkitzen dugu: EAEko biztanleek ez dute uste legea aplikatzerako garaian ezaugarri horietakoren bat kaltegarri izan daitekeenik pertsonarentzat.

2. taula. Pertsona bati legea aplikatzean kaltegarri izan dakizkiokeen ezaugarriak. Bat-batekoa eta iradokitako erantzuna (%)


	Bat-batekoa	Iradokitakoa
Atzerritarra izatea	21,0	10,6
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	18,0	17,1
Ed	17,5	12,8
Bat ere ez	15,8	13,9
Emakumea izatea	10,7	6,2
Ijitoa izatea	9,3	15,6
Beste ezaugarri pertsonal bat	8,6	4,2
Ee	4,0	20,4
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	3,6	9,0
Gizona izatea	2,6	1,9
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea	1,8	8,8
Prestakuntza txikia izatea	1,6	6,1
Adinekoa izatea	1,5	4,2
Gaztea izatea	1,3	3,7
Langabezia egotea	0,9	5,3
Transexuala edo transgeneroa izatea	0,8	9,6
Homosexuala edo bisexuala izatea	0,7	7,9
Desgaitasun fisiko edo sentzoriala izatea	0,7	5,3
Desgaitasun intelektuala izatea	0,4	5,8
Gaixotasun mental bat izatea	0,2	5,7
Katolikoa izatea	0,1	0,3
Heterosexuala izatea	0,1	0,5
Gehiegizko pisua / obesitatea izatea	0,1	3,2

Iturria: geuk egina. (3. eta 4. G. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat legeak aplikatu behar zaizkionean?) (Bat-batekoa eta iradokitakoa).

Legearen alorrekin jarraituz, galdeketan itaundutako beste elementuetako bat zenbait egoeraren legezkotasuna edo legezkotasunik eza izan zen. Hau da, galdetutako pertsonen kasu desberdinak planteatu zitzaizkien beren ustetan legeak baimentzen ote zituen edo ez esan zezaten. Ondorio modura, % 53,5ek pentsatzen du legeak bermatzen duela haurdun dagoen emakume bat kaleratzeko edo ez kontratatzeke ezintasuna, baina % 32,6ak dio legeak ahalbidetzen duela horrelakoak gertatzea lan-ingurunean. Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, gizonezko bat emakumezko bat baino lehen kontratatzen den kasuan, EAeko biztanleriaren % 54,1ek dio legeak ahalbidetzen duela hori gertatzea.

EAeko biztanleek batik bat kasu hauetan ez dakite legeak portaera jakin batzuk baimentzen edo babesten dituen: Espainian jaiotako pertsona bat etorkin bat baino lehen kontratatzea (% 21,1) eta desgaitasuna duen pertsona bat desgaitasunik gabeko pertsona bat baino lehen kontratatzea (% 19,9), bi kasuetan prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik; azken kasu horretan % 69,4k uste du legediak hori ahalbidetzen duela.


9. grafikoa. Lege-esparruaren ezagutza euskal gizartean (%)



Iturria: geuk egina. (16. G. Edonola ere, esango zenuke gure lege-esparruak, hau da, legeak, jokabide hauek onartzen dituen edo ez?).

Amaitzeko, diskriminazio-egoera bat jakinarazteko edo salatzeke beharra izanez gero, hainbat organismo edo erakunde instituzionaletara jo daitekeela iradokitzean (10. grafikoa), kontsultatutakoen % 7,1ek soilik adierazi du sindikatu batera joko lukeela. % 20,1ek nahiago luke poliziari salatu eta % 13,7k, berriz, berdintasunaren arloko erakunde publiko bat aukeratuko luke lehen-lehenik. Beraz, esan daiteke laneko diskriminazio-motaren bat jasan duten edo jasan dezaketenen artean sindikatuak ez direla lehentasunezkoak salaketa edo erreklamazio bat egiteko.

10. grafikoa. Salaketa edo erreklamazio hipotetiko bat egiteko lehentasunezko erakundea (%)



Iturria: Txostengileek egina. (42. G. "Diskriminazio-egoera bat pairatuko bazenu (edo berriz pairatuko bazenu), nori jakinaraziko zenioke? Nori lehenik?").

Ondorioak

EAEn dagoen laneko diskriminazioaren pertzepzioei eta bizipenei buruzko analisi honek erakusten du euskal gizartea kontziente dela eta hautematen duela esparru horretan dagoen tratu-desberdintasuna. Enplegua lortzeko zein erantzukizuneko postua eskuratzeko, EAeko biztanleriak diskriminazioa hautematen du, bereziki atzerritarren, ijito-komunitatekoen eta emakumeen kasuan.

Lan-esparruko diskriminazioak gehien eragindako pertsonen ezaugarriak dagokienez, EAeko ia bi lagunetik batek uste du jatorri kultural eta/edo etniko desberdina izatea diskriminaziorako lehentasunezko arrazoia dela. Generoagatiko laneko diskriminazioa ere aipagarria da. Herritarrek aitortzen dute gizon-emakumeen arteko laneko desparekotasuna, kasu horretan erantzukizuneko postuetara heltzeko aukeretan adierazten dena (*kristalezko sabaia*). Galdeketari erantzun dioten emakumeak nabarmen sentikorragoak dira lan-esparruko diskriminazioaren aurrean, kontsultatutako edozein arrazoiengatik, baina bereziki aipagarria da itxura fisikoagatiko eta generoagatiko diskriminazioa. Horrez gain, gizonek baino desparekotasun handiagoak hautematen dituzte erantzukizuneko postuak lortzeko.

Bestalde, lan-esparruan bizi izandako diskriminazioari dagokionez, aipagarria dira sexuarekin/generoarekin, nazionalitatearekin eta jatorriarekin lotutakoak. Ildo horretatik, EAeko herritarrek diskriminazio-egoeren kontzientzia handiagoa hartzen dute lehen pertsonan bizitzen dutenean, lekuko izan diren diskriminazioaren arrazoiak zehazteko eskatzen zaienean baino.

Diskriminazioaren aurreko jarrereri dagokionez, EAeko biztanleriak adierazten du ulertzen dituela laneko desparekotasunetik eratorritako arazoak, eta zeharo gaitzesten ditu lan-inguruneko diskriminazio-jarrerak. Horrek, hein batean, zerikusia izan dezake desiragarritasun sozialaren fenomenoarekin. Hori bera ondorioztatzen da herritarrek egindako balorazioetatik, erakundeek legeen bidez egindako jardueri buruz.

Laneko jarduera edo egoera diskriminatzaileak salatzeko orduan, argi geratu da sindikatuak ez direla funtsezko babesa EAeko gizartearentzat. Are gehiago, dela konfiantza faltagatik, dela ez dutelako uste egoera konponduko denik, pertsona askok adierazten dute ez dakitela nora joko luketen, eta beste askok nahiago dutela zuzenean poliziara jo.

Hori guztia dela eta, ondoriozta dezakegu asko direla lan-esparruan gerta daitezkeen faktore eta arrazoi diskriminatzaileak. Horrek prekarizazioa ekartzen du eta, kasu askotan, biztanleriaren zati handi baten lan-bazterketa: emakumeak, atzerritarrak, jatorri desberdineko pertsonak, adinekoak, desgaitasun-motaren bat dutenak, LGTBI kolektiboko pertsonak eta abar. Enpleguak gizarteratzeko duen garrantzia kontuan hartuta, bazterketa- eta prekaritate-egoera horiek bestelako diskriminazio-egoerak eragin ditzakete pertsonen bizitzako beste alor batzuetan bizitza guztian zehar. Problematika horri guztiari heldu ahal izateko, ikuspegi zabalagoa behar da, euskal gizarteko pertsona zaurgarrienen taldeen arteko desparekotasun-egoera horietan dauden elkargune guztiak bildu eta aztertuko dituen.

Bibliografia

Alter. Grupo de investigación. (2014). *Los perfiles de la discriminación en España. Análisis de la encuesta CIS-3.000. Percepción de la discriminación en España*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Centro de Publicaciones.

Aparicio Gómez, Rosa, Biderbost, Pablo eta Tornos Cubillo, Andrés. (2019). *La integración de los jóvenes hijos de inmigrantes en el mercado laboral español*. Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. https://www.inclusion.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/integracion_hijos_inmigrantes-largo.pdf

Aparicio Gómez, Rosa. (2020) *Encuesta sobre intolerancia y discriminación hacia personas musulmanas en España*. Migrazioen Estatu Idazkaritza, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiaren bitartez (OBERAXE). https://www.inclusion.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/Resultado_encuesta_musulmanes_11112020.pdf

- Calderón Milán, M^a José eta Hidalgo Vega, Álvaro. (2007). La segregación sectorial y ocupacional de los inmigrantes en España: identificación de los espacios laborales prioritarios por países de origen. In Luis Toharia (Koord.), *VII Jornadas de Economía Laboral*. Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatea. <https://aeet-aede.ulpgc.es/Descargas/Sesion3Sala2/Calderon-Hidalgo.pdf>
- Castilla, Emilio J. (2010). Mérito y discriminación dentro de las organizaciones diferencias en la evaluación y retribución de empleados/as según género y origen étnico. *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 129, 61-105. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3396851.pdf>
- Castro Castro, José Francisco. (2001). Discriminación en las Relaciones Laborales. Algunos casos particulares. *Boletín Oficial Dirección del Trabajo*, 146, 7-19. https://www.dt.gob.cl/portal/1626/articles-65173_recurso_1.pdf
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2018). *Evolución de la discriminación en España: informe de las encuestas IMIO-CIS 2013 y 2016*. Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutua. <https://cpage.mpr.gob.es/producto/evolucion-de-la-discriminacion-en-espana-2/>
- Cooter, Robert. (1994). Market Affirmative Action. *San Diego Law Review*, 31, 133-168. <https://digital.sandiego.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1205&context=sdlr>
- De la Rica, Sara, Gorjón, Lucía, Miller, Luis eta Úbeda, Paloma. (2019). *Estudio comparado sobre la situación de la población gitana en España en relación al empleo y la pobreza*. Ijitoen Idazkaritza Fundazioa. https://www.gitanos.org/centro_documentacion/publicaciones/fichas/129378.html.es
- Espainiako Kontseilu Ekonomikoa eta Soziala. (2019). *Informe 02/2019 La inmigración en España: efectos y oportunidades*. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. <http://www.pensamientocritico.org/wp-content/uploads/2020/05/Inf0219-La-Inmigraci%C3%B3n-en-Espa%C3%B1a.pdf>
- EU Open Data Portal. (2019). *Special Eurobarometer 493: Discrimination in the EU (including LGBTI)*. Directorate-General for Communication. https://data.europa.eu/data/datasets/s2251_91_4_493_eng?locale=en
- Fernández Aragón, Iraide, Ruiz Ciarreta, Irune, Shershneva, Julia eta Arteta Esnal, Taide. (2020). *Análisis de la encuesta sobre percepciones y actitudes en torno a la discriminación en Euskadi*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEcas.pdf>

García-Izquierdo, Antonio León eta García-Izquierdo, Mariano. (2007). Discriminación, igualdad de oportunidades en el empleo y selección de personal en España. *Revista de Psicología del Trabajo y de las Organizaciones*, 23(1), 111-138. <https://www.redalyc.org/pdf/2313/231317574007.pdf>

Genero Berdintasunaren Europako Institutua. (2019). *Índice de Igualdad de Género 2019: España*. Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoa. <https://eige.europa.eu/publications/gender-equality-index-2019-spain#downloads-wrapper>

Hernández Sánchez, Yenny. (2009). Prácticas de selección de personal, un instrumento de dominación socialmente aceptado. *AD-minister*, 14, 137-160. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=322327244007>

Ikuspegi. (2020). *Barómetro 2020. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_cas.pdf

Porret Gelabert, Miquel. (2010). La discriminación laboral y la gestión de la diversidad de los recursos humanos. *Revista técnico laboral*, 32(126), 513-568. <http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/44668/1/585238.pdf>

Rubio Arribas, Francisco Javier. (2012). Factores sociológicos de “la discriminación sociolaboral”. *Nómadas Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas*, 35(3), 189-199. https://doi.org/10.5209/rev_NOMA.2012.v35.n3.42202

Araudiak eta legeak:

- 1995eko martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. (BOE, 75. zk., 1995eko martxoaren 29koa, 9.654-9.688. or.).
- Espainiako Konstituzioa. (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa).



Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea

Basque Open-mindedness Index

José Antonio Oleaga Páramo

Iraide Fernández Aragón

Taide Arteta Esnal

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 inkesta* (EPADE 2020 aurrerantzean) konplexutasun eta sakonera handiko termino batzuen gainean eraiki da, aniztasunaren eta diskriminazioaren gainean, esaterako; kontzeptu horien esanahia lausotu egiten da, mugatu ezean. Ikuspuntu horretatik, askotariko aniztasunak bereiz ditzakegu—kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna, etnia-aniztasuna, hizkuntza-aniztasuna, sexu- eta genero-aniztasuna, aniztasun funtzionala—, eta, ildo beretik, baita tratu-berdintasunarekin eta haren aurkakoa den diskriminazioarekin lotutako ñabardura garrantzitsuak ere. Dena den, kapitulu honetan, arreta berezia jarriko da ikerketa hau gidatu duten helburuetan: alde batetik, aniztasunak eta horiei dagozkien diskriminazioak elkarrekin batera kontuan hartu beharra, askotan elkarrekin nahastuta baitoaz; eta, bestetik, hainbat kolektiboren errealitate soziala zenbatu eta neurtzeak duen garrantzia, diagnostiko eguneratu bat izateko eta, horrela, errealitate hori aldatzeko aukera izateko. Ikuspegi horretatik, Garapen Jasangarrirako Helburuen edo 2030 Agendako helburu estrategikoen (Eusko Jaurlaritza, 2021) ardatz egituratzailea da tratu-berdintasuna (eta, beraz, diskriminaziorik eza), eta garrantzitsua da hori nabarmentzea.

Neurtu beharri dagokionez, oinarriko helburu instituzional, sozial eta akademikoetako bat da, askotariko logikei erantzuten baitie:

- Neurtzea, batez ere, izan daitezkeen diskriminazioak edo desorekak desagerrarazteko esku hartu beharra dagoela justifikatzea da.
- Esku-hartzeak lehenasunezko esparruetara eta norabide egokian bideratzea da.
- Fenomeno bat monitorizatzea da, denboran zehar haren jarraipena egiteko.
- Eta, zehazki, desoreka-, bazterketa- edo diskriminazio-egoera bat salatzea da.

Estatistikako eta ikerketako beste eragiketa batzuen azpian, logika horixe dago, hala nola Genero Berdintasunaren Indizean; Emakundek sortutako tresna horrek emakumeen eta gizonen berdintasun-mailaren bilakaera neurtzen du (Emakunde, 2020). Horrez gain, Ikuspegik landutako *Barometroaren* asmoa ere halakoxea da, eta Tolerantzia Indizean gauzatzen da (Ikuspegi, 2020).

Dena den, datuak eta adierazleak ez dira modu berean sortzen kolektiboetan. Nabarmendu beharra dago, esate baterako, LGTBI pertsonen bizitzari buruzko datuak falta direla, eta oztopo da hori sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako estigmari eta bazterketari heltzeko (Munduko Bankua, 2021). LGTBI pertsonen garapen-esperientziei eta emaitza diferentzialei buruzko datu kuantitatibo sendoak —batik bat garapen-bidean diren herrialdeetakoak— oso urriak dira (NBE, 2019). Antzekoa da ijitoen kasua ere: ez dago datu aipagarririk. Egiaz, instantzia politiko, akademiko eta sozial ugarik ohartarazi dute kolektibo horrek jasaten duen diskriminazioa eta bazterketa ikusarazi behar direla (European Comission, 2020; Cortés Gómez eta End, 2019); salaketan, funtsezkoa izango da bazterketa-egoerak ezagutzeko bidea emango duten neurketa-tresnak garatzea, inklusio-politikak garatzeko eta diskriminazioari aurre egiteko xedez (Jiménez eta Sánchez, 2020; Open Society European Policy Institute, 2017).

Kolektibo sozialak neurtzeko beharrak berarekin dakartza gai horren inguruko eztabaidak eta diskurtsoak, eta haien ezinegonaren erakusgarri dira arlo horretan (Jiménez eta Sánchez, 2020); maila etikoan eta metodologikoan landu behar diren gaiak dira, eta errespetuz eta produkzio zientifikoan sartuta dauden kolektibo horien parte-hartzearekin tratatu beharrekoak.

Zehazki, aniztasunaren eta diskriminazioaren neurketak ibilbide zabala dute eginga Europan (Europako Batzordearen 2015eko eta 2019ko Eurobarometroa), estatuan (IMIO-CIS 2013 eta 2016) eta hainbat autonomia-erkidegotan (Nafarroako Gizarte eta Bizi Baldintzei buruzko Inkesta 2019); bai pertzepzioen eta jarrerren esparruan, eta bai pertsonen adierazitakoaren arabera jasan

duen diskriminazioaren esparruan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak ez zuen kontu horien inguruko argazki eguneraturik, urtero Eraberean Sareak argitaratzen dituen txostenetatik aparte (Eraberean, 2019). Horretarako, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak, EAEko diskriminazioaren fenomenoaren neurtzeko eta monitorizatzeko asmoz, *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin inkesta* (EPADE) egin zuen 2020an.

Iritzien eta jarreraren azterketak soziologian ibilbide luzea duen arren, aintzat hartu behar da horien neurketak beti hartzen duela desiragarritasun sozialerako joera bat, edo besteek begi onez ikusiko dutena erantzuteko joera bat (Cea D’Ancona, 2009). Nahiz eta gertaera horrek inkesta horri (eta guztiei) eragin diezaiokeen, inkestaren bidez aldian-aldian jarrerak neurtzeak aukera emango du datozen urteetan izan daitezkeen aldaketak eta joerak monitorizatzeko, bai eta euskal gizartean erakundearen bidez nahiz gizarte-sarearen barnean gizarte-aniztasunaren aurreko jarrerak eta posizioak hobetzeko abian jartzen diren politikek izan dezaketen eragina ebaluatzeko ere.

Horretarako, jarrera horiek jasotzen dituzten itemen banan-banako azterketaz gain, kapitulu honek badu helburu bat: aniztasunaren aurrean euskal herritarrek duten posizioa laburtuko duen indize bat lantzea, errazago ulertu eta komunikatu ahal izateko eta haren bilakaeraren jarraipenean laguntzeko. Espiritu horrekin sortu da Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea —*Basque Open-mindedness Index* (BOPI)—: alde batetik, euskal gizarteak aniztasunaren aurrean duen irekitasun- eta onarpen-maila neurtzeko termometro izan nahi duen baliabidea da, eta, bestetik, aukera emango digu hainbat testuingurutan izaten duen bilakaera zehazteko. Horrez gain, indize horrek badu bigarren mailako beste helburu bat: aniztasunarekiko jarrera negatiboak eta erresistentziak dituzten pertsonak eta pertsona taldeak hautemateari buruzko informazio garrantzitsua ematea, jarrera horiek aldaraziko dituzten eta erresistentzia horiek astinduko dituzten politika sozialak abian jarri ahal izateko. Gizarte-aniztasunarekiko irekiagoa izango den euskal gizarte baterantz joatea da kontua, diskriminazioak (arrazoi batekoak zein besteakoak) tokirik izango ez duen gizarte malguago, inklusiboago eta justuago baterantz joatea.

Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizearen lanketa

Azterketan Ikuspegik erabilitako galde-sortan, aniztasunaren aurrean euskal herritarrek zer jarrera eta iritzi dituzten adierazten duten hainbat item daude. Oro har, hainbat esparrutako aniztasun sozialaren adierazgarri diren egoera asko onartzen ditu euskal gizarteak, onarpen-maila altuarekin, gainera (inkestako 15.G. itema). Ildo horretan, ez da halako deserosotasun berezirik ere aitortzen,

aniztasuna, edozein motatakoa izanik ere, Lehendakaritzaraino iritsiko balitz ere (inkestako 17.G.).

Halaber, euskal herritarren lagun eta ezagunen inguru hurbila aipatzen denean, irekia dela eta askotariko pertsonak biltzen dituela nabarmentzen da, salbuespentzat hartuta beste erlijio batzuetako pertsonen eta ijitoen presentzia, harreman pertsonaletan gutxiago ageri baitira horiek (inkestako 18.G. itema).

Ikuspegi subjektibo batetik euskal herritarrek aniztasunaren aurrean duten jarrera koherentea da planteatutako itemei zehatz-mehatz eman dizkieten erantzunekin; ildo horretatik, oso irekitzat eta aniztasun sozialarekiko tolerantetzat jotzen dute beren burua herritarrek, norberak hautemandakoaren arabera (19.G.-tik 34.G.-ra).

Lehen aipatu dugunez, modu deskriptiboan aztertutako datuek desiragarritasun sozialerako joera bat erakusten dute, kolektibo batzuei dagokienez, baina badirudi ez duela eragin bera beste pertsona batzuegan, hala nola jatorriz atzeritarrak direnengan eta ijitoengan (Fernández et al., 2020). Datu jakin batzuen azterketan sartu gabe, kontu hau interes handikoa da jada berez, arrazoibide xenofoboak zer dibertsitatetan identifika ditzakegun erakusten baitu, eta zeinetan ez, edo zeinetan modu txikiagoan. Indizea egin ahal izateko, inguruabar hori kontuan hartzea eta, neurri batean, joera hori zuzentzea erabaki dugu.

Aukeratutako aldagaiak

Indizea egin ahal izateko, aniztasun sozialarekiko euskal herritarren jarrerak eta iritziak biltzen dituen Ikuspegiren EPADE 2020 inkestako zenbait aldagai aukeratu ditugu. Zehazki, honako galdera hauek atera ditugu: 1.G., P14.G., 15.G., 17.G., 18.G., 19.G., 21.G., 23.G., 25.G., 27.G., 29.G., 31.G. eta 33.G.:

- 1.G. Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizarretan bizi nahiko zenuke?
- 14.G. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserrosa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea? Eta askotariko pertsonen 12 profil iradokitzen zitzaizkion inkestaren erantzuleari.
- 15.G. Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek, Otik 10era bitarteko eskalan, kontuan hartuta 0 erabat gaitzestea dela eta 10 erabat onestea. Eta aniztasun sozialarekin lotutako hainbat esparruri buruzko 16 egoera irakurtzen zitzaizkion guztira.
- 17.G. Otik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deserrosa (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona honelakoa balitz? Eta, guztira, aniztasun soziala islatzen duten pertsonen 10 profil proposatzen zitzaizkion inkestaren erantzuleari.

- 18.G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik? Eta, guztira, aniztasun soziala islatzen duten pertsonen 6 profil proposatzen zitzaizkion.
- 19.G. Jatorri desberdina duten pertsonetikiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?
- 21.G. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere matxista” eta 10 “oso matxista” direla?
- 23.G. Ijitoekiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?
- 25.G. Erlijioztat islama duten pertsonetikiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?
- 27.G. LGTBI kolektiboko pertsonetikiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?
- 29.G. Feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere feminista” eta 10 “oso feminista” direla?
- 31.G. Txiroekiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?
- 33.G. Obesitatea duten pertsonetikiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?

Guztira, 53 aldagairekin lan egin dugu hasieran.

Indizea egiteko prozesu metodologikoa

Gure indizea egiteko, prozesu metodologiko mistoa aukeratu dugu oraingo honetan, kuantitatiboa eta kualitatiboa:

- 1. fasea, kuantitatiboa: aukeratu diren eta aztertu nahi diren dimentsioen adierazgarri diren aldagai edo adierazleen multzoari bigarren mailako osagai nagusizko analisi faktoriala¹ aplikatzea. Indizea egiteko lehen unean, osagai nagusizko analisi faktoriala aplikatu dugu lehenengo, aniztasun

¹Osagai nagusizko analisi faktoriala datuak prozesatzeko teknika bat da, aldagai anitzekoa, eta fenomeno baten ezkutuko egitura argitara ateratzea du xede nagusi. Interdependentzia-tekniken familiako teknika bat da, eta teknika faktorialen azpitaldeko parte da, korrespondentzia-simpleteen analisiarekin (AFCS), korrespondentzia anizkoitzen analisiarekin (AFCM) eta eskala multidimentsionalekin batera (EMD). Teknika horiek guztiek, datu-laburketako teknikak ere esaten zaienek, oinarri matematiko desberdina dute, baina helburu bera dute: osotasun bat eratzen duten aldagaien multzo zabal bat (aniztasun sozialarekiko irekitasunaren adierazleak) faktore edo osagai kopuru murriztuz batera laburtzea, aldakortasuna edo bariantza totala biltzeko edo zatirik handiengan azaltzeko (diskriminatzen dutenak). Faktore horiek, aldakortasunaren osagai nagusiek, interpretazio substantiboa izango dute, eta aztergai den fenomenoaren egitura osatzen duten dimentsio errealak adieraziko dituzte.

sozialarekiko euskal herritarrek dituzten jarreretan gehien diskriminatzen duten dimentsioak (aldakortasun handiena biltzen edo azaltzen dutenak) zehazteko, eta dimentsio horietako bakoitza funtsean zer aldagaik osatzen duten jakiteko. Ondoren, bigarren mailako osagai nagusizko analisi faktorial bat aplikatzeak aukera eman digu dimentsio horiek haztatu ahal izateko eta, euskal biztanleria diskriminatzeke orduan, horietako bakoitzak duen pisu diferentziala ezagutzeko.

- 2. fasea, kualitatiboa: lehen fasean lortutako informaziotik abiatuta, dimentsioetako bakoitzari esleitutako aldagaiak berriro kodetu ditugu, dimentsio guztiek (aniztasun sozialarekiko irekitasunari buruzko indize partzialak baino ez dira) hein edo ibiltarte bera izan dezaten: 0 puntutik 14,3 puntura bitartekoa. Horrela, lortutako zazpi dimentsioen artean, eta lehen faseko bigarren analisi faktorialetik lortutako haztapanarekin, Otik 100era (100,10 puntu, zehazki) bitarteko ibiltarte izango duen indize bat lortuko dugu batura bidez. Horrela, denboran erraz konpara daitekeen indize bat lortuko dugu; izan ere, soilik lehen fasean oinarritutako indize sintetiko batekin gelditu izan bagina (posible zen hori ere), adieraziko zukeen banaketaren ibilbidea zundaketa bakoitzeko datu-basearen aldakortasunak berak definituko zuela.

Aniztasun sozialarekiko jarreraren dimentsioak

Egin dugun lehen eragiketa aurrez aipatutako 53 aldagai horiekin esploraziorako analisi faktorial bat gauzatzea izan da, oro har analisiaren egokitasuna ez ezik aldagai guztiak eta bakoitza txertatzea egokia ote den egiaztatzeko. Lehen analisi horren ondorioz, 47 aldagaitara murriztu da multzoa².

Osagai nagusizko lehen analisi faktorialak oinarritzko zazpi dimentsio eman dizkigu³, eta 1. grafikoak adierazitako aldagaiekin daude osatuta horiek. Osagai nagusizko bigarren analisi faktorialak euskal herritarrek aniztasun sozialarekiko duten jarreraren dimentsio bakoitzak zer pisu duen jakiteko aukera ematen digu.

Beraz, esan dezakegu pertsona edo talde batek aniztasun sozialarekiko duen jarrera edo posizioa oinarritzko zazpi dimentsiotan funtsetan dela, zazpi esparruren inguruko zazpi posiziotan; izan ere, zazpi esparru horietan deskonposa baitaiteke aniztasun soziala. Dimentsioen interpretazioa, osagai dituzten aldagai edo adierazleetan oinarritzen dena, honako hauxe da:

²Sei aldagai alde batera uztea erabaki dugu, horien korrelazio-adierazleak (MSA) edo horien komunalitateak ez zituztelako betetzen analisisian txertatu ahal izateko gutxieneko baldintzak.

³Zazpi dimentsio horiek bariantza totalaren % 57,84 soilik azaltzen badute ere, erabaki dugu dimentsioen kopuru handiago batekin ez lan egitea, zazpi dimentsioen interpretazio substantiboak horixe aholkatzen baitzigun.

1. grafikoa. Lehen mailako analisi faktorialaren dimentsioak eta adierazleak, eta faktore bakoitzak bigarren mailako faktorialean duen bariantzaren ehunekoa



Iturria: geuk egina

1. dimentsioa: faktore honek euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarrera jasotzen du, aniztasunaren adierazgarri diren gizarte-egoera ugari zigortzen, toleratzen edo sustatzen dituen eremu makrosozialean. Horixe da aldakortasun handiena biltzen duena, euskal herritarrek gehien diskriminatzen dituen (bariantza totalaren % 20,59 azaltzen du). Euskal gizartean jarreretan desberdintasun gehien biltzen dituen esparrua gutxiengoetako pertsonen eskubideei dagokiena da, edo gizarte-praktika diskriminatzaileekiko jarrereri dagokiena.
2. dimentsioa: auzoko inguru sozial hurbilean kultura-aniztasunarekiko (jatorria, erlijioa, etnia, kultura-jarduerak...) euskal herritarrek duten jarreraz hitz egiten digu argi eta garbi dimentsio honek. Faktore honek azaltzen du aldakortasunaren zati handi bat (bariantzaren % 10,37), euskal herritarren jarrera hauen inguruan: euskal herritarren kultura-aniztasunak halako bereizketa bat ere eragiten du jarreretan, eta batera ikus daitezke errealitate horrekiko erresistentziak eta onarpena.
3. dimentsioa: dimentsio honek aniztasun instituzionalarekiko jarrera islatzen du, aniztasunaren adierazleak biltzen baititu, ordezkaritza instituzionalaren esparruan. Hirugarren diskriminazio-faktorea (aldakortasun totalaren

% 8,54 dagokio) EAeko ordezkariak gorenak (Lehendakariak) aniztasuna onartzea edo aurre egitea adierazten duten jarrerekin dago lotuta, erakundeetako eta ordezkariaren esparruko aniztasunarekiko jarreraren adierazle nabarmentzat hartuta.

4. dimentsioa: faktore honek (% 5,75 azaltzen du) euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarrera adierazten du, hemengo pertsonen artean, betiere, eta ingurune hurbil batean, auzoan. Aldagai hauek ez dute aintzat hartzen hemengo pertsonen artean aniztasun sozialak duen aintzatespena baino, euskal gizarteak aniztasunarekiko agertzen duen onarpena edo erresistentzia islatzen baitu, ingurune mikrosozial batean, auzoan, egunerokoan harremanak dituen pertsonekin; baina hainbat arrazoigatik askotarikoak diren pertsonetikiko jarrerak biltzen ditu soilik, kultura-homogeneotasunetik abiatuta beti.
5. dimentsioa: kultura-desberdintasunik ez dakarten aniztasun sozialekiko jarrera subjektibo pertsonala adierazten du dimentsio honek. Bosgarren diskriminazio-faktorea (bariantza totalaren % 5,19 dagokio) euskal herritarren jarrera subjektiboekin dago lotuta; zehazki, inkestari erantzun dioten pertsonen aniztasun sozialari dagokionez beren buruaz duten ikuspegiarekin, pertsona toleranteak edo ez horren toleranteak izatearekin.
6. dimentsioa: inguruan ditugun ezagunen eta gure inguru hurbilagoko lagunen artean euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarreraz mintzo zaigu 6. faktorea. Dimentsio honek (bariantza totalaren % 4,18 dagokio) argi eta garbi adierazten du euskal herritarren artean desberdintasunak daudela ingurune gertukoenean, ingurune psikosozialean. Ingurune pertsonalean, ezagun eta lagunei dagokien inguru horretan, pertsonen dituzten jarrera eta iritziak biltzen ditu. Gure inguru pertsonalean askotariko pertsonen presentzia, harremanak eta interakzioak onartzeko gaitasuna edo horiei aurrea egitekoa adierazten du.
7. dimentsioa: LGB eta trans aniztasunarekiko euskal herritarrek duten jarrera islatzen du dimentsio honek, auzoan kokatuta, betiere. Zazpigarren faktorea (bariantzaren % 3,18 azaltzen du) hertsiki lotutako bi aldagaiz dago osatuta, bata LGB kolektiboarekin eta bestea trans kolektiboarekin, eta auzoko ohiko ingurunean aniztasun hori onartu edo baztertu egiten den adierazten du.

Eranskinean, item bakoitzaren eduki zehatza adierazi dugu. Horrez gain, osagai nagusizko lehen analisi faktorialaren ondoriozko egitura-matrizea ere sartu dugu; faktore bakoitzari zer aldagai dagozkion azaltzen du, eta, horrez gain, ateratako faktoreetako bakoitzarekin horietako bakoitzak zer korrelazio edo asetasun faktorial duen ere bai.

Zazpi dimentsio horietatik abiatuta, bigarren faktorial bat aplikatu da, bigarren mailakoa deitu zaiona⁴. Anlisi horrekin, aniztasunarekiko jarreraren osagai diren dimentsioek duten pisua hierarkizatu ahal izan dugu.

Bi analisi horiekin, zuzenean lortutako indize sintetiko bat hauta genezakeen, aldagaiak faktore bakoitzarekin duten erlazio linealaren bidez lortutako indize partzialean batuketa haztatua eginez lortutako indizearena; baina nahiago izan dugu hortik abiatuta datuen manipulazio kualitatibo bat egin, 0 puntutik 100 puntura bitarteko ibiltartea edo heina izango duen indize global bat lortu ahal izateko.

Horretarako, aldagaiak faktoreetako bati soilik esleitu dizkiogu, horiekiko korrelazio handiagoaren edo asetasun faktorialaren arabera; berriro kodetu ditugu aldagai bakoitzeko erantzunak eta dimentsio bera osatzen duten guztietakoak, zazpi dimentsioetako bakoitza 0tik 14,3ra bitartean mugi dadin. Horrela, aniztasunarekiko jarrerari buruzko indize partzial bihurtuko dira, eta, ildo horretatik, 0tik gertuko puntuazioa lortzen dutenak aniztasunarekiko jarrera negatiboak adieraziko dituzte, eta 14,3 puntura gerturatzen direnek gizarte-aniztasunarekiko jarrera positiboak adieraziko dituzte.

Azkenik, pertsona batek aniztasunarekiko duen jarreraren indize globala kalkulatzeko, zazpi indize partzialetako puntuazioen batuketa haztatuaren emaitza ateratzen dugu (osagai nagusizko bigarren analisi faktorialean dimentsioetan jasotzen den bariantzaren arabera). Indize global hori 0 eta 100 artean dago⁵. Aniztasunarekiko irekitasunaren indizearen kalkulua ondo eginda dagoela egiaztatu ahal izateko, osagai nagusizko bi analisi faktorialetatik lortutako indize sintetikoaren balioen eta gure indizean kalkulaturako balioen arteko korrelazioa kalkulatzera jo dugu. Pearsonen r -ari dagokionez, lortu dugun balioa 0.922 da (sig. 0.000), 1etik oso gertukoa; eta horrek adierazten du bi indizeek, praktikan, neurri bera dutela.

⁴ Lehen analisi faktorialerako Promax errotazioa aukeratu genuen, faktoreen indepentzia ezinbestekoa ez zenez; bigarren analisi faktorialerako, VARIMAX errotazio ortogonalak aukeratu dugu, lortutako faktoreen independentzia maximizatzen duenez.

⁵ Indizea, egiaz, 0 puntutik 100,1-era mugitzen da, baina uste dugu eskalaren goiko aldeko 0,1 puntu horiek baztertu ditzakegula, emaitzen azalpena eta zabalkundea sinplifikatzeko.

Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizearen emaitzak

Atal honetan, datuen prozesutik datorren informazioa garatuko dugu, aniztasunaren aurreko irekitasunaren indize partzialak, ezarritako zazpi dimentsioei dagozkienak, eta aniztasunaren aurreko irekitasunaren indize integrala kalkulatu ondoren.


Atala lau puntutan egituratu dugu:

1. Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea (Basque Open-mindedness Index BOPI)
2. Irekitasun Indizea osatzen duten dimentsioak
3. Aldagai diskriminatzaileak: onarpen- eta erresistentzia-profilak
4. Tipologia bat

Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea —*Basque Open-mindedness Index (BOPI)*—

Indizearen balioa kalkulatzeko prozesu metodologikoa eta estatistikoa zehaztu ondoren, euskal gizarte osorako batez besteko balioa 72,78 puntukoa dela ikusi dugu. Balio horrek adieraziko liguke euskal gizartearen jarrerak 0 eta 100 bitarteko eskalan duten posizioa; hau da, gizarte-aniztasunarekiko erabateko erresistentzia (0), eta euskal gizartearen aniztasunarekiko erabateko onarpena (100).

2. grafikoa. Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea



Iturria: txostengileek egina

Lehenik eta behin, tartearen goiko aldean euskal gizartearen posizioetatik espero genezakeen puntuazio bat agertzen zaigu. Izan ere, aniztasunaren esparruan lan egiten duten adituei egin diegun kontsulta kualitatibo baten arabera, euskal gizartearen aniztasun sozialarekiko jarrerak neurtuko litzuzkeen eskala hipotetiko bat 5 puntutik (pertsone kritikoak) 7 puntura (pertsone baikorrenak) bitartean kokatuko litzateke.

Indize hori, gainera, nahiko koherentea da Ikuspegik kultura-aniztasunaren arloan egindakoarekin. Immigrazioarekiko tolerantzia-indizeak, 0-100 eskalan mugitzen denak, 65,00 puntuko balioan kokatu du euskal biztanleria urte honetan bertan (Ikuspegi, 2020). Inkesta horretan, jarrera baztertzailer handienak kultura-aniztasunaren aurrekoak dira, hain zuzen ere, eta, beraz, ez da harrizkoa beste aniztasun batzuk sartzean indizearen balioa 65 puntutik 72,78ra igotzea.

Beraz, uste dugu lortutako balioak modu egokian adierazten duela euskal gizarteak aniztasunari dagokionez duen tarteko posizioa. Zalantzarik gabe, euskal gizarte osoa zifra bakar batean laburbiltzen duen batez besteko balioa denez, ez ditu hautematen adinaren eta antzeko aldagaien arabera gerta daitezkeen aldeak, baina horrek ez du baliogabetzen indizearen balioa, euskal herritarrek datozen urteetan gizarte-aniztasunaren aurrean dituzten jarrerak nora eta nola mugituko diren adierazten duen luzetarako adierazle den heinean. Adierazle hori baliagarria zaigu, halaber, tipologiak ezartzeko edota eremuak edo kolektiboak bereizteko, aniztasuna onartzeko edo baztertzeko oinarri diren dimentsioak ezagutzeko baliagarria izateaz gain.

Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal osatzen duten dimentsioak

Gorago ikusi dugu oinarrizko zazpi dimentsiotan oinarritzen dela gizarte-aniztasuna onartzeko prestasun handiagoa izatea edo horren aurrean erresistentzia handiagoa izatea:


1. Aniztasuna arlo makrosozialean
2. Kultura-aniztasuna (jatorria, erlijioa, etnia, kultura-praktikak) auzoko hurbileko gizarte-ingurunean
3. Aniztasun instituzionala
4. Bertakoen arteko aniztasuna auzokoen artean
5. Kultura-desberdintasunik ez dakarten gizarte-aniztasunekiko jarrera subjektibo pertsonala
6. Aniztasuna pertsona ezagunen eta lagun minen ingurune hurbilenean
7. LGTB aniztasuna auzokoen artean

Aniztasunarekiko irekitasunaren indizea lortu aurretik, hura osatzen duten zazpi dimentsioen indize partzialak landu eta kalkulatu behar izan ditugu. Indize

partzial guztiek 0 eta 14,3 puntu arteko ibilbidea edo tartea dute. Horrela, zazpi dimentsioak konpara ditzakegu, eta biztanleriak zazpi aniztasun horiekiko dituen posizioetan eta jarreretan desberdintasunak ezarri.

3. grafikoan ikus daitekeenez, honako balio hauek nabarmendu egiten dira, oso balio altuak dituztelako (erakusten dute euskal herritarrek onarpen handia dutela auzo-ingurunean): inolako konnotazio kulturalik ez duen askotariko aniztasuna eta LGB pertsonekin eta trans pertsonekin lotutako aniztasuna, auzo-ingurunean hori ere.

3. grafikoa. Aniztasunarekiko jarreraren dimentsioen puntuazioak



Iturria: geuk egina

Beste muturrean, 8 puntutik 11 puntura bitarteko puntuazioekin, nabarmentzekoa da euskal herritarrek, auzokideekiko egunerokotasunean, honako hauek onartzeko orduan duten jarrera negatiboagoa: kultura-aniztasuna, aniztasun makrosoziala (arauei, erregulazioei eta gutxiengoan eskubideei dagokiena); horrez gain, gizarte-aniztasunaren aurrean duten jarrera subjektiboa da, pertsonen ingurune intimoenean (lagunak) aniztasuna txertatzeko zailtasunak dituzte, bai eta aniztasuna erakundeetako goiko mailetara iristeko orduan ere.

Aldagai diskriminatzaileak: onarpen- eta erresistentzia-profilak

Indize sintetiko bat egin izanak eta pertsona bakoitzari azken puntuazio bat eman ahal izateak gizarte-aniztasunarekiko jarreraren zazpi dimentsio partzialetan, pertsona batzuen eta besteen artean desberdintasunak ezartzeko aukera ematen digu azken zenbaketan. Izan ere, euskal gizarte osoa ez dator bat gizarte-aniztasunarekiko onarpenean edo erresistentzian. Kontua da aldagai soziodemografikorik (gizarte-kategoriak) ote dagoen gizarte-aniztasunaren aurrean dituzten erreakzioen arteko aldeak azaltzeko.

Beste era batera esanda, euskal gizartea osatzen dugun pertsonen ezaugarri soziodemografikoak ezagututa, jokabideak bereizten dituzten aldagaiak antzeman ditzakegu, eta aniztasuna hobeto onartzen duten pertsona-taldeak ezar ditzakegu; horrez gain, gero eta gizarte-aniztasun handiagoaren aurrean erresistentzia handiagoa duten beste talde batzuetan errepara dezakegu.

Pertsonen aniztasunarekiko duten posizio desberdina azaltzeko gai diren aldagaiak aurkitzen baditugu, portaera iragartzeko aldagai bihurtuko dira, eta horrek lagunduko digu gizarte-aniztasunarekiko erresistentziarik handiena duten pertsona-taldeak hautematen eta tipologiak ezartzen.

Hori lortzen badugu, pertsona talde horiek EAEn bizi diren pertsona guztien eskubide-berdintasunaren (eta betebeharr-berdintasunaren) inguruan informatzera eta sentibilizatzerara bideratutako ekintza politikoa gidatu ahal izango dugu, sexua, jatorria, kultura, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere, eta bestela jokatzeko jokabide diskriminatzaileak izatea baino ez da, eta indarrean dagoen legeriak ez ditu horrelakoak onartzen.

Portaerak bereizteko, hasiera batean, Aniztasunarekiko irekitasunaren indizea zenbait aldagai soziodemografikorekin gurutzatu dugu. Aldagai soziodemografikoen kategorien artean alde esanguratsuak dauden egiaztatzea da helburua. Honako hauek dira: sexua, adina, etxearen osaera, egoera zibila, ama-hizkuntza, ikasketa-maila, bizilekua, erlijioa, etxeko diru-sarrerak, estatusa, jarduera eta ideologia. 1. taulan, aldagai gehienek, kategorien arabera, portaera-desberdintasun esanguratsuak dituztela adierazten duten datuen laburpena aurkeztu dugu. Sexuaren, etxeko osaeraren, ama-hizkuntzaren eta ideologiaren aldagaiek soilik ez dute desberdintasun esanguratsurik lortzen kategorien artean.

1. taula. Gizarte-aniztasunaren onespina bereizten dituzten aldagaiak

Gizarte-aniztasunarekiko erresistentzia handienak dituzten pertsonen profila	Aldagaia	Sig.	Gizarte-aniztasuna gehien onartzen duten pertsonen profila
65 urte edo gehiago	Adina	.000	18 urtetik 44 urtera
Alargunak, ezkonduak	Egoera zibila	.000	Ezkongabeak, izatezko bikoteak
Ikasketarik gabeak, lehen mailako ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitateko edo bigarren mailako ikasketak
5.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitarteko udalerrak	Habitata	.000	20.000 biztanletik 150.000 biztanlera bitarteko udalerrak, edo 5.000 biztanle artekoak
Katolikoak, praktikatzaileak edo ez	Erljioa	.000	Agnostikoak, ateoak
Hilean 651 eta 1.700€ artean	Diru-sarrerak	.000	Hilean 1.700€ baino gehiago
Erretirodunak, etxeko lanetan aritzen direnak	Jarduera	.000	Ikasleak eta pertsona aktiboak
Baxua. Ertaina-baxua	Estatusa	.000	Ertaina, ertaina-altua, altua

Iturria: geuk egina

Hala, baieztatu dezakegu gizarte-aniztasuna nabarmenki gehiago onartzen duten pertsonen ezaugarri bereizgarriek honako hauekin dutela zerikusia:

- 44 urte arteko gazteak, ezkongabeak edo izatezko bikoteak, unibertsitateko edo bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak, udalerrri oso txikietan (5.000 biztanlera arte) edo ertaintetan (20.000 eta 150.000 biztanle artean) bizi direnak, agnostikoak edo ateoak, etxean hilean 1.700 € baino gehiago sartzen dituztenak, ikasten edo lan egiten duten pertsonak eta beren burua erdiko, erdi-goiko edo goi-mailako estatusetan ikusten dutenak.

Gizarte-aniztasunarekiko erresistentzia nabarmenki handiagoa duten pertsonak, funtsean, honako ezaugarri hauek dituzte:

- 64 urtetik gorako pertsonak, alargunak edo ezkonduak, ikasketarik gabekoak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, udalerrri txikietan bizi diren pertsonak (5.000 eta 20.000 biztanle artekoak), katolikoak (praktikatzen dutenak edo ez), hilean 601 eta 1.700 € bitartean sartzen dituztenak etxean, erretiratuak edo etxean lan egiten dutenak eta estatus sozioekonomiko txikia edo ertaina-txikia dutenak.

Aniztasuna onartzeko/baztertzeo profilak

Deskribatutako profiletan sakontzeko, aldagai anitzeko analisi bat egin dugu, Interakzioen Detektagailu Automatikoa (AID) izenekoa⁶. Gure kasuan, teknika horrek, segmentazio-zuhaitz baten bidez, jatorri atzerritarreko pertsonen multzoa bereiziko du, ezaugarri soziodemografiko desberdinak dituzten eta aniztasun sozialarekiko posizio eta jarrera desberdinak dituzten pertsonen osatutako segmentu edo tipologietan. Bereizketa hori aldagarritasun handiena azaltzen duten aldagaietan oinarrituta egingo dugu, hau da, aldagai horien kategorien artean diskriminazio handiena egiten duten aldagaietan oinarrituta.

Gure azterketarako, Aniztasunarekiko irekitasunaren indizea aldagaia mendeko aldagai gisa sartu dugu, eta independente gisa sartu ditugu aurrez bi aldaeratan aztertu ditugun eta aurretik aipatu ditugun horiek: sexua, adina, etxearen osaera, egoera zibila, ama-hizkuntza, ikasketa-maila, bizilekua, erlijioa, etxeko diru-sarrerak, estatusa, jarduera eta ideologia.

⁶ AID analisia (*Automatic Interaction Detection*) aldagai anitzeko metodologia bat da, bariantzaren analisi sinplean oinarritutakoa, baina teilakatuta egina. Aldagai anitzeko teknika edo metodologia da, mendekotasun-tekniken artean kokatua; izan ere, mendeko aldagai bat eta aldagai independenteen multzo bat bereizten dituen analisi-eredu bat behar du. Lehena aldagai numeriko bat da (arrazoia edo tartea), eta bigarrenak aldagai nominalak edo kategoriakoak dira. Teknika honen helburua da segmentazio- edo erabaki-zuhaitz (*answer tree*) esaten zaien bidez kasuen tipologia batzuk ezartzea.

Aldagai anitzeko azterketa honek aukera emango digu gizarte-aniztasuna onartzen edo baztertzen duten pertsonen profiletan sakontzeko eta lortutako tipologietan zehatzagoak izateko. Gainera, aniztasuna onartzeko edo baztertzeko muturreko jarrerak iragartzen dituzten aldagaien zerrenda hierarkizatua emango digu.

Ateratzen den segmentazio-zuhaitzak ezaugarri soziodemografiko desberdina edota aniztasunarekiko jarrera desberdina duten pertsonen hamahiru mota edo segmentu desberdin eskaintzen dizkigu, 4. grafikoan ikus dezakegunez.


Grafiko horretatik, gainera, iragarpenak egiteko aldagaiak atera ditzakegu, hau da, kolektiboaren artean bereizketa handiena egiten dutenak eta onartzeko edo baztertzeko jarrera duten pertsonen posizioa hobekien iragar dezaketanak. Garrantzi handienetik txikienera, iragarpen-ahalmen handienetik txikienera, honako aldagai hauetan oinarritzen da gure zuhaitzaren eraikuntza:

1. Lehenengo maila: adinaren aldagaia da gizarte-aniztasuna onartzeko edo baztertzeko orduan maila desberdina azaltzeko gaitasun handiena duen aldagaia⁷, jarrera desberdinak gehien bereizten dituen aldagaia (0.000 esangura).
2. Bigarren maila: bigarren tokian, maila honetan hainbat aldagai bikoiztuta agertzen dira, hala nola estatusa (0.000 esangura), ikasketak (0.000 esangura) eta habitata, zuhaitzaren bi adarretan bereiziz (0.000 esangura bietan).
3. Hirugarren maila: maila honetan habitata (0.014 esangura) ageri da berriro, bai eta egoera zibila (0.014 esangura), sexua (0.018 esangura) eta ikasketak (0.004 esangura) ere.

Portaera iragartzeko aldagai horiek dira 4. grafikoko segmentazio-zuhaitzaren eraikuntzaren oinarriak, bereizteko ahalmena baitute. Mota edo segmentu guztiak gizarte-aniztasunaren onarpen handienetik txikienera ordenatu ditugu, eta batez bestekoaren gainetik daudenak kolore berdeko zenbaketa ordinalarekin nabarmendu ditugu (onarpen handiagoa); bestalde, gizarte-aniztasunaren onarpen-mailari dagokionez batez bestekoaren azpitik gelditzen direnak kolore gorri nabarmendu ditugu (aniztasunarekiko erresistentzia handiagoa).

⁷ AID analisia aplikatzeak kolektiboaren aldakortasun osoa murriztu du, taldeen arteko aldakortasuna, mota edo segmentu desberdinen artean dagoena, bereiziz; hau da, aldagai independenteekin azaltzen dugun bariantza, talde barruko aldakortasuna, segmentu edo mota bereko osagaien barruan oraindik ere dagoen gizarteratze maila desberdina, hots, existitzen den azken bariantza, gure aldagai independenteekin azaltzen ez duguna. Hasierako bariantza edo aldakortasuna eta talde barruko amaierakoa kontuan hartuta, egiaztatu dugu gure ereduaren bariantza osoaren % 27,15 soilik azaltzeko gai dela.

4. grafikoa. Segmentazioaren eta tipologien zuhaitza



Iturria: geuk egina

Hauek dira hamahiru segmentuen ezaugarriak, gizarte-aniztasunaren onarpen handienetik txikienera ordenatuta:

1. mota: 18 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen eta 5.000 biztanle arteko edo 20.001 biztanletik 150.000 biztanlera bitarteko udalerrietan bizi direnak osatzen dute. Gizarte-aniztasunarekiko jarrera irekiena duen taldea da, 85,36 puntuko indizearekin. Euskal herritarren % 6,0 biltzen ditu.
2. mota: 30 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen osatzen dute, 5.000 biztanletik beherako edo 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak eta unibertsitateko ikasketak edo oinarritzko batxilergoko ikasketak dituztenek nahiz ikasketarik gabekoek. Talde honen puntuazioa 82,13 puntukoa da, eta euskal herritarren % 9,0 hartzen du.
3. mota: 45 urtetik 64 urtera bitarteko gizonak dira, unibertsitate-ikasketak dituztenak edo ikasketarik ez dutenak. 81,63 puntu eskuratu dituzte, eta biztanleriaren % 4,6 dira.
4. mota: 18 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen eta 5.000 biztanletik 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan bizi direnak osatzen dute. Batez bestekoaren gainetik dagoen segmentua da honakoa, % 76,95 puntu ditu, eta euskal biztanleriaren % 7,1 hartzen du.
5. mota: 45 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak dira, unibertsitate-ikasketak dituztenak edo ikasketarik ez dutenak. 76,49 puntu eskuratu dituzte, eta biztanleriaren % 6,3 dira.
6. mota: 30 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen osatzen dute, 5.000 biztanletik beherako edo 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak eta oinarritzko ikasketak edo goi-mailako batxilergoa dutenak. Talde honen puntuazioa 75,22 puntukoa da, eta euskal herritarren % 5,6 hartzen du.
7. mota: 45 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonen osatzen dute, oinarritzko batxilergoko edo goi-mailako batxilergoko ikasketak dituztenek eta hiriburuetan, 20.001 biztanletik 150.000 biztanlera bitarteko udalerrietan edo 5.000 biztanletik beherakoetan bizi direnak. Talde honek 74,84 puntu ditu, eta biztanleriaren % 14,5 hartzen du.
8. mota: 65 urteko edo gehiagoko pertsonen osatzen dute, estatus ertaina, ertain-altua edo altua dutenak eta ezkongabe, bananduta, dibortziatuta edo alargunduta daudenak. Talde honek 73,08 puntu lortu ditu aniztasunaren onarpenean, eta biztanleriaren % 4,8 dira.
9. mota: 30 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen eta 5.001 biztanletik 20.000 biztanlera bitarteko udalerrietan bizi direnak osatzen dute. Talde horren

gizarte-aniztasunaren onarpen-maila batez besteko portaeraren azpitik dago. Euskal herritarren % 5,9 biltzen du.

10. mota: 45 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonak osatzen dute, oinarritzko edo goi-mailako batxilergoa dutenek eta 5.001 biztanletik 20.000 biztanlera bitarteko udalerrietan bizi direnek. 68,72 puntu eskuratu dituzte, eta biztanleriaren % 5,8 dira.
11. mota: 45 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonak osatzen dute, lehen mailako ikasketak dituztenek. Talde honek 67,86 puntu lortu ditu aniztasunaren onarpenean, eta biztanleriaren % 6,7 dira.
12. mota: 65 urteko edo gehiagoko pertsonak osatzen dute, estatus ertaina, ertain-altua edo altua dutenek eta ezkondua daudenek. Talde honek 63,85 puntu lortu ditu aniztasunaren onarpenean, eta biztanleriaren % 8,5 dira.
13. mota: 65 urteko edo gehiagoko pertsonak osatzen dute, estatus baxua edo ertain-baxua dutenek. Talde honek 58,37 puntu lortu ditu aniztasunaren onarpenean, eta biztanleriaren % 15,2 dira.

Ondorioak

Euskal herritarrek gizarte-aniztasuna onartzeko edo baztertzeko dituzten jarrerak oinarritzko zazpi dimentsiotan bereizten dira. Hauek dira:

- i. euskal gizarteak eremu makrosozialean aniztasunarekiko duen jarrera, non aniztasuna adierazten duten hainbat gizarte-egoera zigortzen, onartzen edo sustatzen diren. Gutxiengoetako pertsonak eskubideak eskuratzearekin edo gizarte-praktika baztertzaillekiko jarrerekin lotuta dago.
- ii. euskal herritarrek kultura-aniztasunaren (jatorria, erlijioa, etnia, kultura-praktikak) aurrean duten jarrera, auzoko hurbileko gizarte-ingurunean.
- iii. aniztasun instituzionalarekiko jarrera, ordezkaritza instituzionalean aniztasunaren adierazleak biltzen dituena.
- iv. euskal gizarteak bertako pertsonen aniztasunarekiko duen jarrera, auzoko ingurunean.
- v. kultura-desberdintasunik ez dakarten gizarte-aniztasunarekiko posizio subjektibo pertsonala.
- vi. euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarrera pertsona ezagunen eta lagunengandik ingurune intimoenean.
- vii. euskal herritarrek auzoan LGTB aniztasunarekiko duten jarrera.

Euskal herritarrek aniztasunarekiko duten posizioa edo jarrera digitu bakarrean laburbiltzen duen indizea kalkulatu ondoren, 72,78 puntu lortu ditugu, 0 eta 100

puntu arteko eskalan. Printzipioz, esan dezakegu euskal herritarrek puntuazio nabarmena lortu dutela. Aipatutako desiragarritasun sozialaren balizko joera hori gorabehera, uste dugu indize horrek behar bezala jasotzen duela euskal gizarteak aniztasunarekiko duen batez besteko posizioa, eta aukera emango digu euskal gizartearen portaeraren bilakaera monitorizatzeko eta egiaztatzeko ea hurrengo urteetan gero eta handiagoa izango den gizarte-aniztasunaren onarpen handiagoaren bidean aurrera egiten dugun edo jarrera intransigente eta intoleranteagoetaranzko inboluzio-sintomak ditugun.

Euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarrera eta posizioa laburbiltzen duen puntuazioa dugu alde batetik, eta, bestetik, gure gizarte-aniztasuna onartzeko edo baztertzeko gure jarrerak oinarri dituen zazpi dimentsioei dagozkien puntuazioak ere lortu ditugu. Puntuazio horiek 0 puntutik 14,30 puntura bitartean doaz kasu guztietan, eta adierazten digute jarrera toleranteagoak eta irekiagoak ditugula eta askoz ere hobeto onartzen dugula askotariko aniztasuna aniztasun horrek kultura-izaerarik ez duenean (auzo-ingurunean) nahiz LGBTI pertsonekin lotutako aniztasuna (auzo-ingurunean hori ere). Puntuazio horiek 0 puntutik 14,30 puntura bitartean doaz kasu guztietan, eta adierazten digute jarrera toleranteagoak eta irekiagoak ditugula eta askoz ere hobeto onartzen dugula askotariko aniztasuna auzo-ingurunean eta aniztasun horrek kultura-izaerarik ez duenean. Auzo-ingurunean ere hobeto onartzen dugu LGB pertsonekin eta trans pertsonekin lotutako aniztasuna, beste kolektibo batzuen bano.

Aitzitik, jarrera intoleranteagoak eta erresistentzia handiagoak aurkezten ditugu honako hauek onartzeko auzokideekiko egunerokotasunean: kultura-aniztasuna, aniztasun makrosoziala (arauei, erregulazioei eta gutxiengoaren eskubideei dagokiena); gizarte-aniztasunaren aurrean dugun jarrera subjektiboa da, pertsonen ingurune intimoenean (lagunak) aniztasuna txertatzeko zailtasunak daude, bai eta aniztasuna erakundeetako goiko mailetara iristeko orduan ere. Hala, bada, ikerketa honen bidez egiaztatu dezakegu desiragarritasun sozialaren osagaiak ez duela horrela besteko pisurik kultura-aniztasunaren kasuan, hau da, ijitoekiko edota jatorri atzeritarreko pertsonetikiko jarrerak garbiago agertzen dira. Hortik ondoriozta daiteke oraindik ere diskurtso arrazista jakin batzuk gizartearen onartuta daudela eta argiago agertzen direla.

Normala denez, euskal herritarren artean portaera-desberdintasun nabarmenak antzeman ditugu, pertsonak gizarte-aniztasunarekiko dituzten jarrerak eta posizioak hein batean azaltzen dituztenak. Funtsean, eta garrantziaren arabera, esan dezakegu euskal herritarren jarrerak hobekien iragartzen dituzten aldagaiak honako hauek direla: pertsonen adina (zenbat eta gazteago, orduan eta hobeto onartzen dute aniztasuna, eta alderantziz), habitata (oso txikiak diren udalerrietan edo ertainetan gizarte-aniztasunaren onarpena handiagoa da), ikasketak (oro har, onarpena handiagoa da prestakuntza handiagoa dutenen artean, eta alderantziz) eta estatusa (zenbat eta handiagoa, orduan eta onarpen handiagoa, eta alderantziz).

Bibliografia

- Cea D'Ancona, M^a Ángeles. (2009). La compleja detección del racismo y la xenofobia a través de encuesta. Un paso adelante en su medición. *REIS Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 125, 13-45. http://www.reis.cis.es/REIS/PDF/REIS_125_011231144723167.pdf
- Cea D'Ancona, M^a Ángeles eta Valles Martínez, Miguel S. (2018). *Evolución de la discriminación en España: informe de las encuestas IMIO-CIS 2013 y 2016*. Emakumearen eta Eskubide Berdintasunaren Institutua. <https://cpage.mpr.gob.es/producto/evolucion-de-la-discriminacion-en-espana-2/>
- Cortés Gómez, Ismael eta End, Markus. (2019). *Dimensions of Antigypsyism in Europe*. European Network Against Racism & Central Council of German Sinti and Roma. https://www.enar-eu.org/IMG/pdf/20116_book_roma_final.pdf
- Emakunde. (2020). *Genero-berdintasunaren indizea*. Eusko Jaurlaritzak. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_planes/es_def/adjuntos/indice_igualdad_genero.pdf
- Eraberean. (2020). *Eraberean sarearen jarduerari buruzko 2019ko txostena*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_materiales/es_observat/adjuntos/eraberean2019_es_21x21.pdf
- Europako Batzordea. (2020). *EU Roma strategic framework for equality, inclusion and participation for 2020-2030*. https://ec.europa.eu/info/sites/default/files/eu_roma_strategic_framework_for_equality_inclusion_and_participation_for_2020_-_2030_0.pdf
- Eusko Jaurlaritzak. (2021). *Euskadi Basque Country 2030 Agenda. Euskal Ekarpenera Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari*. <https://www.euskadi.eus/pdf/agenda-euskadi-basque-country-2030.pdf>
- Fernández Aragón, Iraide, Ruiz Ciarreta, Irune, Shershneva, Julia eta Arteta Esnal, Taide. (2020). *Análisis de la encuesta sobre percepciones y actitudes en torno a la discriminación en Euskadi*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEcas.pdf>
- Ikuspegi. (2020). *Barómetro 2020. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_cas.pdf

Nafarroako Estatistika Erakundea. (2020ko ekainak 18). *Enfermedad mental, discapacidad y origen étnica son las características por las que se discrimina con más frecuencia*. <http://www.navarra.es/NR/exeres/9F28C22B-8C54-4A55-ADFA-D342B25C7574.htm>

Jiménez-Rodrigo, María Luisa eta Sánchez-Muros, Sonsoles Patricia. (2020). El reto de la medición del antigitanismo: indicadores sobre discriminación social hacia la población Romá en la Unión Europea. *Sociología Histórica*, (10), 11-50. <https://doi.org/10.6018/sh.398531>

Mirga-Kruszelnicka, Anna. (2017). *Revisiting the EU Roma Framework: Assessing the European Dimension for the Post-2020 Future*. Open Society European Policy Institute. <https://www.opensocietyfoundations.org/publications/revisiting-eu-roma-framework-assessing-european-dimension-post-2020-future>

Munduko Bankua (n.d./2021). *Orientación sexual e identidad de género*. <https://www.bancomundial.org/es/topic/sexual-orientation-and-gender-identity#1>

Nazio Batuen Erakundea, Informazioaren Eskualdeko Zentroa. (2019). *ONUSIDA y la Fundación LGBT lanzan una innovadora encuesta*. <https://unric.org/es/onusida-y-la-fundacion-lgbt-lanzan-una-innovadora-encuesta/>

Eranskinak

1. eranskina

1. dimentsioa: aniztasunarekiko jarrera esparru makrosozialean. Aldagai hauek osatzen dute:

- 15_6G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Arraza-jatorri ezberdineko bi pertsonak seme-alabak edukitzea elkarrekin
- 15_7G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Bikotekiderik gabeko emakume batek seme-alabak edukitzeko erabakia hartzea
- 15_16G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Zure auzoan baliabide instituzionalak ezartzea txiroei edo baliabiderik gabeko pertsonen laguntzeko
- 15_5G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea
- 15_14G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Gizon moduan jaio eta emakume sentitzen

den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz)

- 15_15G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Zure auzoan etxebizitza sozial/publikoen bloke bat eraikitzea (BOE)
- 15_8G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea
- 15_12G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: GIB/hiesa duen pertsona batek bulego batean egitea lan, beste pertsona batzuekin
- 15_9G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: 30 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 50 langiletik gorako enpresa edo sail bat zuzentzeko
- 15_3G Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Seme-alabak dituen emakume bati zuzendaritzako edo erantzukizuneko postu bat ematea

2. dimentsioa: auzokideen kultura-aniztasunarekiko jarrera. Aldagai hauek osatzen dute:

- 14_4E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona musulman bat edukitzea?
- 14_1E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona immigranteak edukitzea?
- 14_5E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona ijitoak edukitzea?
- 15_13E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Bizi zaren auzoan meskita bat eraikitzea
- 15_1E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek Espainian jaiotako pertsona bat kontratatzea immigrante bat baino lehen
- 17_3E Otik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurjaritza zuzentzen duen pertsona herritarren gehiengoarena ez den jatorri etniko batekoa balitz?
- 17_5E Otik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurjaritza zuzentzen duen pertsona herritarren gehiengoarena ez den erlijio batekoa balitz?
- 25E Erlijiotzat islama duten pertsonetikiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla?

- 15_11E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: Emakume musulmanek beloa jantzita eramatea kalean eta espazio publikoetan
- 23E Ijitoekiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantea” eta 10 “oso tolerantea” direla?
- 1E Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartetan bizi nahiko zenuke?
- 14_9E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke desererosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan gaixotasun mentala duten pertsonak edukitzea?

3. dimentsioa: aniztasun instituzionalarekiko jarrera. Aldagai hauek osatzen dute:

- 17_10E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona haurdun dagoen emakumea balitz?
- 17_2E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona gay, lesbiana edo bisexuala balitz?
- 17_8E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona transgenero edo transexuala balitz?
- 17_9E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona obesitatea duen pertsona balitz?
- 17_1E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona emakumea balitz?
- 17_6E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona desgaitasuna duen pertsona balitz?
- 17_4E 0tik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona 30 urtetik beherakoa balitz?

4. dimentsioa: auzokideen jarrera bertako pertsonen aniztasunarekiko. Aldagai hauek osatzen dute:

- 14_7E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke desererosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala duten pertsonak edukitzea?
- 14_8E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke desererosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan desgaitasun intelektuala duten pertsonak edukitzea?

- 14_11E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona langabetuak edukitzea?
- 14_12E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona gizenak edukitzea?
- 14_6E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan adineko pertsonak edukitzea?
- 14_10E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan klase sozial baxuko pertsonak edukitzea?

5. dimentsioa: aniztasunekiko jarrera pertsonal subjektiboa. Aldagai hauek osatzen dute:

- 31E Txiroekiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla?
- 33E Obesitatea duten pertsonen tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla?
- 27E LGTBI kolektiboko pertsonen tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla?
- 19E Jatorri desberdina duten pertsonen tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla?

6. dimentsioa: aniztasunarekiko jarrera ingurune intimoenean. Aldagai hauek osatzen dute:

- 18_5E Ba al duzu beste erlijio bateko (musulmana, judua) lagun edo ezagunik?
- 18_3E Ba al duzu homosexuala (gay, lesbiana), bisexuala, transexuala edo transgeneroa den lagun edo ezagunik?
- 18E Ba al duzu lagun edo ezagun atzerritarrik?
- 18_2E Ba al duzu ijitoa den lagun edo ezagunik?
- 18_4E Ba al duzu desgaitasunen bat duen lagun edo ezagunik?
- 18_6E Ba al duzu txiroa den edo baliabide ekonomiko gutxi dituen lagun edo ezagunik?

7. dimentsioa: auzokideen LGBTBI aniztasunarekiko jarrera. Aldagai hauek osatzen dute:

- 14_3E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona transexualak edo transgeneroak edukitzea?
- 14_2E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona gayak, lesbianak edo bisexualak?

2. eranskina

Egitura-matrizea. Dimentsioak, aldagaiak eta asetahun faktorialak

	Osagaia						
	1	2	3	4	5	6	7
15_6E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: arraza-jatorri ezberdineko bi pertsonak seme-alabak edukitzea elkarrekin	0,852		0,263				0,296
15_7E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: bikotekiderik gabeko emakume batek seme-alabak edukitzeko erabakia hartzea	0,84		0,328				0,398
15_16E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: zure auzoan baliabide instituzionalak ezartzea txiroei edo baliabiderik gabeko pertsoneri laguntzeko	0,809						
15_5E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea	0,803		0,423		0,277		0,555
15_14E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: gizon moduan jaio eta emakume sentitzen den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz)	0,8		0,425				0,531
15_15E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: zure auzoan etxebizitza sozial/publikoen bloke bat eraikitzea (BOE)	0,787						
15_8E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea	0,75		0,443		0,298		0,575
15_12E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: GIB/hiesa duen pertsona batek bulego batean egitea lan, beste pertsona batzuekin	0,647	0,311	0,369				0,361
15_9E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: 30 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 50 langiletik gorako enpresa edo sail bat zuzentzeko	0,634		0,326				
15_3E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: seme-alabak dituen emakume bati zuzendaritzako edo erantzukizuneko postu bat ematea	0,545						
14_4E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona musulman bat edukitzea?		0,725					0,384
14_1E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona immigranteak edukitzea?		0,696					0,365
14_5E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona ijitoak edukitzea?		0,687					
15_13E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: bizi zaren auzoan meskita bat eraikitzea	0,427	0,635					
15_1E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek Espainian jaiotako pertsona bat kontratatzea immigrante bat baino lehen		-0,633			-0,26		
17_3E Oitik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jauriaritza zuzentzen duen pertsona herritarren gehiengoarena ez den jatorri etniko batekoa balitz?		0,629	0,551				0,291
17_5E Oitik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jauriaritza zuzentzen duen pertsona herritarren gehiengoarena ez den erlijio batekoa balitz?		0,619	0,48				
25E Erlijiozat islama duten pertsonetako tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?		0,592			0,501	0,255	
15_11E Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek: emakume musulmanek beloa jantzita eramatea kalean eta espazio publikoetan	0,427	0,583					
23E Ijitoetako tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?		0,57			0,49	0,258	

	Osagaia						
	1	2	3	4	5	6	7
1E Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartetan bizi nahiko zenuke?		0,526					
14_9E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan gaixotasun mentala duten pertsonak edukitzea?		0,447		0,325			
17_10E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona haurdun dagoen emakumea balitz?	0,267		0,8				0,278
17_2E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona gay, lesbiana edo bisexuala balitz?	0,425		0,792		0,274		0,653
17_8E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona transgenero edo transexuala balitz?	0,437	0,312	0,747		0,28		0,645
17_9E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona obesitatea duen pertsona balitz?			0,74				
17_1E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona emakumea balitz?			0,732				0,275
17_6E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona desgaitasuna duen pertsona balitz?		0,258	0,624				
17_4E Otik 10era bitarteko eskala erabilia, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen pertsona 30 urtetik beherakoa balitz?		0,357	0,548				0,29
14_7E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala duten pertsonak edukitzea?				0,853			0,313
14_8E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan desgaitasun intelektuala duten pertsonak edukitzea?				0,823			0,309
14_11E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona langabetuak edukitzea?				0,823			
14_12E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona gizenak edukitzea?				0,803			
14_6E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan adineko pertsonak edukitzea?				0,664			
14_10E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan klase sozial baxuko pertsonak edukitzea?				0,601			
31E Txiroekiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?		0,27			0,889		
33E Obesitatea duten pertsonen tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?					0,866		
27E LGTBI kolektiboko pertsonen tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?	0,359		0,345		0,841		0,437
19E Jatorri desberdina duten pertsonen tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?	0,292	0,384			0,719		
18_5E Ba al duzu beste erlijio bateko (musulmana, judua) lagun edo ezagunik?		0,307				0,698	
18_3E Ba al duzu homosexuala (gay, lesbiana), bisexuala, transexuala edo transgeneroa den lagun edo ezagunik?			0,296			0,666	0,414
18_1E Ba al duzu lagun edo ezagun atzerritarrik?						0,638	
18_2E Ba al duzu ijitoa den lagun edo ezagunik?						0,63	
18_4E Ba al duzu desgaitasunen bat duen lagun edo ezagunik?						0,508	
18_6E Ba al duzu txiroa den edo baliabide ekonomiko gutxi dituen lagun edo ezagunik?						0,505	
14_3E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona transexualak edo transgeneroak edukitzea?		0,371		0,289			0,797
14_2E Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan pertsona gayak, lesbianak edo bisexualak?		0,3		0,316			0,791



Euskadiko dibertsitatearen erronka

Imanol Zubero Beascochea

«Erabateko integrazioa eta segregazioa funtsezko jarrera berdinen bi aurpegiak dira. Jarrera hori bizitzaren kolore naturalak hondatzean datza, bai beren artean nahastuta, bai denak ezabatuta bakarraren mesedetan» (Volkoff, 1984: 39).

“Beste hori” izatea

Kapuścińskiren esanetan, “persona ezberdinekin, Beste horrekin topatzea betidanik izan da oinarrizko esperientzia unibertsala gure espeziearentzat” (2007:11). Erabat ados nago. Ñabardura bat besterik ez nuke egingo: maiz, Beste hori gu geu gara.

Beharbada, *Handia* filmeko eszenarik ezagunena eta gogoratuena izango da (Jon Garaño eta Aitor Arregi, 2017), non Isabel II. erreginak Miguel Joaquín Eleizegi ezagutzen duen, alegia, euskaraz ari zaion Altzoko erraldoia, eta, erreginak, ezer ulertzen ez duenez, hau galdetzen du: “Atzeratua al da?”; gortesau batek honako hau erantzuten dio, xuxurlatuz: “Euskalduna da”. Historian lau mende atzera egiten badugu, Eduardo Galeanok antzeko eszena bat sortu zuen, errebote efektua balitz bezala, eta gaurkotasan handiagoko garaietara ekartzen gaitu berriro ere:

1492ko urriaren 12an, Kristobal Kolonek bere egunerokoan idatzi zuen zenbait amerindiar Espainiara eraman nahi zituela hitz egiten ikas zezaten (“que dependan hablar”). Bost mende geroago, 1989ko urriaren 12an, Estatu Batuetako justizia gorte batean, amerindiar misteka bat mentalki atzeratutzat jo zen (“mentally retarded”), ez zuelako gaztelaniaz ondo hitz egiten. Ladislao Pastrana, Oaxacako

mexikarra, legez kanpoko jernalaria Kaliforniako zelaietan, asilo publiko batean atxilotua izango zen bizitza osorako. Pastranak ez zuen espainiar interpretea ulertzen eta psikologoak adimen defizit argia diagnostikatu zion. Azkenik, antropologoek argitu zuten egoera: Pastranak ezin hobeto hitz egiten zuen bere hizkuntzan, mistekan, alegia, zeina bi mila urte baino gehiago dituen kultura baten oinordeko amerindiarrek hitz egiten duten (Galeano, 1992: 18).

Ralph Linton antropologoak zera ohartarazten du, seguruenik, itsas hondoko biztanle bat antzemango zukeen azken gauza uretan bizitzea bera dela (Linton, 1976: 130). Gizarte zientziek kultura deitzen dioten ozeano partikular baten hondoan bizi gara gizakiok; kulturatzat ditugu partekatzen ditugun balioak, onartzen ditugun arauak eta sortzen ditugun ondasun materialak (Giddens, 1991: 65). Kulturak (giza taldearen, gizartearen eta mundura etortzen garen denbora historikoaren kultura zehatz hori) gizaki gisa eratzen gaitu.

Kulturak giza eraikuntzak badira ere, askotan, errealitate naturala balira bezala bizitzen ditugu. Gerd Baumannek planteatzen duen bezala, kulturak (nazionalak, etnikoak edo erlijiosoak) entitate konplexuak dira, eta gure bizitzaren hasieran esperimintatzen ditugu jasotako zerbaiten gisa, kultura objektiboa balitz bezala, hor dagoen zerbait bezala, gugandik kanpo, eta horretara egokitu behar garela pentsatzen dugu. Kulturaren lehen esperientzia esentzialista da, esperimintatu eta ulertzen dugu, ez guk egiten dugun zerbait bezala, baizik gu egiten gaituen zerbait bezala, forma ematen eta eraikitzen gaituen zerbait bezala: “Ikuspegi horretatik, kultura [...] norberak duen zerbait da, eta norbera kulturaren kide ere bada; ez da, ordea bakoitzak jarduera berritzailearen bidez sortzen eta moldekatzen duen zerbait” (Baumann, 2001: 108). Bistan denez, hori da gizarte batean sartzen den belaunaldi berri bakoitzaren lehen sozializazioari ekiteko modu bakarra: horiei osatzen dugun kultura *zer den* eta *zer izan behar duen* aurkeztea. Zentzu horretan, txundigarria da Norbert Eliasen *Zibilizazioaren prozesua (El proceso de la civilización)* lan klasikoa irakurtzea, zehazki, Erasmo Rotterdamgoaren *Haurren jarreraren gizebidea* liburuari (De civilitate morum puerilium, 1530) egiten dion erreferentzia. Honako hau nabarmentzen du:

Erasmoren liburuak oso gai sinple bat darabil: pertsonak gizartean duten jarrerari buruzkoa, batez ere (ez bakarrik) kanpo gorputzaren kanpo lotsari buruzkoa (“externum corporis decorum”). Nobleziako mutiko bati eskainita dago, hain zuzen ere, printze baten semeari, bere doktrinamendurako. Seriotasun handiz adierazitako pentsamendu oso sinpleak ditu, baina, aldi berean, txantxak eta ironiak tartekatzen dira, hizkuntza argi eta zehatzean eta doitasun inbidiagarriarekin. Esan daiteke bere imitazioetako batek ere ez duela lan erasmiano honen indarra, argitasuna eta estilo berezia lortu. Arreta handiz hartzen denean, gurearengandik oso hurbil dagoen mundu bat eta bizitza mota bat ikus daitezke lan horren atzean, zalantzarik gabe, baina, bestalde,

guztiz arrotzak iruditzen zaizkigu, jada galdu diren jarrerez aritzen baita, zeinak gutako askok, seguruenik, “barbarotzat” edo, agian, “hezigabetzat” hartuko genituzke. Liburuaren edukiaren zati handi bat, dagoeneko, ez dator bat errealitatearekin, eta beste zati bat guztiz naturala bihurtu da (Elias, 1993: 100 101).

Une batean prestakuntza exijitzen zuten jarrera batzuk, azkenean, “guztiz natural” bihurtzen dira. Ez gara jabetzen elementu kulturalaz inguratuta bizi garenik beraz, ez naturalak, gure hizkuntzatik hasi eta gure balioetatik jarraituz, gure erakunde eta tresnetara iritsi arte. Erabat naturala iruditzen zaigu gurearen moduko mundu batean bizitzea, jaten duguna jatea eta hitz egiten dugun moduan hitz egitea. Beste bizimodu batzuk, beste ohitura batzuk, beste hizkuntza batzuk ezagutuko ez bagenu, ez genuke pentsatuko gurea ez den beste bizimodurik existituko litekeenik. Beste kultura batzuk ezagutzen ditugunean ere, gure lehenengo erreakzioa arrotz gisa hartzea izan ohi da (gurearekin kontrajartzen dugulako, zeina, oharkabean, normaltzat jotzen dugun), batzuetan, gutxiesten ditugu, atzeratutzat edo groteskotzat jo ere. Horren emaitza da eguneroko bizitzaren munduko esperientzia naturalizatua: “Jarrera naturalean, beti nago “errealizat” jotzen dudan mundu batean. Bertan jaio nintzen eta ni baino lehenago existitu zela suposatzen dut. Nire esperientziak landutako guztiaren oinarri ukazina da auresuposatutako esparrua, eta bertan daude konpondu behar ditudan arazo guztiak” (Schutz eta Luckmann, 1977: 25).

Horregatik, esperientzia gutxi izango dira gure kultura errealitate berezitik atera eta beste batzuekin harremanetan jartzea bezain liluragarriak, edozein mailatan: herri txiki batetik atera eta hiri kulturalan murgiltzea, atzerriko herrialde batera bidaiatzea, sinesmen edo ideologia desberdinak dituzten pertsonak ezagutzea, eta abar. Esperientzia horiek beti bizi izan garen itsas hondoren kostaldeari begiratzearen parekoak dira; gauzak beste era batera ikusten ditugu, beste ikuspegi batetik: seguru asko, apaltasun pixka batekin, eta irudituko zaigu, gurea ez dela, lehen uste genuen bezala, unibertsoaren erdigunea. Esperientzia gutxi dute hori bezain deserosoak izateko ahalmena. Gizakion segurtasunaren eta egonkortasunaren grina handia dugu. Itxaropen hori erabat mehatxatzen dute beste errealitate batzuek: beste erlijio batzuk existitzen dira, eta horrek gure dogmatismoari eustea oztopatzen digu; sexualitatea bizitzeko beste modu batzuk daude, eta, dagoeneko, ezin dugu portaera homofoborik izan... Ohartzen gara gu ere, gure sinesmen eta bizimoduekin, “beste horiek” garela pertsona askorentzat, eta hori segurtasun faltaren elementu ukazina da. Bereziki, “geure lurraldean bertan”, beharbada, arrotz sentitzen hasten garenean (Hochschild, 2018).

Bada, Migraziorako Euskal Itun Sozialaren 1. puntuan gogorarazten den bezala, etorkizunean, Euskadi gaur egun den baino gizarte anitzagoa izango

da.¹ Azpimarratu beharra dago aniztasun hori ez dela atzerriko immigrazioaren ondorioa (Euskadi beti izan da herrialde anitza eta plurala), nahiz eta immigrazioak euskal gizartean zegoen aniztasuna areagotu eta konplexuago bihurtu duen. Euskal gizarteak gero eta aniztasun handiagoa izateak ez du zerikusirik “arrotzak ate joka ari dira” irudi (faltsu) beldurgarriarekin (Bauman, 2016), baizik eta ohartzearekin errealitate plural, dinamiko eta konplexua dugula, zeinari elkarrizketa horizontal eta inklusibo gisa aurre egin behar diogun.

Erreflexibotasuna eta parte izatea

Onartzea kosta egiten zaigun arren, identitateak ez du zerikusirik sustraiekin, baizik eta haizete handienekin, iraganeko berrikuspenekin (ia beti bortitzak) eta oinordetzan hartutako elementuen berreraikuntzekin (ia beti gatazkatsuak), baita gure nortasuna definitzeko abiapuntu diren askotariko gauzak hautatzeko eta berrantolatzekeo prozesu etengabearekin (Maalouf, 1999: 27 33; Lertxundi, 2010: 237 238). Jean Claude Kaufmannek ohartarazten digu gizarte zientzietatik nabarmendu behar dugula nortasuna “subjektibotasunaren eta zentzua sortzearen aldean dagoela, eta ez “sustraien” aldean” (2015: 26).

Ez da bat ere erraza egonkortasuna eta partaide izatearen sentimendua eskaintzen diguten sustraiak erreflexiboki etengabe erlatibizatzea. Pertsona gehien aburuz, kultura aniztasuna erbestealdi gisa bizi da, deserrotze gisa, deserriratzeko gisa, hau da, beren bizitza eraikitzekeo eta beren etorkizuna proiektatzeko lurzoru irmo baten gabetze gisa (Nancy, 1996; Finkielkraut, 2001: 122). Identitatearen funanbulismo hori gutxiengo batzuentzat pentsatuta dagoela dirudi, zeintzuen kapital sozial, kultural eta ekonomikoak aukera ematen dien sare anizkoitz eta anitzetan parte hartzekeo (Kaufmann, 2015: 34), “tokiko biztanleriarekin” (nahiz eta haien bizilagunak izan) zerikusia duten turista etniko gisa dituzten aniztasunen gainetik igarota, aldi baterako, berdintasunik gabe eta azaletik (MacCannell, 2007: 186).

Baina jende gehienarentzat kultura aniztasunak nahasmendua eta segurtasunik eza eragiten ditu; batzuetan, jasanezina den babesik gabeko esperientzia (Zubero, 2015). Hori dela eta, kulturalki homogenea eta purua den gizarte lurralde baten herrimina sentitzen dute, arrotza iruditzen zaienaren kutsaduratik salbu jarri nahi dituzte beren buruak. Hortaz, Beste horrekin topo egitearen esperientziarengandik banaezina da Bestea gaitzestea; gure espeziearen beste oinarritzko esperientzia da.

1973an, Peter Berger soziologoak, Brigitte Berger eta Hansfried Kellnerekin batera, bere libururik eraginkorrenetako bat argitaratu zuen, eta aldian aldian

¹Migraziorako Euskal Itun Soziala. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracio/eu_planes/adjuntos/PACTO-EUSK-2018.pdf

hori irakurtzea gomendatzen dut, *Etzerik gabeko mundua: modernizazioa eta kontzientzia* (*The Homeless Mind: Modernization and Consciousness*), non modernizazio prozesuekin pozik ez egotea sortzen duten iturri boteretsuenetako eta iraunkorrenetako bat aztertzen baitzuen: etxerik ez izatea (Berger, Berger eta Kellner, 1979: 175). Gizarteen modernizazioak dakarren kultura aldaketaren ondorioz, bi pertsona mota agertu dira nagusiki, mugikortasunaren eskakizunetara (fisikoa, baina baita, batez ere, kognitiboa eta normatiboa ere) eta aldaketa horrek sortzen eta eskatzen duen bizimodu aniztasuna kontuan hartuta: alde batetik, bizi baldintza eta modu berrietara ondo egokitzen direnak, horiek eskaintzen dizkieten aukerak aprobetxatuta —“pluraltasunaren bertutetsuak”, ondorengo lan batean hala deritze (Berger eta Luckmann, 1998: 80)—, eta, bestalde, derrigortutako mugikortasun hori segurtasun eza ontologikoko iturritzat eta, azken beltzean, anomiatzat dutenak (Giddens, 1995).

Bizi garen mundua desdoituta dago, eta, bertako identitate guztiek “egurats gorrian dauden identitate” bihurtzeko erronkari egin behar diote aurre (Moreras, 2018). Gero eta gehiago dira, gaur egungo populismo natibisten gorakada azaltzeko, etxea galtzeak dakarren esperientziak, existentziari egonkortasuna eta zentzua ematen dioten arau erreferentzien eta erreferentzia kulturalen krisiak, duen garrantzia azpimarratzen duten analistak. Askotan protesta honekin batera doan falta materialarekin batera, nahiz eta erlatiboa izan, nostalgiaren gabeziak ere eragiten du (Gest, Reny eta Mayer, 2017): hau ez da nire kalea, nire hiria, hau ez da nire auzoa, nire herria, nire herrialdea; beste hizkuntza batzuk, beste tradizio batzuk, beste fisonomia batzuk, beste sexualitate batzuk, beste usain batzuk, beste musika batzuk... hau ez da gure mundua.

Era horretan, gentrifikazio global arriskutsu moduko bat sendotzen doa, munduaren balioa berrikusten da kapitalismoaren ikuspegitik, eta horrek pertsona eta kolektibo ahulenak kanporatzea dakar (kanporatze fisikoak edo subjektiboak); hain zuzen ere, pertsona eta kolektibo horiek behar dute, neurri handi batean, minimoki egonkorra den lurzoru bat, etorkizunari aurre egiteko. Gure gizarteak zatitzen hasi dira emantzipatuen eta sustraituen artean (Delsol, 2015): edozein lekutan gustura daudenak (*anywhereak*) eta beren jatorrizko lekua eskatzen dutenak (*somewhereak*) (Goodhart, 2017). Halaber, hiri gentrifikazioarekin gertatzen den bezala, beste gentrifikazio global horrek eragina du gizarte aniztasuna biltzen duten hiriko espazioetan, bereziki, atzerriko immigrazioarekin zerikusia duten espazioetan; bertan sortzen dira «auzoen arteko talkak» (Guilluy, 2018), aniztasuna mehatxu gisa kontzeptualizatzen, baita natibismoaren eta mixofobiaren defentsa ireki gisa ere, hots, “aniztasun eta ezberditasun ozeano baten erdian antzekotasun uharteak bilatzeko joera” (Bauman 2006: 32 33). Halere, hori ezinezkoa da, pertsonen eta ideien mugikortasuna edo bizimodu aniztasuna ezin dira desasmatu, eta desiragarria ere ez da, bereizkeria, bazterketa, kanporatze eta tratatu txarren politikak baino ez bailituzke sortuko.

Aniztasunarekin eta bereizkeriarekin dugun harremana: eroso... Erosoegia?

Ijitoekiko elkarbizitzari dagokionez izan ezik gure Beste hori, gure arrotz erradikalena, haiekiko dugun “desberdintasun kezkarria” (San Roman, 2010), nahiz eta XVII. mendetik jakin “Echeverría” deituriko ijitoak badirela (Martín, 2017: 211), *Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak Euskadin 2020 inkestak* (EPADE 2020) giza aniztasuna onartzen duen euskal gizartearen irudi irekia ematen digu. Hamar euskaldunetik hiruk (% 28,9) adierazi bazuten ere nahiago zutela jendeak jatorri, kultura eta erlijio bera duen gizarte batean bizitzea, gehiengo zabal batek (% 65,6) adierazi zuen nahiago zuela jatorri, kultura eta erlijio desberdineko pertsonak dituen gizarte batean bizitzea.

Tolerantziaren kontzeptua erabiltzearen inguruko ohar labur bat egin beharra daukat. Oso kontziente naiz termino horren osagai etnozentriko eta hierarkikoaz, ilustrazio europarrak ezarri bezala, “besteak (hau da, afrikarrak, amerikarrak edo asiarrak) gure kulturaren hezi behar den haur, primitibo edo barbaro bakartzat hartzen duelako, hots, “besteei bidea argitzearen” nagusitasun kulturalaren konbentzimenduaz” (Fernández Buey, 1995: 133). Halaber, ezagutzen ditut geure buruak tolerantzia “puru”, abstraktu eta, azken finean, zapaltzailean ezartzearen arriskuak (Wolff, Moore Jr. eta Marcuse, 1965). Baina, uste dut, behar bezala hausnartuta, kontzeptu horrek “demokraziarako ezinbesteko bertute txiki bat” definitzen laguntzen duela (Fetscher, 1994). Tolerantzia errepublikanoa, alegia, “aktiboa eta solidarioa” (Giner, 1998: 131), ideien errespetuan zentratutako tolerantzia barik, besteekiko errespetuan oinarritutakoa (Jahanbegloo, 2007: 74). Fernando Salmerónek magistralki adierazi zuen hori bera:

Tolerantzia ez da elkarren aurkako sinesmenek, doktrinek edo jarrerak elkarbizitzeko duten aukerari buruzkoa, baizik eta pertsonari buruzkoa, zeintzuek ideiak eta ohiturak irudikatu eta bidegabe edukitzen dituzten eta aurkakoak izan daitezkeen bitzita proiektuak eta helburuak izateko gaitasuna duten. [...] Kontua, benetan, pertsonaren duintasuna da. Pertsona horiek, funtsean, helburuak aukeratzeko eta beren bitzita planari zentzuz jarraitzeko duen gaitasunak definitzen dute beren burua (Salmerón, 1998: 31).

Jakina, tolerantziaren ideia horren orde besterik ez beste baliabide kontzeptual bat jartzeko prest nago, bere gaitasunei eutsiz, gabeziak mugatu edo ezabatzen baditu ere. Oraingoan, ez dut aurkitu. Ez ditzagun nahastu hizkuntzaren iraultza eta errealtatearen eraldaketa efektiboa (Rorty, 1999: 85).

EPADE 2020ren datuetara itzulita, inkesta bete duten pertsona gehienak ez litzaieke deseroso sentituko beren auzoetan homosexualak (gay eta lesbianak) edo bisexualak (% 91,4) baleude, edo transexualak zein transgeneroak (% 89,0), adineko pertsonak (% 95,8), obesitatea duten pertsonak (% 97,6), langabetuak (% 97,3), gizarte klase baxukoak (% 94,6), desgaitasun fisiko edo/eta sentsoriala duten pertsonak (% 94,1) edo adimeneko desgaitasuna duten pertsonak (% 93,9), zein buruko gaixotasuna duten pertsonak (% 81,9). Laguntza eskasagoa jasotzen du gure auzoetan etorkinak izateak (galdetutako pertsonen % 72,4k esan du ez litzakeela bat ere deserosoa izango) edo erlijio musulmaneko pertsonak (% 68,4).

Ez da gauza bera aniztasun abstraktuari buruz hitz egitea edo galdetzea eta aniztasun zehatzei buruz galdetzea. Georges Benko geografoak dioenez, “badaude Beste horiek baino Besteagoak direnak” (Bauman, 2002: 117). Hori dela eta, funtsezkoa da arreta jartzea, ez bakarrik aniztasun abstrakturako orokorrean dugun jarreran, baizik eta errealitatean definitzen ditugun bestetasun kategorien arabera dugun tolerantziaren bariantzan (Izaola eta Zuberu, 2015).

Bestalde, ez dakigu zenbat pertsonaz ari garen: Ba al dago aniztasun atalase kontziente edo inkontzienterik, toleranteak izateko dugun espiritua edo gogoa gainditzen duena? “Superaniztasuna” kontzeptuak (Vertovec, 2007) zera ohartarazten digu, orain pertsona gehiagok leku gehiagotatik migratzeaz gain, pertsona horiek “aniztasun anitzak” dakartzate, zeinak inekzionalitateetik jorratu behar diren, eta horrek zaildu egiten dituela integrazio politikak. Gizarte bat “anitzegia” izan al daiteke gizarte kohesionatu batek bere oinarrian dituen elkarrekiko betebeharrei eusteko? (Goodhart, 2004).

Euskadi, gaur egun, gizarte anitza da, ez ordea, superanizta. Errealitate moderatu edo nahiko anitz honetara egokitu dugun tolerantzia beraz, tolerantzia erlatiboa edo moderatua, nahikoa izango al da superaniztasunerako bidean? Migrazioarako Euskal Itun Sozial berria gogorazi eta aiparazi dit: “Denbora badaukagu, baina ez galtzeko, aprobeitzatzeko baizik. Atzerritarren ehuneko txiki samarra dugu Euskadin. Pertsona horiek, gainera, aktiboki agertzen dute integratzeko borondatea, beste edozein herritarrek bezala laguntzen baitute gizarte hau hobetzen” (39. puntua). Etorkizunean datorren aniztasunerako nahikoa prestatzen ari al gara gizarte?

Sex-blind discrimination?

EPADE 2020k islatzen du euskal biztanleek adierazitako zuzeneko bereizkeria esperientziek sexuarekin (% 10,5), adinarekin (% 6,5), nazionalitatearekin (% 5,9) edo jatorri etnikoarekin zein arraza jatorriarekin (% 3,6) zerikusia dutela. Sexu bereizkeria da, hortaz, hedatuena. Interesgarria litzateke antzematea bereizkeriaren biktimek sentitu duten eta gizarteak imajinatutako bereizkeriaren artean dagoen disonantzia. Bereizkeriaren arrazoi nagusia sexua da (EPADE 2020k badakigun zerbait argitzen digu: emakumeek pairatzen dutela, batez ere, bereizkeria hori), baina, biztanleria orokorraren artean, sexua, bereizkeriaren arrazoi gisa, hamabost postutik hamaikagarren postuan da.

1. koadroa. Aitortutako eta antzemandako diskriminazioaren arrazoiak

Aitortutako bereizkeria arrazoiak	Antzemandako bereizkeria arrazoiak
35. G.: “Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetakoren batekin?”	13. G.: <i>Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) bereizkeria jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa al da bereizkeria edo tratua okerragoa al da, edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla eta?</i>
Sexuagatik (emakumea edo gizona izateagatik) Adinagatik (gaur egungoa) Jatorri etnikoagatik edo arrazagatik Etnia edo arraza jatorriagatik Baliabide ekonomiko gutxi izateagatik Gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatik Desgaitasunen bat izateagatik Sexu edo genero identitateagatik Haurdun egoteagatik Erlijioagatik edo sinesmen erlijiosoengatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik) Auzo edo udalerrri degradatu batean bizitzeagatik	Etnia edo arraza jatorria Gaixotasun mental bat izatea Nazionalitatea Baliabide ekonomiko gutxi izatea Adina Desgaitasun intelektuala izatea Itxura fisikoa Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea Klase soziala Fisikoa (obesitatea) Sexua Sexu edo genero identitatea Langabezian egotea Erlijioa edo sinesmen erlijiosoak Orientazio sexuala

Iturria: geuk egina, EPADE 2020ren datuekin.

Harrigarria da, halaber, “Diskriminazio sexista: pertzepzioak eta bizipenak EAeko emakumeen artean” kapituluaren adierazten den bezala, EPADE 2020 inkestan galdekatutako hiru emakumetik bik (% 65,8) uste izatea Euskadiko bereizkeria sexista ez dela oso ohikoa edo ez dela batere ohikoa. Emakumeen erdiak, gutxi gorabehera, sexua bereizkeria garrantzitsutzat jotzen duen bi esparru baino ez daude: lanpostu baterako hautapena (inkestatutako emakumeen % 42,5ek uste du emakume izateak kalte egiten diela) eta erantzukizuneko lanpostu bat eskuratzea (hala uste du emakumeen % 55,5ek). Halere, ez da hori gertatzen

beste arlo batzuetan, hala nola etxebizitza baterako sarbidea, legeen aplikazioa edo zerbitzu publikoetarako sarbidea.

Ezin dut ideia hau hemen eta orain behar bezala garatu, baina baliteke Euskadin sexismo patriarkalarekin Estatu Batuetan biztanleria beltzarekiko arrazakeria zuriarekin gertatzen den gauza bera gertatzea: han, duela urte asko antzeman da *color-blind racism* deitutakoa (Burke, 2012, 2018), hau da, arraza bereizkeriaren kausa izatea ukatzea. Euskadin *gender-blindness* edo *sex-blindness* arazoa antzeman genezake: sexu bereizkeria den bereizkeria ohikoena antzemateko zailtasuna.

Por qué no hablo con blancos sobre racismo liburuan, Reni Eddo-Lodge kazetariak honela azaltzen du bere hausnarketaren jatorria:

Utzi diot zuriekin arrazismoaz hitz egiteari. Ez guztiekin, baina bai arrazismo estrukturala eta haren sintomak onartzeari uko egiten dion gehiengoarekin. Ezin dut jarraitu pertsona zuriek koloreko pertsona batek bere esperientzia artikulatzen duenean erakusten duten deskonexio emozionalako amildegia aurre egiten. Begirada itzali eta gogortu egiten da. Norbaitek belarrietan melaza botako balu bezala da, eta entzumen kanalak blokeatuko balitu bezala. (Eddo-Lodge. 2021: 19).²

Izan ere, idazleak adierazten duenez: “Nork nahiko luke, benetan, berari besteen kontura onura ekarriko dion egitura sistema bat dagoela nabarmentzea?” (Ibidem: 20).

Bereizkeria identifikatzeko eragozpen nagusia gozatutako pribilegioa da. Eta borrokatzeko eta desmuntatzeko pribilegio zailena da ikusi ere egiten ez duguna, hori ustez gaindituta duten gizarte aristokratikoetan bezain naturalizatutakoa. Pribilegio zuriak ez gaitu sentsibilizatzen arraza bereizkeriaren aurrean. Gizonezkoen pribilegioak itsu egiten gaitu (emakume zein gizon) sexu bereizkeriarekiko. Egitura baino sexismo patriarkalarekiko inkontzientea edo bihozgabea den gizarte bat, prestatuta al dago beste bereizkeria modu batzuk ere hautemateko, horien artean arrazakeria, gaur egun gutxiago hedatuta dagoena?

²Gaztelako edizioan honakoa dio: «... egiturazko arrazismoaren zilegitasuna eta haren sintomak». Halere, ez da oso argia. Ingeleseko jatorrizko testuak honela dio: «Not all white people, just the vast majority who refuse to accept the existence of structural racism and its symptoms» (in The Guardian, 30 May 2017. <https://www.theguardian.com/world/2017/may/30/why-im-no-longer-talking-to-white-people-about-race>). Horregatik hartu dut askatasuna «zilegitasun» terminoaren ordez, justizia eta arrazoizkotasun konnotazioaren bidez, «existentzia» terminoa jartzeko, gertaera soil bati dagokiona.

Desiragarritasunetik elkarbizitzara

Pertzepzio, jarrera eta iritziei buruzko inkestek arrisku nabaria adierazten dute: giza desiragarritasunaren osagai bat gehiago islatzea benetako praktikarena baino. Maiz, inkestan galdekatutako pertsonak erantzun egiten dute, inkontzienteki, gizarteak hobekien onartzen duenarekin. Hori oso argi dute Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea aurkezten den kapitulua idatzi duten idazleek.

Gai horrekin jarraitu aurretik, garrantzitsua iruditzen zait zerbait esatea giza desiragarritasunaren adierazpen horren oinarri posiblei buruz, aniztasunarekiko gure jarrera pertsonalari buruzko galderei erantzuten diegunean ondo geratzeko gogo inkontziente horri buruz. Jende askok hipokrisiaren adierazpen soil gisa interpreta dezake, benetako iritzien ezkutatzeko kontziente gisa; eta ziur kasu batzuetan hala izan daitekeela. Hala ere, nik irakurketa positiboagoa egiten dut: pozgarria iruditzen zait, gaur egun mundu osoan dugun politika basatia izanda ere, bizitza gutxiesten duten *strongmen* horiek eragindako lidergoak ugaritzearekin batera (Kribbe, 2020), enpatia, gupida eta errespetua ongizaletasun bigun eta derrotista bihurtzeko ahaleginari aurre egin behar arren, gainerakoen aurrean ongi geratzeko nahia mantentzea³, gainerakoen aurrean baino, geure buruaren aurrean. Positiboa iruditzen zait, norberekoikeriak eta utilitarismoak kolonizatu gabeko substratu moral baten iraunkortasuna islatzen duelako.

Nolanahi ere, ez dago zalantzarik giza desiragarritasunaren joera hori erronka metodologikoa dela —noraino gara identifikagarriak argazki horretan, zenbateraino gara gu geu, ez al gara photoshoparekin pasatu?—, eta hortik dator kudeaketa publikoaren erronka garrantzitsu bat: ontzat eman dezakegu inkesta horietatik sortzen den diagnostikoa, bereizkeriaren aurkako politika publikoak diseinatze eta aniztasunean bizikidetzat aurreratze abiapuntu gisa? Triangeluatzeko metodologikoa, ikerkuntza kuantitatibo eta kualitatiboko tekniken erabilera konbinatuta, eta “radar sozialak” (komunitate sareak, zurrumurruek aurkako eragileak, migratu duten pertsonen elkarteak) eremuan zabaltzea funtsezkoa da euskal gizartearen aniztasunarekiko jarreraren errealitatea irudikatze.

Izan ere, Aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea ahuldu egiten da herritarren egunerokotasunaren inguruan, non “jarrera intoleranteagoak eta kultura-aniztasuna onartzeko erresistentzia handiagoa aurkezten baititugu”.

³Bide batez, eta zorionez, ez gara guztiz koherenteak gure gorroto- eta krudelkeria-diskurtsoekin. Gure praktiketan ez gara gure diskurtsoetan bezain onak (toleranteagoak, ez hain solidarioak, ez hain justuak...), baina ez gara hain txarrak ere. Mirariz islatzen du hori Amos Ozek *Contra el fanatismo* filmean, bere lagun Sammy Michael nobelagilearen pasadizoarekin, eta «arabiar guztiak hiltzeko» beharraz hitz egiten zuen taxi-gidariarekin (Oz, 2003: 22-23).

Immigrazioarekiko Tolerantzia Indizea lantzeko “auzoa” aldagaia sartu zuen Ikuspegik bere barometroetan 2012an, eta, orduz geroztik, ikusten da tolerantziaren atalaserik txikiena duten pertsonen artean etorkin gehien dauden auzoetan bizi direnak daudela; hori da, hain zuzen ere, azken *Barometroa 2020* grafikoan aurkitu duguna.

1. irudia. Tolerantzia Indizearekin lotutako aldagaiak, 2020

TOLERANTZIA-ATALASE TXIKIENA		TOLERANTZIA-ATALASE HANDIENA	
DUTEN PERTSONEN PROFILA		DUTEN PERTSONEN PROFILA	
	Aldagaia	Esang.	
Emakumezkoak	Sexua	.002	Gizonezkoak
45 urte eta gehiago	Adina	.000	18-44 urte
Lehen mailako ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitate-ikasketak
Hiriburuak	Bizilekua	.010	5.000 biztanle baino gutxiago
Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak	Erlijioa	.000	Beste erlijio batzuk, agnostikoak, ateoak
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainiarra edo ezaxola	Abertzaletasuna	.001	Euskal abertzalea
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	.000	Batez ere euskaldun sentitzen direnak
Eskuina, zentro-eskuina, zentro-ezkerra	Ideologia	.000	Ezkerra
Hilean 1.000 € gehienez	Diru-sarrerak	.000	Hilean 1.800 € eta gehiago
Gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	.000	Bere egoerarekin gustura daudenak
Etxe lanetan aritutakoak	Lanbidea	.000	Ikasleak, aktiboak
Estatus baxua	Estatua	.000	Estatus altua
Ezkorrak	Baikortasuna	.003	Baikorrak
Aurreikuspen txarrak edo normalak	Etorkizuna	.000	Aurreikuspen onak
Zenbait immigrante, immigrante asko	Auzoa	.028	Immigranterik ez
Inolako hartu-emanik ez	Interakzio pribatua	.000	Nolabaiteko hartu-emana
Inolako hartu-emanik ez	Interakzio publikoa	.000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa
Inolako hartu-emanik ez	Aisialdiko interakzioa	.000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa

Iturria: Barometroa 2020

Kontu horrek kezkatu egin beharko gintuzke, eta bereziki arduratu beharko ginateke horretaz; izan ere, emantzipatu eta sustraitu edo *anywheren* eta *somewhereen* arteko bereizketa horrek eta “auzoen arteko talkak” lehen aipatutako banatzeko oinarri materiala osatzen dute. Neure burua aipatzeagatik barkamena eskatzen dut, baina ezin da hobe esan:

Kohesio komunitarioa sustatu eta propaganda populistaren gutxiengo etnikoak babestu nahi dituztenek, alderdi populisten balizko sektore sozialek adierazitako beldurrak eta segurtasunik ezak kontuan hartzeaz gain, sektore horiekin partekatu behar dituzte beren bizitza garatzen duten espazioak (auzoak, eskolak, zerbitzu publikoak). Immigrazioaren aurkako populismoa NIMBETA mugimenduetako hizkuntza tipikoarekin adierazten da askotan (*not in my back yard*, “ez nire atzeko patioan”). Aniztasunari eta bizikidetzari buruzko hitzaldi normatiboen aurrean, hau da erantzun ohikoena: “Eramaitzazu zure etxera!”. [...]

“Zein auzotan bizi zara? Zein eskolara doaz zure seme-alabak? Zein garraio bide erabiltzen duzu hirian zehar mugitzeko? Zein zerbitzu publiko erabiltzen dituzu?”. Galdera horiek egingo dizkigute etnokultura aniztasuna aldarrikatu eta kulturen arteko bizikidetzaren defendatzen dugunean. Galdera horiek populistek egiten dizkigutenean, zentzuz esan dezakegu galdera korapilatsuak direla; baina aniztasuna, immigrazioa edo kultura aniztasuna ukatzen edo zalantzan jartzen duten pertsonak egiten dizkigutenean, erantzun beharreko gaitzat hartuko ditugu. Churchill jarrera deitu dezakegun horretan gaude: “immigrazioa, aniztasuna, kultura aniztasuna eta pluralismoa” agintzen badugu, hori partekatzeke eta pertsonalki bizitzeko moduan egon behar dugu. Bestela, gure sinesgarritasuna erabat hutsala izango da. Hemen oso gutxirako balio dute hitzaldi akademikoek, arau proposamenez betetakoez, ez badaude esaten dituztenen bizitzetan sartuta (Zubero, 2015: 106-107).

Bizikidetzarik gabeko tolerantzia “txalet atxikien tolerantzia” da, denborarekin, komunitate itxiaren tolerantzia ekarriko duena. Tolerantzia jarraitua barne mugen eraikuntzaren gainean, gizarte urruntzearen, espazio bereizketaren gainean. Erabateko tolerantzia, mestizajeak eta topaketak sortutako edozein ezpurutasunen aurkakoa. Horma tolerantzia, ez zubi tolerantzia. Tolerantzia intolerantea, bizitza karga gisa, epe erdira jasangaitza.

Michael Ignatieffek dioenez, tolerantzia eguneroko bertute horietako bat da, eta, beste batzuekin batera (konfiantza, zintzotasuna, kortesia edo errespetua), “edozein komunitateren sistema eragilea” osatzen du (2018: 81). Tolerantzia bertute praktikoa da funtsean, aplikatua. Tokian tokiko eremuan, *giza harreman zabaldua* gauzatzen den hainbat hiri espaziotan halakorik badagoen edo ez den egiaztatzen da, bertan ezin baita homogeneotasuna hautatu (Zubero, 2008). Gune horietan jarri behar dugu fokua. Euskadin, leku gutxi batzuk dira, baina ia beti kaltetutako lekuak dira, eta bereizkeria anitzak pilatzen dira.


“Gu” erreferentzia handitzea

Charles Handetak adierazten du zaila dela gizartearen aldatzeko prozesuei modu proaktiboan aurrea hartzea, batez ere gauzak ongi iruditzen zaizkigunean: “Mundua etengabe aldatzen da. Arrakastaren paradoxetako bat da nekez gauden lekura eraman gintuzten gauzak eta bideak arrakasta horretan mantenduko gaituzten berdinak direla”; bestela, pentsatzen badugu “etorkizuneko bidea ezagutzen dugula, gauden lekuaren jarraipena delako”, ziurrenik zailtasunak izango ditugu (Handeta, 1996: 61). Handetaren planteamenduan, edozein giza errealitatearen bilakaerak kurba sigmoideoaren irudia hartzen du ezinbestean: hazkunde fase bati, ezinbestean, gainbeherako beste batek jarraitzen dio, eta,

behar bezala aurre eginez gero, hazkunde fase berri bat sor dezake, eta, aldi berean, gainbeheran egongo da... Gakoa izango litzateke kurba sigmoidea hasteko gai izatea aurrekoa amaitu baino lehen. Baina hori, teoriarik hain nabarmena dirudien arren, ez da horren erraza praktikan:

Bigarren kurba hori hasteko leku egokia A puntua da, non oraindik denbora baitago, baliabideez eta energiagaz gain, kurba berriak hasierako miaketak eta estropezuak gaindi ditzan, lehenengo kurba pikatzen hasi baino lehen. Hori begi-bistakoa izango litzateke, A puntuan gizabanakoarengana edo erakundera iristen diren mezu guztiak primeran doazelako ez balitz, erokeria izango bailitzateke aldatzea gaur egungo errezetek hain ondo funtzionatzen dutenean. Aldaketari buruz dakigun guztia, aldaketa pertsonala izan edo antolakundeetan aldaketa izan, zera esaten digu: aldaketarako benetako energia hondamendiari aurre egiten diogunean soilik iristen da, B puntuan, lehenengo kurbaren gainean. Puntu horretan, hala ere, ahalegin handia egin beharko dugu bigarren kurban jada egon beharko genukeenera iristeko (Handeta, 1996: 62-63).

2. irudia. Kurba sigmoidea



Iturria: geuk egina.

Euskal gizarte modernoak mende eta erdi darama, tentsio askorekin, gizarte anitz gisa. Garai historiko bakoitzean (XIX. mendeko lehen industrializazioan, berrogeita hamarreko hamarkadatik hirurogeita hamarrera bitarteko barne migrazioetan, atzerriko immigrazio prozesuan 2000. urtetik aurrera), egokitasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, garai bakoitzak planteatutako aniztasun erronkari erantzun diogu. Zenbait unetan, biztanle berrien aurrean ezarritako taldearen erantzuna erabat baztertzaila izan da (Elias eta Scotson, 2016), eta ETaren terrorismoaren garaian ezabapen fisikora ere iritsi da (Zubero, 2012). Halere, azken emaitza, giza integrazioari eta kohesioari dagokionez, nahiko ona izan da, nahiz eta kontu kezkarriak egon, hala nola

eskola bereizketa⁴, immigrazioaren eta DBEren⁵, arteko harremanari buruzko eztabaida errepikakorrak, harrera⁶ eta babes politikak edo immigrazioak euskaran⁷ izan dezakeen ustezko eragina.

Nolanahi ere, ez genuke kurba sigmoideoaren tranpan erori behar. Elkarriketa zabal eta iraunkorra bultzatu behar dugu gizartean, ez bakarrik erakunde publikoen eremuan. Orain arte ez dugu egin, ez behintzat modu koherente eta egonkorrean. 2011n, elkarriketa hori *Migraziorako Euskal Itun Sozialaren* inguruan hasi zen planteatzen (Zubero eta Innerariteta, 2011)⁸, paralizatuta edo moteldua egon zen denbora bat geroago, 2019. urtearen amaieran *Migraziorako Euskal Itun Sozialarekin*⁹ berriro hasi eta, gaur egun, isiltasun erlatiboko egoerara itzultzeko. Agian, momentu honetan, zorionez, immigrazioaren eta aniztasunaren gaiak ez daudelako euskal gizartearen «arazoen» agendan, Europako beste leku batzuetan ez bezala? Izan liteke, eta hori albiste ona izango litzateke, noski.

Baina gizarte prozesuek aurrera egiten dute, eta baliteke hemendik gutxira Euskadiko aniztasunaren kurba sigmoidea bere inflexio puntura hurbiltzea eta jaisten hasia. Aukera horren aurrean, hain zuzen ere, gaur egun argazkian ondo ateratzen garelako, aparteko gauzarik egin beharrik ez dagoela ematen duelako, indarberritu egin beharko ginateke, eta auzia gure giza elkarriketaren erdigunean jarri. Betiere, *Migraziorako Euskal Itun Sozialaren* 1. puntuari adierazten den arauzko nahiaren arabera gidatuta.

Etorकिनak ez dira “Gure arteko Beste hori”. Izan ere, oraintxe bertan guztion artean eraikitzen ari garen etorkizuneko euskal “Gu” horren parte dira. Egia esan, Euskadin beti izan dira “gu” asko. Gaur egun, gutxieneko gu zibiko bat eraiki beharra dugu, gure herrialdean sustraituta dauden edo errotu daitezkeen “gu” batzuegan nabarmen eragiteari uko eginez. Aniztasunaren kudeaketa demokratikoak identitate konbinazioak artikulatzea eskatzen du gaur egun. Nortasun zibikoa, partaidetza politikotik datorrena, espazio minimo, zabal eta

⁴ Eskola publikoa da immigrazioa bere gain hartzen duena, baina baliabiderik gabe. https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/escuela-publica-asume-inmigracion-medios_1_2809174.html

⁵ Etorकिन ‘gainordezkapenaren’ mitoa DSBEEn. https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/mito-sobrerrepresentacion-inmigrantes-rgi_1_2550627.html

⁶ Lehendakaria, legez kanpoko immigrazioa eta txirotasun sozialdemokrata <https://latribunadelpaisvasco.com/art/11555/el-lehendakari-la-inmigracion-ilegal-y-la-inopia-socialdemocrata>

⁷ Añorga Txikiren garapenak erabileran duen eragina salatu dute. <https://www.diariovasco.com/san-sebastian/denuncian-impacto-desarrollo-20210615000135-ntvo.html>

⁸ Gizarte kohesionatuagoa lortzeko Immigraziorako Itun Sozial bat abian jarri du Eusko Jaurlaritzak. https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritzaz//contenidos/noticia/pacto_social_inmigracion/eu_pactosoc/pacto_social_inmigracion.html

⁹ Migraziorako Euskal Itun Soziala. Elkarbizitzaren aldeko konpromezua. <https://www.euskadi.eus/migraziorako-euskal-itun-soziala-elkarbizitzaren-aldeko-konpromezua/web01-s2enple/eu/>

ireki gisa antolatu beharko da, identitate anitzak konbinatu ahal izateko. Garrantzitsuena da egoitza faktikoa Euskadin duten pertsona guztiek gaur egungo “gu” osatzen dutela, eta ezin dela alegatu aldi baterako edo arrazoi historikorik elkarbizitzarako parametro identitarioak ezartzeko. Bizikidetzak tentsioa sortuko du etengabe “gure” eta “beraien” artean, zeinen gainean artikulatzen baititugu gure giza harremanak, baina “gu” ofiziala, gutxienekoa eta malgua eraikitzean, denek dute parte hartzeko eskubidea.

Bibliografia

- Bauman, Zygmunt. (2002). *Modernidad líquida*. Fondo de Cultura Económica.
- Bauman, Zygmunt. (2006). *Confianza y temor en la ciudad: Vivir con extranjeros*. Arcadia.
- Bauman, Zygmunt. (2016). *Extraños llamando a la puerta*. Paidós.
- Baumann, Gerd. (2001). *El enigma multicultural*. Paidós.
- Berger, Peter, Berger, B. eta Kellner, Hansfried. (1979). *Un mundo sin hogar: Modernización y conciencia*. Sal Terrae.
- Berger, Peter eta Luckmann, Thomas. (1997). *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido: La orientación del hombre moderno*. Paidós.
- Burke, Meghan. (2012). *Racial Ambivalence in Diverse Communities: Whiteness and the Power of Color-Blind Ideologies*. Lexington Books.
- Burke, Meghan. (2018). *Colorblind Racism*. Polity Press.
- Delsol, Chantal. (2015). *Populismos: Una defensa de lo indefendible*. Ariel.
- Elias, Norbert. (1993). *El proceso de la civilización*. Fondo de Cultura Económica.
- Elias, Norbert eta Scotson, John. (2016). *Establecidos y marginados: Una investigación sociológica sobre problemas comunitarios*. Fondo de Cultura Económica.
- Eusko Jaurlaritz. (2019). *Pacto Social Vasco para la Migración*. <https://www.euskadi.eus/pacto-social-vasco-para-la-migracion-un-compromiso-comun-por-la-convivencia/web01-s2enple/es/>

- Fernández Buey, Francisco. (1995). *La barbarie: De ellos y de los nuestros*. Paidós.
- Fetscher, Iring. (1994). *La tolerancia: Una pequeña virtud imprescindible para la democracia*. Gedisa.
- Finkelkraut, Alain. (2001). *La ingratitud: Conversación sobre nuestro tiempo*. Anagrama.
- Galeano, Eduardo. (1992). *Ser como ellos y otros artículos*. Siglo XXI.
- Gest, Justin, Reny, Tayler eta Mayer, Jeremy. (2017). Roots of the Radical Right: Nostalgic Deprivation in the United States and Britain. *Comparative Political Studies*, 51(13), 1694–1719.
- Giddens, Anthony. (1991). *Sociología*. Alianza Editorial.
- Giddens, Anthony. (1995). *Modernidad e identidad del yo*. Península.
- Giner, Salvador. (1998). Verdad, tolerancia y virtud republicana. In M. Cruz (bild.), *Tolerancia o barbarie* (119-139). Gedisa.
- Goodhart, David. (2004). Too diverse? *Prospect*, February 20.
- Goodhart, David. (2017). *The Road to Somewhere: The New Tribes Shaping British Politics*. Penguin Random House.
- Guilluy, Christophe. (2018). *No society: El fin de la clase media occidental*. Taurus.
- Handy, Charles. (1996). *La edad de la paradoja*. Apóstrofe.
- Hochschild, Arlie. (2018). *Extraños en su propia tierra*. Capitán Swing.
- Ignatieff, Michael. (2018). *Las virtudes cotidianas*. Taurus.
- Ikuspegi. (2020). *Barómetro 2020. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_cas.pdf
- Izaola, Amaia eta Zubero, Imanol. (2015). La cuestión del otro: forasteros, extranjeros, extraños y monstruos. *Papers*, 100(1), 105-129.
- Jahanbegloo, Ramin. (2007). *Elogio de la diversidad*. Arcadia.
- Kapusiński, Ryszard. (2007). *Encuentro con el Otro*. Anagrama.

- Kaufmann, Jean Claude. (2015). *Identidades, una bomba de relojería*. Ariel.
- Kribbe, Hans. (2020). *The Strongmen: European Encounters with Sovereign Power*. McGill-Queen's University Press.
- Lertxundi, Anjel. (2010). *Vida y otras dudas*. Alberdania.
- Linton, Ralph. (1976). *Cultura y personalidad*. Fondo de Cultura Económica (7ª).
- Maalouf, Amin. (1999). *Identidades asesinas*. Alianza.
- Martín, David. (2017). *El pueblo gitano en Euskal Herria*. Txalaparta.
- Moreras, Jordi. (2018). *Identidades a la intemperie: Una mirada antropológica a la radicalización en Europa*. Bellaterra.
- Nancy, Jean Luc. (1996). La existencia exiliada. *Archipiélago* 26-27, 34-40.
- Oz, Amos. (2003). *Contra el fanatismo*. Siruela.
- Rorty, Richard. (1999). *Forjar nuestro país. El pensamiento de izquierdas en los Estados Unidos del siglo XX*. Paidós.
- Salmerón, Fernando. (1998). *Diversidad cultural y tolerancia*. Paidós.
- San Román, Teresa. (2000). *La diferencia inquietante: Viejas y nuevas estrategias culturales de los gitanos*. Siglo XXI.
- Schutz, Alfred eta Luckmann, Thomas. (1977). *Las estructuras del mundo de la vida*. Amorrortu.
- Vertovec, Steven. (2007). Super-diversity and its implications. *Ethnic and Racial Studies*, 30(6), 1024-1054.
- Volkoff, Vladimir. (1984). *Elogio de la diferencia: El complejo de Procusto*. Tusquets.
- Wolff, Robert Paul, Moore Jr., Barrington eta Marcuse, Herbert. (1965). *A Critique of Pure Tolerance*. Beacon Press.
- Zubero, Imanol. (2008). Construcción y deconstrucción de extraños en el ámbito local: de las identidades predatoras a las identificaciones dialogantes. In S. Fleury, J. Subirats eta I. Blanco (ed.). *Respuestas locales a inseguridades globales. Innovación y cambios en Brasil y España* (25-56. or.). Fundació CIDOB.

Zubero, Imanol. (2012). Violencia, política e identidad. *Constelaciones. Revista de Teoría Crítica*, 4(4), 325–341.

Zubero, Imanol. (2015). Desamparo, populismo y xenofobia. *Revista Española del Tercer Sector*, 31, 89-117.

Zubero, Imanol eta Inerarity, Daniel. (2011). Un pacto social por la inmigración. *El Correo*, abenduak 20.

Eranskina: galdetegia

Egun on / Arratsalde on. Ikuspegi ikerketa bat ari da egiten Euskadiko biztanleek kolektibo jakinei buruz dituzten iritzien inguruan. Zure lankidetzaren behar dugu galdera batzuei erantzuteko, horrela gure gizartearen hobeto ezagutu eta, oro har, hobetu dezagun. Har ezazu kontuan ez dagoela erantzun zuzen edo okerrik; zure iritzia eman behar duzu.

1. Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizarretan bizi nahiko zenuke? (IRAKURRI).

Jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarre batean	1
Jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarre batean	2
Ed	0
Ee	99

2. Legeak aplikatzeko orduan, zure ustez Euskadin tratatu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?

Pertsona guztiei tratatu berdina ematen zaie	1
Desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera	2
Ed	0
Ee	99

3. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat legeak aplikatu behar zaizkionean? (BAT-BATEKOA: EZ IRAKURRI)

	3G	4G
Emakumea izatea	1	1
Gizona izatea	2	2
Atzerriarra izatea	3	3
Ijitoa izatea	4	4
Gaztea izatea	5	5
Adinekoa izatea	6	6
Katolikoa izatea	7	7
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	8	8
Gay, lesbiana edo bisexuala izatea	9	9
Transexuala edo transgeneroa izatea	10	10
Heterosexuala izatea	11	11
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizi izatea	12	12
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	13	13
Prestakuntza txikia izatea	14	14
Desgaitasun fisiko edo sentzoriala izatea	15	15
Desgaitasun intelektuala izatea	16	16
Gaixotasun mental bat izatea	17	17
Langabezian egotea	18	18
Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea	19	19
Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein?	20	20
Ed	0	0
Ee	99	99

4. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat legeak aplikatu behar zaizkionean? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan. (ERAKUTSI 1. TXARTELA. MARKATU ELKARRIZKETATUAK AIPATUTAKO GUZTIAK).

5. Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdina zerbitzu publikoak jasotzeko, adibidez hezkuntza eta osasuna, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdina zerbitzu horiek jasotzeko?

Pertsona guztiek aukera berdina dituzte zerbitzu publikoak jasotzeko	1
Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdina zerbitzu publikoak jasotzeko	2
Ed	0
Ee	99

6. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat zerbitzu publikoak jasotzeko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan. (ERAKUTSI 1. TXARTELA. MARKATU ELKARRIZKETATUAK AIPATUTAKO GUZTIAK).

Emakumea izatea	1
Gizona izatea	2
Atzerriarra izatea	3
Ijitoa izatea	4
Gaztea izatea	5
Adinekoa izatea	6
Katolikoa izatea	7
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	8
Gay, lesbiana edo bisexuala izatea	9
Transexuala edo transgeneroa izatea	10
Heterosexuala izatea	11
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizi izatea	12
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	13
Prestakuntza txikia izatea	14
Desgaitasun fisiko edo sentzoriala izatea	15
Desgaitasun intelektuala izatea	16
Gaixotasun mental bat izatea	17
Langabezian egotea	18
Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea	19
Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein?	20
Ed	0
Ee	99

7. Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan?

Pertsona guztiek aukera berdina dituzte etxebizitza bat alokatzeko orduan	1
Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdina etxebizitza bat alokatzeko orduan	2
Ed	0
Ee	99

8. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat etxebizitza bat alokatzeko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan. (ERAKUTSI 1. TXARTELA. MARKATU ELKARRIZKETATUAK AIPATUTAKO GUZTIAK).

Emakumea izatea	1
Gizona izate	2
Atzeritarra izatea	3
Ijitoa izatea	4
Gaztea izatea	5
Adinekoa izatea	6
Katolikoa izatea	7
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	8
Gay, lesbiana edo bisexuala izatea	9
Transexuala edo transgeneroa izatea	10
Heterosexuala izatea	11
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea	12
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	13
Prestakuntza txikia izatea	14
Desgaitasun fisiko edo sensoriala izatea	15
Desgaitasun intelektuala izatea	16
Gaixotasun mental bat izatea	17
Langabezian egotea	18
Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea	19
Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein?	20
Ed	0
Ee	99

9. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiak dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan? (IRAKURRI)

Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte lanpostu baterako hautatuak izateko orduan	1
Pertsona guztiak ez dituzte aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan	2
Ed	0
Ee	99

10. Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan. (ERAKUTSI 1. TXARTELA. MARKATU ELKARRIZKETATUAK AIPATUTAKO GUZTIAK).

Emakumea izatea	1
Gizona izatea	2
Atzeritarra izatea	3
Ijitoa izatea	4
Gaztea izatea	5
Adinekoa izatea	6
Katolikoa izatea	7
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	8
Gay, lesbiana edo bisexuala izatea	9
Transexuala edo transgeneroa izatea	10

Heterosexuala izatea	11
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea	12
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	13
Prestakuntza txikia izatea	14
Desgaitasun fisiko edo sensoriala izatea	15
Desgaitasun intelektuala izatea	16
Gaixotasun mental bat izatea	17
Langabezian egotea	18
Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea	19
Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein?	20
Ed	0
Ee	99

11. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiak aukera berdinak dituztela erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?

Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan	1
Pertsona guztiak ez dituzte aukera berdinak erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan	2
Ed	0
Ee	99

12. Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan. (ERAKUTSI 1. TXARTELA. MARKATU ELKARRIZKETATUAK AIPATUTAKO GUZTIAK).

Emakumea izatea	1
Gizona izatea	2
Atzeritarra izatea	3
Ijitoa izatea	4
Gaztea izatea	5
Adinekoa izatea	6
Katolikoa izatea	7
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	8
Gay, lesbiana edo bisexuala izatea	9
Transexuala edo transgeneroa izatea	10
Heterosexuala izatea	11
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea	12
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	13
Prestakuntza txikia izatea	14
Desgaitasun fisiko edo sensoriala izatea	15
Desgaitasun intelektuala izatea	16
Gaixotasun mental bat izatea	17
Langabezian egotea	18
Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea	19
Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein?	20
Ed	0
Ee	99

13. Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ez-argari pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo gutziz ezohikoa da diskriminazioa edo tratatu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta? (ERAKUTSI 2. TXARTELA).

	OO	NO	E	GE	Ed	Ee
Sexua/generoa	1	2	3	4	0	99
Etnia- edo arraza-jatorria	1	2	3	4	0	99
Nazionalitatea	1	2	3	4	0	99
Orientazio sexuala	1	2	3	4	0	99
Sexu- edo genero-identitatea	1	2	3	4	0	99
Adina	1	2	3	4	0	99
Erlijioa edo sinesmen erlijiosoak	1	2	3	4	0	99
Itxura fisikoa	1	2	3	4	0	99
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	1	2	3	4	0	99
Desgaitasun fisikoa eta/edo sentzoriala izatea	1	2	3	4	0	99
Desgaitasun intelektuala izatea	1	2	3	4	0	99
Gaixotasun mental bat izatea	1	2	3	4	0	99
Klase soziala	1	2	3	4	0	99
Langabezian egotea	1	2	3	4	0	99
Fisikoa (obesitatea)	1	2	3	4	0	99

14. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea? (ERAKUTSI 3. TXARTELA).

	O	N	Z	G	E	Ed	Ee
Immigranteak	1	2	3	4	5	0	99
Gayak, lesbianak edo bisexualak	1	2	3	4	5	0	99
Transexualak edo transgeneroak	1	2	3	4	5	0	99
Musulmanak	1	2	3	4	5	0	99
Ijitoak	1	2	3	4	5	0	99
Adinekoak	1	2	3	4	5	0	99
Desgaitasun fisiko eta/edo sentzoriala duten pertsonak	1	2	3	4	5	0	99
Desgaitasun intelektuala duten pertsonak	1	2	3	4	5	0	99
Gaixotasun mentala duten pertsonak	1	2	3	4	5	0	99
Klase sozial baxuko pertsonak	1	2	3	4	5	0	99
Pertsona langabetuak	1	2	3	4	5	0	99
Pertsona gizenak	1	2	3	4	5	0	99

15. Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek, 0tik 10era bitarteko eskalan, kontuan hartuta 0 erabat gaitzestea dela eta 10 erabat onestea (ERAKUTSI 4. TXARTELA).

	EG										EO										Ed	Ee		
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek Espainian jaiotako pertsona bat kontratatzea immigrante bat baino lehen	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek gizon bat kontratatzea emakume bat baino lehen	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Seme-alabak dituen emakume bati zuzendaritzako edo erantzukizuneko postu bat ematea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek desgaitasuna duen pertsona bat kontratatzea desgaitasunik ez duen pertsona bat baino lehen	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Arraza-jatorri ezberdineko bi pertsonak seme-alabak edukitzea elkarrekin	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Bikotekiderik gabeko emakume batek seme-alabak edukitzea erabakia hartzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
30 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 50 langiletik gorako enpresa edo sail bat zuzentzeko	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Enpresa batek 55 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 55 urtetik gorako bat baino lehen	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Emakume musulmanek beloa jantzita eramatea kalean eta espazio publikoetan	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
GIB/hiesa duen pertsona batek bulego batean egitea lan, beste pertsona batzuekin	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Bizi zaren auzoan meskita bat eraikitzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Gizon moduan jaio eta emakume den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Zure auzoan etxebizitza sozial/publikoen bloke bat eraikitzea (BOE)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99
Zure auzoan balibide instituzionalak ezartzea txiroei edo balibiderik gabeko pertsonen laguntzeko	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	99

16. Edonola ere, esango zenuke gure lege-esparruak, hau da, legeak, jokabide hauek onartzen dituen edo ez?

	Onartzen du	Ez du onartzen	Ed	Ee
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek Espainian jaiotako pertsona bat kontratatzea immigrante bat baino lehen	1	2	0	99
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek gizon bat kontratatzea emakume bat baino lehen	1	2	0	99
Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek desgaitasuna duen pertsona bat kontratatzea desgaitasunik ez duen pertsona bat baino lehen	1	2	0	99
Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea	1	2	0	99
Arraza-jatorri ezberdineko bi pertsonak seme-alabak edukitzea elkarrekin	1	2	0	99
Bikotekiderik gabeko emakume batek seme-alabak edukitzea erabakia hartzea	1	2	0	99
Haurdun dagoen emakume bat kaleratzea edo ez kontratatzea	1	2	0	99
Gayak, lesbianak edo bisexualak haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea	1	2	0	99
30 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 50 langiletik gorako enpresa edo sail bat zuzentzeko	1	2	0	99
Enpresa batek 55 urtetik beherako pertsona bat kontratatzea, 55 urtetik gorako bat baino lehen	1	2	0	99
Emakume musulmanek beloa jantzita eramatea kalean eta espazio publikoetan	1	2	0	99
Bizi zaren auzoan meskita bat eraikitzea	1	2	0	99
Gizon moduan jaio eta emakume den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz)	1	2	0	99

17. Oñik 10era bitarteko eskala erabilita, esan dezakezu zenbateraino egongo zinatekeen eroso (10) edo deseroso (0) Eusko Jaurilaritza zuzentzen duen pertsona honelakoa balitz?:

	Deseroso										Eroso										Ed	Ee		
Emakumea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Gay, lesbiana edo bisexuala	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Herritarren gehiengoarena ez den jatorri etniko batekoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
30 urtetik beherakoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Herritarren gehiengoarena ez den erlijio batekoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Desgaitasuna duen pertsona	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
75 urtetik gorakoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Transgenero edo transexuala	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Obesitate duen pertsona	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
Haurdun dagoen emakumea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99

18. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?

	Bai	Ez	Ed	Ee
Atzerritarra	1	2	0	99
Ijitoa	1	2	0	99
Homosexuala (gay, lesbiana), bisexuala, transexuala, transgeneroa	1	2	0	99
Desgaitasun bat duena	1	2	0	99
Beste erlijio batekoa, musulmana, judua	1	2	0	99
Txiroa edo baliabide ekonomiko gutxikoa	1	2	0	99

19. Jatorri desberdina duten pertsonen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

	Batere tolerantzia										Oso tolerantzia										Ed	Ee		
19. Arrazakeria (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
20. Arrazakeria (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
21. Matxismoa (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
22. Matxismoa (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
23. Antigitanismoa (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
24. Antigitanismoa (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
25. Islamofobia (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
26. Islamofobia (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
27. Homofobia (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
28. Homofobia (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
29. Feminismoa (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
30. Feminismoa (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
31. Aporofobia (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
32. Aporofobia (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
33. Lodiobia (pertsonala)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99
34. Lodiobia (gizartea)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	88	99

20. Ildo beretik, non kokatuko zenuke euskal gizartea jatorri desberdina duten pertsonen kolektiboaren eskalan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

21. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?

22. Matxismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere matxista" eta 10 "oso matxista" direla?

23. Ijitoen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

24. Ildo beretik, non kokatuko zenuke euskal gizartea ijitoen kolektiboaren eskalan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

25. Erlijiozat islama duten pertsonen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

26. Eta erlijiozat islama duten pertsonen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

27. LGTBI kolektiboaren pertsonen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

28. Ildo beretik, non kokatuko zenuke euskal gizartea LGTBI kolektiboaren pertsonen kolektiboaren eskalan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

29. Feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla?

30. Eta feminismoaren eskalan, non kokatuko zenuke euskal gizartea, kontuan hartuta 0 "batere feminista" eta 10 "oso feminista" direla?

31. Txiroen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

32. Ildo beretik, non kokatuko zenuke euskal gizartea txiroen kolektiboaren eskalan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

33. Obesitatearen duten pertsonen kolektiboaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

34. Ildo beretik, non kokatuko zenuke euskal gizartea obesitatearen duten pertsonen kolektiboaren eskalan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?

35. Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako batek? (Erakutsi 5. TXARTELA). Ez bada inoiz edozein arrazoi dela-eta diskriminatuta sentitu (35. galderan dena 4 erantzun badu), joan zaitez zuzenean 42. galderara. Edozein arrazoi dela-eta, "askotan", "zenbaitetan" edo "ia inoiz ez" erantzun badu, joan 36. galderara eta hurrengoetara.

	A	Z	IIE	IEE	Ed	Ee
Sexuagatik (emakumea edo gizona izateagatik)	1	2	3	4	0	99
Etnia- edo arraza-jatorriagatik	1	2	3	4	0	99
Nazionalitateagatik edo jatorriagatik	1	2	3	4	0	99
Genero-identitateagatik / orientazio sexualagatik	1	2	3	4	0	99
Adinagatik (gaur egungoa)	1	2	3	4	0	99
Erlijioagatik edo sinesmen erlijiosoagatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik)	1	2	3	4	0	99
Baliabide ekonomiko gutxi izateagatik	1	2	3	4	0	99
Desgaitasun bat izateagatik	1	2	3	4	0	99
Gehiegizko pisua/obesitatea edukitzeagatik	1	2	3	4	0	99
Auzo edo udalerri degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik	1	2	3	4	0	99
Haurdun egoteagatik	1	2	3	4	0	99

36. Eta, zehazki, zergatik sentitu zara diskriminatuta azken 12 hilabeteetan? (Erakutsi 5. TXARTELA). (Ez bada inoiz edozein arrazoi dela-eta diskriminatuta sentitu -36. galderan dena 4 erantzun badu-, joan zaitez zuzenean 42. galderara. Edozein arrazoi dela-eta, "askotan", "zenbaitetan" edo "ia inoiz ez" erantzun badu, joan 37. galderara eta hurrengoetara.)

	A	Z	IIE	IEE	Ed	Ee
Sexuagatik (emakumea edo gizona izateagatik)	1	2	3	4	0	99
Jatorri etnikoagatik edo arrazagatik	1	2	3	4	0	99
Nazionalitateagatik edo jatorriagatik	1	2	3	4	0	99
Genero-identitateagatik / orientazio sexualagatik	1	2	3	4	0	99
Adinagatik (gaur egungoa)	1	2	3	4	0	99
Erlijioagatik edo sinesmen erlijiosoagatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik)	1	2	3	4	0	99
Baliabide ekonomiko gutxi izateagatik	1	2	3	4	0	99
Desgaitasun bat izateagatik	1	2	3	4	0	99
Gehiegizko pisua/obesitatea edukitzeagatik	1	2	3	4	0	99
Auzo edo udalerri degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik	1	2	3	4	0	99
Haurdun egoteagatik	1	2	3	4	0	99

37. Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta? (ERAKUTSI 6. TXARTELA) Markatu elkarrizketatutako pertsonak adierazitako esparru guztiak.

	Lana	Hezkuntza	Zerbitzu publikoak jasotzea	Administrazio publikoko arreta	Poliziaren tratuera	Politikan eta edo gizartearen parte hartzea	Garraio publikoa	Dendetan sartzea	Aisialdirako tokietan sartzea (tabernak, jate-txeak edo diskoteak)	Familia barruan	Lagunen eta ezagunen artean	Auzoan edo komunitatean	Kalean	Beste toki edo esparru batean (zehaztu)	ED	EE
Sexuagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Etnia- edo arraza-jatorriagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Nazionalitateagatik edo jatorriagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Genero-identitateagatik / orientazio sexualagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Adinagatik (gaur egungoa)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Erlijoagatik edo sinesmen erlijiosoengatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Baliabide ekonomiko gutxi izateagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Desgaitasun motaren bat izateagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Gehiegizko pisua / obesitatea edukitzeagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Auzo edo udalerrri degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Haurdun egoteagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99

38. Egin edo jarri al zenuen inolako kexa, erreklamazio formal edo salaketarik diskriminazio-egoera hori zela-eta?

Bai	1	40. galderara joan
Ez	2	39. galderara joan eta gero 42. galderara
ED	0	42. galderara joan
EE	99	42. galderara joan

39. Zergatik ez zenuen kexa formalik edo salaketarik egin diskriminazio-egoera hori zela-eta? (ERAKUTSI 7. TXARTELA) (gehienez ere 2 erantzun)

Non edo nola egin ez jakiteagatik	1
Ez duelako ezertarako balio	2
Errepresaliekiko beldurragatik	3
Ez zelako oso larria izan	4
Burokraziagatik, eragozpenengatik, gastuengatik	5
Normala eta ohikoa delako, maiz gertatzen delako	6
Bestelako arrazoiengatik. Zein? _____	7
Ed	0
Ee	99

40. Zein organismo edo erakundetan jakinarazi edo salatu duzu diskriminazio-egoera? (ERAKUTSI 8. TXARTELA). (Jaso aipatzen dituen guztiak)

Hierarkian gorago dagoen norbati	1
Poliziarri	2
Abokatu bati	3
Epaitegiei, fiskaltzari	4
Sindikatu bati	5
GKE edo elkarte bati	6
Berdintasunaren arloko erakunde publiko bati	7
Beste batzuk. Zein? _____	8
Ed	0
Ee	99

41. Zein neurritan zaude asebeteta ebazpenaren azken emaitzarekin? 0 "baterre asebeteta" eta 10 "erabat asebeteta". (ERAKUTSI 9. TXARTELA)

Baterre asebeteta										Erabat asebeteta										T	Ed	Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	77	88	99

42. (Pertsona guztiei) Diskriminazio-egoera bat pairatuko bazenu (edo berriz pairatuko bazenu), nori jakinaraziko zenioke? Nori lehenik? Eta nori bigarrenik? (ERAKUTSI 8. TXARTELA).

	Lehenengo aukera	Bigarren aukera
Hierarkian gorago dagoen norbati	1	1
Poliziarri	2	2
Abokatu bati	3	3
Epaitegiei, fiskaltzari	4	4
Sindikatu bati	5	5
GKE edo elkarte bati	6	6
Berdintasunaren arloko erakunde publiko bati	7	7
Beste batzuk. Zein? _____	8	8
Ed	0	0
Ee	99	99

43. Zure egoera pertsonala gorabehera, ikusi edo entzun al duzu azken 12 hilabeteetan zure ingurukoren batek honako arrazoi hauetako bat dela-eta diskriminazioa jasan duela? (GUZTIAK IRAKURRI) (Ez baldin badu arrazoi horrengatik diskriminaziorik ikusi edo entzun -43. galderan dena 2 erantzun badu-, joan 45. galderara. Arrazoiaren bat dela-eta baietz erantzun badu, joan 44. galderara.)

	Bai	Ez	Ed	Ee
Sexuagatik (emakumea edo gizona izateagatik)	1	2	0	99
Etnia- edo arraza-jatorriagatik	1	2	0	99
Nazionalitateagatik edo jatorriagatik	1	2	0	99
Genero-identitateagatik / orientazio sexualagatik	1	2	0	99
Adinagatik (gaur egungoa)	1	2	0	99
Erlijoagatik edo sinesmen erlijiosoengatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik)	1	2	0	99
Baliabide ekonomiko gutxi izateagatik	1	2	0	99
Desgaitasun motaren bat izateagatik	1	2	0	99
Gehiegizko pisua / obesitatea edukitzeagatik	1	2	0	99
Auzo edo udalerrri degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik	1	2	0	99

44. Zein esparru edo egoeratan ikusi edo entzun duzu zure ingurukoren batek diskriminazioa jasan duela honako arrazoi hauetako bat dela-eta? (ERAKUTSI 6. TXARTELA) Markatu elkarriketatutako pertsonak adierazitako esparru guztiak.

	Lana	Hezkuntza	Zerbitzu publikoak jasotzea	Administrazio publikoko arreta	Poliziaren tratuera	Politikan eta/edo gizartearen parte hartzea	Garriko publikoa	Dendatan sartzea	Aisialdirako tokietan sartzea (tabernak, jatetxeak edo diskotekak)	Familia barruan	Lagunen eta ezagunen artean	Auzoan edo komunitatean	Kalean	Beste toki edo esparru batean (zenaztu)	ED	EE
Sexuagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Etnia- edo arraza-jatorriagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Nazionalitateagatik edo jatorriagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Genero-identitateagatik / orientazio sexualagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Adinagatik (gaur egungoa)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Erljiogatik edo sinesmen erlijiosoengatik (edo sinesmen erlijiosorik ezagatik)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Baliabide ekonomiko gutxi izateagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Desgaitasunen bat izateagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Gehiegizko pisua / obesitatea edukitzeagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Auzo edo udalerrri degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99
Haurdun egoteagatik	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	0	99

45. Ezagutzen al dituzu diskriminazioaren biktima gisa dituzun eskubideak?

Bai	1
Ez	2
(EZ IRAKURRI) Segun	3
Ed	0
Ee	99

46. Ba al duzu honako hauen berri?

	Bai	Ez	Ed	Ee
a) Eraberean	1	2	0	99
b) Berdindu	1	2	0	99
c) Emakunde	1	2	0	99
d) Migrazioako Euskal Itun Soziala	1	2	0	99

47. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko? (GUZTIAK IRAKURRI).

	Bai	Ez	Ed	Ee
Emakumeen eta zizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko	1	2	0	99
Desgaitasuna duten pertsonak gizartearen erabat integratzeko	1	2	0	99
Immigranteak gizartearen erabat integratzeko	1	2	0	99
Gayak, lesbianak eta bisexualak diskriminatuak ez izateko	1	2	0	99
Transsexualak edo transgeneroak diskriminatuak ez izateko	1	2	0	99
Sinesmen erlijioso guztiarik pertsonak beren fedea agertu ahal izateko	1	2	0	99
Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko	1	2	0	99

SOZIODEMOGRAFIKOAK

A. Sexua/generoa

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2
Beste bat (ez-bitarra)	3

B. Zenbat urte egin dituzu azken urtebetetzean?

--	--

C. Zer pertsona bizi dira zure etxean?

Pertsona bakarra	1
Bikotea seme-alabarik gabe	2
Bikotea eta seme-alabak	3
Ama edo aita eta seme-alabak	4
Bikotea, seme-alabak eta familiako beste kide batzuk	5
Bestelako ahaidetasun-erlazio batzuk dituzten pertsonak	6
Ahaidetasun-erlazioak gabeko pertsonak	7
Ahaidetasun-erlazioa duten eta ez duten pertsonak	8
Ez daki / Ez du erantzun	0

D. Zein da zure egoera zibila?

Ezkongabea	1
Ezkondua	2
Izatezko bikotea	3
Alarguna	4
Banandua	5
Dibortziatua	6
Ed/ Ee	0

E. Zein herrialdetan jaio zinen?

Espainia	1
Beste bat (adierazi) _____	2
Ed/Ee	0

F. Zein nazionalitate duzu?

Espainiarra bakarrik	1
Espainiarra eta beste bat	2
Beste bat bakarrik	3
Ed/Ee	0

G. Non jaio ziren zure gurasoak (aita/ama)?

Biak Espainian	1
Bat Espainian eta bestea atzerrian	2
Biak atzerrian	3
Ed/Ee	0

H. Zein da zure ama-hizkuntza?

Gaztelania	1
Euskara	2
Beste bat. Zein?	3
Ed/Ee	0

I. Zer ikasketa dituzu? (Mailarik handienekoa bakarrik adierazi).

Ikasketarik gabea	1
Lehen Hezkuntza / Eskola-graduata / OHO	2
DBH / Oinarriko Batxilergoa, Lanbide H. 1	3
Goi-mailako Batxilergoa / Goi-mailako zikloak / Lanbide H. II	4
Erdi-mailako tituluak	5
Goi-mailako tituluak	6
Ed/Ee	0

J. EAEko probintzia

Bizkaia	1
Gipuzkoa	2
Araba	3

K. Habitat:

5.000 biztanle edo gutxiago	1
5.001 - 20.000 biztanle	2
20.001 - 150.000 biztanle	3
Hiriburua	4
Ed/Ee	0

Orain, galdera pertsonalagoak egingo dizkizugu. Deseroso sentiarazten bazaituzte, ez dituzu erantzun behar. Galdera hauen helburua da Euskadiko hainbat kolektiboren egoeraren diagnostiko hobea egitea. Hau da, euskal gizartea hobetzeko helburuz egiten ditugu.

L. Nola definitzen duzu zeure burua erlijioari dagokionez?

Katoliko praktikantea	1
Katoliko ez-praktikantea	2
Beste erlijio batekoa. Zein?	3
Agnostikoa, ateo edo berdin dizu	4
Ed/Ee	0

M. Zure orientazio sexualari dagokionez, honako zein baieztatapenekin sentitzen zara identifikatuen?

Sexu bereko pertsonen erakartzen zaituzte	1
Beste sexuko pertsonen erakartzen zaituzte	2
Edozein sexutako pertsonen erakartzen zaituzte	3
Ed/Ee	0

N. Bizi zaren tokia aintzat hartuz (Euskadi), zeure burua kolektibo hauetako baten kideztat duzu? IRAKURRI. Erantzun anitzeko galdera da.

Gutxiengo etniko batekoa	1
Gutxiengo erlijioso batekoa	2
Gutxiengo sexual batekoa	3
Desgaitasuna duten pertsonen kolektibokoa	4
Beste motaren bateko gutxiengo batekoa. Zehaztu zein.	5
Ez zara inongo gutxiengorekin identifikatuta sentitzen	6
Ed/Ee	0

O. Eta zehazkiago, honako zerrenda honetako kategoriaren batean kokatuko zenuke zeure burua? (ERAKUTSI 10. TXARTELA)

Ijitoa	1
Arraza-marka duen pertsona (beltza, arabiarra, txinatarra)	2
Gay edo lesbiana	3
Bisexuala	4
Transsexuala	5

Intersexuala	6
Queer	7
Asexuala	8
Transgeneroa	9
Aurreko bat ere ez	10
Ed/Ee	0

P. Zure etxean, zenbateko diru-sarrerara garbiak izaten dituzue hilean, gutxi gorabehera, kontzeptu guztiak kontuan hartuta? Ez duzu kopuru zehatz bat eman behar; nahikoa da tarte hauetako bat aukeratzea:

650 euro arte	1
651 eta 1.700 euro bitartean	2
1.701 eta 2.800 euro bitartean	3
2.801 eta 5.000 euro bitartean	4
5.000 euro baino gehiago	5
Ed/Ee	0

Q. Zure etxeko egoera ekonomikoaren harira... zein mailatan sailkatuko zenituzke zure etxeko diru-sarrerak? GUZTIAK IRAKURRI

Baxua	1
Ertain-baxua	2
Ertaina	3
Ertain-altua	4
Altua	5
Ed/Ee	0

R. Zure lan-egoerari dagokionez, zein da zure egoera une honetan?

Ordaindutako lana dut	1
Langabea	2
Erretiratua, jubilatua, pentsionista, ezindua	3
Ikaslea	4
Etxeko lanak	5
Beste bat. Zehaztu	6
Ed/Ee	0

S. Zure ideologia politikari dagokionez, non kokatuko zenuke zeure burua 0tik 10erako eskala batean, kontuan hartuta 0 "ezker-muturrekoa" eta 10 "eskuin-muturrekoa" dela?

Ezkerra	Eskuina										Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

Izena: _____

Telefona: _____

Udalerrria: _____

ADIERAZI DATU HORIEK ELKARRIZKETA BENETAN EGIN DELA EGIAZTATZEKO ESKATU ZAIZKIOLA.



**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración